


BARANDIARAN'dar Jose Migel

Euskal-kulturaren Aitalen



Barandiaran eta Irizar'tar Luis



BARANDIARAN ETA IRIZAR-TAR LUIS
BARANDIARAN-dar JOSE MIGEL
Euskal-kulturaren aitalen

Liburu onen egille, D. Luis Barandiaran eta Irizar jauna, D. Jose Migelen illoba ta oso etxekoa, Soraluze-n (Placencia de las Armas) jaio zan 1921' gn Urrillak 2: baiño bere bizitza, ia osorik, Gazteizen igaro du: jaio zanetik illabete gutxira, bere gurasoak uri artara aldatu bait ziran. Gazteizen azi ta ezi zan.

Apaiz egin zanetik, parroki-lanean urte batzuk egin bazituen ere, bi bidetara jo zuen bere egimenak: irakaskintza ta idazkaritza-bideetara. Bat bezela bestea, ere gaztediarentzat. Bi bide oietaz kanpo, itzaldi asko eman ditu —gazteen-tzat bereziki— ikasaldietan, bai España-n eta bai beste nazioetan.

Irakasle bezela, amalau urte eman ditu; Tuy-Vigo-ko Seminarioan lau, eta beste amarrak, Gazteizko "Ramiro de Maeztu" Institutoan eta A.T.S. Ikastetxean, Erdi-Irakaskuntzaren Irakasle izanik.

Idazkari-alorrean, sei liburu argitaratu ditu, gai ta idazkera ezberdiñekoak: entsegu, olerki, ele-berri, gazte-eziketa, erlijio-gogarte. Batzuk bein baiño geiagotan argitaratu dira (lenengoa sei aldiz), beste batzuk portuges-era itzuliak izan

BARANDIARAN eta IRIZAR-tar LUIS

BARANDIARAN-dar Jose Migel

Euskal-kulturaren aitalen

LEKUONA-TAR MANUELEN aurreitza

KARDABERAZ



ARGITARATZAILLE

1980

Argazkiak: Sendiarenak
 eta Jose Maria Arbex-enak (Gasteiz)
 Azal-eratzaille: José Maria Arbex
 Azaleko marrazkia: Enrique Albisu

Depósito Legal VI 942 - 1979
 I. S. B. N. 84-300-1860-3

Argitaratu du: KARDABERAZ BAZKUNAK.

Euskeratzailea: Lekuonatar Joan, Donosti-Aurrezki-Kutxa-k duen
 Kulturgintzaren Guipuzcoa-ko Argitaldari Bazkuna
 S. A.-k erderaz argitaratutako Liburuaren arauera.

Inprimategia: Gráficas ESET, Gasteizko Seminarioa

ARKIBIDE OROKORRA

<i>Aurreitza</i> , Lekuona'tar Manuel'ek egiña	VII
<i>Sarrera</i> , Luis de Barandiaran Irizar'ek egiña	xv
I.—Ataun, "ama lur"	1
II.—Baserriko bizitza	9
III.—Leenengo ikasketak	23
IV.—Gazteizen apaizgai	35
V.—Sinismen-kinka larria eta Alemanian leenengo kursoa	47
VI.—Irakasle, apaiz... eta "gerra-zelataria"	53
VII.—Jakintza-zale baten asierak	63
VIII.—Eusko-Ikaskuntza aukeratzearen "Pekatu", edo billakari baten poz eta atsekabeak	79
IX.—Europako Museo nagusietan barrena ikaste eta nazioarteko leenengo itzaldia.	97
X.—Jakintza-taldeak: "Lyceum Cassiciacum" eta "Aranzadi, Barandiaran, Eguren" irukotea	107
XI.—Lan-taldeen eratzaille ta bizi-emaille Seminarioan	125
XII.—Ikas-ibilaldi berria Suiza ta Austrian: España-n Eleizaren egoera larria ta Politika	135
XIII.—1931'ko Errepublika ta politika-grüña Eliza-barruan	145
XIV.—Leizeetako pakean gerra	159
XV.—Erbesteko ogi garratza	171
XVI.—Berriz etnografi-billaketak, orain Francian: eusko-erbesteratuak eta Eliz-buruzagien jokaera	181
XVII.—Europako bigarren gerra ta Alemanek artutako Francia, erbesteratuen ikuspegiz	189
XVIII.—Franciako jakintza-lanen egitarau betea	201
XIX.—Itzulera prestatzen eta itzuleraren leenengo pozak	207
XX.—Berriz ere zeruertz maiteen artean eta betiko eginkizunetan	219
XXI.—Ataunen bizi da San Frantziskoren anima duen jakintsu bat	235
Jose Migel Barandiaran-i buruz Bibliografi-arkibidea	245
Izenen arkibideak	253

Aurreitz

Biografia batentzat aurreitza eskatu didate: nere adiskide D. Jose Migel Barandiaran'en Biografiarentzat.

D. Jose Migel'en eskolau-bizitzak berak ba du bere "aurreitz", eta ez bait det uste bizitzako aurreitz orren zatitxo batzuek baño aurreitz egokiagorik izan ditekianik nere adiskidearen Biografiarentzat. Begiz ikusita dakizkit nik D. Jose Migel'en eskolau-bizitzako aurreitz orren oinkada asko ta asko. Oinkada oiek erakutsiko bait diote gure irakurtzalleari, nolako "aurretatzalle", nolako "berritzalle" izan dan nere betiko adiskidea, bai Gasteiz'ko Seminarioko Eliz-Ikaskuntzaetan, bai Euskalerriko Ikaskuntza orotan.

* * *

Azaro batean —1904'gn Azaroan— joan nintzan ni Oyartzun'dik Baliarrain'era Latin-ikastera.

D. Jose Migel, ni baño zortzi egun leenago.

Baliarrain'en Latin-Maixu D. Luis Sarasola zan, errian bertako Erretore Jauna; eta D. Agustin Garmendia, Elizako Apaiz Bigarrena zuan laguntzalle erakus-lan artan.

Ikasleak, ogeiren-bat giñan. D. Jose Migel ta ni (D. Jose Migel "ta biok", euskera jatorrean esaten dan bezela) elkarren ikaslekide-kide giñan. Aspaldiko egun aiek ezkerre —Gizaldi omen lenengo urteak ezkerre— lagunak izan gera, lagunak eta adiskide min-miñak, gauza guzietan "alkarraituak", naiz-ta izaeraz ta jenioz naiko ez-berdiñak: ni beti bildurti ta atzerakoi bizitzaren aurrean, eta D. Jose Migel, ez diot ausart eta "arro", bañan bai bioztun eta aurrerakoi.

* * *

Beste izaerak ere izan ditugu guk biok, ez ain elkarren antzekoak: ni "beterritar" izatea, alegia, eta bera goierriar. Beterritarrok urte aietan errex pozten giñan baso-sagardo baten aurrean. D. Jose Migel etzan iñoiz ere, baso-sagardo baten aurrean pozten. Ori bai, D. Jose Migel "abogadua" da, ez

du edaririk edaten (eta ez dakit biografoak esan duan ala ez, bañan D. Jose Migel'ek ba du, jan-edan-kontuan beste gauza bat ere: beti ere, ni bezelaxe, "gastaiarentzako" alergiko izan dala) Goierrian ain gaztai bikaiñak egiten diran arren, D. Jose Migel goierriarra gastaiarentzako alergiko... D. Jose Migel, bere izaeraz, oso gartxua izan da beti jan-edanean.

* * *

Bañan ordu ontan, eta nere ta aren bion arteko ez-berdintasunai buruz, auxe da, nik argi ta garbi adierazi nai nukeana: norañokoa izan dan beti D. Jose Migel'en adorea, aurrerantzeko lanetan "Ekin-da iarrai" egiteko. Adore orrek eragin izan bait dio, jakintza-bidean beti aurrera egiten.

D. Jose Migel, bi gauzetan ikusi degu guk aurreratzaille: bi alorretan: Gasteiz'ko Seminarioan, eta berdin baita Eusko-Ikaskuntzako alor zabalean. Ez da sekulan geiegi esango D. Jose Migel'en aurrera-nai eta aurrera-gose orretaz: bizitzan gizon lau ta apala, bañan jakintza-bideetan gizon itzal eta garratza.

* * *

D. Jose Migel, Baliarrain'go lenen-oinkadatatik asita, gure aldean askoz goragokoa azaldu da beti, bere lagun guztiak baño argiagoa. Guk, lenengo urte aietan, neurri polit baten barruan jarduten genduan garaian, berak goragoko neurrian jardunik "urte batean bi egitea" lortu zuan: ain esamiña ederra eman zuan, eman ere, lenengo urte artan Gasteiz'ko Seminarioan egin zioten azterketan. Eta urrengo urtean, gu bigarren urtean gelditzen giñalarik, bera irugarrenera igo zitzaigun. Eta geroztik beti aurretik ibilli zait neri ikastaroetan; bañan beti ere biok oso "a-dos" gabiltzalarik Euskal-kultura-gaietan: ni Literatura-alorrean (Aozko Literatura-alorrean) eta bera Pre-historian eta Etnologian.

* * *

Urte aietan D. Jose Migel'ek nolako aurrerapenak egin zituan ikusteko, nik ba daukat nere gogoan gauzatxo bat, bear bada, berak onuzkero aazturik daukana. Bere Latin-ikastaroetako bigarren urte artan latinezko distiko batzuek egin izan zituala, ez txarrak, nik gogoan dedanez.

Distiko oietan lenengo errenkadak, epitafio-antzeko exámetro espondai-ko xamar batean, onela zion:

PAGO FRUGI, ATAUNENSIS POPULI NATUS...

Bertsoa aldi luze-xamarrean, kuartilla batean idatzia. Ikastolako erloju-

kajaren barru-aldetik itxasita egon zan; arriturik irakurtzen bait genduan, guk, sekulan, ez latinez, ez beste iñungo izkuntzetan bertsorik ateratzera iritxiko giñala uste ez genduanok... D. Jose Migel'ek, bitartean, ateratzen bait zituan Virgilio'ren eta Horatio'ren izkuntzan, bere ikastaroetako bigarren urtean.

* * *

Bañan "urte batean bi egiteak" eta orregatik gure laguna gure artek berezi izanak, mutillaren buru argiaz gañera, beste gauza bat ere esan nai zuan: Eliz-Erakusketak urte aietan zeukaten egoera makala: iru urte, Latiña eta LITTERAE HUMANIORES ikasteko: urte gutxitxo ziran benetan. Andik laister iritxi bait giñan lautara, eta laister bostetara: gure D. Jose Migel'ek, berriz, bitan egin bait zituan. Egoera makala.

Baliarrain'goa bezelako Latin-ikastoletaz gañera, Gasteiz'ko Seminarioan bertan, etzeukaten Eliz-Ikaskuntzak bear bezelago "norantzeko" jomuga jatorrik, etzeuden bear bezela osaturik. Filosofia ta Teologia, ondo orniturik bide-zeuden. Bañan Izaera-jakintzetan —SCIENTIAE NATURALE diralakoetan— benetan utsal ta beartsu genbiltzan. Eta utsune ori zan, D. Jose Migel'ek bete ta ornitu nai zuana, eta utsune orren kontra asi zan garrazki mintzatzen, A. Zakarias Martinez Gotzaiaren garaian, Seminarioko Irakasleen artean arkitu zan bezain laister.

* * *

Beste utsune bat ere arkitzen zion Seminarioko ikas-erari —Biografi ontan argi ageri bait da ori—: Euskalerrari dagozkion gai bereziak Eliz-Ikaskuntzetan lekuri aski ez izatea. Utsune argia, bañan orduan betetzen zail zan utsunea; Eusko-Ikaskuntza oro orduan politikatzat errex artzen bait zan —iritzi zoroa, buru-gabea, bañan orduan indar aundia zuan iritzia—. Iritzi zoro orren kontra garratz mintzatu zan beti gure D. Jose Migel; sentimenkeriarik gabe, beti buru-otz, bañan beti garratz. Orrela lortu bait zuen aizkenik euskal-gai oientzako itzal ederra Seminarioko ikaskuntzaen alorrean, irakurtzalleak Biografia eder ontan argi ta garbi ikusiko duan eran.


Eta Aurre-itx au bukatzeko, esan dezagun berriro ere, asieran esan deguna bera: ez dala sekulan geiegi goraiapatuko D. Jose Migel Barandiaran'ek, Gasteiz'ko Seminarioko Ikaskuntzai eta baita Eusko-Ikaskuntza orori ere, bere aurrera-nai eta aurrera-gose bortitzaz eragin dien aurrerakada ederra.

Andoain'en, 1975'gn otsaillaren 22'an

LEKUONA'tar Manuel'ek

GIZON AUNDIEN BIZITZA DA HISTORIA

(Carliè)



Jaungoikoa ta Euskalerria mañatzen eta nere osaba Jose Migel antzakotzat artzen erakutsi ziaaten nere gurasoei, nere osabak larogetta amar urte betetzean.

Sarrera

Asieratik auxe esan bear dizut, irakurle: ez dakit garbi nere lantxo onek zenbat balioko duen. Nere lanaren barru-barruko baliotzaz ari naiz, jakiña. Nere pentsamentuaren eta biotzaren ondo-ondoan daukaten histori au epaitzeko, gertuegi nago ni. Epaitu bezate irakurleek. Baiño gauza bat garbi bego: zer egin nai izan dedan; zein izan dan nere lan apala argitu duen pentsamentua.

Nere asmoa bikotea zan. Lenengoa: Euskalerriko seme naizenez, gure lurrak emandako fruituen artean, euskal-kulturaren langillerik jatorrenetako bat aurkeztu nai izan diet gaurko ta biariko euskaldunet: D. Jose Migel Barandiaran eta Ayerbe: gizon, apaiz eta jakintsu. Iru alderdi oiek naastuak datoz liburu onetan, D. Jose Migelen bizitzan bezela.

Bigarrena: nere osaba Jose Migeli nere maitasuna ta esker ona agertu nai nizkion idatzlan onekin; bera bait nuen nere itxuaurreko apaiz-bideetan ibiltzen asi nitzenean, bera nere eredu, apaiz ta gizon-tasunean.

Nere osabaren nortasuna aberatsegia da liburu onetan dana sartzeko; bere bizitzako une nabarmenenak azaletik ikutu besterik ez det egingo. Badago or gaia ugari bizitza sakon bat idazteko.

Egokiera ori datorkidan bitartean, eskerrak eman bear dizkiet nere laguntzaillei. Batzuk lanerako adorea eman didatelako, edo. Euskalerraren edestilari D. Fausto Arocenari, eusko-sorreraren azterlari eta Donostiako "Aranzadi-taldearen" biotza dan D. Jesus Elosegui, edestilari sonatu ta Salamancako irakasle D. Jose Inazio Tellechea, ta, bereziki, nere osabaren miresle sutsu, D. Tomas Atauri jaunari.

Teknika aldetik asko zor diot nere adixkide Jose Mari Arbex-i, bereak bait dira liburu onen ataria eta fotografi geienak. Baita ere nere esker ona, "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País" eta Donosti-Aurrezki-Ku-

txa-ren Guipuzcoa-ko Argitaldari Bazkuna S. A.-ri Kardaberaz Bazkunari, —erderazko Liburua argitaratu zuena lenengoa eta Liburu bera euskeraz argitaratzen duena bigarrena—, eta bereziki, lan au Aitorren izkuntzara alik zintzoen itzuli duen Lekuonatar Joani.

Guziei eskerrik asko eta zuri ere bai, irakurle, onartuko nauzulako.

LUIS BARANDIARAN IRIZAR

Gazteiz 1979'gn. Abendua

I

Ataun, «ama lur»

*Gizonak ezieran izan duen giroak,
alako bereiztasun bat ezartzen dio
bere espirituan : beste giroekin era-
bat naasten ez dan bereiztasun bat.*

J. M. B.

Jaioterria, jaio giñan txokoa, gure familiaren ingurua, mendiak, errekek, lenengo pausoak eman genituen lurra: ori guziak gure barrua markatuta uzten du: denborak kendu ez, eta urutiak piztuko digun errimiña.

Badirudi lokarri batek betirako lotu dizkigula gure buru-biotzak gure txokoarekin. Beste alderdietan leku ta erri ederragoak, aberatsagoak, aurre-ratuagoak izan leizke, baiño ez digute burutik kenduko gure erri-maitasunik; alderantziz baizik, berotu ta indartu.

Gure txokoa amaren magala bait da, "ama lur": gizonaren izakera oreku zuten eta lenengo sentipenak sortu zituen txokoa. Gizon orrek, Euskalerriko semea bada, noranai jo dezake gorputzez, baiño aren espiritu-zaiñak ez ditu iñork bere lurretik aterako.

Ori dalata, euskaldunak bere biotza erri guzietara irikirik euki arren, urrutiko zugaitzak ikustean "Guernicako arbola" edo bere erriko plazan dagon aritz sendoa gogoan izango du, Luis Castresanak egoki esan digun bezela.

Auxe bera adierazi zigun gure bertsolari Iparraguirrek, euskaldunok amaika aldiz abestu ditugun bertso aietan:

Gazte-gazterandikan
Erritik Kanpora,
Extranjeri-aldean
Pasa det denbora.
Erri-alde guztietan
Toki onak badira;
Bañan biotzak dio: :
Zoaz Euskalerrira.

Baiño erria ez da lekua bakarrik, personei alako tankera berezi bat ematen dien gizazte-giroa da erria geienbat. Ara zer dion gai ontan nere osaba Jose Migelek:

Gizonak ezieran izan duen giroak alako bereiztasun bat ezartzen dio bere espirituan: beste giroekin erabat naasten ez dan bereiztasun bat (1).

Nork ukatu, lengo gizaldiaren bukaerako Ataungo giroak zerikusi aundia izango zuela nere osabaren etorkizunarekin. Aztertu ditzagun erri onek garai artan zituen alderdi batzuek, naturaleza-maillan bezela gizamaillan ere, Euskalerrriaren prehistorilari ta etnografilari ospetsua izango zan, D. Jose Migel Barandiaran eta Ayerbe apaizaren jaiot-giroa, alegia.

Ataun, Guipuzcoaren ego aldetik, Naparroaren mugan, arkitzen da. Ataungo ibaia Agaunza da; Beasaingo lurretan Oria ibaian iltzen dan Agaunza. Ataun, sartaldetik, Aralarren oiñetan, dago.

Ataungo biztaleak 2.776 ziran guzitara 1966'gn urtean, iru parrokie-tan: au da, Aya, San Gregorio ta San Martin. Nere osaba San Gregoriokoa zan eta da. Iru parroki o'etaz gaiñera, auzo asko ditu erri onek. Nere osabaren jaiotetxea eta gaurko bizi'lekua Murkondo auzoan arkitzen dira. Izkuntza, euskera; erdera gutxi. Ataundarrak nekazaritza, abelazkera ta industria ditu ogibiñeak.

Ataunen historia zaarrari buruz, ona "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco"-n esaten dana:

Erri onen asierak zaarrak bezain ezezagunak zaizkigu, Gorosabelek dionez. Bere lurretan III'gn Gordianoren denario bat arkitu zan. Rodrigo Jimenez de Rada jaunak aipatzen du Ataun bere historian. Ala d'io: Guipuzcoako probintzia VIII'gn Alfonso erregeari lotu zitzaion bere gaztelu guziekin; oien artean. Athavit-ekoa, edo "códice complutense" deituak dionez, Athagun-ekoa (2).

1.889'gn urtean, nere osaba Jose Migel jaio zanean, Guipuzcoan eta batezere Goierri bezela, Ataunen ere baserri-giroa zan, dudarik gabe.

Gaur, Ataungo baserritarrek mundu guzia begien aurrean daukate, telebista dala bide; ta etxeko atarian Beasain, Lazcano ta Legazpiako fabrikak, Ordiziako feria, Beasain eta Etxarriko jolaslekuak, Donostiako ondartzeta ta futbola, automobillari esker. Lekutan zeuden olako erosotasunak nere osaba Jose Migelen aurtzaroan.

Nere osaba berak emango digu egokien garai aien berri. Emen diona 1924'an idazten du:

San Gregorio-parrokiak orain 18 urte (1906'an) 1.124 biztanle zituen, gaur, (1924an) 900 bat 117 familietan: oietan nekazari 75 (orain 40 urte 101): gaiñerakoei "aittelume" esaten zitzaion, au da, beste lanbideetatik bizi ziranak. Emendik, 18 urte auetan atera diran 17 famili nekazariak, 2 edo 3 ez besteak, fabrika-inguruetan jarri dira bizitzen, nekazaritza erabat utzita.

Gazteak errietara joateakin asko galdu da ikazkintza, lengo belaunaldiaren bigarren bizibidea, nekazaritzaren ondoren.

Ikazkiñak basoan pasa oi zituen 6 illabete. Beste 6 (au da negua, udaizkenaren eta udaberriaren zati bana) nekazaritzan, baserritarra zanak, eta aittelume zanak morroi edo beste etxe-lanetan, adi bidez, galtzerdi, saski, aulki, segakirten ta aizkora-kirtenak egiten (3).

Komunikabide eta garraioari buruz auxe dio:

Lengo gizaldiaren azken ogei urteak arte ez zan zaldi-gurdirik Ataundik tren-estaziora. Miraballesko ostatuak jarri zuen eguneroko zaldi-gurdi bat Beasaineraño.

Orain amabost urte (1909) persona bakar batzuk ziran gurdi ortan joaten ziranak.

Asieran luioztat jotzen zuten geienek autobusan ibiltzea: ori aberatsentzat zan.

Maxiatzailleek ez zituzten pakean uzten aurrena autobusera igo ziranak: alperrak eta aundinaikok omen ziran (4).

Euskalerriko mendi eta ibarretan oraíndik bizi diran maji eta mitoek ere ematen diete beren ikutua erri ta erritarrei.

Ataun, Ormaiztegui edo Goierri edozein errietan, etxeataritik illargiari begira dagon umeak "illargi amandrea" deituko dio.

Baserri-inguruneak egokiak dira histori zaar eta ipuiak sendo irau-teko.

Olako zubia "Mikolasek" jaso zutela; zubipeko urzuloetan garai batean *lamiñak* bizitzen zirala; askok ikusi dituztela *sorgiñak* illargitan soñnekoak garbitzen. Aur batek askotan entzun ditu olako esaerak.

Etxe tzar bat jentil indartsu batzuek jaso zuten: jentil oriek bota zi-

tuzten abalez bere oiñarri galantak Aralartik, Aizkorritik, Gorbeatik, Oiztik...

Basoetako soil-unetan sorgiñak biltzen dira gauzez, dantzan egitera, ta iñungo kalteak asmatzera.

Eusko-mendietako leize-zuloetan bizi zan garai batean *Tartalo*, giza-jale izugarria, bekokian begibakarrekoa.

Basajaun, geienetan gaiztoa, basoetan bizi zan: gure arbasoek uzta-roak ezagutu baiño len, nekazaritzan ziarduen.

Ta *Mateo-txistu* apaiza, eiztari ieskaria... Ta *Mari* or dabil oraindik laiño gaiñetan... (5).

Ataungo gazte'uaren histori illuna bera (erriarentzat *Jentil-baratza*) oso egokia zan erriaren buruan amesetako asmakizunak sortzeko.

Jentillek basati gaiztoak ziran, beren siniskeriei gogor eusten zieten, eta ez zuten nai kristau izaterik; ala ere kristauekin artueman asko izan zituzten. Gaur oraindik aotan dabilzan pasaizu askotan garbi ikusten da ori (6).

Pentsakera oiek ataudarren azalean zebiltzan, mamian, ordea, kristau-pentsakera nagusi.

Ataun, Goierriko beste erri guzien kidakoa da, baiño baditu besteetatik bereizten duten ezaugarri batzuk. Ataunek iru gauzaen otsa du:

Mikelete asko dituela.
Erlijioso asko sortu dituela.
Lapur asko.

Irugarren ots ori egiztatzeko, naikoa degu esaera zaar ura: "Ataunen eta Zegaman egunez ikusi eta gauzez eraman".

Nere osabak ez omen du ezagutu esaera orri aitzakia eman dezaioken gertakizun berezirik. Bada bai alako esan bat: ataudar batek basajaunei gari-azia ta ereiteko agiria (patentea) arrapatu omen ziela, alegia.

Mikeleteei buruz, Ataunek mutil asko eman oi zizkion Guipuzcoako gudaritalde jator orri.

Nere aitak —D. Jose Mige'en anai zaarrenak— askotan esan oi zuen, ataudar gazteak nolako joera zuten mikeletetzarako eta kamiñerotzarako. Soldaduzka egin ondoren berak ere mikelete sartu nai omen zuen, baiño alperrik: ttikitxoa izan nunbait.

Gai oni buruz D. Jose Migelek eman dizkigu 1924'gn urteko eta San Gregorio auzoko argibide batzuk.

Aurten San Gregoriotik ogeitamar mikelete ta kamiñero ditugu Guipuzcoan. Eta neskameak ogeita amaika, ia danak Donostiako hotel eta familietan (7).

Nere ustez oraindik ez zaio mikeleteari zor zaion aipamenik eman. Mikeletea, gure erriaren fruitu ori, erdi baserritar, biotz onekoa barrendik, zorrotz xamarra azaletik bere eginkizunetan, orain berrogei urte ezkutatu zan gure bide eta itxas-bazterretatik.

Eta irugarren otsa: Ataun erlijiosoen sorlekua. Ia oraintxe arte edonork bazekien lekaide-lekaime etxeetan eta parroketan ataudarrak ugari arkitzen zirala.

Jende guziak gutxi gora-bera zekien egi au, Ataungo apaiz batek —D. Juan Arin Dorronsoro— argi eta zeatz azaldu zigun, oraindik urte asko ez dirala. Izan ere D. Juan yayoa zan olako lanetan eta zorrotz ekin zien etnografia, historia eta izendegi-azterketei. 1972'gn urteko Iraillaren 1'an il zan bere jaioterria eta baita ere bere apaiz-erria zan Ataunen.

Arin jaunaren *Ataungo apaiz eta erlijiosoak* izeneko liburuari, nere osabak egin zion aurreitza. Ala dio D. Jose Migelek:

Liburu ortan Ataunen jaiotako apaiz eta erlijiosoen bilduma bat egin ten zaigu. Bakoitzari egiten dion histori laburrean, batzuetan, inguruko giroa ere azaltzen da (8).

Laburpen batean, auetxek dira XVI'gn gizalditik onuntzako zenbakiak:

Apaiz sekularrak	135
Lekaideak	73
Klausurako erlijiosoak	35
Kongregaziotan	91
Serorak	42 (9)

Orra or erritarrak aberasten dituen erri-giroa. Alaxe ikusi zuen nere osabak ere:

Erri bakoitzak baditu gizaldiz-gizaldi, bere asmoak betetzeko bide batzuk: erlijioso-bokazioak bide bat dira, erri-giroaren eta erlijio-pentsakeraren fruitu bat ere bai (10).

Itz gutxitan: ingurune-giroak, jeografi, majiko-mitiko ta erlijio-kutsuko giroak, batezere, tajutu zuten, gutxi-asko, D. Jose Migelen nortasuna: giro orren barruan pasa bait zituen urte batzuk.

Lenengo ikutua, jeografikoa, Ataunek ematen dio: bas-erri, nekazari ta ganadu-zale erri. Lengo gizaldiaren bukaeran, larre, belarzari ta soroetan

pasatzen zituzten beren egunak ataundarrek, sagardi eta gaztañadi artean.

Ingurune menditsu, xalo, tolesgabea zan lengo gizaldiaren azken alde-
ra Ataungo ingurunea: ortxe mamitu zan D. Jose Migelen izakera: beti
berezkoa, jatorrizkoa, latza bere jokaeretan, oituretan, itzetan, bizikeran, jaz-
keran, etxebizitzan.

Bere irudiari beti baso-usaia, manzanilla-usaia ta perretxiku-usaia dariz-
kiola dirudi.

Ezin ukatu nere osabaren nortasuna osotzen duten gai asko, izadizale
baten gaiak dirala: ori gerogo aztertuko degu. Baiño beste au ere ez dago uka-
tzerik: nere osabak bizi duen askatasun orrek —aizunkeri ta legekeriak baz-
tartuta (A. Camus-ek esango zuen bezela)— bere muiñean zituela bularrakin
batera xurgatutako ta berezko oitura batzuk, eta oso errex onartu eta jator
landu zituela gero oitura oiek.

Bigarren ikutua: maji eta mitoen ikutua: ara zer dion D. Julio Caro
Baroja-k:

Mutikoa (nere osaba) orain ez da aurra; apaiz egin da, jakintza batzuek
ikasi ditu... ala ere lengo pentsakera zaar aiei garrantzi aundia ematen
die, esanai aundia arkitzen die. Mitoz eta olerkiz apaindutako mundu bat
ikusten du, moldatua, eratua. Orain ori dana jaso eta azaldu egin bear alik
egokien, idatzien bidez (11).

Irugarren ikutua: erlijio-ikutua: D. Jose Migelek berak azaltzen digu
ori, zearka bada ere, ataundarren kristau-inguruneaz idazten duenean.

Leen, oiñarrizko lana aurrez eginda zeukan apaizak. Naikoa zan gi-
zarteko kristau-giroari eustea, gizaldietatik zetorren suari eustea (12).

Olako giroan nola ez ziran ba sortuko ugari erlijioso-bokazioak.

Nere osabaren nortasunean eragin aundiena izan duten iru gauzak one-
la aipatuko nituzke: kristautasunez eta majia eta mitoz ondoraiño kutsatu-
tako bas-erriko semea dala, esanaz.

Egia da, Euskalerriko erri guzietan arkitzen degula giro au. Baiño baita
ere egia da, eurieuntsi bat ez dala berdin sartzen lur guzietan.

Nere iritiz, D. Jose Migelen espiritua oso lur busti-erreza eta emanko-
rra zan eragin oientzat.

Ala ere munduan aldaketa aundiak gertatu dira eta gure arbasoen gi-
roak gaurkoakin ez du antzik ere. Onela dio nere osabak:

Orain su ori itzali da edo itzaltzen ari da. Beste gizarte-giro berri-berri
bat sartzen ari da gure errian: erlijio-kutsu gabeko giro bat.

Ez dagon surik ezin indartu apaizak: berri bat sortu bear ko du (13).

Gizarte-giroa ez da erlijio-gaietan bakarrik aldatu. Etnoloji-alorrean oso
bestelal oak dira gaurkoa ta orain urte batzuk dirala, euskaldunek zuten egoe-
ra. Ala uste du D. Julio Caro Baroja-k:

Munduaren pentsakera zaar, itxi, olerkiz betetakoak azaltzen dizkigu
Barandiaran jaunak. Ez ote daude ilzorlan iritzi oiek? Baietz esango nuke.

Eusko baserritarraren ingurunea aldatu da. Fabrikako ur zikiñak ku-
tsatutako errekatxotik iges egin dute lamiñak: *basajau* il zan, goietako
aritzak bota zituztenean; argi-posteak ez diote uzten egan egiten *Anboto-*
ko damiari; itxasgizona eta itxas lamia ezin urreratu dira itxasbazter naz-
kagarrietara. Gure erria, Europako beste asko bezela, narraxtu egin da (14).

Olakoxea da ba gure mundua ta ortxe bizi bear gaurko gizonak: alde
ederra nere osaba jaio zanetik onera.

Egoera batean ala bestean jaio, gizonak ez du errurik edo arrotzeko bi-
derik, baiño egoera ori obeagotzeko zerbait egiten duen ala ez, or bai, or
badu zerikusirik.

Nere osaba Jose Migel gizarte-giro jakin baten fruitua da bere aurtza-
roan. Baiño orrek ez du esan nai gaurko egiazko aurrerapen asko ez dituela
onartu. Ona Caro Baroja jaunaren iritzia:

D. Jose Migel Barandiaran aldaketa orien erdian bizi izan da eta
bizi da, eta noizbait entzun diot, gaurkoa lengoa bezin ona dala, ohea ez
bada ere: ni baiño adoretzuagoa izaki (15).

Utzi dezagun Ataun oraingo, oraindik zearka edo, askotan aipatu bea-
rrean izango bagera ere. Ezin ixilik euki, alare, nere osabak bere jaioterriari
beti izan dion maitasun suitsua. Ataunen izena bazter guzietan aipatu du, orko
ipuiak dirala ta. Erbestetik urte luzetan Iparraguirrek bezela begiratu zion.
Berriz ere eta len baiño maitasun berogoakin itzuli da bere errira, iñoiz ere
biotzez utzi ez zuen errira.

Nere osabak ere esan ditzake, nere ustez, Castresana jaunak idatzitako
itz auek:

Gizon guziak zugaitzaren antzeko dira ta, naitaez, zilbor este batekin
bezela, gure jaiot-lurrari lotzen gatzazkio.

Au ez da berriketa, aberzalekeria edo olako zerbait: bere erritik kan-
po urte batzuk pasa dituen edonork odolean daraman bizi bat da au (16).

OARRAK

- (1) *Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales*, Jose Migel Barandiaran-ek idatzia (Gazteiz 1925), 126'gn orri.
- (2) *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Diccionario Enciclopédico Vasco*, III'gn Liburua (Añamendi Argital. Donostia 1971), 204'gn orri.
- (3) *Op. cit., Nacimiento...*, Jose Migel Barandiaran-ek idatzia, 12'gn eta urren. orri.
- (4) *Ibid.*, 73-4 orri.
- (5) *Ibid.*, 33-4 orri.
- (6) *Op. cit., Enciclopedia General...*, III'gn Liburuaren 205'gn orri-an Jose Migel Barandiaran-ek idatzia.
- (7) *Op. cit.*, 19'gn orri.-an Jose Migel Barandiaran-ek idatzia.
- (8) *Clero y religiosos de Aduan*, Juan Arin Dorransoro-k idatzia, (Montepío Diocesano. Gazteiz 1964). Jose Migel Barandiaran-en "Aurreitza".
- (9) *Ibid., Diseñua*, 286'gn orri.
- (10) *Ibid.*, Jose Migel Barandiaran-en "Aurreitza".
- (11) *Barandiaran y la conciencia colectiva del pueblo vasco*, Julio Caro Baroja-k. *Homenaje a Jose Miguel de Barandiaran-en* idatzia (*Una jornada cultural en compañía del maestro*), "La Academia Errante"-k egiña (Añamendi Argital., Añamendi Bilduma, 4-5 zenba. Donostia 1963), 14'gn orri.
- (12) D. Juan Arin Dorransoro-ren, *op. cit., Clero...* Jose Migel Barandiaran-en "Aurreitza".
- (13) Juan Arin Dorransoro-ren, *op. cit.*, Jose Migel Barandiaran-en "Aurreitza".
- (14) Julio Caro Baroja-ren, *op. cit., Barandiaran...*, "La Academia Errante"-ren. *Homenaje...*, 17'gn orri.
- (15) Julio Caro Baroja-ren, *op. cit., Barandiaran...*, "La Academia Errante"-ren. *Homenaje...*, 21'gn orri.
- (16) Luis Castresana-ren *El sitio en que se nace*, ABC, Madrid 66-XII-7.

II

Baserriko bizitza

Familiako goxotasuna persona geienei barruraino sartzen zaie, baserrikumeei batezere: giro ori gizonarentzat biziena, sarkorrena, iraukorrena, eta denboraldi luzean, bakarra bait da.

J. M. B.

D. Jose Migel Barandiaran eta Ayerberen jaiotetxea, Perune-zarra, San Gregorioko parrokiari, Murkondo auzoan dago.

Etxe orren eraikitzailea Peru zala, esan nai du izen orrek. "Enea, ene, ne" bukaerak jabetza adierazten digute, Caro Baroja jaunak dionez: beraz Perune, Peruren etxea da (1).

Perune-zarra izena eman zitzaion etxe orri, beste Perune batetik bereizteko; parrokiari ta auzo berean jabe berak Perune-berri ere bai bait zeukan.

Baserri zaarra, leenengoa, XV'gn gizaldikoa da, agiriak diotenez: ortxe jarri zan bizitzen Auzmenditar bat.

BARANDIARANEN sustraiak: Isaac Lopez Mendizabal jaunak dionez, Barandiaran -basak -aran -di (ugaritasun) -b- (betegarri). Astarloa jaunaren iritziz, -Aran aundi (ibar zabala). Bere etxe-torrea Barandiaran baserria du (gaur iru bizitza: Barandiaran Aundi, Txiki ta Berri), San Martin auzoan, Lazkaotik kilometro pare batera, Atauna garamazkian bide zabalaren



“Perune-zarra”,
Jose Migel
Barandiaranen
jaiotetxea.



Barandiaran jatorriaren sortetxe “Barandiaran-Txiki”.
Berriz eraikia. Ataun-San Martin-go auzoan.

ezkerreko murko txiki batean. Sortetxea Barandiaran-txiki izango da, dirudienez: bertako biztanleak ere Barandiaran dira.

Erderazko *solar-solariego* itzak latiñetik datoz (*solarius, solum*), euskeraz etxaleku. Gai oni buruz auxe irakurri nuen *Paraninfo Celeste* izendun, irureun bat urteko liburuan:

Kantabriatarren sortetxeen andikitasuna oso ezaguna da munduan: izen ori eguzkitik (*sol-solar*) artuko zuten, berak ere eguzkiaren seme diranez; beren buruak eguzkia bezin aundi jotzen bait dituzte (2).

Dana dala, sortetxeak garrantzi aundia izan du Euskalerrian. Nere lagun zar Jaime Kerexetak —eusko armarrietan jakintsu dan onek— onela dio:

Euskalerriko familietan eta gizartean garrantzi aundia izan du sortetxeak. XVI'gn gizaldi arte eta geroago ere bai, personaren abizena etxearen izena izateraiño: aitaren abizena utzi ta bizi bear duen etxearen izena artzeraiño. Au askotan agertzen da aikoa (*árbol genealógico*) egiterakoan (3).

Guipuzcoan, Ataunen, jaiotako BARANDIARAN abizen au, Vizcaya aldera ere zabaldu zan eta asko zabaldu ere. Au dio *El solar vasco-navarro* izeneko liburuak:

BARANDIARAN edo Barandiarano. Sustraiak Ataunen, Tolosako auzi-barrutiko erri ortan ditu. Kimu batzuk Encartaciones-etara aldatu ziran.

ARMARRIA: Ataungo etxea: urdiñ illuna, berezko koloredun zugaitz bat, bere koloreko otso bat zugaitz-gerrian zutik.

Vizcaya aldetik Barandiarandar talde bat etorri oi da urtero Atauna, udara inguruan, beren sorterrira: emen jai goxo bat ospatzen dute, San Martingo elizan meza bat emanaz.

Azken urte auetan asko ugaritu da abizen au. Umeak giñala ezezaguna zan eta askorentzat esakaitza. Gaur berriz oso ezaguna. Ara neri gertatzen zaidana: baditut zortzi persona nere izen-abizen berdiñekoak. Bi Guipuzcoan, iru Vizcayan, bi Araban eta bat Peru-n, ango gobiernoko *Director de Integración*, eta ejerzitoaren jenerala.

Paraninfo deitutakoaren egillea bezela ezin asiko gera ondorenak ariñegi ateratzen: baiño au bai esan dezakegu: eusko abizenari *-tar* (de) erans-tea oso bidezkoa dala, familia baten sorlekua adierazteko.

Badakit oitura ori ez dutela askok onartzen. Batzuentzat aundikeri-usaia duelako. Orrela Burdeos-ko Pierre de Lancre —Euskalerriko sorgiñen etsai

amorratua— emengo edonork bere abizenari *-tar* (de) eransten ziolako, erabat arrituta egon oi zan (4). Franciako erreboluzioak zorrotz salatu zuen oitura ori, "Askatasuna, Berdintasuna ta Senidetasuna" aldeztan zituen ezker. Gure egunetan, eusko historia ta kultura begitan artuta dauzkaten batzuk, politikotzat jo dute usuario ori.

Nere osabari entzun izan diot, Gazteizko Seminarioko erretore jaunak gaitzetsi egin ziola olako oitura, politikoa balitz bezela. Olako parregarrikeri asko egin ditu beti politikak.

Nere osabaren gurasoak: Francisco Antonio Barandiaran eta Aizpurua, eta Maria Antonia Ayerbe eta Dorronsoro. Perune-zarreko etxejabea aita, San Martingo baserri zaar batekoa ama: Aldakotxokoa.

Nere aitonen —nere osabaren gurasoen— ezkontza oso bitxia izan zan bere asieratan. Aldakotxoko Mari Anttoni —nere osabaren ama izango zana— ta Peruneko alaba bat —nere osabaren izeba izatekoa— elkarren adixkideak ziran.

Aldakotxoren auzoan bizi zan "Frantzes" esaten zioten gizon bat. Hedayatik Madriderako burnibidea egin zanean, nagusi frantzesen mendean lana egin zuelako, ezizenez deitzen zioten era ortan. Erriko neskek aotan zerabilkiten, Frantzes ori Mari Anttoniren atzetik omen zebilela. Arratsalde batez badator Mari Anttoni Perunera, bere lagun zaararengana eta Perunekoak botatzen dio ustekabeen:

—Eta, Frantzesakin ditunan artueman oiek, zer?

Mari Anttonik ezer ez balitz bezela:

—Jendearen berriketak!

—Laixter ezkontzen omen aiz ba.

—A bai? (Mari Anttonik kontu ixilak esanaz bezela) Ai zan, ire anai Patxirekin ezkondu nai diñat. Eta zergatik ez i nere anaiarekin?

Esan da izan: Mari Anttonik esan bezela gertatu ziran bi ezkontzak.

Nere osabak gertakizun au esan ondoren, onela jarraitu zidan:

—Gaurko gaztetxuak esan bear guri, ezkontza maitasunez eta ezkongaien erabakiaz egitea orain lortutako gauza dala. Garai batean interesagatik, guraso berekoiak beartuta, egiten omen ziran ezkontzak. —Gero erantsi zion—: Jendeak askotan buruz itzegiten dik.

Francisco Antonio 18 urtekin ezkondu zan, baserriko bearrak bultzata. Bost urte aietan ez bait zan etxekoandrerik Perunen. Joxepa Inaxi Aizpurua




Jose Migel Barandiaran bataiatua izan zan San Gregorioko parroki-eliza.

—Ormaiztegitarra— 1.865 urtean il zan koleraz. Beraz, lenbailen egin bear zan ezkontza. Orregatik, Francisco Antonio 18 urtekoa eta Mari Anttoni 21 urtekoa, 1.870'gn Ekainak 27, ezkondu ziran Ataungo San Gregorioko parrokiaren. Ango Bikario D. Jose Mari Ibarrolaburuk onetsi zuen ezkontza au. Ala dio artxibo artako ezkonduen liburuak.

Ezkontza onek bederatzi seme-alaba eman zituen: Jose Antonio (etxeke jabe izatekoa); Manuela Antonia (Ataungo Larburura ezkonduko zana); Joxepa Antoni (Karmeldarra); Mikaela (Mariaren mirabea); Pedro Inazio (txikitari illa); Maria Bautista (Karmeldarra); Jose Inazio (nere aita); Eduardo (txikitari illa); eta Jose Migel.

Jose Migel Barandiaran eta Ayerbe 1889'gn Abenduaren 31'an, urtearen azkeneko egunean, eta XIX'gn gizaldiaren azkeneko amarurteurrenaren sarreran, jaiotako zan. Gero 98'ko idazlarien belaunaldiak entzute aundia emango zion amarurteurren orri.

Goiz aldera gertatu zan jaiotza: 6'tan, partidak dionez. Ordu orrek



*Nere aita,
Jose Inazio Barandiaran,
Jose Migelen anaia,
nere ama Kasilda Irizarekiri
beren ezkontza-egunean
(1912'gn urtea).*

bere ikutua utzi zion gerorako; goizeko seiak eguneroko lanaren asiera izango dira bere bizitza guzian.

Jaio zan egun berean bataiatu zuten. Gero bere eskola-maixu izango zuen, D. Manuel Arrese zan bataioko testigu bat. Gutxi bezelako jakintsua izango zanak, auzoko kultur-erakusle trebeena lekuko. Bataiatzaillea D. Jose Maria Ibarrolaburu, "San Gregorioko Parroki-elizaren berarizko Erretorea".

Ona emen jaiotza baten histori laburra. Orduko liburuetan azaltzen diran jaiotzen artean bat geiago.

Garai artan gure erriak ugaritu bear aundia zeukan. Lau urtez leenago, XII'gn Alfonso il zan egunetan, Espāñan 120.000 il zituen izurrite batek.

Onela adierazi det, nere osaba, Maria Cristina Erregiñaren agintepean jaio zala, Pardo-ko paktoan elkartutako laukotearen mendean: Canovas, Sagasta, Castelar eta Martinez Campos-ek osotzen zuten laukote ori.

Gaia aldatuta, 1889 urtea oso ezaguna gertatu zan, Codigo civil dalakoa argitaratu zan urtea bait zan.

Ordu berean Alejandro Eiffel injenieroa izen aundiko egin zan, 300 metroño torrearen egille bezela: mundu guziko esposizioa zalata iriki zuten urte artan torre ori.

Andik 23 urtera, Ataungo aur ori bere auzokoei eta Guipuzcoa osoari arrigarri gertatuko zaie, Parisko torretik irratiz datozen berriak artzen dituela ta: berak antolotutako tresna sorgin baten bitartez, artu ere.

Senide askoren anai gazteena zan, beraz, nere osaba Jose Migel. Gaur ez zaio bizi seniderik. 1972'gn Azaroan il zan Anglet-en (Francia) 92 urteko Mikaela lekamea: aspaldian an bizi zan nere osabaren azkeneko senide au.

Illabete gutxikin, ezbearrez, ildako Eduardo ez beste guziak gaitzak eramane zituen. Nere aitari ta osabari entzun izan diet iñoiz gertakizun ura.

Aurtxoa seaskan lo zegoen, ikullu ta sukalde arteko gela batean. Etxean aurra bakarrik. Beste guziek soroan lanean. Ikullutik atera ta txerri bat umearen gelan sartzen da. Txerriak ozka egin da odolusturik zegoen aurra, familia sartu zanean.

Ezbear orrek bizi guzirako minduta utzi zuen ama, nere osabak zionez.

Gizon irikia ta aurrerakoia omen zan bere aita, nere osabaren iritzian. Berak erosi zituen etxea ta lurrak. Ez ziran aberatsak izan beñere, baiño ez oso beartsuak ere. Landare-zale ziran, beste lan batzuen artean. Abereen salerosketarako ere begi ona omen zuen.

Nere aitari bezela nere osabari ere askotan entzun izan diot, Ordiziako edo Alsasuako feritik etxerakoan egin oi zuena: irabazitako txanponak sukaldako mai gaiñean jartzen omen zituen, danon aurrean. Seme-alaben poza, txanpon-pillak lerroka jartzean!

Olako zerbait ikusita nago nere aitari Gazteizen: ez zait sekula aaztuko. Aidanen nere aitak baserrian nere aitonari ikasitako oiturak zekarzkien gure artera.

Nere aitonaren izakera aurrerakoia ondo adierazten zuen zerbait esan oi zuten nere aitak eta osabak.

Len esan det nere osabaren iru arreba erlijiosa joan zirala. Mikaelak konbenturako asmoak artu zituenean, solfeo ta pianoa ikasten asi zan Atanuen bertan. Egun batez, Ordiziako feritik etxerakoan, or zettorrek gure gizona, piano bat gurdian duela.

Ez zan txantxetako kontua: lengo gizaldi-bukaerako Ataunen, baserri batean, piano bat eta pianista bat, alajaiña.

Egitan piano arek asko lagundu zion Perune-zarreko alabari konbentubizitzan. Mariaren mirabe zalarik urte askotan eta ikastetxe askotan piano-irakasle izan zan Mikaela eta Anglet-eko (Ipar-Euskalerrian) San Bernadoren konbentuan organista azkenik.

Au ere osabari entzun nion, azkeneko arreba ori il zitzaionean: aste batzuk leenago, 92 urte sorbaldan zituela, euskal-kanta zaar batzuk jo omen zizkien pianoan anai ta illobai.

Agian azkeneko aldiz orduan zapaldu zituen teklak. Lenengo aldiz bere jaiotetxean egin zuen ori, lengo gizaldiaren bukaeran, ikulluko beien marru, sukaldeko su-txinparta eta Agaunzaren ur-otsen erdian.

Baiño Peruneko nagusia ondo ezagutzeko ez degu aaztu bear, alabari piano bat eskuetan jarri dion aitak ez dakiala irakurtzen. Nere ustetan, bere seme-alabak kultura-bideetan sartu dituen gurasoa ez da erabat analfabetoa. Bear bada letrak ez ditu ezagutzen, baiño kulturaren sena bai.

Bestalde, ez zan arritzekoa gizon aiek analfabeto izatea, otordutan ta loa ta urdaia jatea arritzeko ez zan bezela. Ara zer idazten zuen nere osabak 1925'an, San Gregorioko eskolari buruz:

Garai artan (orain 50 urte) firmatzen zekitenak ez ziran ogeitik gora izango (5).

XIX'gn gizaldiko Españaren Historiatik artu ditut zeastasun auek: 1804'an España % 94 analfabetoak ziran (6). Nere osaba jaio baiño leenxeago, XII'gn Alfonso errege zalarik, % 75 analfabetoak ziran (7). Ala ta guztiz ere, osabak ala dio, bere aitak irakurtzen jakin ez arren, kontuak buruz ateratzen zituen: eskolak ukatu ziona, naturalezak eman, nunbait.

Erljioari buruz, Francisco Antonio Barandiaran benetako sinistuna zan. Emazteak eta biok kristau-giro jator bat sortu zuten baserrian.

Garai artan oitura zanez, santuen bizitzak irakurtzen ziran etxean. Nere osabak gogoan du oraindik, artoa aletzera zetozen gizon da emakumeek zein ñen ixilik entzuten zuten Brabanteko Genovevaren bizitza. Besteetan, gal-tzerdiak egiten ari ziran bitartean, Errosarioa edo Kalbarioak errezatuko ziztuzten.

Santuen bizitzak berebiziko sarrera egiten zioten nere osabari bere aur-tzarroan: bakardaderako asmoak artzeraiño. Ortarako leize-zulo bat ere aurkitu omen zuen Saatsamendin, Alsasurako bidean. Arrezkero ez zuen ikusi zulo ori, Frantziatik itzuli zan arte, 50-60 urte pasa arte. Eta, umeetako oroi-



*Perune-zarreko iru Barandiaran Ayerbe anaiak.
Ezkerretik eskubira: Nere osaba Jose Migel,
nere osaba Jose Antonio (baserriaren jabea) ta nere aita Jose Inazio.*

tzekin gertatu oi dana, orduan leize sakona uste zuena, azaleko utsune bat besterik ez zan.

Ttikitako irudikeri aici, ameskeri-idealak esango zien geroago.

Leen esan det bere ama Mari Anttoni Ayerbe ta Dorronsoro Aldakotxo baserrikoa zala. Baserrietako etxeokandre guziek bezela, etxeok ta soroko lanak egin bear izaten zituen.

D. Jose Migelek Eusko-Folklore-orrietan argitaratu zituen ipui batzuk,

bere amari entzun zizkion. Ikusten danez emakume langillea, neurrizkoa eta burutsua zan.

Amagandik gertu bizi izan zan beti nere osaba: agian, txikiena ta osasun gutxienekoa zalako.

Amaren anai bat Ameriketara joan zan. Gauzak poliki atera zitzaizkion nunbait eta Argentinan ostatu-negoziotxoren baten jabe egin zan. Ezkondu ta alaba bat izan zuen.

Gure Gazteizko etxean bazan kutxa zaar bat. Zenbat aldiz miatu ote nituen nik aren barrenak, paper zaar billa. Alako batean an azaldu zan neska baten argazkia: musu zabal, begi eder, burua lasto-txapel batez estalia. Atzean itz auek irakurtzen ziran: "Nere lengusu Joxe Mieli" ta izenpea: Elena Ayerbe.

Egun batean nere osabari galdetu nion Elenaren berri. Bere osaba baten alaba zan, Argentinan jaioa: Peruneko iru anaiek fotografia bat bidali zieten Ameriketako aideei; jasota daukat foto ura. Era ortan berritu ziran aspaldiko artuemanak eta erantzun bat bezela, lengusuak lengusu apaizari argazki ura bidali.

Goazen oraindik nere amonaren (aitaren aldetik) berri ematen: bere aitona bat jeneral karlista Zumalacarreui ospetsuaren lengusu zan. Ain zuzen Zumalacarreui zelatari ta ixil-mandatari bezela erabiltzen zuen gerra garaian bere lengusu ori. Bitartean Zumalacarreui zaldiak uzten zizkion lur-lanetarako. Odolkiak ordafietan.

Jose Migelen aurtzaroa geldi ta lasai igaro zan. Baserri batean egunak berdintsuak izan oi dira: su ondoan eta amatxoren babesean.

Baserri artan eta amatxoren aotik ikasi zituen mutikoak leenengo otoitzak. Gauero esango zuen lokartu baiño len, Ataungo familietan esan oi zan otoitz ura.

Jesus, Maria, Jose
Santa Ana ta San Joakin,
Goazen guztiok
Zerura alkarrekin.

Osaba berak idatzi digu famili-katekesi bat: ama katekista: amak semeari zeru-bidea erakusten dio. Esan diteke, nere osabak, au idaztean, gogon zeuzkala jaiotetxean bere amari entzundako itzak. Ama izketan:

Gauza guzien jabe da Jaungoikoa: beiak, oilloak, gizonak, emakumeak, danak Jaungoikoarenak dira. Gizon guziak baiño indartsuagoa da Jaungoikoa. Berak egin zituen eguzkia, illargia, izarrak eta Berak darabilzki. Ona bazera, zerura eramango zaitu: an sari asko dituzu. Antxe daude zure aitona-amonak... andik begira daukazazu ta, iltzen zeranean, pozik artuko zaituzte. Ni, aita ta senideak ere antxe izango gaituzu. Gurutzean ikusten dezun Gizon ori, mundura etorri zan Jaungoikoa bera da: aurtxoa izan da gero, aunditu zanean, gizonei gauza onak erakusten zizkien (8).

Mutikoaren erlijio-ekiketa eta aziketa, biak batera zijoazen. Gero ta geiago sartuko zan familiako otoitzetan; Errosario, mai-bedeinkatze, anjelus. Gerorago gurasoekin meza ta bezperatarra; zazpi urtetan aitortza eta amarretan Lenengo Jaunartzea egiteko zaleturik.

Etxean ildakoen alde egin oi zituen otoitzak zerbait aldatuak ikusten ditu elizan; sepulturetan argizariolak, argizaria erretzen.

Etxe-bizitza ta illobia elkarrekin loturik azaltzen zaizkigu prehistorian; leizea bietarako erabiltzen zanean.

Gaur ere gure etxe bakoitzak badu bere illobia parroki-elizan. Bizitza-lanak lokarri arrigarrik loturik daude. Familia bizidunetan asten da eta illetan jarraitzen da (9).

Txikitandik ikasi du parrokiako apaizei begirunea agertzen. Beorika itzegiten die eta diasala, Ataungo oituraz, "Ai Maria pruxuma" izango zan.

Erljioarentzat santutegi jatorra dan etxe orretan giro bikaina aurkitu zuen, personaren eta gizartearen bizitzak tajutzen dituzten oiturak, ikasteko.

An ikasi zuen gosari ta afarirako taloak erretzen; famili arteko adrerie begirunez ikusten; erri-festetako pozetan eta auzokoen eriotz-ordutako negarretan parte artzen; odolki ta azpizunak auzokoei ta apaiz jaunari eramaten eta etxe bakoitzean itz berdiñak esanaz: "Gauza gutxi dala, baiño artzeko".

Famili barruan kristaua ta gizona eldutzen ari dan bezela, alaxe etnologia-gai au asi da jakintsu egiten. Julio Caro Barojak onela dio:

XIX'gn gizaldiaren azken amarurteurrenean Goierrin, Ataunen, mutiko bat jaio da. Familia lengo zaarretakoa da. Familia ortako semea apaiztarako da. Au ez da batere arritzekoa. Baiño bada zerbait arrigarri: buru azkarra eta, nere ustez, oarmen berezi bat ditu. Mutikoak entzun ditu, amaren izkuntzan, siniskera, ipuiak, mitoak. Gaur edo biar erabaki bat artu bearko zuen esaera oiei buruz (10).

Siniskera zaarrak jasotzen dijoa gure mutikoa. Lengo kulturetatik datozen

itz eta oituretara jartzen ari da. Ola jakin du eguzki-lorea eguzkiaren sinbolo bat dala. Eguzkiak bezela etsaiak uxatu ditzakela: etxeko atetik sorgin eta tximistei sarrera galazten diela. Ikusiko dituen oiturak: San Juan bezperan (eguzkiaren egunaren bezperan) lorez eta belarrez ateetako alartzeak apaindu, elorri ta lizar-adarrez etxeak babestu. Bere garaian jabetuko da oitura oien mamian Arioen erlijio zaarra bizi dela (11).

Berdiñ, ortzia gauez argitzen duen illargia persona baten antzera azaltzen da: *Illargi amandrea*. Abere sagartuak bazirala ere entzungo zuen; *Prakagorriak* edo sorgiñen ingumak.

Era ortan joan ziran nere osaba Jose Migelen egunak bere jaiotetxean. Itxuraz XIX'gn gizaldiaren azken aldeko mutiko baserritar bat, ingurune basati, nekazari-familia ta baserri-giro batean itsatsia. Baiño barrendik... nork daki nolakoa dan mutikoa barrendik?

Atalburu ontan D. Jose Migel Barandiaranen baserriko bizitzataz mintzatzen naiz: bada gai ortan ixildu ez dezakean alderdi bat: bere jaiotetxeari dion maitasun berezia. Nabarmendu gabe, otzixuran iñoiz, baiño beti azpila-nean ari dan gaitz bat bezela. Etxea ta familia biotz-mamian daramazki beti. Sinfonia batean, asi ta bukatzeraiño, noiznai azaltzen dan eresigaia bezela. Bere maiteberatasunaren garra etxean azaldu zuen aurrenekoz. Geroago aipatuko degun bere amaren eriotzak biotzondoko latza eman zion. Ona bene itzak:

—Urte askotan ez nuen itzik atera nere amaren eriotza zalata. Illa zaniñ ez nuen esan nai. Ezin buruan sartu joan zala: ain bizi neukan nere oroimenean. Il zala esatea, neronek orain iltzea jotzen nuen.

Gero, bizitzak asko erakutsi zion jakintzetan eta amets-etenetan (desengaiñoetan): orduan ere bizi-bizi agertuko zan bere etxe-miña.

Bere 82 urteetan auxe aitortzen zidan: Zenbat negar egin det nere arreba monjei idaztean eta nere jaiotetxeko bizitzataz oroitzean!

Eta gerrak eraginda baserritik eta familiarik alde egin bearra etorri zanean, eta erbestean 17 urte pasa bearra, biotzak ezin alde egin beretakoengandik.

—Biarritzen bizi nitzela askotan joan oi nitzen itxas-argi-dorre ingurura. Ango aulki batean exerita, Ernio mendiari begira egoten nintzan. Bitartean nere pentsamentuak mugaz aruntz zijoazen, nere kolkorako esanaz: "Mendi-gallur ortatik ikusten dek nere etxea".

Au dana jakinda, errex ulertzen det udara batean aitortu zidanak miñ emango ziola:

—Biotz otzeko gizontzat artu naute beti.

Berrogeita amar urte baiño geiago pasa dira nere osabak onoko itz aukeratu zituenetik: eta ori egi utsa da gaur ere:

Urruti bizi dan euskaldunari erri-miña biotzera sartzen bazaio, geienbat famili-miña ta etxe-miña izango dira.

Eta zorionak edo zoritxarrak eramanda bizi dan urrutietatik, erbesterratu batek jarritako bertso aukeratu gogoratuko ditu:

Ez dit egunik,
Ez eta arratsik
(Sinista nazak ik)
Pentsamentuz itxera
Joan gabetanik (12).

1973 urteko udaran jarri nion galdekizunari erantzutean, nere osabari korapillo bat egiten zitzaion eztarrian eta galdeera-gaiak familiarekikoak baziran, begiak bustitzen zitzaizkion.

OARRAK

- (1) Julio Caro Baroja-ren, *Los Vascos*. (Biblioteca Vascongada de los Amigos del País. Donostia 1949), 169-70 orri.
- (2) A. Juan Luzuriaga-ren, *Paraninfo Celeste. Historia de la misteriosa zarza, milagrosa imagen y prodigioso Santuario de Aránzazu*. (Madrid 1960), 5'gn orri.
- (3) Jaime Querejeta-ren, *El euskera en la heráldica*. "El Correo Español-El Pueblo Vasco"-n (Bilbo, 73-VIII-1).
- (4) Pierre de Lancre, *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et demons* (Paris 1612).
- (5) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit., *Nacimiento...*, 38'gn orri.
- (6) Jose Maria Jover-en, *España moderna y contemporánea*. (Teide Argital. Barcelona 1969), 178'gn orri.
- (7) Hans Hoptatter-en, *Historia Universal Comparada*, VI'gn Lib. (Plaza y Janés Argital. Barcelona 1971), 162'gn orri.
- (8) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit., *Nacimiento...*, 26'gn orri.
- (9) Anastasio Arrinda-ren, *Religión Prehistórica de los Vascos*. (Añamendi Argital. Donostia 1965), 10'gn orri.
- (10) Julio Caro Baroja-ren, op. cit., *Barandiaran...*, "La Academia Errante"-ren. *Homenaje...*, 14'gn orri.
- (11) Jose Migel Barandiaran-en, *El hombre primitivo en el País Vasco*, (Itxaropena Argital. Zarauz 1934), 83'gn orri.
- (12) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit., *El hombre primitivo...*, 67-8 orri.

III

Leenengo ikasketak

*Zenbat amets gaizto egiñ ote ditut
beti gai berean: liburuak, irakasleak,
esamiñak. ¡Batezere esaminañak!*

J. M. B.

Baliteke norbaitek ez sinistea, baiño au egi-egia da: D. Jose Migel Barandiaranentzat, bere aurtzaroan, estudioa ta eskola ez zirala oso lagun kuttunak.

Eskolara ez zan gogoz joaten eta alaolako ikaslea omen zan, berak dienez.

Esaera orrek badu bere kakoa, nere ustez. Historia askotan, zoritxarrez, persona batzuk ikaragarri bikaiñak azaltzen zaizkigu. Bai jakintzetan, bai literatura eta arteetan izugarriak, persona elduen lanak egiten.

Zer esan, oraindik urte gutxi dirala, idazten ziran santuen bizitzai buruz: ango birtuteak, mirarizko gertaerak eta beste bizitzarekiko artuemanak.

Oi ez bezelako gizonak izan dirala, nork ukatu. Giza-bizitzaren goieneko maillak ere neurtuak, mugatuak dirala, aitortu bear, ordea, giza-maillak diranez. Gizona giza-mugetatik atera gabe ta, persona jaso bearrez, bere gizatasuna kendu gabe, jokatu bear degu. Gizon ospetsuen historietan arrixku aundiena auxe dala, esango nuke: gizona ezgizon egitea.

Gorputz bakoitzak egiten du argitara bere itzala. Eta giza-bizitza bakoitzak baditu bere mugatxoak, itzaltxoak jaiotzetik illobiraño. Eta ain zu-

zen, argi-itzal, ots-ixilaldi oiek diralata sortzen da artea: margo-erti ta eres-erti, Berdiñ, bikaintasun-argiak eta mugaen itzalak osatzen dute gizonen historia. Gizon aundiengan argiak itzalak baiño biziagoak eta luzeagoak izaten dira, ordea.

Gure arian sartuaz; ikasketa-alorrean gizon jakintsuenak askotan bada-ezpadako ikasleak izan dira. Au ez leike esan bete-betean nere osabari buruz, erdizka bakarrik: leenengo ikasaldietan, alegia.

Sendagille eta idazlari ospetsu Maraño jaunak eskol-agiri (nota) naiko ezberdiñiak eta exkaxak atera zituen bere estudiantan. Berak idatzia:

Ikasle txar bat izan ditek, urteak zear, gizon aundi bat. Ikasle bikain bat, betiko eskola-agiri onen jabe ori, ia naitanaiez, bizi guzirako itzali egingo da. Bere eginkizuna orixe bakarra zan: eskol-agiri onak irabaztea (1).

Eta argi-bide batzuk ematen ditu:

Cajal, Pasteur bezela, badaezpadako ikaslea zan: eta bere gizon aundien liburuan, Oswald-ek ala dio: goi-maillako gizon asko ikasle exkaxak edo benetan txarrak izan ziran, beren karreretan (2).

Pio Barojaren burua ere ez zen beste munduko gauza leenengo urteetan. Ala dio berak:

Nere irakasle geienek tontotzat neukaten (3).

Nere osabaren leenengo ikasketak zer giro ta ingurunetan gertatu ziran, esaten asi gaitezen.

Ataungo San Gregorion —nere osaba Jose Migel angoa zan— bazan eskola bat, ta eskola-maixu D. Manuel Arrese: len ere aipatu degu jaun ori sakristau-lanetan.

Irakaskintza erderaz ematen zan. Or ziran lanak. Mingarria benetan eta naturalezaren aurkakoa bide auxe, batezere, nere osabak 1925 urtean idatzia, gogoan izanik: garai artako eskola-izkuntzari buruz —bere eskola-garaiaren antzekoa noski— ola dio:

Orain berrogei urte Ataunen ez zekiten erderaz apaizek eta aberatsen batzuek bestek. Orretxegatik erdera aberatsen eta ikasien izkuntza jotzen zuten guziek (4).

Beraz ikasleetan inork ez zekien erderaz. Irakasleak euskeraz bazekien, eta euskeraz ezi zitazken bere ikasleak, bide egokiena zanez. Baiño legeek debekatu egiten zuten irakaskuntzan amaren izkuntza erabiltzea. Gobernuaren inspetoreek zorrotz beartzen zuten legea betetzera.

Irakaslea estu ta larri arkitzen zan: bitan bat: aurren eziketarako araurik bidezkoenak pikutara bota —umeen maillara egokitzea alegia— ala, aurren eskubide jatorrenak oinpean pasa ta legea bete.

Ez zegoen aukerarik: legea bete bear zan, ogibideari eutsiko bazitzaion. Gauzak orrela izanik, Ataun San Gregorioko maixu D. Manuel Arrese, irakasle zorrotza, beldurgarria, baiño miretsia, izatea ez da arritzekoa.

Zana zala, miretsia. Egia da. Nere osabak ez dauzka aaztuta, ikasleei ikasgaiak buruan sartzeko, gizon arek egiten zituen egiñalak, izkuntzaren eragozpena menderatu nairik.

Zer ez zuen asmatzen maixu arek, legea beteaz, neska-mutikoen adimenak ezitzeko? Eskola-liburuak erderaz zeuden, baiño maixuak euskeraz esplikitzen zituen. Txalogarria benetan maixu arren jokaera.

Egia esan bear bada, euskeraz erakutsiak ainbestean sartzen ziran bu-ruetan. Baiño erderaz eta buruz ikasitakoak, belarri-zulotik ez ziran pasatzen. Inspetorearen aurrean itxura egiteko bestetarako ez zuten balio. Euskeraz esandakoa ondo jasotzen zuten buru kutsugabe aiek eta geroko bizitzarako ondo zetorzkien.

Guipuzcoako irakaskintza olaxe negargarria ta parregarria zan garai artan. Negargarria, irakasle ta ikasleen eskubideak zapaltzen zituelako: parregarria, ikasleek, zer esaten zuten ez zekitela, definizioak botaka, aritzen ziralako.

Gogoan ditut, eskola-giro artan ezitako nere gurasoei entzuten nizkien kalamatrika luze-naastuak, bai arimetikan bai geografian. Nere aitak buruz esan oi zituen *patronímicos, gentilicios y derivados*, eta nere amak ematen zuen *Gramática Española*-ren definizioa —nolako segurutasunakin—: *el arte de hablar y escribir correctamente la lengua española*.

Gauzak alderantziz, naastuta esaten ziranean, gertatzen zan politena. Euskerazko pentsakerakin erderaz goi-maillako matematikataz, edo urrutiko lurraldeetaz itzegitean. Ura zan *Disparate-bilduma* (5). Esaerarik aldrebesean, ikasleak asmatu ta goiengo jakintsuei ezarriak.

Azken batean auxe nai zan: euskera erabat galdu. Eskolan zearo debekatuta zegoen euskera, ez eskola-gaietan bakarrik, ikasleek elkarri zerbait esateko ere bai.

Nere osabak gogoan dauka oraindik, eskolaren asieran itsu-itsuan esan oi zuten erderazko otõitz ura: *Iluminad, Señor, nuestro entendimiento y moved nuestra voluntad*. Argitu, Jauna gure adimena eta eragin gure naimenari.

Ikasleen esku egoten zan, euskeraz itz egiten zutenak salatzea: ortarako joko bitxi bat asmatu zan. Astearen asieran maixuak ikasleren bati erantsiko zion eratzun bat. Norbaitek euskeraz egiten bazuen, eratzuna jaso bear. Ez da arritzekoa; eratzun-jabea nor arrapatuko argi zebillen, une guzitan, ari eratzuna emateko.

Sistema egokia zan au polizi-giroa sortzeko, zelatariak egiteko ta ikasleen artean gizarte-artuemanak ondartzeko. Adixkidetasuna baiño leenago zan, etsaia arkitzea eta zigortzea.

Jokaera orrek bere fruituak eman bear, naitaez: larunbatean eratzun-jabe izateko beldurra, akullu zorrotza zan ikasleentzat. Pitxi ori zeukana maixuak zigortu egingo zuen kupiragabe. Errudunen billaketa itxuragabe orrekin batera, garai artan indarkeriazko zigorrak. Pizti-legea nagusi.

Euskeraren aurkako jokaera oriek ez ziran zoritxarrez atzo goizekoak. XVIII'gn gizaldiaren asieran esaera zorrotz auk idatzi zituen Aita Kardaberaz-ek:

Ez det ikusi munduan Euskera baiño izkuntza zorigaitzokogorik: euskeraz mintzatzea pekatu rik aundiena balitz bezela, gizonen artetik kendu ta lurpean sartu nai lukete: ta eskoletan debekatu egiten dute, eratzuna, egurra ta zigorraren bitartez. Erokeri itxuagorik? Euskaldun jatorrok, arren, ez olako iraiñik egin zuen lenengo eta bearreneko izkuntzari. Nun dezue burua? Nola izan diteke gauza onik Euskalerrian? (6).

Indarkeri ta zigor-giro ortan, gaiak buruz ikasi bear ortan, ez arritu ikasleek maixua ta eskola ez maitatzea.

Ez eta ez da arritzekoa, maixuak zigortu ala, ikasleek okerren batzuk edo kirtenkeriren batzuk egitea.

Nere aitari entzun nion onoko gertatu au: egun batez, maixuak esplikatu die ikasleei ikasgai bat, eta neska-mutillek gai ura ikasi arte, irakaslea exerita dago, atsedean labur bat artzen. Alako batean, burua besoen gaiñean duela, lo gelditzen da: logureak menderatu du, nunbait. D. Manuelek bizar luzea ibili oi zuen, orduko moda ala zan da: maixu ta maiaren artean bizar-muturra zintzilik. Alako batean mutiko biurriren bati pentsamentu bat jaio zaio: poxpolo batzuk artuta an dijoa maixuaren maira. Poxpolo piztu ta maixuaren bizarrei su ematen die. Ikasle denek bat-batean igesi dijoaz, "Maixu bizar-aundie" ots egiñaz.

Ola ba, nere Osaba Jose Migelek ez zuen oso gogokoa eskola: alderan-

tziz, zailtasunak eta zigor-beldurra ziralata, gorrotoa zion eskolari. Orregatik ez zan txintxoenetakoa ta, aitzakiren bat sortzen bazan, piparra egiten ere bazekien.

Zenbat aldiz entzun ote diot, txikitako beldur arrek ikutu bat utzi ziola bizi guzirako. Bere ikasketa guzietan beldurrak ez zion pakerik ematen, batezere klase-sarreran eta esamiñatzekoan. Gaur oraindik aitortzen du, gauzez amets gaiztoak dituenen, amets-gaia beti bat izan oi dala: liburuak, irakasleak, esamiñak.

Len esan det, D. Manuel Arrese maixuak egiñalak egiñaz, nolabait ere bere jakitea buruan sartzen ziela Ataungo ikasleei. Aritmetikari garrantzi berezia ematen zion. Eta, egia esan bear bada, nere osaba ez zan motela kontuak ateratzen. Baiño lenengo ikasketetan ikasgairik maiteena geografia zan nere osabarentzat. Geiegi nabarmendu gabe, ordea. Bereak dira itz auk: "Eskolan beti besteak bezelakoa izan nitzen. Eta oroimen txarrekoa".

Baiño bereala nabarmendu zitzaion jakin-miñ bat eta biltzaillemiñ (*coleccionista*) bat ere bai: orrek naturalista-sikologija esan nai omen du, Dr. Luis Martín Santos, sikiatra ospetsuak dionez.

Biltzaille-griña izadi-zale izateko bearrezko mailla bat da. Ez zan izango izen ori merezi duen izadi-zalerik, leenago bilduma-zale izan ez danik (7).

Bein baiño geiagotan entzun diot nere osabari, oraindik eskolan zebiliela, Ordiziako trenestaziora nola joaten zan, Tolosako papelerara paper zaarrak zeramazkiren bagoiak miatzera. Orduan jasotako mapa batzuk gordeta dauzka oraindik.

Amalau urtetan utzi zuen eskola, baiño ez ikasketak. Bizi guzirako izango dan bide bati elduko dio.

D. Jose Migel Barandiaran eta Ayerbe ez zan bearbada Euskalerrian prehistorilari ta etnografilari ospetsua izango, apaizgintzan sartu ez balitz. Jaungoikoak nai izan zuen, euskaldun berezi ura, bide batez, Elizari eta jakintzari lotzea. Luis Castresanak "gaur bizi dan euskaldunik garrantzitsuena" deitzen dio (8).

Askotan etorri zait burura apaiz izate ori, onako esaera au entzun dedanean: "D. Jose Migel apaiza izan ez balitz, askoz ospetsuagoa izango zan" Ziur nago, bere eskola-lagunek bezelakoa izango zala: bere erriko baserritar bat, edo inguruko fabriketan langille bat.

Jaungoikoari eskerrak, apaiz izatea erabaki zuen. Berak bakarrik era-

baki ere. Amak noizbait itz erdi bat esan zion bai, gai oni buruz. Nere osabak ondo gogoan dauzka, amak bere ametsa agertu zion, unea ta lekua: baserriko ganbaran... Semeak ezezkoa eman zien —orduan beintzat— amaren ametsai. Zergatik? Estudioei zien beldurragatik: agian, maixuari zion beldurra.

Ari berean, D. Jose Migelentzat apaizetarako ikastea, apaizak parrokiako aldarean erabiltzen zuen Misal potolo ura ikastea zan.

Ala esan oi zuen: "Ainbesteko liburua buruan sartzeko ez nitzela gauza, pentsatzen nuen".

Alare, gero aldatu zitzaion iritzi ori. Artu zuen erabakia, bere-berea izan zan: sakonki pentsatua ta ez inork ezarria.

Amari azaldu zion bere asmoa: amak erantzun zion, ez zegoela karrera bat egiterik. Ezta itzik ere geiago. Alare urrengo udaran, gurasoak lagunduta, asi ziran prestaketak, ikasketak ekiteko: laguntzaille, Segundo Garayalde izan zuen, auzoko apaizgai teologoa: gero apaiz egin zan eta Donostiako Santa Marian Erretore zala il zan, oraindik urte gutxi dirala.

D. Jose Migelek erabakita zeukan apaiz egitea eta laixter sartuko zan Apaiz Ataundarren zerrenda luzean. Gero, beste ataundar batek, D. Juan Arin Dorronsoro apaizak, aztertuko zituen bere apaizkideen bizitzak. D. Juanek bere "Ataungo Apaiz eta Erlijiosoak" liburuan dionez, nere osaba semi-



Luis de Castresana idazlarria ta bere emaztea D. Jose Migelekin Ataunen 1970'gn urtean.

narioan sartu zanerako, 105 apaiz sekular izan ziran Ataunen, XVI'gn gizal-ditik asita (9).

1904 urtearen udaizkenean sartu zan Baliarraingo Prezeptorian, lenengo urtea ikasteko. An Latiñeko iru urte ikasten ziran.

Menditxo baten egalean arkitzen da Baliarrain, erri txikia, ta, Orendainekin eta Ikazteguietakin batera, Iruerrieta osotzen du. Donostiatik 37 kilometrorra arkitzen da bide zabalez, eta Iparreko trenan Legorretan artzen du.

1900'gn urteko zensoan, —nere osaba Prezeptorian sartu zaneke garaietan—. Baliarrainek 216 biztanle zituen eta beren langintza guztiak nekazaritza eta abere-zaintza ziran (10).

Txoko egokia benetan, Nazareten antzera, Jainkoarekin artuemanak eukitzeko ta ikas-lanetan, pake ederrean, jarduteko. Apaiz eta jakintsu izango zan D. Jose Migelek antxe ekin zion erlijio-gaiak eta jakintza-gaiak ikasteari.

Elizaren aterpe-gaiñean zegoen Apaizgaitegia eta apaizgaiek iru etxetan bizitzen ziran: Erriko-etxean, Eskolan eta Serora-etxean. Prezeptoriako maixu ta dana, parrokiako erretore D. Luis Sarasola zan: maixutzaz gaiñera, eliz-lanak ere egin bear zituen.

Gure apaizgaiak asko sentitu zuen leenengo irteera, baita benetan eskertu ere, gero Abalzusquetako erretore izango zan D. Sinforoso Iburgurenekin egin zion arrera goxoa: baserritik lenengo aldiz aterata, aitak bakarrik utzi zuenean.

Ez zitzaion sekula aaztu, Baliarraindik Gainzara, lenengo aldiz, aitortzera nola joan zan, ango bidetxiurretan barrena, Segurako koadjutorea izatekoa zan D. Esteban Recondo apaizarekin batera: beste pentsamentuen artean, bat zeramakien ondo sartua: mendi oien atzean, baserri batean, antxe ari dituk nere gurasoak lan da lan, nik karrera egin dezadan.

Alde batetik jaiotetxe-miñak eta bestetik ezin ikasiak —erderaz ez zekialako batikbat—, eman zioten apaizgaiaren bokazioari lenengo astindua.

Lenengo iruillabetekoa bukatu zanean, gastuen faktura bat eman zioten: eguneroko 5 erreal. Ura zan mutikoaren kezka: nik ain gutxi ikasteko, orrenbesteko gastoak egin bear nere gurasoak.

Oporretan etxeratu zanean, bere kolkoa ustu zuen amaren aurrean. Amak ere bai erantzun goxo eta lasai bere semeari:

—Nai ez dala ezitik ibili bear.

Garbi ikusten da itz oietan, amak ez zuela apaiz izatera beartu nai bere semea. Baiño Jaunaren gogoan zan nunbait mutillak bere kezkek eta zailtasunak menderatzea ta aurrera jarraitzea.



Baliarraingo parroki-eliza. Apaiz-etxe zagraren ate guñean erroko Erretore ta apaizgai-belaunaldi batzuen Irakasle, D. Luis Sarasolaren oroit-arria ikusten da. D. Luisen ardurapean asi zan Jose Migel Barandiaran eliz-estudiotan.

Munduate baserriko nagusiak, —Perune-zarreko auzoko baserrikoak, alegia— bazuen Donostian arreba bat, ostatu baten jabea. Baliarraingo nere osabaren ikasle-lagun baten aita, —alargundu berria bera— Donostiako ostatu ortan bizi zan: Jesus Esnaola —gero Jesusen Lagundian sartuko zana— zan apaizgai ori. D. Jose Migelen lagun ori, oporretan, aitarekin arkitzen zan ostatuan: etxeoandrearen anaiarekin izketan ari zala, onek, Perune-zarreko apaizgaia zer moduz zebillen, galdetu zion. Eta ark erantzun, egun batzuk leenxeago Baliarraingo irakasleari entzundako itzekin: "Erderaz ez jakin arren, mutiko onek bakarrik egin zezazkek bi urte batean".

Itzuli da Munduatera Donostiako etxeoandrearen anaia eta esan dio Jose Migelen arreba Mariari, Jesus Esnaolari entzundakoa. Ori entzutean eta Jose Migelek zeukan gastatzeko beldurra jakinik, aita ala esan zion:

—Ikastea eta apaiz izatea guztatzen bazaizkik, aurrera: urte bat eta bi galduta ere ez zaiguk ajolik: mundu ontan saiatu egin bear dik, bestela ez dek ezer egiten.

Au entzuteak arnas berriak eman zizkion gure apaizgaiari eta kementsu menderatu zituen bere zalantzak: ikusten bait zuen eziñezkorik ez zegoela.

Esan da izan: Baliarraingo irakasleak esan bezela, Jose Migelek latineko aurreneko bi kursoak esamin batean pasa zituen.

Azkeneko esamiñak Gazteizko Seminarioan egin oi ziran. Garai artan esaminatzaillan buru D. Liborio Azpiazu, Seminarioko Erretorea eta kalonjea zan. Apaizgai ttikia ikustean, ala esan zuen euskeraz:

—Ataungo frutue.

Eta Jose Migelek, bere nerbio ta guzti, bersolari ikutu batekin, ola erantzun zion:

—Ez ola oittue.

Esamiña bukatzean D. Liboriok esandako itzak:

—Kastellanoa baiño latiña geiago dakik: baiño ura ere ikasi bearra zegok.

D. Liborioren itzei usai txarra artu zien apaizgaiak. Eman zidatek suspensoren bat, pentsatu zuen.


Gazteizko *Casa del Cordón* deitua, garai batean errege-jendeen ostatua eta baita Aita Santu batena ere, gizaldi onen asieran ostatu apal bat zan. An gelditzen ziran Gazteizera esaminatzera zijoazen apaizgaiak. Jose Migel ere an zegoen, bazkal ondoan, estu ta larri, D. Luis Sarasola noiz etorriko, esaminaren ondorenakin.

Etorri zan D. Luis eta etorri zan poza gure mutikoarentzat: ez zegoen aserre orduantxe. ¡Dana aprobata! 1522 urteko Otsailak 4, etxe ontan Utrech-ko Adriano Kardenalari, Aita Santu izateko aukeratua zala esan zioten albistariak, berri ona eman zioten noski munduari eta arrotzeko bidea Gazteiz-erriari. Baiño —gauza exkaxagoa bazan ere— asiera arrek ez zion adore makala eman nere osabari aurrera jarraitzeko. Berak dio: "nere bizitzako egunik zorionsuenetakoa izan zan ura".

Ala bearrez edo, gauzak egoki etorri ziran, gertakizun aren poza ixilik gelditu ez zedin.

Gazteizko apaizgai-lagun baten aita —Cerrajería bera— etxapero-gillea zan. Onek eskutaka bat etxapero eman zien eta aiek leertuaz etorri ziran etxera trenez. Barruko pozaren kidakoak ziran kanpoko ots aiek. Baliarrainen ereindako aziaren fruituak, Gazteizen bildu zituen.

Baiño Baliarrainen artu zuen ba Jose Migelek, bere bizitzako biotz-ondokorik aundienetako bat ere. 1905 urteko Abenduak 22, goizeko amaiketean,



Gazteizen filosofia ikasten
asi baño leenxeago.

56 urte zituelarik, il zan Ataunen bere ama, Maria Anttoni Ayerbe ta Dorronsoro. Biriketako tuberkulosis batek eraman zuen. D. Casiano Garayalde —erretore jaunak— ala idatzirik utzi zuen illen liburuan: illetak urrengo egunean —Abenduak 23— Gabon-bezperan ospatu ziran.

Eguberri-jaiak eta urtearen bukaera illunak izan ziran Perune-baserrian. Len esan det nolako naigabea eman zion gertakizun arek Jose Migeli ta zeñen iraunkorra: oso biotzbera izan.

Ama beti bakarra izaten da ta uzten duen utsunea ez dezake bete ezerk. Urte batzuetan ez zuen ezertarako aipatu amaren eriotzik Peruneko seme gazteenak. Aipatze utsak zauria berritzen bait zion.

OARRAK

- (1) Gregorio Marañon-en, *Raíz y decoro de España*. (Buenos Aires 1952), 155'gn orri.
- (2) Gregorio Marañon-en, op. cit., *Raíz...*, 154-5 orri.
- (3) Pio Baroja-ren, *Desde la última vuelta del camino*, (Oroitzak) I'go Lib. (Planeta Argital. Barcelona 1970), 257'gn orri.
- (4) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit., *Nacimiento...*, 79'gn orri.
- (5) Luis Diez Jimenez-en, *Antología del disparate*. (Studium Argital. Madrid 1965).
- (6) "El Correo Español-El Pueblo Vasco", Bilbo 73-VIII-1.
- (7) Luis Martin Santos-en, *El naturalista, su psicología*, "La Academia Errante"-ren, *Homenaje...*, op. cit., 197-8 orri.
- (8) Jose Migel Barandiaran-en, *Obras Completas*, I'go Lib. (La Gran Enciclopedia Vasca. Argital. Bilbao 1972), 1'go orri.
- (9) Juan Arin Dorronsoro-ren, op. cit., *Clero...*, 286'gn orri.
- (10) *Enciclopedia General Ilustrada...*, op. cit., III'gn Lib., 617'gn orri.

IV

Gazteizen apaizgai

*Seminario aundian estudiatzen ari
nitzela, gai guztiak nituen gogoko.
Kursoan ikasiak udaran sakondu eta
zabaldu egiten nituen.*

J. M. B.

Jose Migel Barandiaranen apaiz-deia ezagunago ta sendoago egiten ari zan, txikitako zailtasunak menderatu ondoren. Perune-zarreko gaztea bere burua Jainkoari sagaratzera zijoan zuzen, bere iru arrebaen antzera.

Zazpi senideetatik lauk Jainko-serbitzua aukeratzea, ez zan Perune-zarrean bakarrik gertatu, baiño ez zan uskeri bat ere. Familia ortako zaarretan ez bait zan ezagutu erlijiosorik.

Ala ere bazan urrutiko gertakizun bat etxe artan, gai oni buruz. 1806 urteko Azaroak 2 jaió zan, —gero Jose Migel jaioko zan gela berean— Jose Antonio Imaz, apaiza. Beti pozik aipatu oi zan etxe artan gertakizun au, beste familia batena izan arren.

XIX'gn gizaldian Karmeldar erlijiosoen inguru aietako ibillerak, zerikusirik izango zuten, bear bada, Jose Migelen bi arreba Karmeldarren konbentuan sartzeko. Badakigu, gaur Beneditarrek Lazkao duten konbentua, garai batean AA. Karmeldarrek euki zutela. Ataun eta Lazkao oso gertu daude. Karmengo Ama Birjiñaganako jaiera ondo sartuta zegoen, baillara artan.

Garai artan Ataunen oso giro egokia zegoen erlijioso-deia ereiteko.

Len aipatu degun D. Juan Arin apaizak bere liburuan dionez;

1860'tik 1963 urtea bitartean 60 gazte ordenatu ziran apaiz: 20 illabetero apaiz bat, gutxi gora bera.

Aldi berean 60 gizonetzko sartu ziran konbentuetan: 20 illabetero bat.

Eta berdiñ, aldi artan 121 emakume konbentutara: 10 illabetero bat (1).

Liburu berean, 1963 urtean Ataunek zenbat erlijioso zituen, esaten zaigu:

Ataundik Jainkoari sagaratutako personak —bizi diranak— 135 dira: sekular apaizak 33: prailleak 34: monjak 69. Ataunek XX'gn gizaldiaren leenengo erdian 2.337 biztanle ditu: beraz 17 ataundarretatik bat Jainko-serbitzurako izan da. España guziak —30 milloitik gora dituenek—, Ataunen arauera, 1.765.000 erlijioso bearko lituzke (2).

Baiño arrazoia ez da ori bakarrik. Gizonen estadistikak eta azterketak gora-bera, Jainko-grazia bere lanean ari da giza-pentsakerak baztarrera utzita.

Bokazioa, bai Jainko-serbitzurako bai munduan bizitzeko, oso zailla da ondo ezagutzen eta baditeke bat baiño geiago bere iritzietan galduta ibiltzea.

Naturezaren aldetik askotan izango da eldutasunik ezaren eragozpena. Personak, erabaki jator bat artzeko gauza ez dan adiñean, egin bear du aukera. Urte oietan ia arrazoi bakarrak auetxek izaten dira: gure familian ola izan da, alakok ola jokatu zuen, beste arek au esan dit.

Marañon, Maixu jakintsua, olaxe mintzatzen da *Vocación y ética* liburu oso ezagunean, bokazioaren alderdi illun au aipatzean:

Gogoan euki bear degu gizon-emakumeok, zorigaitz baten mendean gaudela, beste garaj batean aztertu dedanez: au da: oiñarrian gaitasuna dan bokazioa ondo eldu baiño leen, aukeratu bear degula gure bizibidea eta gizarte-etorkizuna. Persona bakar batzuk —bokazio garbi, goiztar, garaitu-eziña dutenak— kendu ezkerro, geienok gartzetxoaren lañiopean aukeratu bear degu gure etorkizuna: eta ortarako arrazoi guzia auxe izango da: Ekainean batxillertza egin degula eta Urrilla baiño leenago Unibersidadean edo Goieskolan edo talleren batean matrikulatuta egon bear degula (3).

Erlijioso-bokazioei buruz, urte auetan asko aipatu da, aukera norberak eta argi egin bear duela: eta ainbeste bokaziok uts ematearen errudunik aundienetako bat, bokazio oiek biltzeko era zaarra jotzen da. Ala ta guztiz ere interesgarria litzake, "berandukoak" izeneko bokazio oien iraupena, zenbateraiñokoa izan dan jakitea.

Ni ziur nago, bokazioak uts emate orren errua ez dala biltzeko erarena, bildutakoai eman zaien eziketarena, baizik. Jaungoikoagandik datorren deia gizarte baten barruan jasotzen da: israeldar bat Jainkoaren erritar zan, olako lekutan jaio zalako, bakar-bakarrik: kristau bat, jaiotzetik, elkarre-giroagatik,

da kristau: familia, erria. Giza-kulturaren beste gaiak bezela, sinismena ere personek elkartearen eskuetatik artzen dute. Ala dio *Holandako Kristau-ikasbideak*:

Gizonen eta gizartearen sinismenak zerikusi aundia du aurraren sinismenarekin. Orrek ez du esan nai, aurraren sinismena ez dala berea. Aurra, personalki, besteengandik artutako aberastasun-kide egin da (4).

Persona batek egiten duen aukera bere-berea izango badu, personalki onartu dezan, lortu bearko da. Elburu orren billa ibili bear du bokazioaren eziketa jatorrak.

Nere osaba Jose Migelen bokazioa zalata, esan degu gauzak nola gertatu ziran. Beste guziengan bezela, gutxi gora-bera.

1906 urtean bukatzen ditu —ta ondo bukatu ere— Jose Migelek Ba-liarraingo ikasketak. Garai artako iru gauza ez zaizkio sekula aaztuko nere osabari: leenengo zailtasunak ikastekoan, leenengo irakasle apaiza, D. Luis Sarasola ta leenengo lagunak. Lagunetan berezienak: D. David Esnal —azkenean Irungo Erretore izango zana— eta D. Manuel Lecuona, nere osabaren leenengo urteko laguna eta gero, Gazteizko Seminarioan, berakin ainbat artueman izango zituen. Urte askotan, orain dala gutxi arte, Euskal-tzaindiako buru izan da D. Manuel.

1906 urtean, Agorrean, ekiten dio nere osabak Filosofia ikasteari, Gazteizko Seminarioan. Ordutik asita 30 urtetan D. Jose Migel Barandiaranen bizitza Gazteizen igarotzen da; leenengo apaizgai ta gero irakasle ta buruzagi izanik.

Gazteiz, Victor Hugok (5) Nuremberg-en antzeko jotzen zuen uri gotikoa, gizaldi onen asieran probintzia bateko erriburu paketsu bat zan: apaiz-giroko eta zaldun-tankerako erria, Pio Barojak zionez (6).

Gaurko Arabako erriburua, 180.000 biztanle, ta industri asko dituna, nazioa batezbeste % 11 azi dan bitartean, % 80 azi dana ikusi ta, gizaldiaren asierako Gazteiz ura ikusi —25.000 biztanle dituela, parte zaarreko kaleetan geienak— zer nolako aldaketa.

Santxo Jakintsuak Vitoria izendatutako Gazteiz zaarraren gaillurrean arkitzen ziran ain zuzen, nere osabaren denboretan, Seminarioaren bi etxe zaar aiek, Katedralaren inguruan: 1930 urtean berria iriki zanean, itxi ziran bi Seminario zaarrak.

Seminario Konziliarrak eginkizun asko ta era askotakoak izan zituen: gaixo-etxe, Erruki-etxe, Ikastetxe, Ama-etxe, agian Eder-etxe (emakumeen presondegia). 1880 urtean, Gazteizko bigarren Gotzai, D. Sebastian Herrero jaunak, Seminario Konziliar biurtu zuen.

Beste etxea, Seminario txikia, Alava ta Eskibeldarren etxea izana ta gero *Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* bazkunaren lan-lekua izango zana. *Guía de Forasteros* izeneko liburuak —historilari arabatar D. Lorenzo Prestamerorena, diotenez— auxe dio jauregi orri buruz:

Ikusgarria da etxe onen aturrea, Berrugueteren tankerakoa: baita bere bailagibel (patioa) eta zurubia ere: or egiten ditu Bazkunak bere batzarrak eta marrazkia erakutsi ere bai (7).

Prestamero berak lagundu zion Humboldt-i —Goete ta Schille-ren adixkideari— jauregi ori ikusten, lenengo aldiz 1799 urtean Gazteizera etorri zanean.

Arabako apaiz, D. Domingo Agirrek, 1854 urtean, Bazkunaren lenengo etxe onetan, Eliz-Seminario bat sortu zuen, bere izena zeramakien Seminarioa. Sorkuntzako agiriak dionez, beren bizikera ta jakitez erria, Eliza ta Estadua goratuko dituzten erretore santu ta jakitunak prestatzeko sortu zan Seminarioa (8).

Gazteizek ordutik, Iparraldeko Atenas izateko, bazeukan Eliz-ikasketarako etxea ere, lengo *El Liceo*, *La Minerva*, *La Academia Cervantina*, *La Teriulia literaria del 73*, *El Ateneo* eta olako kultura-etxeaz gainera.

1906 urtearen udaizkenean asi zan Jose Migel Barandiaran filosofia ikasten, "karrera luzea" aukeratuaz.

Kastellano-izkuntzaren eragozpena menderatu ondoren, ez zan izan zailtasunik ikaslanari etekin ona ateratzeko. Izan ere, filosofi-ikasaldiak, agiri bikañenak jasoaz, bukatu zituen: "Oso Ondo" ta "Eskola-sariak" irabaziaz iru urteetan: alaxe daude idatzirik Seminarioko Ordezkaritzaren artxiboan.

Nere osabak dionez, ikasgai guziak oso gogoko zituen. Arreta ta jakinmiñ berdiñakin ikasten zituen denak. Baiño, zerbait aukeratu bear baluke, Logika, Ontologia ta Etika aukeratuko zituen.

Leenengo bi gaien irakaslea D. Pedro Menchaca izan zan: maixu azkarra ta argia: urte askotan Seminarioko irakasle ta Katedraleko kalonje izan zan: Euskalerriko elizbarrutiaren zuzendaritzan gizon aundienetakoa.

Nere osabak begirune aundiaz begiratu zion beti. Ortaz gainera biak atzerrira alde egin zuten eta Francian bizi zirala, oso adixkide egin ziran. Aberrira itzuli ziranean, nere osabak —Gazteiztik igaro bear zuen guzitan— ikustalditxo bat egiten zion bere lengo irakasleari.

Gogoan daukat azkeneko ikustaldi ura: 1971 urteko Eguberritan: ordurako buru argi ura illuntzen ari zan: gaitzak eta urteak ez bait dute bar-

katzen. Andik laixter il zan, 1972 urtearen asieran, ainbeste urteetan bere bizileku zan Gazteizen —bera Mungiatarra zan arren— 1904 urtean apaiz egin zan ezker. 92 urte zituen, nere osabak baiño amar geiago.

Nere osabaren adixkide eta askotan lankide, D. Tomas Aauri jaunari entzun izan diot zeaztasunen bat, D. Jose Migelen inguruan ibilitako gizon batzuen urteei buruz. D. Mateo Mugicak —Gotzaiak— nere osabak baiño 20 urte geiago eta D. Pedro Menchacak 10 geiago, zituztela, alegia.

Nere osabak asko goratzen zuen beste irakasle bat, D. Prudencio Dallo zan. Onek sartu omen zion Etika ikasteko gogoa.

Filosofiaren muiña diran jakintzen artean, izadi-jakintzetarako grifia asi zitzaion D. Jose Migeli. Urtean zear ikasitako gaiak zabaltzen jarduten zuen udaran. Geologi-fenomeno eta lur-azala osatzen duten gaiak errezago ikusten dira erri txiki bateko baserri-giroan. Auxe izan zan jakintzalariaren asiera. Mendiz-mendi edo bidetxiurretan zebilela, mineralak jaso ta sailkatzeñ, fosilak biltzen, igadura (erosio) lanak ikusten eta abar ibiltzen zan.

Lan aietan —laguntzaille bezela— leenengo irakurri zuen liburua, Jose Ignacio Landere-en *Geología y Paleontología* izenekoa izan zan. Liburu ura eta bere azterketak zirala ta, ezaupenak ugaritzen zijoan. Ataungo Muñan mendian 1916 urtean tregu-arri bat aurkitu zuen nere osabak: arri batean, goroldiopean, idazkun au ikusten zan: J. M. de B. 1907. Zer ikusi ote zuen arri ortan, bederatzi urte leenago, jakintsu-gai gazte arek, bere lenizkiak an idazteko? Filosofiako leenengo urtean gertatu zan ori.

Beste batean Itandietako Olaata mendian azterketa-saio bat egin zuen, igaduraren (erosio) indarra neurtzeko. Arri batzuk aukeratu, aien pisu, neurri ta tankerak zeaztasun guziekin artu ta mendiaren leku egoki batean jarri zituen, igadurak zer egiten zien ikusteko.

Fisikarako zaletasuna ere garai artakoa da. Gai ortan saritua eta orre-txegatik laboratoriko arduradun izendatu izan zalako edo, berealako leia sartu zitzaion: laixter otsaundiko fruituak emango zituen leia. Fisika-zalea zalata, karrera bukatu baiño len, gai ortako irakasle izendatu zuten: bai ogeita bost urte bertan jarraitu ere.

Beste gaiekin batera eta lagungarri bezela, izkuntz arrotzak ikasten ari zan. Ardura aundiz eldu zien frantzes, ingles eta aleman izkuntzei. Frantzetik kastellanora aldatu zuen leenengo liburua, Fenelon-en *Telemaco* izan zan. Gauza bat ikusten da garbi D. Jose Migelen ikasketak diralata: bere jakin-miñ izugarria. Onoko au esan al izatea bera ere, naiko arrigarri da: "filosofia ikasten ari nitzela, gai guztiak gogoko nituen". Baiño arrigarriagoa oraindik, egi ori amazpi urtetan zear esan al izatea.

Ez zeukan oraindik jakintza-gaietan elburu jakinik; azterketak noruntz

joko zuten, ez zan garbi agertzen: oraingoz jomuga bat ikusten zuen garbi, apaizgintza. Apaizgintza, ordea, giza-maillan adimen-lan bat da: beretzat eta besteen birtuteentzat oïñarri egokiena izango dan adimenlana.

Nere osabaren gaztetandiko pentsakera ta "meza ta lapiko" iritzi parregarri ura ez zetozen bat. Apaizgintzaren tresnak jakintza ta birtutea izango ziran: eta nere osabaren apaizgai-eziketak jakintza ta birtutea zituen oïñarri, garai artan. Nere liburutegian daukat oraindik Jaime Balmesen *Curso elemental de Filosofía* liburuaren ale bat, onenak emana: liburuaren leenengo orrialdean itz auek idatzi zituen nere osabak 1907 urtean:

Pazientzi gabe jakintzarik ez.
Birtute gabe pakerik ez.

Orra, or, egun batean elizgizon jakintsu izango zan D. Jose Migel Barandiaranek argi ta garbi azaldu, gazte-sugarrarekin, bere bi elburuak erlijio-maillan eta giza-maillan, adimen eta moral-maillan.

Filosofía bukatutakoan —19 urte bakarrik zituela— leenengo akademi-tituloa, maixu-tituloa, lortu zuen nere osabak.

Zergatik artu zuen bide ori, galdetu nionean, auxe erantzun zidan:

—Egun aietan nere lagun bat Seminariotik bidali egin zuten. Orduan au esan nuen nere kolkorako: "Eta ni bidaltzen banaute?"

—Olako zigor baten beldurra izateko arrazoirik bai al zenduen ba?

—Ordu arte ez zitzaidan sekula olakorik bururatu. Zuzendariek ere ez zidaten beñere ori pentsatzeko biderik eman: alare, lagun aren irteerak zirrara latza egin zidan, eta badaezpadare, titulo ofizial bat eskuratzea ona izango zala, pentsatzen asi nitzan.

Baiño ori bakarrik ez.

—Nere apaiz-bokazioari oïñarri sendoak eman nai nizkion, eta titulo ofizial baten bidez, nere bizibidea seguru eukiaz, nere bokazioaren egia garbiago agertuko zala, iruditu zitzaidan. Pentsatu ta egin.

Bi sailletan menderatu zituen maixutzarako ikasketa-esamiñak: danetara emezortzi gai. Ez zan txantzetan ibili gai oietan: marrazkia korreoz ikasi zuen. Askotan aipatu oi zuen, bere ikas-lagunek, beste norbaitek aurrez egin-dako, marrazkiak aurkezten zituztela ikusita, arriturik egoten zala. Ta bera ain txintxo ta zuzena!

Karrera bukatu zuen, baiño titulorik jaso ez, diru faltan.

Nere osaba filosofia ikasten zebillela, —filosofiako lenengo urtearen udaran garbi esateko— erlijio-maillako gertakizun aundi bat izan zan Gazteiz-en: Katedral berriaren leenengo arria bedeinkatzea ta jartzea: 1907 urtearen Abuztuak 4. Errege-Erregin XIII'gn Alfonso ta Victoria Eugeniaren aurrean eta X'gn Pio Aita Santuaren ordezkari, Rinaldini Kardenala zalarik.

Gazteizko Gotzai Cadena y Eleta jaunari lotuta dago Katedral berriaren arazo au: 1905-1913 bitarteko urteak ziran.

Bi sailletako arrazoiak aipatu ziran asmo au aurrera eramateko: pastoral-arrazoiak eta sozial-arrazoiak. Pastoralari dagokionez, lan onen egokitasuna onela azaltzen zuten Agiriak jasotako itzak:

Oraingoa (Katedrala) bide luze ta neketsuak lotzen dute uri berriarekin... beraz ez da erreza kristauak elizkizunetara etortzea (9).

Sozial-alorrean arrazoi au eman zion Cadena y Eleta jaunak erriko Udalarari:

Gaur ain garrantzitsua dan langille-arazo-korapilloa askaturik gelditzen da urte batzuetarako, lan au dalata (10).

Egia auxe da: Gazteiztar geienek begi onez ikusten zutela lan au. Ez dago garai artako egunerokoak ikusi besterik. Baiño ez litzake egokia izango, Gotzai-iritzia onartzen ez zutenek ere bazirala ukatzea.

Emango ditudan zeaztasun auek, gertakizun aietan bizi izan zen nere osabari entzun dizkiot.

Cadena y Eleta jauna elizbarrutiko artzai egin zanean, bere aurreko Gotzai Fernandez Pierola jaunak bildutako txanpon batzuk baziran Gazteizen: apaizek Estadutik jasotzen zuten sari urria osotzeko eta, al bait, askatasun osoa lortzeko asmotan bildutako txanponak. Ikusi ditezke Burgos-ballarako Gotzaiak Grazi ta Justiziako ministroari bidaldutako agiriak: an ikusten da nolako ekonomi-egoera larrian uzten zituen Estaduak elizgizonak.

Gotzai jaunak diru arrekin zer egin ziteken, kalonjeei galdetu zienean, norbaitek Katedral berria aipatu zuen. Geienek baiezkoa eman zioten iritzi oni. Baiño besteek asmoa onartzen zuten bitartean, batek bere ezezkoa azaldu zuen, bere beatzarekin. Seminarioko Erretore, D. Liborio Azpiazu zan, kalonje ura.

Batzar ura ezkerro, Cadena y Eleta Gotzaiak D. Liborio aipatze bakoitzean ala esan oi zuen: "Auxe da bere iritziak keñuz adierazten dituen gizona".

Lanikezaren irtenbidea ez zan ain argia askorentzat. Egia da Gazteiztar askori Katedral berria, ekonomi-arazoan, oso ondo etorri zitzaiela: baiño beste au ere egia da: Gazteizkoak ez ziran langille trebe asko —kataluniarrak batezere— ikusten zirala.

Katedral berria jasotzeko lekua ere ez zuten guziek onartzen. Nere lagun zar D. Tomas Aauri ta Mancholari entzun izan diot, Arabatar, Giputz eta Vizcaitarrez osatutako komisiio bat bazala, bere aaide batzuk ere komisiio orren barruan zeudela, eta komisiio orrek ez zuela nai Brijidak izeneko erlijiosaen lurretan Katedrala eraikitzerik. Leku ezegokia jotzen zuten, oso urtsua zalako. Gero ikusi zan, Komisiioak arrazoi zuela, urte askotan urez estalia egon bait zan elizpea.

Katedral berriaren leenengo lan-ekinaldia, elizpea bedeinkatzearekin amaitu zan. Gero diruak aitu, langilleak sakabanatu eta lanak gelditu egin ziran. Ogeita amar urtetan esi-ormaz inguraturik egon da Katedral Berria, Gazteizen ikusgarri bat geiago. Antxe zeuden, goroldio ta untzak artuta, ar-zuntoi motz-beltzak, xurrutarri, arlandu, inbelazpi eta arroin-gainak erdi landuan. Lo dauden arriz egindako eresi osagabea.


Nere osaba berak ez omen zuen ikusi, baiño norbaiti entzun bai, katedralaren ormetan idazkun bat azaldu omen zala: ala zion: "Emen eortzi zuten euskal-kleroa". Ez dago esan bearrik, Fernandez Pierola jaunak elizgizonentzat bildutako txanponak adierazi nai dituela.

Katedral Berriaren bigarren lan-ekinaldia, historia berria da. 1946 urtean ekin zion lanari berriro, Ballester Gotzai jaunak. 1969 garrenean iriki zan ofizialki Katedral Berria, Maria Sortzez Garbia Elizaren Ama, izenarekin; Iraillak 24, Francisco Peralta Gazteizko Gotzai eta Dell'Aqua Kardenala sagaratzaille ziralarik.

Lanak jarraitu ala ez, estabaida beroa sortu zan bigarren ekiñaldi onetan, lenengoan baiño beroagoa.

1909 urtean asi zan nere osaba teologia ikasten. Filosofian bezela, emen ere ikasketei bukaera bikaiña eman zien. 1909-1913 urteetako nota-agiriak diotenez, Teologia Dogmatikan lau sari jaso zituen: orduko teoloji-ikasketak bost urte irauten zuten.

Teoloji-irakasleen artean nere osabak atsegiñen zituenak, Katoliko Ekin-tzaren Gotzai-konsiliario izanaz ilko zan, Zacarias Vizcarra jauna eta Demetrio Ripalda jauna izan ziran: bien artean erakusten zuten Dogma. D. Liborio Azpiazu —Eliz-histori-erakuslea— ta gero Gazteizko Gotzai izango zan D. Mateo Mugica —Idazti Santuen Irakaslea— oso maixu onak jotzen zituen nere osabak. Baiño denen artean nagusi, D. Zacarias Vizcarra: oso



Gazteizko Katedral berriaren lanak, 1911'gn urtea.

argia ta ikasleen maillara jeisten zekiena bait zan eta erakusten oso trebea.

Ripalda irakaslea aipatzean, nere osabari —apaizgai zala eta gero irakasle zala— esaten zioten ezizen bat gogoratu bearra dago. Urte askotan "Zakeo" esan oi zitzaion Seminarioan.

Dogmako klase batean gertatu zan. Zakeo nola konbertitu zan, esan da esan ari zan Ripalda jauna. Jesukristok aberatsarekin eukitako alkarrizketa, San Lukasek ematen dituen xeetasun guziekin, azaltzen zien: txikia (statura pusillus) zalako zugaitz gaiñera igota zegoen gizontxoarekin eukitako alkarrizketa, alegia. Ortan atea zabaldu zan eta sendagillearen konsultatik zetorren Jose Migel Barandiaran ikaslea sartzen da. Irakasleak, itzaldia moztu ta Zakeoren ttikitasuna ta sartu berria zan apaizgaiarena berdindu zituen, esanaz:

—Oraintxe sartzen dan ikasle onen antzekoa izango zan Zakeo...

Olaxe jaio zan urte askotan ikasleen aotan ibiliko zan ezizena. Ez dago esan bearrik, irakasleak ez zeukala ikaslea iraintzeko asmorik: ateraldi egoki bat etorri zitzaion eta gazteagan zeukan konfiantzak ortarako lagundu egin zion: gaiñera beti begirune berezia gorde zion maixuak ikasle oni.

Ripalda jaunak berak ere izan zuen ba bere ezizena. Ikasleek "Nempe" deitzen zioten, euskeraz "Ots": latíñez ari zala nunbait asko erabiltzen zuen, betegarri bezela, itz ori.

Egia da, nere osabaren gorputz-tankerak ezaugarririk baldin badu, ori ttikia izatea da. Metro ta irurogeitabi zentimetrotik ez da urruti ibiliko. Baiño goi-bera ttiki onek ez dio nere osabari sekula lorik galazi. (Unamunok "bular-dun zutikakoa" (11) deitzen dio gizonari). Alderantziz baizik, umore onaren zirikatzaile izan du. Beti parre pixka bat egin izan dio bere iruditxoari.

Neronek entzun dizkiot alako gertakizun batzuk gai ontan: aserretu orde, danak parre lasaian bukatzen ziran.

Gogoan det gertakizun oietako bat, berak esandakoa: kursoaren asieran eusko-prehistoriari buruz, Gazteizko Seminarioan, 1917 urtean, egindako itzaldia argitaratu zuen D. Jose Migelek. Ori zalata, Tolosako Diputadu, D. Jose Izagirre joan zitzaion zorionak ematera. Ez zuten alkar ezagutzen.

—Gizona arrituta gelditu zan ni ain txikia ikustean-algara batean zion nere osabak.

Olako zerbait gertatu zitzaion Aita Basabe jesuitarekin ere. Gotzaitegiko iskilleretan ikusi zuten alkar. Aita Basabek bazeukan Barandiaran-en prehistori eta etnografi-lanen entzutea, baiño bera ez zuen ezagutzen. Nere osabaren anairen bat izango zala, pentsatu zuen eta ala mintzatu zitzaion. Anaiari gai orietan kontuz ibiltzeko esatea, eskatzen zion. Ereje-usai puntturen bat arkitzen zion nunbait, Teilhard de Chardin-en kidako apaiza edo. Gero nere osaba bera zala jakin zuenean, ala zion:

—¡ Baiño nola leike, mutiko goseti-itxura orrekin!

Ez nere osaba, Caja de Reclutako iritziakin neurtzen bada, ez da beste munduko gauza. Baiño bere luzera beste neurri batekin neurtu bear da: bizitzaren eta jomugen aunditasunez: adimen zorrotza, birtute sendoa, egite onaren billaketa jatorra: orra or neurria.

Gorputz ttikia ta espiritu ttikia batera ibili oi dirala, pentsatu dute sikologo buru-arin batzuk. Au egia balitz ere, nere osaba arau ortan ez dala sartzen, esango nuke. Armarrri baten esakuna gogoratzen zait eta oso ederki datorkio: "Statura pusillus, sed magnanimus" ("Soin ttiki, biotz-aundi").

OARRAK

- (1) Juan Arin Dorronsoro-ren, op. cit., *Clero...*, 286'gn orri.
- (2) Juan Arin Dorronsoro-ren, op. cit., *Clero...*, 288'gn orri.
- (3) Gregorio Marañón-en, *Vocación y Etica y otros ensayos*. (Espasa-Calpe Argital. Madrid 1966), 26'gn orri.
- (4) *Catecismo Holandés* (Herder Argital. Barcelona 1968), 232'gn orri.
- (5) Julio Caro Baroja-ren, *Vasconia*. (Minotauro Argital. Madrid 1957), 67'gn orri.
- (6) Jose Maria Iribarren-en *Vitoria y los viajeros del siglo romántico*. (S. Católica Argital. Gazteiz 1950), 218'gn orri.
- (7) Lorenzo de Prestamero-ren *Guía de forasteros* (facsimil-berargital). (Gazteizko Aurrezki-Kutxa, 1969), 23'gn orri.
- (8) Venancio del Val-en, *Calles vitorianas*. (Gráficas Vitoria, Gazteiz), 43'gn orri.
- (9) *Obras de la Nueva Iglesia Catedral de Vitoria. Memoria anual. Año 1907*, II'gn txatata.
- (10) Op. cit., *Obras de la Nueva...*, III'gn txatata, 25'gn orri.
- (11) Miguel de Unamuno-ren, *Del sentimiento trágico de la vida*. (Espasa-Calpe Argital. Buenos Aires 1947), 9'gn orri.

V

Sinismen-kinka larria eta Alemanian leenengo kursoa

*Nere teoloji-estudioen utsune bat
bete bearrez, Erlijioen Historia ikas-
ten asi nintzen.*

J. M. B.

Barealdi luzerik nekez izan oi da izadian eta espirituetan. Ur geldienen azpian eta espiritu paketsuenen barruan burruka latzak bizi dira askotan.

Eldutasuna lortu arte gertatzen da au batikbat. Mendian jaio ta erreka izan nai luken iturriak, zalaparta asko jo bear ditu, ibaia izan baiño len.

Bere espirituaren eldutasun-billa dabillen gizonak, barruko gora-bereren aldi ori bearrezkoa du, bere pentsakera ta nortasunari oiñarri sendoa jarri dezaien.

Teologia ikasten ari zala izan zuen D. Jose Migelek barruko sinismen-ekaitza: orduko gizarte ta jakintza-arazoei erantzun egoki bat eman nai bait zien. Orregatik, teologia ikasten zuen bitartean, Erlijioen historia ikasteko gogo sortu zitzaion.

—Argi ta garbi ikusi nai nuen —osabak zion— kristautasuna ez dala inguruko giro batetik sortua: pentsakera zabal batek Kristoren inguruan asmatutako zerbait. Erlijio asko bait dira Mesiasen antzeko norbaiten zai dau-
denak.

Ortaz gaiñera, apaiza beti eztabaidatua izan da, batezere Españako jendartean. Izenez ain katolikoa eta izatez ain antiklerikala dan jendartean.

Gizartearen aurrean jokaera gorrotogarri ori artu baiño len, egian ziur

eta sendo egon nai zuen nere osabak. Erriaren etsaikeriatik datorren atsekabea adorez onartzeko, barrua sendo euki bear da. Egiaren eta izakeraren arteko etena negargarria da.

—Apaizgoa onartzen ez duen giroa eramateko, barruko ziurtasuna naitanaiezkua nuen, zion berriz ere nere osabak.

Giza-jatortasuna ta iritzi eldua da au, ez itsu-itsuan jokatzeara: era ortan ez da erabaki bat artuko, oiñarri sendoak jarri baiño len. Olako bokazio-sentotasuna bear du persona batek, egunen batean etsipenaren azpian erori ez dedin.

Gaur gertatu dan ainbeste uts-emate ez zen gertatuko agian, ola jokatu balitz: eta bokazio-arazoa zuzentzeko, ementxe daukagu bide egoki bat.

Barruko illunpe aietan zebillela, D. Jose Migelek liburu batean topatu zuen bear zuen argia.

—Aita Broglie-k idatzitako *Problemes et conclusions de l'histoire des religions* liburuak (Paris 1904) berebiziko zirrara egin zidan, eta munduko arazoei erantzun bat ematekoan, nere zalantzak argitu ere bai.

Une ontan erabaki zan Euskalerriko prehistorilari eta etnografilariaren etorkizuna. Konzientzi-arazo batek eraginda, jakintza-billa dijoa. Barruko egoe-rak eta inguruko gizarte-giroak, Erljioen Historia ikastera daramate, erlijioen ikasketak bere erriaren animan aztarrikatzera: alor ori gertu zeukanez: arkeoloji eta etnoloji-bideetatik aztarrikatu ere.

D. Jose Migelen jakintza-alegin guzien azkeneko jomuga, Jaungoikoa da: uraxe argitu bear da. Jainko-billaketa ortan oso laguntzaille onak dira jakintzaren sistema eta bide korapillotsuak.

Adimen-argia baiño arrigarriagoak dira, D. Jose Migelek bere bizitzako ekintzetan erabili dituen sugarra, iraupena ta biotz aunditasuna: txalo ta erriertak, jakintza-zurikeriak eta politika-salaketak, pakea ta gerra, gaztearoa ta zaartzaroa dirala, beti lanean eta beti, danen gaitetik, Jaungoikoa eta Euskalerria.

Euskalerraren alde lan egite orrek biotzondoko asko ta latzak ekarri zizkion nere osabari. 1926 urteko Apirillaren 4'an ala idatzi zuen nere osabak bere egunerokoan:

Nere ikasketa auek Jaungoikoaren aintzarako dirala ziur banago, zer ajola dit neri mundutarrek esango dutenagatik? Euskalerraren biotzean jaiio nintzen: bere bizia bizi izan det, bere oituretan ibili nai izan det. Nere gurasoen soroetan lan egin det, mendi eta ibarretan ibili naiz, eta, bidean arkitu ditudan loretxoak zapuztu ez ditudalako, salatu eta aurrean ibili naute (1).

Bere egitaraua betetzearren, Alemaniara dijoa, bere jakitea sakontzera. Errien Sikolojia izeneko (*Völkerpsychologie*) kurso baten irrikaz dago: Leipzig-ko unibersidadean, Wundt irakasleak erakutsi bear zuen kurso ori.

Aita Broglie-ren liburuak anima argitu ta pakeatu bazion ere, beste iritzi batzuk entzun nai zituen, segurantzi osoa lortzeko. Eta atzera begira egon gabe —ainkorapillogabeara ta argia da dana D. Jose Migelen bizitzan— badijoa Leipzig-era. Barruko krisallua argieske dago, eta badagoela uste duen lekura dijoa, olio billa.

1913 urtean, udarako oporraldian, gertatu zan ori, teolojiako laugarren urtea bukatutakoan. Ez zuen izan ofizialki diru-laguntzarik. Jakin-miñ zorrotz bat, aitak bidaltzen zizkion marko apurrak jasotzeko txartel bat eta aleman-izkuntzaren ezagueratxo bat: ori zan dana. Amets aundiak baiño pres-taera urriak.

Zailtasun oiei buruz berak ziona:

—Coloniara iritxi nintzenean, katedralean sartu nintzen. Une artantxe apaiz bat pulpilotik sermoia egiten ari zan. Jota gelditu nintzen, ez bait nion ulertzen tutik ere. Alare bigarren edo irugarren asterako, nere estudiantan ainbestean nebillen. Diruari dagokionez, egia esan bear bada, ez nintzen asko beartu. Zur-zur bizi nitzen, plazan neronek erositako frutak janez. Alemaniatik etxeratu nintzanean —ni ain galdua ikusita— izutu egin ziran etxekoek.

Ikasketak, berriz, materialismo ta ateismo-bideetatik jotzen zuten garbi. Klase batzuen oiñarria, Marx-en materialismo dialektikoa zan. Orretxegatik, ain zuzen, ikasgai aiek on asko egin zioten: marxismoa oiñarrigabe ikusteak, kaloliko-erlijioaren egian sendotu egin bait zuen.

Nolanai ere, Leipzig-eko kurso orren oroitzapenik atsegiñena, Wundt irakasleak zuzendutako billera batzuk eman zioten, klaseak baiño geiago. Antxe parekatzen bait zituen zuzen-zuzen bere iritziak eta ikaslagunen eta irakaslearen iritziakin.

Dirudienez, antz-eman zion Wundt irakasleak nere osabari, argi-billa zebillela: alako galdeerak egiten bait zizkion: bai arretaz lagundu ere. Noiz-baitean aitormen au egin zion:

—Zuk eta guk ez degu sekula alkar artuko. Ikuspegi ezberdiñak bait ditugu.

Wundt jaunak zeukan gauzarik arrigarriena, nere osabarentzat, auxe zan: bere okerrak ain errex aitortzea.

—Bere okerrak zuzentzen zekien gizona zan, zion nere osabak. Liburu batean idatzitakoak urrengoan aldatu egingo zituen, ala bear bazan.

Auxe zan bein batean nere osabak. Lafora jaunari erantzun ziona, izparringietan euki zuten eztabaida artan. Wundt-en pasarte batzuekin eraso zion Lafora jaunak nere osabari, eta osabak erantzun, Wundt berak zuzendu zituela iritzi aiek geroago liburu batean. Gai au berriro ere ikutuko degu.

Bere ikasketaz gaiñera, Leipzig eta Coloniako museoak ikusten erabili zuen bere denbora.

Garai artako —1913— gertakizunen bilduma bezela, auxe idatzi zuen bere Egunerokoan:

Leipzig'ko ibillaldie nee oneako izen deat. Baiño aldi naiko luzea izen badaree, ez deat aski aurreapen eñ ango ikastolatan, bear aiñe gertuik ez neolako. Gai ontan oitura geiago artu bearren natxok, ara beiz (laster) juuten naizeneako. Oi bearrekoa iruizen zatak, Etnologiari buruz eñ nai nituzkeen ikaslanetarako. Filosofia'ko galdeak astintzen natxoia; baiño erri-jakintzak eta bere erro eta beste gaiak astertzea dek oaingoz geien estutzen nauena, batez ee Euskaldunai bein ibillaldi luzean erain dien ezikera edo eraen nausiñak (2).

Jakite-xorta politaren jabe eta jokabidea argiago ikusten zuela, etorri zan Alemaniatik. Ainbesteko arduraz billatutako argi ori ondo zaitu ta babestu nai zuen orain iñungo etsai guzien aurka. Ortarako espiritu-bizitzari eta gizarte-arazo sakonei erne egoteari ekin zion. Erlijioa ta Euskalerrria izango ziran bere bururik nagusienak. Orregatik 1913'gn urtean ekin zion Euskalerrriko maji-iritziak aztertzeari, eta eusko-etnografia-lanari geroago. Ortarakoxe sortu zituen lan-talde eta gai berezietako aldizkariak: gure errian erlijio-fenomenoa nola gertatu dan aztertzeako. 1921 urtean *Eusko-Folklore-elkartea* jaio zan: eta 1924'an "Radio-club" izeneko apaizgai-taldea sortu zuen, Ebanjelioa otsegiteko Irratiak etorkizun bikaiña zeukala igerrita.

Gizarteari eman nai zion sinismena babesteko, bere sinismena argi zaitu bearra zeukan. Arritzekoa da bere erlijio-sinisgai-xorta osorik gordetzeak nolako buruaustea sortzen zion.

Beren sinismen-aberastasuna, amor emanaz eta geiegizko jakin-miñez gordetzea uste dutenen ondoan, sinismen-altxorra argi ta zintzo zaintzen, eredu izan da D. Jose Migel.

Ementxe dauzkat nere osabaren liburu batzuk: or ikusten da garbi, zeñen zorrötz egiten zion bere buruari, sinismenaren arrixkuai langak jartzeko.

Ez naiz buruz ari: ona emen nere osabak zenbait liburutan idatzitako oarrak: Arno'd Van Gennep-ek idatzitako *Les Rites de Passage (Etude systématique des rites)* deitu liburuaren aurreneko orrialdean, nere osabak itz auek jarri zituen: "Liburu au ez da ona". Beste bat. Lucien Levy-Rouhl-en *La mentalité Primitive* liburuaren azalean eta euskeraz ala dio: "Kontuz

ibili onekin". Beste zenbaitetan oarra motzagoa da. Saintyves-en *Essais de Folklor Biblique* liburuaren azalean: "¡Argi!".

Eta nik gogoan ez dauzkaten olako asko. Baditu beste esaera batzuk ere, era ontakoak: "Liburu au irakurri ondoren, Balmes-en olako atalburuarekin erantzun".

Gaitzari aurrea artzea, esaten zaio oni, sendagaietan. Aberastasunik aundiena sinismena baldin bada, bidezkoa da arreta aundiz zaintzea. Zenbait janari kaltegarri litekela jakin da, burugabekeria litzake janariak nolana erabiltzea.

OARRAK

- (1) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1926.
- (2) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1913.

VI

Irakasle, apaiz... eta «gerra-zelataria»

Apaiz ordenatu ninduen Gotzaiaren itzaldi bat entzun ondoren, auxe agindu nuen: nere apaizgintza ez nuela naastuko, inongo alderdi politikoari nere burua loturik.

J. M. B.

Alemaniko leenengo kursotik itzuli zanean, Gazteizko Gotzai berri, Melo y Alcalde jaunak Erlujioen Historia erakusten jarri zuen. Oar, irakasle izendatze ori, teolojiako bostgarren ikas-urtearen asieran izan zala, 1913-1914 kursoa, karrera bukatu baiño len, apaiz egin baiño len, beraz.

Alare ez zuen Erlujioen Historiarik erakutsiko urte artan: askoz geroago baizik. Ara zer gertatu zan. Elizbarrutian sartu berria izan arren, Gotzaiak entzun zuen D. Jose Migel Erlujio-Historiaren zale zana: au D. Liborio Azpiazu, Erretore jaunak, esango zion, noski. Irakasle beraz.

Baiño ikas-urteko egitaraua eginda zegoen eta beste gairik ezin ziteken sartu. Alditxo batean Fisika erakusteko agindu zioten, irakaslea beste nunbait arkitzen bait zan. Alditxo ura ogeita iru urte luzatu zan: Gazteiz-en irakasle izan zaneke denboraldi osoa.

Ikas-urte artan iru eginkizun zituen nere osabak: bere ikas-lanak, Fisika erakustea eta Begirale (pasante) lana.

Azkeneko eginkizun au aipatu gabe genduken oraindik. Gai auen berri ez dutenei, zenbait argibide eman bear diegu.

Iztegiek "Begirale" (pasante) nor dan esatean, irakasle nagusiaren laguntzaillea dala edo legegizon baten babesean, lege-lanetan trebetzen ari diran gizonak dirala, diote.

Seminario zaarretako Begiralea, Prefektoaren laguntzaille bat zan. Buruzagi-maillakoa —borladun bonetea jantzi, buruzagien maiean jan— baiño ikasketari buruz, beste edozein ikasle bezela, geienetan azkeneko kursokoa, azkarrenen eta jatortxuenen artean aukeratua. Ala moduzko gizon berezi bat: erdi buruzagi ta erdi apaizgai.

Apaiz-karrerako azken urtean, nere osabak bazituen bi begirale-lagun, bere urte berekoak: Jose de Santiago ta Wenceslao Mayora. Lenengoa Gazteiz-en bizi da ta San Migel parroquian erretore da. Zerbait esan nezake aren apaiz-ardura eta ontasunari buruz: amaika urte auetan lantegi berean lan-kide izan geran ezkerro.

Bigarrena Tolosako Erretore eta Arzizpreste ezagutu nuen eta il ere antxe il zan, urte batzuk dirala. Bai Guipuzcoan eta bai Vizcayan —leenago— oso ezaguna zan gizon argi eta biotz aundiko artzai bezela. Bere birtuteen saritzat Etxeko Elizburu izena eman zioten Erroman.

D. Wenceslao Mayora ta nere osaba oso adixkide onak izan ziran apaizgai zirala. Gero bakoitzak bere bizitza ta lanak artu zituzten, eta ez zuten artueman aundirik izan.

Alare nere osabak ez zituen beñere aaztuko Mayora jaunak eman zizkion adizkidetasunaren ezaugarri bi. Espasa-Calpe Enciclopedian nere osabaren izena azaldu zanean, D. Wenceslao idazti bat argitaratu zuen *La Constancia* D. Jose Migel goratuaz. Geroago, nere osaba Franciatik itzuli zanean, —irurogei urte egin da gero— Mayora jaunak seminarioan artutako erabakia gogorazi zion: batakbestearen alde egunero Agur Maria bat esateko erabakia, alegia. Berez gauza gutxi noski. baiño adixkidetasun iraunkor baten ezau-garria gutxienez. Nere osabarentzat batezere: etsipen garratzik irentsi zuen, geien bat erbestean bizi zala: lagun zar batzuk baztertu egin bait zuten eta beste batzuk gutxietsi.

Wenceslao Mayora Cegamatarra zan, Guipuzcoako probintzian, eta Falanjeko ereserkiaren egille Telleriaren lengusu.

Nere osabak Mayoraren bitartez ezagutu zuen Telleria. Berriz ere ikusi zuen Oñaten, 1918 urtean, Eusko Ikaskuntzaren I'go Batzarrean.

Telleriak, Euskalerriko musikalaria askoren antzera jokatu zuen: beren erri paketsuak eta parrokiatiko abestaldeak utzita, erri aundixeagotara jo zuten, kafetegietako orkestinak zuzentzera eta abesti ariñak egitera. Madrid-en, azken aldera, eskatutako musika-lanak egiten zituen. Egun batean Falanjeko

ereserkia egiteko eskatu zioten. Eta orretxegatik izan da oso entzuna musikarilari giputzaren izena.

1914 urtea garrantzi aundikoa izango zan Europarentzat eta Jose Migelentzat. Udara artan asi zan Europako Leenengo Guda: Europako mapa ainbeste aldatu bear zuen guda. Jose Migelentzat, Eguberritako pozarekin eta urtearen bukaerarekin batera, apaizgintzara irixtea zetorkion: ainbeste amets eta azterketa sakonen elburua. Nere osabak bere egunerokoan —Leipzig-eko kursoaren berri ematean— garbi aipatzen du "apaizgiteko erabaki sendoa" (1).

Jose Migel Barandiaran Melo y Alcalde Gotzai jaunak egin zuen apaiz Gazteizen, 1914 urtearen Abenduak 19. Sinismen-gaietako illunpeak argitu ziran, eta elburu zoragarri bat bezela ikusten zuen apaizgintza; bere biotza ase eta beste amets batzuk uxatzeko gauza zan elburua.

Ain zuzen, apaiz egitearekin batera bukatu ziran nere osabarentzat politika guziak. Berak aitortu zidanez, apaizgaitako azken urteetan politika-gaietan, integrista sutsua izan omen zan. Apaiz-etsai eta aurrerakoiz zan liberalismoaren aurka, Españaiko tradizio katolikoaren osotasuna aitortzen zuen inte-



Apaiz egin ziran egunean. Zutik, eskubitik ezkerre: laugarrena Jose Migel Barandiaran. Bere eskubitik, D. Wenceslao Mayora, eta ezkerretik, D. Jose de Santiago, pasante-lagunak. Eskubitik lenengoa D. Leoncio Aravio-Torre.

grismok: bide egokia apaizek beren erlijio-idealen alde jokatzeko. Ori dalata, ez da arritzekoa gizaldiaren asierako apaizen artean integrismoa onartua izatea, egunerokoetan eta aldizkarietan idea orren alde idatziaz.

Jose Migelek ere, *Pelayo* aldizkariaren arpidedun zalarik, periodista-lan txo batzuk egin zituen, oraindik apaizgai zala, eguneroko integrista *La Constancia*-n erderaz eta euskeraz idatziaz.

Ona emen *La Constancia*-n argitaratutako lan bat. Euskal-olerki bat oraingoan:

ATABIT-KO GAZTELUA

Aran chiki polit bat	Agauzá ibaya berriz
Da mendi artean;	Bere barrenean
Loracho bat dirudi	Biurka jechitzen da,
Elorri tartean.	Suge baten gisan.
Muño tontor alaya	Iturri ugariyak
Da erdi-erdiyan,	Sortzen dira azpiyan,
Alchatzen dala gora,	Barrundutzen dirala
Zeruaren billan	Belardi berdean.
Zuaiztiyak dituzte	Anziñan Atabit-ko
Onen egiyetan	Gaztelua or zan
Diran belardi denak	Orain eleiza dago
Zaintzen otzaruan.	Beraren tokiyan.

Bertso auek Ataungo Atabit-gaztelua aipatzen dute: 1916 urtean garbi utzi zuen, bere azterketaen bidez, gaztelu ori Jentil-baratza zala ta ez San Gregorioko parrokia, Gorosabelek erakutsi zuen bezela.

Alare, apaiz egin zanean, aurrerakoan politika guziei uko egitea, erabaki zuen bere konzientzian. Zergatik? Berak eman dit erantzuna bein baiño geiagotan:

—Ni apaiz egin nintzen egunean Melo y Alcalde Gotzai jaunak itzaldi bat egin zigun ordenandoei, guzien apaizak izan gintezen, politikan sartzen den apaizak, erlijioaren ordezkari bezela, bere itzala asko galtzen duen ezker.

Orditik erabat moztu zituen politika-jokaera nabarmenak ezezik, politikaren itxura zuen guzia ere bai: ain benetako erabakia artu zuen. Gero aitortuko zigunez, integrista-alderdia zapuzte ori ez zioten sekula barkatu buruzagi batzuk.

Apaiz egindakoan, eliz-agintariek Jose Migel Burgosko Eliz-Unibersidadera bidali zuten, teolojiako ikasketak sakontzera. Nere osabari ez zion poz aundirik eman erabaki orrek. Ez dirudi Seminarioko Erretore D. Liborio Azpiazu jaunari ere ikasketa oriek oso atsegin zitzaizkionik: ola erantzun zien nere osabaren kezka batzuei:

Ez dala asko ikasten, egia da, baiño itxurak ere egin bear izaten dirata.

Bere adixkide D. Antonio Pildain jaunak —kalonje ta Seminarioko irakasle orduan, Canariasko Gotzai gero— Burgosko Unibersidadeko Erretoreari gomentatu zion: Erroman alkarrekin ikasiak bait ziran.

Ostatua Merced-kalean, 38-4'gnean artu zuen. Gero Bermeoko Erretore izango zan D. Gines Arechaga ta errian bertan lan egiten zuen sendagille bat zituen ostatu-lagunak. Ala bearrez edo, sendagille orrek eraginda, nere osaba tabakoa erretzen asi zan, ain neurritsua izan arren. Arechaga ta Barandiaranek bi illabetetan erre zuten sendagillearen aginduz, bastanga ta sukar ustela (tifus) ez arrapatzarren. ¡Amaika ikusteko jaiok gera!

Zer tankera ote zuen nere osabak, zigarroa ezpañetan: ez bait da batere alperrikako eraskiñen zalea. Eta bera ondo ezagutu duten guziek beste aintebeste pentsatuko dute.

1915'ko ikas-urtearen leenengo sei illabeteak pasa zituen nere osabak Burgos-en, eta aldi artan teolojiako bachilleratoa ta licenciatura lortu zituen. Urte ortantxe moztu zuten doktoratua aske ikasteko baimena, ta orretxegatik Jose Migel Licenciado soillean gelditu zan.

Noizbait esan zidanez, Burgos-en egon zan bitartean, ez zeuzkan aaztuta bere txokoa ta erria. Erri-miñ ori indartu egin zan bere aitaren gaxotasunagatik: leen ere —1915 urteko Urtarrillaren 1'an Meza Berria ospatu zanean— garbi ikusi zan naiko lanekin zebillela. Gaitz arrek —sendagilleak zionez, estegorriko min bizia— eramango zuen, 1915 urte beraren Apirillak 16.

Urte artako udara-oporrak garratzak izan ziran Perune zarrean: aitaren eriotza berria bait zan. 25 urtekin umezurtz Jose Migel Barandiaran: ez aitarik ez amarik. Iñork sekula beteko ez zuen utsunea.

Baiño ustegabeko zerbait gertatu zitzaion nere osabari oporraldi artan: Guipuzcoako probintzi guzian entzute aundia emango zion gertakizuna.

Len esan det nere osaba Fisika-zalea zala: gai ortan irakasle zan izan ere. Gai ori zerabilkiten beste aldizkari batzuen artean, Alemaniako *Annalen der Physik* aldizkaria artzen zuen, arpidedun bezela. Oietako alé batean, ondak artzeko tresna baten marrazkia jaso zuen. Berak egin zezakela ta ekindio lanari. Baiño zatirik bearrena falta zan: galena.

Ez zan erreza garai aietan galena (berunaren sulfuro) eskuratzea. Baiño zailtasunak ez zuten nolana izutzen nere osaba. Azufre ta berunaren limaa-utsa erosi, ta berak bakarrik, sukaldeko lapiko batean, galena sortu zuen. Geroago Legazpiako Katabera-meaztegian lortutako berezko galena-arria erabili zuen.

Saio-aldi auek danak, Gazteizko Seminarioan egin zituen leenengo aldiz.

Ara nola ikusi zituen lan oiek, garai artan nere osabaren Seminarioko lagun zan D. Manuel Lecuonak.

D. Jose Migelek langaillu bat egin zuen: antena bat, bobina bat eta telefonoko entzungaillu (auricular) bat erabiliaz: ortaz gainera alako naaskillo bat, galena-puxka bati eusten zion korbata-esteka, galenaren gainean, zulatuz, josteko orratz bat zituena. Entzungaillu orrek alako ots zorrotz batzuk ematen zituen, Mors-en telegrafo-otsak, alegia (2).

Tramankulu orren bidez nere osabak, Paris-ko Eiffel torretik, telegrafo-estazio batek ematen zituen, egoaldiaren berriak, barometroaren presioa, orduak etabar entzuten zituen.

Goazen berriz ere 1915 urteko udara-oporraldira: Europako guda bete-betean ari zan. Izkuntza arrotzak ikasteko ainbeste laguntzen zion irriti-entzule ura ez zuen Gazteizen utzi nai izan Jose Migelek. Perune zarrean jarri zuen bada tramankulu ura, kanpoko antena, bi zugaitzetan lotuz, etxe inguruan.

Berriz ere D. Manueli entzun dezaiozun: gertakizun auen testigo bikaina bera:

Europako guda, 1914 urtearen Abuztuan asia, bigarren urtean zijoan. Entzuten ziran berriak, naastuak ezezik, oso ezberdiñak ere baziran, alderdi batekoak ala besteakoak izan. Orduan ez zan gaurko erreztasunik gauzak jakiteko. Ez zan irratirik. Ortarako bide bakarra arigabeko telegrafia zan: entzungaillu baten bidez, Mors-en seinale-berriemalleak entzuten ziran. Eta sistema au ere oso gutxik ezagutzen zuten oraindik. Periodikuek ematen zizuten berriak Enbajadetatik zetozen: frantzesak, alemanak, inglesak: biotza nora, belarria ara. Eta oso berandu.

Alako batean zurrumurru bat asi da zabaltzen probinzian: Ataungo apaiz gai gazte batek berebiziko tresna bat egin omen duela eta periodikuguziek baiño leenago, Alemaniatik datozen berriak entzuten omen dituela: a. b., abioi alemanek Paris-ko zeruetan dabiltzala, aleman Hulano zaldunak Paris-en ingururaino iritxi dirala, "Berta" kañoiak 42'ko obusak botatzen dituela (3).

Zer ote zan bada? Uskeri bat: eguneroko berriak entzuteko egin zan tresnak gudako "parteak" ematen zituela, ala bearrez. Nere osabak berriak entzun eta auzokoekin jorratzen zituen.

Ez zan beste ezeren bearrik baserritar fiakaitzaren batek susmo txarrak egiteko: tresna arren bitartez ixilkako alkarrizketak entzuten omen zituela nere osabak. Beste aldetik, erriaren iritziak bi taldetan banaturik zeuden: aliado-zaleak eta Alemani-zaleak.

D. Salvador Madariagak onela ikusten zituen espainiarren jokaerak, burrukalarien talde buruz:

Nazioa erdibi eginda zegoen. Batezbeste, liberal, antikerikal eta aurrelariak, —ezkerra izenekoak— aliado-zaleak ziran: atzerakoi, klerikal, "eskubia", Alemani-zale. Gauzak ondo begiratu ezkeror, azpian arrazoi naastuak azaltzen ziran: esan ziteken Espainian ez zala ez aliado-zalerik ez Alemani-zalerik: emengo arazoan aurrean pentsakera eta sentikera batzuk baikiz eta bakoitzak bere egoera gudu-talde batekin lotzen zuela (4).

Kontua da iritziak oso zatituak zeudela eta askotan etsaigoak sortzen zirala eta auzoetan artuemanak garratzen zituztela. Giro onetan, nere osabak zabaltzen zituen berriak, susmo txarrak sortzen asi ziran, baten alde eta bestearen aurka ziralata: gudu-zelatari omen zala ere bai.

Ori zalata, salaketak eta billaketak asi zatzaizkion gero ta geiago. Lenengo, Donostiatik korreosetako aundizki bat etorri zitzaion, tresna austeko aginduakin. Uste zuen berebiziko telegrafo-tresnaren bat arkituko zuela eta arri ta zur gelditu zan, josteko orratzak eta korbata-estekak egindako seinale-entzule eskas ura ikusirik. Pakean laga zuen.

Baiño salaketak ez ziran amaitu. Probinziako Gobernadoreak tresna sonatuaren berri eskatu zion Ataungo Udalarari. Ausita zegoela, erantzun zitzaion. Geroago, apaizgai-talde batekin Lazkao-bidean zebilela, bere etxea miatzera zetorren Guardia Civil bikote batekin topo egin zuen. Gauzak nola ziran esan zienean, agindua bete zutelako agiria bezela, firma bat eskatu zioten eta, besterik gabe, joan ziran.

Burgostik etorrita, beste ikas-urte baten asieran, Disziplinako buruzagi ta Matematikako irakasle izendatu zuten. Lengo Fisikaren irakasle, D. Gaudencio Vianaren eskuetan gelditu zan berriz ere Fisika: Viana jauna itzuli bait zan Ameriketatik. Andik laixter il zan D. Gaudencio eta Fisika berriz ere nere osabari leporatu zioten. Lantoki oietan jarraitu zuen 1920 arte: orduan Erretore-ordeko egin zuten, eta geroago, 1926 urtean Aguirre-Seminarioko Erretore.

Askotan entzun nien apaiz adintsu batzuei, nere osaba disziplinaren zainzaille gogorra omen zala. Zaintzailletzaren asieran gertatzen zan ori. Esaera ori aipatzen nion bein batean nere osabari ta berak aitortu:

—Garai artan Seminarioko giroa, kuartel-disiplina-giroa zan. Zentzugabetzat jo nuen beti, baiño ez zegoen beste biderik.

Eta añaigarri bezela:

—1920 urtean Erretore-ordeko egin nindutenean, —nere buruaren jabe izanik— aldatu nituen jokaera aiek.

Alaxe gertatu zan izan ere. D. Jose Migelen lena ta oraiña ezagutu zuten apaizgaiek, ondo nabaitu zuten Buruzagiaren aldaketa.

Seminario ttikiko Erretore zala, bereziki, leenengo urteetako ikasleentzat benetako aita bat zan. Badirudi, mutiko aiek ikustean, bere lenengo urteetako samintasunak gogoratzen zitzaizkiola eta berari iñork bete ez zion utsunea, gaztetxo aiei bete nai izan ziela.

Apaiz askok oraindik begien aurrean daukate Erretore edo Erretore-ordeko ura, jolas-garaian ttikiei kontu zarrak kontari, edo ikusimaikusika, goxoki bat edo beste jokatuaz, pelotan jokatzen, edo ta, igande-arratsalde aspergarri batean Charlot-en pelikula bat botatzen.

Eta asko oroituko dira oraindik, jangelan nolako galdeerak egiten zituen, irakurgaiak ziralata, erdi atsegin billa, erdi jakintza billa.

Irakasle bezela ere xorrotxa omen zala, zioten. Klase bakoitzean ikasleentzat egokiena dan giroa sortzea, xorrotxa izatea baldin bada, egitan, nere osabaren klaseak xorrotxak ziran, ez ikasleentzat bakarrik, ordea, irakaslearentzat ere bai: lana eskatzen bait zien guziei.

Ez zan eskol-agiri (nota) onak errezegi eman zalea. Gai ortan bi gertatu esango nituzke.

Leenengoa nere anai Feliperena: ikasle argia zan, karrera guzian "Oso Ondo" eman zioten batek ez beste guziek: bat ori, ain zuzen, nere osaba izan zan eta gaia Fisika: eskol-agiria "Ondo".

Bigarrenaren testigu naiz. Oraindik ttikia nitzela, nere osabarekin nergoen bere Erretore-ordekoaren langelan. Fisikako ikasle bat sartu zan eta nota txarraren berri galdetzen zion begirune aundiaz. Nere osabak billatu zuen eskol-agiri-zerreuda. Ttikitxoa nintzen arren, ez zait sekula aaztuko osabaren ateraldia.

--Arrazoi dezu —esan zion—. Ni oker nengoen. Bederatzi jarri nizun eta eskuartean dauzkaten xeetasunen arauera, zazpira ez zera irixten.

Oar bat: eskol-agiriak euneraño izan oi ziran.

Alemanjiako kusoetan ikasitako erakuskera batzuk sartu zituen bere klaseetan. Klaseko lan pisuaren ordaiñetan, urtean zear batezbeste ondo ibili zanari ez zitzaion jaitsiko esamiñetan: jasotzea bai, baziteken.

Egia auxe da: klasean xorrotxa izan arren, irakasle bezela oso ondo ikusia izan zala.

Ez det sekula onartu alperrei atea zabalik uzten dizkien irakaslerik. Ikasleak ezjakiñak badira, azkenean irakaslea izango da errudun, asko beintzat.

Marañon jaunak idatzi zituen *Sobre la responsabilidad social del médico* liburuan —aldatu bearrekoak aldatuta— edozein gairen edonor irakasleri dagozkion lerro batzu:

Au argi ta garbi aitortu bearra dago. Sendagille bat ez dala irixten, konturatzen dan gaixoak ondo egingo du aren aurka jokatzen badu. Baiño gaixoari entzun bear dion juezak, sendagille ezjakiña gaitzesten badu, injustizi latza egingo du, gutxi dakien sendagilleari sendagintzarako agiria eman dioten irakasleak gaitzesten ez baditu (5).

OARRAK

- (1) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1913.
- (2) Manuel Lecuona-ren *Los inicios de una vocación*, I'go Lib. *Homenaje a D. José Miguel de Barandiaran*-en. (Vizcaya-ko Diputazioaren Argitaldiak. Bilbo 1964), 189'gn orri.
- (3) Manuel Lecuona-ren, op. cit., *Los inicios...*, 192'gn orri.
- (4) Salvador de Madariaga, *España*. (Sudamericana Argital. Buenos Aires 1942), 357'gn orri.
- (5) Gregorio Marañon-en, op. cit., *Vocación...*, 112'gn orri.

VII

Jakintza-zale baten asierak

Aranzadi, Eguren eta nik egindako leenengo irteera arrek bazuen unki-garri zerbait. Ipui illun, eta misteriozko gizon batzuek jarritako zerbait arriren bitartez bakarrik ezagutzen genduen mundu ezkutatu batean sartzen giñan.

J. M. B.

Erljio-ikasketetan izandako kezka aien ondorena bezela —len esan da zerbait— Jose Migelek Erljioen Historiari ekin zion: kultura eta garai ezberdiñetan erljioa nola izan dan aztertzeari, beraz.

Orrela oso interesgarri gertatu zitzaion Etnolojia ikastea eta gero, Euskalerriko Etnolojia bereziki, alor ori gertu zeukalako.

Euskalerriko Etnolojia-gaiak eta Arkeoloji-gaiak elkarrekin zerikusi aundia duten ezkeru, Arkeolojia ere ikasi bearrean arkitu zan.

Era ortan, metodo ta argitasun asko gabe sartu zan Jose Migel azterketan-lanetan 1916 urteko udaran.

Udara artan artu zuen nere osabak auzoko gizon bat eta Ataungo *Jentilbaratza* aztertzen asi zan. Giza-aztarrenak arkitzen aldetik, lanak alperrik izan ziran. Abere-ortz batzuk, XIII'gn gizaldiko txanpon bi, zikai (pica) mutur batzuk, orma zaar baten zati bat eta arkaitzean egindako urzulo bat besterik ez zuten arkitu. Orrela azaldu zuen Jimenez de Rada Arzobispoak aipatutako Ataungo erdi-aro-gaztelua Jentil-baratza zala eta ez San Gregorio,

historilari berriek zioten bezela, *Real Academia de Historia*'k argitaratutako *Diccionario Geográfico-Histórico de España*'ri jarraituaz.

Nere osabaren laguntzaille arek —erriaren esanak gogoan izanik— Aralaren bazirala jentil lurperatuak, zion. Gero ikusiko zuen nere osabak, Euskalerrian askotan aipatzen dirala jentillak. Jentillei buruz onela idatzi zuen nere osabak:

Izen orren barruan gai ezberdiñak sartzen dira. Gizon basati, iñor ez bezelako indarduna, mendian an urrutiko etxe batean bizi zana, zan jentilla: gure artean oso ezagunak diran arri aundi batzuk urrutira bota zituen: kristauekin geienetan pakean baiño bakarrik bizi zan ezkristaua: mendi-gallurretan kristauen bizkarretik bizi zan gizona: gure leizetan bizi zana... (1).

Aralaren jentil-ilobiak bazirala entzutean, nere osabak, biaramonean laguna ta biak ara joan bear zutela, pentsatu zuen. Urrengo egunean ez zan azaldu lagunik. Orduan nere osaba bakarrik joan zan.

Aralara irixtean arlosa izugarri baten gainean exeri zan, atsedean pixka bat artzeko: *Argabiko* muiño gainean arkitzen zan. Alaxe, patxadan zegoe-la, oin bat sator-oski bati bultzaka, zerbait gogorra ikutu zuen oiñetako murrarekin: agin bat zan, giza-agina.

Ustegabeko arkitze garrantzi aundikoa izan zan ura Euskalerriko prehistoriarentzat, Aranzadi, Eguren eta Barandiaran irukotea biltzeko eta batezere Aralar miatzeko.

Zutitu zan, inguru aiek ikusteko, eta artzai batekin topo egin zuen. Arekin asiko zuen, gero ainbeste aldiz erabiliko zuen galdekizuna: kristautasunaren gure lurretara etorrera, zuen gaia: ortxe argitzen eta oiñarritzen da Olentzaroren tradizio zaarra.

Onela jaso zuen nere osabak kondaira au bere *Diccionario de Mitología Vasca* liburuan:

Euskalerrian oso zabaldurik dagon historia baten mamia, Kristautasunaren sarrera ta jentil-mitoen bukaera dira. Historia ori Ataunen kontatzen denez, olaxe da: Egun batean jentillak jolasean zebiltzan Argantxabaletako muiñoan, Aralar mendian: nun ikusten duten Sortaldetik berengana datorkien laño argitsu bat. Ura ikusirik izututa, gizon zaar jakintsu bat deitu zuten eta leku artara eramán, laño ura ikusi ta bere esanaia azaldu zezan. Agureak ala esan zien: "Kixmi jaio da (Jentillek Kristori ematen zioten izena) eta gureak egin du: amildu nazazue orrako amildegi ortatik". Beretarrek arkaitzetatik beera bota zuten eta —laño argitsuaren igesi— sartalderuntz jo zuten eta Arráztarango ibartxora iritxi ziranean, azkar asko,

arlosa aundi baten azpian sartu ziran: ordutik "Jentilarri" du izen arri arek, auxe bera zan gero Aranzadi ta Egurenekin batera aztertu nuen tregu-arria: olaxe bukatu zan jentilerria, historia orrek dionez (2).

Historia zaar ortatik asita, bederatzi illobi arkitu zituen nere osabak inguru aietan. Prehistori-lanetan oraindik ez ondo jantzia zalarik, Donostiako "Euskalerrriaren alde" aldizkarira, bere aurkimen berrien agiri bat bidali zuen. Txosten ori argitaratu zanean, garai artan Donostiako "Museo Etnográfico"-ren zuzendari zan D. Pedro Soraluze-k idatzi zion, "illobi" aiek bederatzi tregu-arri zirala ta egun aietan Naparroan barrena, orren antzeko lanetan, zebillela D. Telesforo Aranzadi, Barcelonako Unibersidadean irakasle zana: lerari idaztera zijoala, alkar artu zezaten.

Aranzadi-k Gazteizko Seminariora idatzi zion nere osabari eta Oviedoko katedratiko zan Eguren jaunaren berri ematen zion: eta au Gazteiztarra zanez, Eguberrietako oporaldian, alkar oso errex ikusi zezaketela, zion.

Ona Aranzadiren karta:



Universidad de Barcelona

Facultad de Farmacia

Particular

J. D. José Miguel Barandiarán
Victoria

Muy Sr. mío:

La noticia q' me da V. es de las que yo sospechaba, pues desde San Miguel del Excmo. a la Plaza de San Sebastián vió Santos delmoro, tregu-arri, Urtiku-arri, o' jentil-arri, que consideraba

imposible no hubiese más alta. Desde
 luego conviene q. "Euskalerraren alde" no
 divulgue la noticia, porq. además de las
 razones q. V. oportunamente expone, hay
 la de q. está prohibido explorar monu-
 mentos sin propia autorización. Los de
 la parte navarra del Aralar los ex-
 plora, no ya con autorización, sino con sub-
 vención de la Diputación foral de Navar-
 rra. Ya comprenderá V. q. la estancia, en
 la hospedería del Santuario, de todo el
 personal y la colaboración de carretas
 para llevar tienda de campaña, palan-
 cas, chis o gatos, picos, palas, azabones, azabites,
 paletas, cedazos, latas, cajas, melero, cámara
 fotográfica, etc, etc, cañabaterías para
 mis compañeros (que tienen la suerte de
 poder cabalgar), guía, cantero y carpintero
 y chicas para el recado de la comida,
 el cernido y el cuidado de las cañabaterías,
 no son cosas q. sepan de balde; esto úl-
 timo sí resulta. En cuanto al trabajo mío
 y de mis compañeros. Para formarse idea
 de lo q. hicimos y de lo q. resultó en la
 primera expedición puede V. pedir al
 Archivo de la Diputación de Navarra,
 o quizás sea más rápido a un librero

de Pamplona, un ejemplar de "Explo-
 ración de cinco dolmenes del Aralar
 por Arambasi y Ansoleaga". Con ese libro
 verá lo q. haya de común con los dolmenes
 q. V. ha visto y podrá pensar en lo q.
 se puede buscar y encontrar en ellos
 y cómo atreptarse para ello.

En cuanto a la exploración de los
 dolmenes quipuzcoanos, en q. con gusto nos
 acompañaría D. Enrique Eguiter, a quien
 V. recurrentemente conoce, habría
 q. ver primero si la distancia de
 portavo es demasiado grande para poder ir
 todas las mañanas, emplear todo el día y
 volver al anochecer al poblado, pues en ese
 caso habría q. vivir en el monte. En San
 Miguel hemos venido distancias de una hora
 de ida y otra de vuelta, algunas de
 hora y media o de dos. Pasando de esto
 es difícil aprovechar bien el día. Sabido
 este punto se puede calcular el cos-
 te y pedir la subvención a Guipúzcoa;
 claro es q. si no hace falta remover la
 tierra, los chis o gatos y los canteros
 no son indispensables, y en vez de cantero
 y carpintero bastan unos peones de la
 aldea.

Le agradece tu carta, tu noticia
y tu saludo y tu afuro S. S. q. t. s. tu.
Te lenforo de Aranzadi

ya que me escribe desde el Seminario
me permite la libertad de preguntarle
(y le luego me dispense el aliguvimiento)
por el joven seminarista D. Toré Echaniz
de San Sebastián, que es paciente de mi
mujer y este verano (estaba bastante
debiendo de salir por sus estudios.

Barcelonako Unibersidadea
Farmazia ikas-sailla.
16-10-9.

D. Jose Migel Barandiaran jaunari.

Gazteiz-era

Jaun agurgarria :

Zuk ematen didazun berriaren susmoa banuen, San Migeldik Guipuzcoako mugara bitartean Tregu-arri, Txiku-arri edo jentil-arri asko ikusi bait ditut: ezinezkoa iruditzen zitzaidan, an geiago ez izatea. Obe litzake "Euskalerrriaren alde" k berri ori ez zabaltzea: zuk oso egoki ematen dituzun arrazoi oietatik kanpo, monumentoak baimenik gabe aztertzea debekaturik dago. Aralarek Naparro aldean dituenak, Naparroako Aldundi Foralaren baimena ta diru-laguntzarekin aztertu nituen. Begira: San Migeleko ostatuan persona guzien egona; oial-txabolak (eramateko gurdiak) palanka, krika, pikotx, pala, aitzur-zabal, atxur, palatxo, bae, ontzi, kaja, metro, fotografi-makina etab etab, zaldi gaiñean ibiltzen dakiten nere lagunentzat zaldiak, gidaria, argiña, arotza, jana prestatzeko neskak, galbaiketak eta zaldi-zaintzak: ori dana ez da utsean izaten: azkeneko au bai egia da, neri ta nere lanari dagokionez. Gure lenengo ibilaldi ura nola izan zan eta zer ondorio eman zituen jakiteko, Naparroako Diputazioaren artxibora eska dezakezu "Exploración de cinco dólmenes del Aralar por Aranzadi y Ansoleaga" liburuaren ale bat: bearbada azkarrago, Iruñako liburu saltzaille bati. Liburu ortan ikusiko dezu, zuk arkitutako tregu-arriekin berdiñak ote diran eta zer billa ta arki diteken illobi oietan eta ortarako zer egin bear dan.

Guipuzcoako tregu-arrien billaketarako, gogoz lagunduko liguke D. Enrike Eguren jaunak: ezagutzen dezu, noski. Lenengo ikusi bear ko litzakena auxe da: lantokitik erria urrutitxo al dagoen, goizero joan, egun osoan lan egin ta illunabarrean erriratzeko: orrela balitz, mendian bizi bear. San Migeldik ordu beteko bideak izan ditugu, —beste bat etxerakoan— batzuetan orduterdikoak edo b'koak. Ortik gora, ezin leike lan asko egin. Au jakindakoan, gastoa neurtu leike ta Guipuzcoari laguntza eskatu: baiño estalkia kendu bearrik ez badago, ez krikarik, ez argiñik bear da, ta erriko gizon batzuk nai koa dira, argiñaren eta arotzaren ordez.

Eskerririk asko zure karta, berri ta agurratik.

Zure serbitzari Telesforo Aranzadi

Seminariotik idazten didazun ezkerro, galdeera bat egin bear dizut (eta barkatu nere ausardia): Donostiako apaizgai gazte bat, alegia, D. Jose Echaniz, nere emaztearen aidea, udara ontan makal xamar zebillen, bere ikas-lanak diralata.

Nere osabak bere egunerokoan, 1917 urteko Urtarrillaren 9'an Eguren jaunarekin izandako topaketa aipatzen digu :

Agertu bat gaur eñ zeak Eguren da Bengoa'tar Enrike jaunek. Asturias'ko Unibersidade'ko irakasle dek, berez gasteiztarra. Ordu beteko alkar-izketan, nik juundan udan eindako agerketazaz aittu gaittuk. Erabaki au artu diau: datorren Gaarrilleen biok eingo deula alkarrekin ibillaldi bat Gipuzkoa'ko jentillari edo dolmenak daaren tokiittan, eta Ataun'go eta inguruko lurraldean oroi-irudie paperetan artu. Beiz ee Iñauterittako oporaldiin, Jainkook nai bado, alkar ikusiko deula-ta, juun dek bee guasoon etxera gizon gazte apal eta jakintsu au (3).

Leenengo billaketa 1917 urteko Abuztuaren 16'an egin zan. Bere leenengo lantxo onen xeetasunak, Aranzadiren oroitzapenean argitaratu zituen: onela zion:

1917 urteko Abuztuaren 15'an ezagutu nuen D. Telesforo Aranzadi. Guipuzcoa aldeko Aralaren arkitzen diran tregu-arriak miatzeko, lenengo aldiz Ataunen bildu giñanean, alegia.

Ataungo *Amioniea* etxean bazkaldu ondoren, *Arrateta*-errekan barena, *Erremedio* aldera igo giñen, sulfuro-arsenikal-urak dituen eta itxasgora 500 metroan dagoen baño-etxera, alegia. Aranzadiren emazte ta alaba eta Eguren-en emaztea gure taldean zetozen. *Erremediora* iritxi giñan urrengo egunetik asi genituen Guipuzcoak Aralaren dauzkan tregu-arrien miaketak, Guipuzcoako Diputazioaren aginduz eta laguntzaz (4).

Irurok asi berriak ziran oraindik Euskalerriko prehistoria-lanetan. Aranzadi miatu zituen Naparroako Aralaren zeuden tregu-arriak bi udaratan eta Eguren-ek zulaketa (excavación) bat egin zuen Entzia-mendian. Baiño biak asko zekiten prehistoria-jakintzan, nere osabak dionez (5). Iruretan ezjakiñena nere osaba zan, dudarik gabe.

Nik, ordu arte apaizgai utsa izanik —dio nere osabak— prehistoria, teoriarik bakarrik ezagutzen nuen eta naita ez, ikasle bat bezela ibili bear maixu aien ondoan.

Elkarrekin egiten genduan leenengo irteera arrek bazeukan bere biotzikara. Mundu ezezagun batean sartzen giñan: misterioz betetako historiak, arriak eta arri-jartzailleak, besterik ez genekigun. Egun aiek garrantzi aundia izan zuten nere bizitzan (6).

Lenengo miaketa artatik atera zan, nere osabak Gazteizko Seminarioan, Eusko-prehistoriari buruz, egindako itzaldia: 1917 urteko Urrillaren 1'goa zan, kursoaren asiera.

Egun artatik ezaguna zan nere osaba prehistori-jakintza-gaietan.

Ementxe daukazu, mundu guzian ezaguna dan prehistorilari frantzes Henri Breuil-ek nere osabari, —Seminarioko itzaldia zalata— idatzi zion kartaren itzulpena. Ordutik elkarren adixkide egin ziran.

Embajada de Francia

J^e Le G^o tien. 6 octubre 1917

D^o Sr. Don Juan Miguel Barandiaran,
 Muy señor mío,
 Por conducto del Sr. de Sorabun, he recibido el
 favor que ha tenido usted la amabilidad de
 mandarme estos días. Después recibí en
 cambio mis negos, gracias.

He leído su discurso con un verdadero interés,
 especialmente lo que toca a datos locales.
 Estoy convencido que la búsqueda que no hacen
 más que empezar lograran a encontrar
 rastros de todas las demás épocas. En mi
 última visita a Landarbaso (Aitzbitarte),
 me fijé mucho en la cueva grande inferior, y
 creo haber encontrado indicios de paleolítico
 inferior y de aurinacense. En la época
 paleolítica inferior, los hombres trabajaron
 especialmente arcuado y ophita; esta última
 roca se descompone mucho; pero en la cueva
 hay piedras de esta roca sin tener forma

general de "coup or poing", y probablemente
 mente lo son. También hay pedruzcos de caudal
 de arenisco con vetositas. He recogido dos
 más típicas, que dejan al Museo de
 San Sebastián, como los pedernales, proba-
 blemente aurinales.

Hay un par de días, con el Sr. Juan
 Lopez Mendizabal cerca de Tolosa, he
 visitado una cueva con cerámica, pedruzcos
 y huesos humanos, al parecer sepulcral, y
 le he animado, con los amigos, a proseguir
 la excavación.

Seguramente en muchas cuevas,
 haciendo rebuques cuidadosamente, se
 encuentran yacimientos de varias épocas
 de la piedra.

Encuentro muy interesantes, como
 manifestación intelectual, que haya
 presentado a los alumnos la cuestión
 prehistórica, y le felicito para esta
 buena empresa: El clero debe enterarse

de la existencia de los problemas que encierra
 esta ciencia, y familiarizar con ciertas
 perspectivas, hasta han poco de conocerlos,
 que muy legítimamente tienen que abrirse
 después de los documentos encontrados.

Como tiene usted a la mano la obra
 de mi buen amigo alemán Obermaier,
 también sacerdote, como lo sabía, no me
 necesario detenerme a analizar esta
 problemática nueva. Claro que los teolo-
 gos tienen que tomar en cuenta los
 hallazgos que, sin discusión posible, permi-
 ten de fijar al desarrollo de la humanidad,
 mucho más tiempo que lo que se creía
 hasta ahora en la escuela; también
 el avance de la raza primitiva lleva
 problemas que no se puede ignorar ni
 denegar sin peligro. Pero que la
 obra de los teólogos, de adaptación al
 modo de presentar las verdades de la Fe,
 por difícil y delicada que sea, es
 necesaria y meritoria; pero no puede

realizarse que poco a poco, al por que
la enseñanza de las escuelas filológicas
prepara el espíritu de los alumnos a
reconocer la existencia de los hechos y de
los problemas levantados.

Como esfuerzo en esta dirección, mi
conferencia tiene un mérito que todo el
mundo debe reconocer, y de eso que sean
muchos sus imitadores.

Junto muchos puntos si, después de la
guerra actual, que nos lleva tan fuera de
nuestras faenas acostumbradas, puedo servir
en algo para proseguir sus trabajos y
proporcionar consejos y opiniones de herito.

- Si acaso tiene ocasión de entrar en relación
con el Sr. H. Obermaier, por ejemplo por interme-
dio de Don Luis Heintz, Director del Colegio de N. S.
del Pilar, Madrid, creo que el Sr. Obermaier
también de prestarle servicios y ^{recuerdos} ayuda.

Le hago presente mis respetos ^{recuerdos} a la
Superior, por su carta en Madrid, y le hago
creo en mis sentimientos muy respetuosos y
H. Barandiaran m.

Franciako Enbajada.

Donostia 1917'gn Urrillak 6

D. Jose Migel Barandiaran

Jauna:

Artu det Soraluze jaunaren bidez, zuk egun auetan bidali didazun li-
buruxka. Nere eskerrik beroenak.

Arreta aundiaz irakurri det zure itzaldia, bertako zeaztasunak, bere-
ziki. Ziur nago, asi berriak diran miaketak beste garai guzietako aztarrenak
ere azalduko dituztela. Landarbason (Aitzbitarte) azkeneko izan nitzenean,
baruko leize aundia arduraz begiratu nuen, eta paleolitiko beekoa ta auri-
ñacenseko aztarrenak arkitu ditudala, uste det. Paleolitiko-beekoa-garaian
are-arria ta arri-urdiña erabili oi zituzten batikbat: bigarren au asko on-
datzen da: baiño leize ontan badira ukabillada (coup de poing) tankerako
arri-urdun-puska batzuk eta seguruena alaxe izango dira. Baita ere arearri-
-koskor batzuk, zerbait landuak. Oietako bi, berezienak, jaso ditut eta Do-
nostiako musean utziko ditut, suarriekin batera: Auek auriñacensekoak di-
ra, seguruena.

Oraindik egunpare bat dala, D. Isaac Lopez Mendizabal-ekin Tolosa
inguruko leize bat ikusi nuen, bere eltze, suarri eta giza-ezurreen: diru-
dienez illobia da. Bere lagunekin lanean jarraitzera eragin diot.

Leize askotan arki ditezke agian arri-aroetako aztarrenak, arretaz mia-
tuko balitz.

Oso interesgarria deritzait, adimenaren aberasgarri, zure ikasleei pre-
historia-gaiak azaltzea eta zorianak orregatik. Elizgizonak ezagutu bear
dituzte jakintza onen arazoak eta oietatik sortzen diran eta orain arte eze-
zagunak ziran argi-bide batzuk, batezere egin diran aurkimenak ikusita.

Nere adixkide on Obermaier Alemanaren liburua —au ere apaiza da-
la jakingo dezu, noski— eskuartean daukazunez, ez det uste arazo auek
aztertu bear ditudanik. Teologoen beartuta daude arkimen auek aintzako-
tzat artzera: gizadiaren azitzea, orain arte uste zan baiño askoz luzeagoa
dala, zalantzik gabe agertzen diguten arkimenak, alegia. Asierako arrazak
ugaritzeak ere, arrixku gabe bazartu ez ditezken arazoak dakatzki. Sinis-
meneko egiak gaurko-tutzen, teolojilariek ari duten lana, zailla ta arrisko-
tsua bada ere, bearrezkoa eta txalogarria jotzen det: baiño au poliki-po-
liki egin bear da: Teoloji-eskoletako ikasleek, sortzen diran gertakizun eta
arazoak onar ditzaten.

Bide ortatik joaz, mundu guziak aitortu bear luke zure itzaldiaren ba-
lhoa eta jarraitzaile asko izango al dituzu.

Gure eguneroko lanetatik aldentzen gaituen guda au bukatzean, pozik
lagunduko dizut, zuen lanak jarraitzeko, zerbait dakien baten iritziak ema-
naz.

Obermaier jaunakin artuemanak izateko egokiera izango bazenduke,

Madrid-eko Ama Birjiña Pillareko ikastetxearen zuzendari Luis Heink jaunaren bitartez edo, berak ere pozik lagunduko dizula, iruditzen zait.

Nere gorantziak eman arren, Martutenen ezagutu nuen zure buruzagiari ta sinistu idazu Xtogan dizudan begirunea.

H. Breuil

Olaxe jaio ziran "Aranzadi, Eguren eta Barandiaran"en arteko lantaldea eta 20 urtez iraungo zuen benetako adixkidetasuna: Euskalerrriak asko zor die, prehistoria-gaietan inork baiño geiago egin duten ezkeror.

1917 urteko udaran, Abuztuaren 16'an asitako lana ogei urtez jarraituko zuten iru gizonok, udarako oporaldiak utzita.

Ona nere osabaren itzak:

Ogei urtez Euskalerrriko prehistori-obiak miatzen jarraitu degu, udapoporaldietan. Olaxe, elkarrekin aztertu genituen Aralarek Guipuzcoan dituen tregu-arriak (bi ekin-aldi): Aizkorri, Ataun-Burunda, Alzania, Elosua-Plazentzia, Urbasa, Entzia, Belabieta, Auritz eta Aurizperri, Kalamua ta Basagañ: Polvorin, Bolin-koba, Silibranka, Atxurra, Santimamiñe, Lumentxa, Ermitia: Arabako, eskuz egindako leizeak, eta Urtiaga (7).

Billaketa oien zerrenda egitea oso atsegin zaigu gaur, baiño ez dira aaztu bear, ori lortzeko artu diran nekeak, arrigarriak askotan. Nere osabak onela gogorazten dizkigu:

Billaketa-ekinaldi batek 15 egunekoa izanik ere, berekin duen nekea naike latza izan oi zan beti. Pentsatu bezterik ez dago, oiñez eta alako lekutan egunero ibili bearra: Erremediotik Arraztaran eta Ueloguenara (Aralarko leenengo ekiñaldia); Eniriotik Igaratza ta Unagara (Aralarko bigarren ekiñaldia); Aranzazutik Urbiara (Aizkorriko ekiñaldia); Kaxetatik Intxusburura (Ataun-Borundako ekiñaldia); Ursuarandik Balankalekura ta Otzaurtera (Alzaniako ekiñaldia); Elosuatik Irukurutzeta eta Atxolinera (Elosua-Placenciako ekiñaldia); Urbasako jauregitik Artekosarora (Urbasako ekiñaldia); Burguetetik Atalosti ta Lindusera (Auritz eta Aurizperriko ekiñaldia); etab... Bideko nekeaz gaiñera billaketa-lana, ezatsegiña geienetan, ala moduzko lekutan. Armorkora txikian (Urbasako tregu-arria) egoaldi beroak genituen eta edaririk ez. Bazkal aurretik, lurra miatzen zikindutako eskuak, langilleen ardoarekin garbitu bear (8).

Billaketa orrek zituen zailtasunen artean, beste bat ere bazan: diru-eskasia: Izan ziran Diputazioak prehistori-billaketa oietan beraldiko diruak gastatzen zituela, zioten periodistak: jakintza-zale koxkorak, nunbait. Ara bada, lenengo ogei urte oietan zenbat diru bota zuten billaketa oietan. Nere osabak dio:

Zazpireunda berrogeita amar pezta eman zizkigun Guipuzcoako Diputazioak lenengo urtean eta urteko milla, urrengoetan. Lurralde ontatik ezagutzen degun ia prehistoria guzia —gure 20 urteko lana— ez zitzaion iritxi Diputazioari 20.000 peztatara. Vizcayako Diputazioak zerbeit geixeago ematen zigun: orrela, lurralde artako gure billaketak geiago irauten zuten. Ala ere, Diputazioek ematen zigutena baiño askoz geiago bear zan gure lanetarako eta ori gure sakeletik ateratzen zan beti (9).

Lan asko egin zuen nere osabak bi prehistorilari maixu aundi aiekin batera, baiño Euskalerrriko jakintza eta billaketa-alorrean berak bakarrik egingo dako lana ez zan laburra ta makala izan.

Bere Egunerokoaren orriak begiratzean —lan oietan sartu zanetik aurrera— nunnai aipatzen ditu azterketak eta arkimenak: baita billaketan egingo dako ibillerak, gaiak sailkatzea, jakintsuekin ikasteko, atzerrira egindako irteerak eta Europako Museo garrantzitsuetara egindako ikustaldiak ere.

Eta berrogeita emezortzi urte auetan D. Jose Migelek idatzitako liburuak ikusten baditugu, arrituta uzten gaitu: urte askotan beintzat, beste lan pisu batzuekin batera egin bait du lan ori: Seminarioko Buruzagi ta Irakasle-eginkizunekin batera, gaztea zalarik, eta zaartzaroon, Naparroako Unibersidadean Irakasle-eginkizunekin batera, alegia.

OARRAK

- (1) Jose Migel Barandiaran-en, *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*. Obras Completas. I'go Lib. (La Gran Enciclopedia Vasca Argital. Argital. Bilbo 1972). 126'gn orri.
- (2) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit., *Diccionario...*, 132'gn orri.
- (3) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1917.
- (4) Jose Migel Barandiaran-en *De mis recuerdos de Aranzadi*. Munibe-n, I'go txatata ("Aranzadi"-Taldea. Donostia 1951), 84'gn orri.
- (5) Jose Migel Barandiaran-en, *Ibid.*, 85'gn orri.
- (6) Jose Migel Barandiaran-en, *Ibid.*, 85'gn orri.
- (7) Jose Migel Barandiaran-en, *Ibid.*, 87'gn orri.
- (8) Jose Migel Barandiaran-en, *Ibid.*, 88'gn orri.
- (9) Jose Migel Barandiaran-en, *Ibid.*, 88-9gn orri.

VIII

Eusko-Ikaskuntza aukeratzearen «Pekatu», edo billakari baten poz eta atsekabeak

*España aldezteko aitzakitan, Euskal-
lerria eta Euskaldunen erlijioa ikas-
ten ez dute uzten.*

J. M. B.

1918 urteko Iraillaren leenengo egunetan ospatu zan Oñateko Unibersidadean, Eusko-Ikaskuntzaren Lenengo Batzarra: D. Jose Migelek Eusko-prehistoriaren bi ikasgai aurkeztu zituen an.

Batzar artatik sortu zan *Eusko-Ikaskuntza* Elkartea: Gazteiztar ospetsu Anjel Apraiz izan zan Elkartearen lenengo Ordezkarria. Elkartearen sorreran itzaropena darioten itz auek esan zituen:

Batzar onen erabakiak bete ezkeru, Institutoak, Billaketa-etxeak, Laboratorioak, Irakasleak eta Izketaldiak, Laguntzak, Aldizkariak, Leiaketak izango genituzke: era ortan, gure erriaren nortasunak dituen leen-gaiak lantzea eta erri onek bere lurraldeetan bearrezko dituen tekniko-erakunde eta iraupena eskuratzea lortuko lituzke.

Gure erriak bizitzeko bearrezkoa duen bere kultura ori jaso dezagun, eta munduari aurkeztu dezaiozun kultura ori, guzien begirunea irabazteko: gure kulturaren alde egitea, mundu guziarentzat lan egitea bait da (1).

Elkarte ori sortzearekin Eusko Ikaskuntzari jakintza-mailla bat eman ziztaion, eta Euskalerriko gaietaz anemenka egiten ziran lanentzat, bide jator

bat prestatu zan. Beren jakite eta lanarekin Elkartea sortu ta jaso zuten eusko-jakintsu orien artean arkitzen zan nere osaba.

Gai oni buruz au dio Inazio Zumaldek:

Gure erria ezagutu ala, auxe ikusten da garbi: Euskalerritari buruz, azkeneko bi gizaldi auetan egin diran lanak, oiñarrizko akats bat izan dutela: ikuspegi estua.

Lenengo ondorio bezela auxe eman du jokaera orrek: gaiñerako mundua eta bere arazoak adimenez ez baiño biotzez aztertzea. Utsune ta buru-berokeri orri erantzun bat sortu zitzaion lengo gizaldiaren bukaeran eta oraingoaren asieran eta ortik atera zan Eusko-Ikaskuntza Elkartea, gure kulturarentzat ain mesedegarria izan dana. Elkartea ortan bildu ziran eusko-kulturaren berpiztea egin zuten gizon baliotsu batzuek: gerra zibillak geldierazi zuten Elkartea orren lana.

Talde ortako gizon berezi bat —ta oraindik bizi dana— D. Jose Migel Barandiaran jauna da (2).

Eusko-Ikaskuntza-Elkartearen babesean jaio ta azi zan, ain zuzen, nere osabak Euskalerritarien etnografi-billaketa indartzeko sortu zuten Etnoloji-laboratorioa. Laboratorio orrek erabilitako billa-bide egokiena *Eusko-Folklore* orri sonatuak izan ziran, noski. Bere sorrera nola izan zan, ikusi dezagun.

1919 urteko udaran, Abuztutik Agorra bitartean, —Santimamiñeko (Kortezubi) leizean bigarren billaketa-ekinaldia egiten ari zirala— tartetxo batean, nere osaba Bilbon bildu zan *Asociación Española para el progreso de las Ciencias* izenekoarekin.

Batzar ortan bi txosten aurkeztu zituen: *Contribución al estudio paleontográfico del pueblo vasco. El magismo* y D. Fernando Cárdenas. Biak argitaratu zituen Elkartea arek.

Majismoaz egindako txostena argitaratu zanean, zorion beroak eman zizkion Carmelo Echegaraik onoko karta ontan:

X

EL CRONISTA
DE LAS
PROVINCIAS VASCONGADAS
Barandiaran

PARTICULAR

Guernica, 4 de Octubre de 1920.

Mi distinguido y querido
de amigo: Mil y mil gracias
por el ejemplar de mi interesante
trabajo estudio acerca de *El magis-*
mo del pueblo vasco, presentado
al Congreso que se celebró en
Bilbao por la *Asociación Espa-*
nola para el progreso de las
Ciencias. Lo he leído con verda-
dera delicia, no sólo con in-
terés vivísimo, porque suscitó V.
una porción de cuestiones muy
sugestivas relacionadas con mis

do folk-lore; cuánto queda que
 espigar en ese campo, y cuánto
 puede hacerse contando con la
 colaboración de jóvenes a quienes
 se vaya preparando para la
 práctica de estas investigaciones!
 Mi entusiasmo cordialísimo
 por lo mucho que está V. ha-
 ciendo para la indagación de
 aspectos muy importantes de
 nuestra historia y de la evolu-
 ción de nuestra gente a través
 de los siglos. †

El bachiller Jimés de la
 sabilla es don Leonardo Ferrerán
 del de Moratín, que expone
 en unas notas volterrianas
 la relación del autor de *El*

de Logroño. Esa relación y esas no-
 tas se incluyen en el tomo V
 de la Biblioteca de Autores Es-
 pañoles de Pirvadeneyra, entre
 las obras de los dos Moratín,
 padre e hijo. En su puesto esa
 relación del autor figura entre
 las obras del hijo, o sea de
 don Leonardo - Meriéndez Pola-
 yo cita ese trabajo en su *His-*
toria de los Heterodoxos espa-
ñoles, en la cual hace resaltar
 el saber volterriano de las
 notas que puso el autor de
El sí de las niñas.

En la Biblioteca Nacional
 de Madrid hay un trabajo
 inédito de don Lope Martínez

de basti acerca de las brujerías
y supersticiones de nuestros pais.
Voy a pedir a la Sociedad de
Estudios Vascos que se otorgue
una copia de él, y que se cum-
pla la pena, se publique a
expensas de la misma - Ese
dibujo se lo envié a Sr.
Sr. el Sr. don Prudencio
de Sandoval, que regía a la
sazón la diócesis de Pamplona
na
Sabe V que soy muy
muy muy agradecido y es-
tado amigo y
g. l. b. l. m.
Carmelo de Etxegaray

D. Jose Migel Barandiaran jauna.

Guernicatik 1920'gn Urrillak 4

Nere adixkide jator:

Esker milla Bilboko *Asociación Española para el progreso de las ciencias* Elkartearen Batzarrean irakurri zenduen Euskalerrriaren magismoari buruzko lantxoogatik. Arreta biziaz bakarrik ez, atsegin aundiaz ere bai irakurri det, gure folkloeari buruz arazo interesgarri pilla bat arrotzen bait dezu. Zenbat lan oraindik alor orretan eta zenbat egin leiken, ortarako trebetutako gazte-talde batekin. Zorionak biotzetik zuri, gure historiak eta gure erriaren eboluzioak dituzten ainbat alderdi jakingarri azertzeko egiten ari zeran lan oiekatik.

Gines Posadilla batxillerra, Leandro Fernandez Moratin da: Logroño-ko sinismen-auzia eliz-etsai-kutsuko oar batzuekin azaltzen digu onek. Historia ta oar oiek, Rivadeneira-ren "Biblioteca de Autores Españoles"-en bigarren tomoan daude; bi Moratin, aita eta semearen lanetan. Sinismen-auziaren historia ori semearena da, Leandorena. Menendez Pelayo-k "Historia de los Heterodoxos Españoles" deitutako liburuan dakar lan ori eta "El sí de las niñas" liburuaen egilleari darion eliz-etsai-kutsua aipatzen du.

Madrid-eko Biblioteca Nacional-en bada Lope Martinez Isastiren, argitaratu gabeko, lan bat, gure erriko sorginkeri eta aztikeriei buruz egiña. Lan orren aldaki (copia) bat atera dezala, eskatu bear diot Eusko-Ikaskuntza Bazkunari, eta balio badu, argitaratu dezala. Iruñako Elizbarrutiaren Gozai zan Prudencio Sandoval-ek eskatu zion lan ori Isastiri.

Eskeroneko adixkide nauzu beti.

Carmelo Etxegaray

Alare ez zuten ain errex onartu majiari buruzko lana. Ondorenik ateratzen ez ote zuen edo, jakintza-maillakoa ez zala, zirudielako agian, oso eztabaidatua izan zan. Lan orri zegokion sailleko buru zanez, Aranzadik zorrotz aldeztu zuen Barandiaranen ikasketa, gaia ugari zekarrela, esanaz.

Verbo Divino-ren erlijioso Austriatarra —Etnoloji eta Linguistikako nazioarteko aldizkari *Anthopos*-en sortzaille— W. Schmidt-ek jaso zuen lan ori. Ona iruditu zitzaion nunbait eta Etnolojiako berri-emaitza eskeñiaz, idatzi zion nere osabari. Ortarako galdekizun batzuk bidaliko zizkion Austria-tik.

Era ortan asi zan 1921'an *Eusko-Folklore*-orriak argitaratzen, Etnolojia-ko Laboratorioan; lenengo urteetan Gazteizko Seminarioan eta geroago Gazteizko Artes y Oficios eskolan.

Lau orrialde idatzizko Orri apal aiek, Euskalerrriko etnografi-ikaskuntza-ren oiñarri izango ziran; gaiak jasotzeko galdekizunak eman eta gaiak bildu

egiten zituzten. Ortaz gaiñera, Etnolojiako Laboratorioak urtero *Anuario de Eusko-Folklore* deitua —gai jakin bati zegozkion lan batzuk biltzen zituen liburu bat— argitaratzen zuen.

Nere adixkide D. Tomas Ataurik —garai ta lan aien testigu bait zangoan ditu, nere osabak, billaketa-kezka oriek zabaltzeko, Etnoloji-Laboratorioan egiten zituen aalegiñak :

D. Jose Migel zan Laboratorio onen sortzaille, zuzendari, arduradun, oker-zuzentzaille... dana beretzat zegoen: baiño, bazan oraindik beste eginkizun bat, oiñarrizkogoia: au da, ainbeste laguntzaillei, dato-biltzaillei eragitea: gero berak sailkatu ta zuzentzen zituen. Eta bearko erantzun, bazter guzietan ugari zabaltzen zituen, galdekizun aiei; ain setatsu ta ain eredu ona zan bera. Langintza ontan garbi ikusten zan bere azkartasuna, uler-sena, gaiak biltzen zuzentasuna (3).

Zalantzarik gabe, Orri ta Anuario auek dira eusko-etnia ezagutzeko artxiborik osoena. Norbaitek eusko-prehistoria ta etnografia ezezik, eusko-toponimia ta historia sakonki ezagutu nai baditu, D. Jose Migelek, kostata, egindako bildumara jo bearko du.

Nere osabak elburu auxè izendatu zion Etnolojiako Laboratorioari Inazio Zumaldek zionez: gure oizko bizitzaren eredu izango diran gaiak bildu.

Eta euskotarren oizko bizitzabilduma ori egiteko, arkeolojiak asko lagundu zion nere osabari. 1917 urtea arte iñork ez zekien Euskalerrian kultura megalitikorik bai zanik ere. Egia, 1911 arte baziran emezortzi tregu-arri eza-gunak, 1831'an Egiluz-koatik asita, kultura megalitiko baten testigu ixillak izan zitezken.

Baiño Aranzadik asi zuen 1913 urtean —lenengo Ansoleagakin eta gero Barandiaran et Egurenekin— Euskalerriko prehistori-lekuak aztertzea tekniki: 1952 urtean baziran 340 tregu-arri eta 19 illobi aztertuak. Gaur askoz geiago dira. Ortaz gaiñera, miatutako leizeak gogoratu bear dira: 1962 urteko zerrendan 687 baiño geiago: ortik neurtu eusko-prehistorian iru gizon aundi oiek egin duten lana.

Izerdi askokin egindako arkimen oiek diralata, gaur esan diteke, gure lurtean, kuaternario-aroa ezkerro, bizi dala erri bat. Inazio M. Barriolak erri zaar aren ezaugarri berezienak onela adierazten ditu :

Gure erria eiztaria zan eta leizetan bizitzen zan: ori esan nai digute, leizetan arkitu diran arri urdin eta kuarzitazko aizkora, aiztaga —latz antzean landuak— eta abere-ezurak: auek dira bere kulturaren aztarrenak: kultura onen aztarrenak geroko estratoetan arkitzeak esaten digu, etnia bereko talde bat bizi zala Pirineo-lurraldean, prehistoriaren bukaera arte. Eta, oraindik bear bezela aztertu ez diran giza-kaskaezurak adierazten digute, gure mendietan leenengo bizi ziranak, eusko-enda, Cromagnon-go

gizonaren emengo aldakuntza bat dirala, Aranzadik dionez. Urtiaga-leizeko magdalenense kaska-ezurretik gubanaiño, amar-amalau milla urteren alde dago. Gure endaren erroak sakonak eta sendoak dira: or dago bere izkuntza: leenengo lanabesen izenetan arkitzen dan "aitz" sustraiko itzak esan nai digu, lanabes oiek arri-garaiok dirala (4).

Arkeolojiak emandako argibide auek egizat eman ditu gero etnografiak. Arkeoloji-azterketak garrantzitsuak izan arren, etnografi-lanak eman dizkiote nere osabari atsegin eta osperik aundiena: ortan ez dago zalantzarik.

Eginkizun ortan eman ditu, urte asko bakarrik ez, trebetasuna, zintzotasuna eta jatortasuna bikaiñak ere bai: ikasbide ederra amaika "sasijakintzuentzat", Mitxelenak dion bezela: gure kultura-alorrean bat-bateko, axaleko maixu asko izan bait da.

Nere osabaren adimen-zintzotasun ori garbi azaldu da, lenengo, azterketa-lanetan gauzak diran bezela ematen setatsu izan bait da. Alderdi oni buruz au dio Inazio Zumaldek :

Barandiaran, berez, objetiboa da: gaur ainbat ikusten dan ao-zabalkeri eta jakintza aizunetik ieska dabil: eta, aurrena egiteetan ondo oiñarritu gabeko iritzirik, ez du egizat emango (5).

Aranzadirekin artuemanetan asko ikasi zuen nere osabak, zalantzarik gabe, jakintza-zuzentasunean. Aranzadiren adimen-zintzotasuna onela aipatzen du Jose Migel Barandiaranek :

Leenengo billaketa aietan eta arkituetatik sortzen ziran arazoak eztabaidatzean, antz eman nion, Aranzadik ez zituela teoriak errealdadetzat artzen. Azterketaren bidez gauzak ikutu nai zituen, hipotesientzat fiakaitza izanik. Ikaste eta azterketetan —berdin ondoriotan— teoriarik naastu ez zedin, ardura aundia jartzen zuen (6).

Gauzak zuzen egiteko kezka au dalata, bear bada, atzeratu egin da jakintza-ondorioak ateratzea. Gauzak diran bezela aurkeztu nai orrek, jakintza-lana sendotu bezela luzatu egiten du. Alata guztiz ere, nere osabak egindako billaketa-lana izugarria da. Emengo eta kanpoko aldizkari onenetan argitaratutako idatz-lan asko ta askok, Barandiaranen izenpea daramate. Orrezaz gaiñera, bere *El hombre primitivo en el País Vasco* eta *Mitología Vasca*, bi liburuak, jakintza-erabaki maillako erakutsiak dituzte.

Baiño, nere osabaren adimen-zintzotasuna ez da izan gauzak bere-berean billatzeko bakarrik, bere bidetik ezerk alduko ez zuen eran, lanari buru-

biotz emateko ere bai: gaitzespen, adi-ezin eta gertaerak arrotu zuten guru-tze-pilla alperrik izan zan, billaketa-bidea ixteko.

Obras Completas-en bigarren tomoaren aurreitzean, nere osabak, *Eusko-Folklore* Orriei egin zitzaizen arrera ezberdiña, aipatzen du:

Batzuek ixilik, besteak asarre eta eusko-ikaskuntzetan sartuta zeude-nak eta etnografi-billaketak naiz errien kultura-billaketak eskuartearen zera-bilzkitenak txaloka artu zituzten. Azkeneko auei eta Eusko-Ikaskuntza-Bazkunaren era guzietako laguntzari esker, jarraitu zuten eta gai asko bildu ere bai: orriak ez izatera, gaur ez genduen jakingo, gai oriek bai ziranik ere (7).

Gezurra dirudi, izen aundiko aldizkariak —naiz etxeko naiz kanpoko— ainbat goratu duten gizonak, nazioarteko jakintsu-elkarteetan eta ezjakiña ez dan munduko Enziklopedietan ezaguna dan gizonak, bere errian eta apaizen artean etsaiak eukitzea: ortik entzun bait ditu eraso, gaitzespen, ixeka eta izki-mizki garratzenak. Kristorentzat esandakoa, onentzat ere esan diteke: "Bereetara etorri zan eta bereak ez zuten artu".

Jaiotzez eta aukeraz gizarte bikote ortakoa izanik, burruka latza egin zion gizarte orrek, politikaren aitzakitan: eusko-ikaskuntzak susmo txarrak arrotzen bait zituen eskuindar batzuegan. Jaungoikoa osorik beren politika-kutxan sartuta, beste jokabideentzat Jaungoikorik uzten ez zuten aiengan, alegia.

D. Jose Migelen zoritxarra, jakintza-gizon-maillan, urte askotan, auxe izan zan: mugaz aruntz jakintsutzat zeukaten bitartean, bere errian aren lanari ez ziotela begirunerik opa, gutxiago txalorik. Ari berean jarraituaz, elizgizona, apaiza dalako, elizgizonengandik artu bear egurrik latzenak. Negargarria apaiz batentzat, Cervantes-en esan ura beretzat artu bearra: "Elizarekin topo egin degu".

Zein zan etsaigo onen sustraia? Politika? Egia neronek osabari entzun niola, leenago aipatu nuen: beste garai batean, bereziki goratu zuen buruzagi batek, ez ziola gero barkatu, integritasoa baztertu izana. Politikaren aitzakitan, ez ote zebillen gero azpitik beste giza-grina txarren bat? Ez dakit. Mundu guziak dakiena gogoratzea besterik ez det egingo: "españitarren artean gauzak ondo ateratzea irain bat da".

Alare, ez dezala nai Jaungoikoak besteen asmoak epaitzerik. Ebanjelioa oso zorrotza da: "Ez epaitu zuek eta ez zaituete epaituko". Lekuko batzuen esanak jarriko ditut. Eta irakurlea bedi epaille zuzena. Aipatuko ditudan testigantzak, nere osabaren Egunerokotik artuko ditut itzez-itzez.

1923gn urteko Egunerokoaren lenengo orrialdean, lenengo bost illabete-tako bilduma bezela, ala dio:

Gure *Anuario de Eusko-Folklore* dalazkoa, Europako Ikaskuntzaan alkarrean atsegiñez artu diia Etnografia'ri buruz ai dien azterlariik. Been aldizkariittako bibliografiittan ala adierazten diia beintzet. Gasteiz'ko Seminarioon zuzendariik dionez, ordea, gue idazki orriek txatxukeriik emen dittuk. Ez dik Araba'n bilduta dauzkeun leengizakiñi aztarnaik, ezta erro-matarren garaiko oroigailuik ee (emengo eliz-inguruutan billatuuk danak), *Museo Diocesano* izeneko erakustokian sartzeik nai: gauza orriek uskeri zoza batzuek emen dittuk. Gizon orrek begittan zeukek eusko-ikaskuntza. Mingarrie dek, baiño ala gaittuk. Orrela gue *Eusko-Folklore* alkaarteek eta *Laboratorio de Etnología* dalazkook ibilbide txarra eta drangotsue zeukea Seminarioon. Etzekiat nundi sortzen zaiotzan aiñ gorrotzko ostikook gue ikaskuntza apal oni. Ikaskuntza orreati, ustez eta euskal-izikerea (gizabidea batez ee) erligioari lotue daola-ta, apezpikuuk (Melo y Alcalde, erdaldunek), 1913n urteen, Seminario'ko irakasle artu nenduan (8).

1923 urteko Abenduak 18, idatzi zuen nere osabak bere Egunerokoan, Bikario Jeneralak eman eta Seminarioko Erretoreak esan zion debekua: Eusko-Ikaskuntza-Bazkunak biaramonean, Donostiako Diputazio-Jauregian, ospatuko zuen Batzarrera ez joateko, alegia: Batzar Iraunkorreko (Junta Permanente) bazkide zanez, deitua bait zegoen:

Lekerika jaunak —dio nere osabak— Eusko-Ikaskuntza-Bazkuna aber-tzalea dala, esan duelako, etorri da debeku au (9).

1924 urtean sekula baiño geiago izan ziran nere osabaren zailtasunak: dana, Eusko-Ikaskuntza-Bazkunarekin eta *Eusko-Folklore*-orriak argitaratzen zituen Etnoloji-Laboratorioarekin artuemanak zituelako. Zenbaitan oarrak benetan parregarriak dira, nere osabak Martxoaren 27'an aipatzen diguna bezela: kultura apur bat duen persona batek onar ez dezaken, aberzalekeri-kezka bat azaltzen du:

Eliz-begiraleak (zensorea) Urtarrilleko Eusko-Folklore aztertzean Aranzadik *Revue d'Ethnographie* aldizkarian argitaratutako artikulo batetik artu nuen frantzes-idazkun bat ikusi zuen eta frantzesez argitaratzea zorrotz debekatu zidan: Eusko-Folklore españatarrentzat dan ezkerro, dana kastellanoz idatzi bear dala, esanaz, atzerriko liburuetatik artutako pasarteak badira ere.

Au esateko erak bazirudien, nere erantzun gogorra sortu nai zuela: baiño Jaungoikoak ez dezala nai olakorik. Dana Jaungoikoaren baimenarekin gertatzen dala, pentsatuko det (10).

Jakiña, Eusko-Ikaskuntza-Bazkunaren Batzarrerako debekua ez zioten kendu. Eta bitan bat egin bear: Batzarra utzi, ala, burua makurtu eta "toties quoties", aldiro-aldiro, baimena eskatu, gauza txar bat balitz bezela.

Ekainaren 28'an idatzitako oarrak adierazten du, zerbait aldezteko bide-

rik onena, erasotzea dala askotan eta beti ixilik gelditzea, injustiziari laguntzea izan ditekela.

Ekainaren 30'an Eusko-Ikaskuntza-Bazkunak ospatuko duen Batzarre-ra joateko baimena eskatu diot Bikario Jeneralari. Asieran eragozpenak jarri dizkit: nik esan diot, Direktorio Militarren beldur badira, Direktorioari nere berri zuzen emango dionen bat arkituko dedala: orduan eman dit baimena, baiño baldintza batekin: presan ez dala azalduko nere ize-nik (11).

Eliz-buruzagiek D. Jose Migelen lanen aurka zeudela, ez zegoen dudarik. Egun aietan asi ziran, maixua ez baiño, maixuaren langintza guzia Seminario-tik botatzen. Ara Iraillaren 5'an zer idazten duen :

Seminarioan dauzkadan Arabako prehistoria-gauzak Eusko-Ikaskuntza-Bazkunaren leku berrira daramazkit (*Escuela de Artes y Oficios* etxean) Bazkunari gordetzeko ematen dizkiot, Seminarioan ez bait dago lekuri gauza orientzat, ez eta borondaterik ere, lekua izango balitz. Eusko-Ikaskuntza-Bazkunaren Museora daramazkit Arabako erromatar-kulturaren gauzak (illarri, eltze, mosaiko), Salbatierra-bidean arkitutako neolitiko-illobien gorputz errenek, Lasartekoak, Faidoko arrizko aizkorak, Apodaca-koak... (12).

Biamonean, Iraillaren 6'an, Elizbarrutiko Probisoreak, Gotzai jaunaren izenean, bidalitako albiste bat artzen du: Peñafloidako kondeari jaso zaion oroitarriaren estrenara apaizik ez joateko, alegia: oroitarri ori jasotzea, Escuela de Artes y Oficios-ko Batzarraren asmoa izan zan eta ospakizun ortan sartzekoa zan Eusko-Ikaskuntza-Bazkuna. Ona nere osabaren azalpena bere Egunerokoan :

Gai oni buruz, Probisoreak esan dit, Eusko-Ikaskuntza-Bazkuna Erligioaren aurkako bideetatik dabilhela, Peñafloidako kondea bezelako enziklopedista bat goratuaz eta *Amigos del País* Bazkunaren jarraitzailea dala aitortuaz: bera (Probisorea) Eusko-Ikaskuntza-Bazkuna uztera dijoala, eta Bazkunaren jokabide orren errudun naizela, bere Junta Iraunkorrekoa naizelako.

Eusko-Ikaskuntza-Bazkunari, —bere billaretara joatea debekatu egin didatela eta orretxegatik Batzarreko bazkide-lekua uzten dedala— esateko, baimena eskatu diot Elizbarrutiko Bikario Jeneralari: au ere ukatu egin dit. Era orretan, Bazkunaren jokaera okerra omen dalata, errudun naiz eta erru ori salatzen didatenek berek ez dute nai, ni oker oiek zuzentzen aalegintzea. Ori... jauna ta... jauna (izenak ixilik) azpikeriz jokatzeta da. Jaungoikoak zuzen epaituko gaitu (13).

Ortaz gaiñera, bein eta berriz esan zion Seminarioko Erretoreak nere osabari, Etnolojiako Laboratorioa Seminariotik ezkutatu egin bear zala. Or-

duan nere osabak Laboratorio aren langintza zeastasun guziekin, Fr. Zakarias Gotzai jaunari azaldu zion. Gazteizko Gotzaiak, Laboratorioak Seminarioan jarraitzeari ez zion eragozpenik jarri.

Baiño Seminarioan giro txarra zegoen, nere osabak lana bear bezela egiteko. Eta Etnolojiako Laboratorioa lekuz aldatzea erabaki zuen: 1925 urteko Urtarrillak 7, eman zuen bere Egunerokoan gertakizun orren berri:

Gazteizko *Escuela de Artes y Oficios* etxeko Prehistoria-Museoan bildu giñan, arratsaldeko 5,30'n, Eusko-Ikaskuntza-Bazkuneko Araba-taldea.

Museo-gela artan, Etnolojia-Laboratorio bat, prehistoria-billaketarako biltoki bat eta izadi-jakintzen billaketarako beste bat antolatzea, eskeintzen diet. Iru atalak *Instituto de Investigación científica* bat osatuko dute. Nere eskeintza denok batera onartu zuten. Gaur arte Seminario Konziliar-en bizi izan dan Etnolojiako Laboratorioa, beraz, poliki-poliki etxe ortatik atera egin da, eragozpenak jartzen zaizkion neurrian eta *Escuela de Artes y Oficios* etxean sartu. Laboratorioak inguruan zeukan giro txarrak beartu ninduen eskeintza au egitera (14).

1925'gn Urtarrilleko Egunerokoaren bukaeran, oartxo batean, au dio:

Gozzai jaunaren baimenarekin Seminarioan eraiki nuen Etnolojiako Laboratorioa, gure bizileku ta lantoki dan erria ezagutzeko eta mundu guzian erri-kulturak aztertzen ari diranekin batera, lan egiteko bidea bezela; eta orain Laboratorio ori Seminariotik alde egin bearrean gertatzen da: España aldezteko aitzakitan, euskotarrek Euskalerrria ta onen erlijioa aztertzea galerazten dutenek agintzen bait dute Seminarioan eta azterketa ori ezin ikusi dutenen bearra bait dago "igotzeko" (15).

Egun oietan —1925 urteko Urtarrillak 8— eraso zion, nere osabak *Eusko-Folklore* orrietan zerabilkian lanari, sekular batek, Gimenez Caballero idazlariak, Madrid'ko *El Sol* egunerokoan.

Nere osabak, *Eusko-Folklore y la crítica de El Sol* izeneko idazlan betekin erantzun zion, M. Roldan de Aranguiz ezizenakin, *El Heraldo Alavés* egunerokoan, Urtarrillaren 10'an :

¡Arrazoiketa polita, ez Erligioa ta ez Jakintza ezagutzen dituen baten-tzat! Nola ditezke elkarren etsai, Egi bat bera billatzen duten bi espiritu-jokaera? Jakintzak arkitutako egia bera arkitu nai du Erligioak: Erligioak aitortzen duen Egia bera aztertzen du jakintzak giza-bideetatik.

G. C.'ren iritzia onartu ezkerro, gaurko Etnolojiaren eta Folklorearen oiñarritzko jokabideen sortzaille Lafitau bera, sasi-jakintzazale bat zala esan bearro, sinistuna zalako. Geiago, G. C. ren garai zoriontsua iritxi dan arte, —bazan garaia— munduan ez da jakintzarik izan, "itzal beltza, aldebakarreakoa" guzietara irixten bait zan.

Baiño G. C. bera ere sinistuna da. Eliza Katolikoaren ordeko eliza baten elizkide dala dio, atzoko idazlanean. Bere salaketa ere, beraz, "itzai beltz, aldebakarreko ta ezjakintzakoaz" inguraturik dago.

¡Nor da orduan, *Eusko-Folklore* salatzeko! (16).

Baiño, Jaungoikoari eskerrak, bada *Eusko-Folklore*-Crriak, apalki bildutako billaketa-lana, aintzakotzat artzen duenik.

An-emenka aipa ditzagun nere osabak bere *Obras Completas*-en aurreitzean dakarzkian pasarte batzuk :

1922'an Alejandro Guchot eta Sierrak, bere *Noticias históricas del Folklore* liburuan, 226-229 orrietan (Sevilla 1922) berririk asko eman zuten *Eusko-Folkloretzaz*.

Parisko *Revue d'Ethnographie* aldizkariak, 1923'an, 220'gn orrialdean, *Eusko-Folklore*-ren jaiotza aipatuaz, ala zion: "Benetako argibide-arrobi bat da: nunaiko erri-tradizioak eta eusko-folklore bereziki aztertu nai dutenek, ortik gaiak artu ditzakete".

Hamburgoko Fritz Krüger Irakaslea ta etnografilari oso ezagunak au idatzi zuten *Eusko-Folklore*-ri buruz: "ikaskuntzak bikaiñak dira, gaiak oso interesgarriak" (1927'gn Ekainaren 7'an egindako karta) (17).

Nere osabaren etnografi-lanak ezik, arkeoloji-lanak eta jakintza-ezaupenak berak ere badaezpadakoak jotzen zituen garai artako eliz-gizonen giroak. Eta ziur egon, politika eta giza-griñak ez diran indarren batzuk badute emen zerikusirik.

Eliz-gizonen jokaera au zerbait ulertzeko, 20'gn inguruko urteetako teoloji utseko ta itzez-itzeko eziketa ez dira aaztu bear. Sinismena jakintzaren arrixkuetatik zaintzea zan teolojiaren buruausterik aundiena. Biblialariek, beren betiko oiñarriak jakintzaren aurrean koloka antzean ikusirik, pasarteak itzez-itzez ulertuaz, babesten zituzten beren buruak.

Jakintza eta sinismena elkarren aurka baleude bezela ikusteak —Darwin-en *El origen de las especies* liburua ezkerro asko indartu zan ikuspegi au jakintzalari batzuegan— beldur pixka bat sartu zien zenbait elizgizonei, jakintzak erakutsia onartu nai ezik, pasarte illunenak ulertzeko, mirarietaz baliatuaz.

Nere osabak garbi aitortzen du, jakintzak ez duela astindu sekula aren sinismenik. Baiño giro artan ezitako eliz-gizonak —teoloji itxi bat ikasi zutenak— oso fiakaitzak ziran jakintzarekin, eta ez zitzairen oso begiko nere osabaren jakintza-lana.

Onartu ez baiño ulertu bai, ulertzen det gizon aiek —batzuk ospetsuak— nere osabaren lanari begizearka begiratzea.

Adi bidez, 1923'gn urteko Uztaillaren 21'an nere osabak bere Egunerokoan idatzi duena :

Salazarko (Naparroa) ibarreko ibilaldi au amaitu det. Aien mendietan tregu-arri batzuk aurkitu ditudala, norbaitzuk entzun dutenean, eztabaidak sortu dira ibartarren artean. Besteak beste, Comillasko apaizgai bat, diakonoa, Pablo Gurrupide izenekoak ez omen du sinisten eta nere billaketak diralata, zenbait arkeologijariaren utsemateak aipatzen ditu eta bere ateraldi eta jakinduri ustekoakin, parregarri uzten nere lana (18).

Eta beste au erantsi zion nere osabak 1951'gn urteko Ekainaren 16'an :

Gurrupide jaun au Iruñako Bikario Jenerala izan da eta orain Siguenzako Gotzai izendatu dute.

1924'gn Urteko Abenduaren 4'an Seminarioko irakasle batekin eta Goztaitegiko Probisorearekin izandako eztabaida bero bat aipatzen du; lurrak oraingo egoera baiño leen su-garai bat izan duen ala ez, zan eztabaida-gaia.

Osabak dio: Gai ontan ez dezakegula ezer baiestu, esaten didate: beste era batera egin omen zezaken Jaungoikoak. Mundua su-egoera batean egona azaltzen digutela gaurko aztarren guziek eta ori onartu bear degula, bestela pentsatzeko arrazoirik ez degun bitartean, esan nien nik. Orduan Probisoreak, dogmatizatzen ari nitzela eta badirala ni baiño askoz jakintsuagoak, kontrakoa diotenak (ez dit bat bakarrik izendatzen, arritzekoa) eta hereje bezela artzen nau (19).

Saturrarango Seminarioko "acuario" eraikitzeke agindu zion Gotzai jaunak nere osabari. Ori zala ta, asko ibili zan Guipuzcoako itxas-ertz zoragarri ortan barrena. 1926'gn urteko Apirillaren 4'an ola idazten du, bilduma gisan :

Nere etnografi-billaketaentzat ere mesedegarri izan dira ibillera auk. Acuarium-go lanak uzten zidatenean, gogoz eldu diet ikasketa oiei: garraxkeri batzuk ere izan ditut bai. Atzo bertan, "estulticias" zozokeriak omen dirala nere etnografi-lanak, esan dit Saturrarango Seminarioko Erretoreak: eta auxe erantsi zidan ixeka bezela: aren ikasleek zuzenduko zituztela nere idatziak (20).

Bestalde, irakasle batzuk jakintza-gaietan urri xamar jantziak zeudelako, ikasleen jakintza-eziketa jator baterako eragozpenik izan zan. Au egiztatzeko, ona emen bi pasarte nere osabaren Egunerokotik artuak: lenengoa filosofiako Irakasle baten esanekin eta bigarrena Teolojiako Irakasle baten itzekin: garrai artan ere aldeztu ez zitezken iritziak. Filosofiako irakasleak zionari buruz, nere osabak onela zion :

Nere Geolojiako ikasleek, Cosmolojiako irakasleak erakusten diena adierazten didate, geoloji-lanetan gabiltzala: auxe erakusten omen du: Jesukristo baiño 4.004 urtez lenagotik bizi da gizona munduan eta prehistoriariren iritziak geiegizkoak dira, aien esanak eta usteak ondo aztertu gabeak: ura lurruntzen danean, bere izatea aldatu egiten da: gorputzak (gauzak) ez dira elektronez edo ideko gaiz osatzen: gorputzen mukulluak (molecula) mikroskopioaren bitartez ikusten dira: ez dago probatu bearrik, bata bestetik zatitutako elektronez egiñik ez daudela gorputzak, etab. Geiagore ere esaten die: prehistoriariek, zerbait berria aurkitzen dutenean, guzitaratu (jeneralizatu) egiten dute: prehistoriko deitu leku oietan aurkitzen diran gauzak beti izan leizke jarri berriak eta ez aspaldikoak eta orregatik, aurkimen oietatik ez leike jakintza-ondoriorik batere atera (21).

Eta Teolojiako Irakasleari buruz, onela mintzo zan nere osaba:

Teologi-irakasle batek aatsalde ontan (1931-III-24n), Gasteiz'ko Seminarioon erakusten jardun dik esanez: zenbait moxorro-bizi beez sortzen diela bizigabeko gaietati; adibidez, gaztaiaren arrak eta beste orrelako. Ikasleek parre eñ zoi maixuari eta ortan geldittu. Mingarria dek oolako irakas-maillan oaindio ibiltzea (22).

Eramankizun-pilla orrek zorrotz jo bear bere espiritua, dudarik gabe eta nortasunaren gogo-soiña ain lotuak dauden ezker, soinak ere nozitu egin bear bere azaletan.

Dana dala, beñere sendoegia ez zan nere osabaren osasuna makaltzen asi zan urte auetan. Este-meeko zauria aurkitu zioten sendagilleek: egoskiñeko (aparato digestivo) beste gaitz zauritsu guziak bezela, sike ta biotz-bizitzakin zerikusi aundia duena.

D. Jose Migel Seminarioko Buruzagi urte askotan ezagutu duenak, go-goan izango ditu aren otordu urri aiek; oiñarri bezela kapesne-katillua ta galleta erreak: eta auetako geienak gaxotegiko jangelan biltzen ziran ikasleentzat.

Ordukoa zuen lepoko kozkor ura ere: urte askotan zear bere soin-nortasunaren ezaugarria. Gero jakin det, berak izen tekniko bat ematen ziola: "infarto ganglionario" gangoila-auditura. Ikusten dedanez, Jose Zorrillaren txori ura —Pio Barojaren xeetasunak kontuan arturik— osabarenaren bidakoa zan (23).

Gangoila-auditura dalata, entzun izan diot, espezialista bati erakutsi zezaiola, esan ziotela; berari ajola aundirik ez bazion ere. Esan da egin. 1926 urteko Iraillan, Bilboko etnografi-museoan lanean ari zala, Gorlizko Sanatorioan Zuzendari zan Larrinaga jauna ikustera joan zan. Moztea ohea zala, esan zion sendagilleak. Ebaketa Gabonetako oporaldirako utzi zan.

Nere osaba xuxen agertu zan sendagillearengana. Izketan ari zirala, sendagilleari jalki zaio, aunditurak ez zeukala iñungo arrixkorik, baiño itxusi ematen zuen ezker, kentzea ohea zala. Bai nere osabak azkar jaso ere eta au erantzun:

—¡Ba! Itxuragatik gutxi ajola zait bada neri.

Eta beste gabe, atera zan konsultatik. Eta olaxe jarraitu zuen urte askotan, 1936 ezker Francian zegoela, berez ezkutatu zitzaion arte.

Ala bearrez edo, mugaz arunztik zebillen garai artan sendatzen asi zan nere osaba. Este-zauriak ez zion miñik ematen, jan-kontuan lengoan jarraituko zuen arren eta ganglio-auditura ezkutatu zitzaion. Gazteizko kotta guziak aizeak eraman zituen. Ez ote zuten zerikusirik elkarrekin —diot nik— sike-eramanak eta soin-atsekabeak?

OARRAK

- (1) Angel de Apraiz-ek, *Hermes, Revista del País Vasco*-n (Bilbo, 1918'gn urteko iraila), 106'gn orri.
- (2) Ignacio Zumalde-ren, *José Miguel de Barandiaran, pionero de la cultura vasca*, "La Academia Errante"-ren *Homenaje...*, op. cit.-an, 35-6'gn orri.
- (3) Tomas de Atauri-ren, *Antaño y hogaño de un infatigable prehistoriador. Homenaje...*, op. cit.-an (Vizcaya-ko Diputazioaren Argitaldiak. Bilbo, 1964), 73'gn orri.
- (4) Ignacio Maria Barriola-ren, *Aranzadi, Azkue, Barandiaran y Eguren*. "La Academia Errante"-ren *Homenaje...*, op. cit.-an, 220-1'gn orri.
- (5) Ignacio Zumalde-ren, op. cit., *José Miguel de Barandiaran...* "La Academia Errante"-ren *Homenaje...*, 38'gn orri.
- (6) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit., *De mis recuerdos...*, 86'gn orri.
- (7) Jose Migel Barandiaran-en, *Eusko-Folklore. Obras Completas*. Aurreitza. (La Gran Enciclopedia Vasca Argital. Bilbo, 1973).
- (8) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1923.
- (9) *Egunerokoa*, id.
- (10) *Egunerokoa*, 1924.
- (11) *Egunerokoa*, id.
- (12) *Egunerokoa*, id.
- (13) *Egunerokoa*, id.
- (14) *Egunerokoa*, id.
- (15) *Egunerokoa*, 1925.
- (16) M. Roldan de Arangiz-en, *Eusko-Folklore y la crítica de El Sol*, "Heraldo Alavés"-en 25-X-10.
- (17) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit.
- (18) *Egunerokoa*, 1923.
- (19) *Egunerokoa*, 1924.
- (20) *Egunerokoa*, 1926.
- (21) *Egunerokoa*, id.
- (22) *Egunerokoa*, id.
- (23) Pio Baroja-ren, op. cit., *Desde la última...*, I'go Lib. 267'gn orri.

IX

Europako Museo nagusietan barrena ikaste eta nazioarteko lenengo itzaldia

Orain arte gertatuak auxe erakutsi dit: nere egitamuekin fiakaitz izan bear dedala, bearrezkoak badira ere eta aurrera eramateko prestatu bear badet ere: noizbait zerbaitetarako izan leizke.

J. M. B.

Schmidt jaunak Etnolojia berriemaitetzarako egin zion deia, onartu zuen nere osabak: bigarren dei bat ere artu zuen iturri beretik, 1922 urteko Irailan, Holandako Tilburg urian ospatuko zan Erljio-Etnolojiaren nazioarteko Astean, itzaldi bat eman zezan.

1922 urteko oporaldia asmo ta lanez beteta azaltzen zan D. Jose Migel-entzat. Udararen bukaeran Tilburg-eko itzaldia eta bitartean Francia, Alemania ta Belgican barrena ikasten ibili bearra.

Baiño nere osabaren asmoetan ez zan sartzen —ustekabekoa izan— biotzondoko latza emango zion familiako ezbear bat.

Bere arreba Sor Madalen oso gaizki arkitzen zala, zion telegrama bat artu zuen Huescatik Ekainaren 6'an: arreba erri artako Karmeldarren kontentu itxian bizi zan.

Ekainaren 6'tik 12 arte —arreba il zan eguna arte, alegia— gaxotasunaren goraberak eta arrebaren eriotzak anaiari ematen zion naigabea idatzi zituen nere osabak, bere Egunerokoan: bertan bait zegoen.

Maria Bautistak (Konbentuan Sor Madalen) eta Jose Migelek maitasun berezia izan zioten beti alkarri. Adinean gertukoak edo espiritu-gaietan ki-dakoak ziralako edo, lokarri bereziz lotuta zeuden. Ez zitzaion aaztu nere osabari, ilzorian zegoen aren ixil-mandatura bere Egunerokoan —Ekainak 9— jasotzea:

Galxook aikatuz zeean maitasun zifiekkoa beti izen ziala nei. Ala oaan izen ee ta (1).

Nere osabak gogoan zeukan beti, amak Elizakoak artu zituenean gertatua: etxeke atarian zegoen exertoki batera jaso zuen, bere arreba Maria Bautistak eta —eliz aldera begira— umezurtz gelditzera zijoan mutiko artaz erukitu zedilla, eskatzen zion Jainko onari.

Nere Sikolojiako Irakasle eta nere osabaren lagunzar, D. Leoncio Aravio-Torrek, klasean nere izeba monja aipatu oi zuen, telepatia-fenomeno batzuen protagonista bezela. Dirudienez, aurrez ezeren berririk artu gabe, Ataungo baserrian okerren bat gertatzen zala, igerriz zion Huescatik, bere aitari Elizakoak ematen zizkioten egun eta ordu berean.

Eta bere aita il zan une ber-berean estu ta larri idatzi zion familiari, etxe artan ezbear aundiren bat bai zala.

Arreba il ondoren, esan dan bezela, nere osaba bertatik asi zan, Aranzadirekin batera egin bear zituen ibilketak pentsatzen: Francia, Alemania eta Belgicako Museotan barrena, alegia; azkenean Holandan, aipatutako itzaldi ura emanaz.

Ibilaldi ura antolatzen zuten bitartean, Guipuzcoan, Elduayen eta Berastegui mendietan zeuden tregu-arri batzuk miatzen ibili ziran, Uztaillako egun batzuetan. Bere Egunerokoan nere osabak Elduayengo zubi bat, *Arrosiko zubie*, aipatzen du: an barrena pasa bait ziran egun aietan bein da berriz: eta zubi artatik soka batez zintzilik euki bait zuen Santa Cruz, entzute aundiko apaiz arek, erriko alkatea.

Berastegin gertatu zitzairen onoko au: Arregui-ostatuan zeudela, mai berean afaltzen ari ziran batzuek, jenero-saltzaille mayoristatzat artu zituzten.

Zer jeneroren saltzaille iruditu ote zitzaizkien. Ala moduzko lan-jantziak izango zituzten soñean. Nolanai ere, gaitz erdi "mayoristatzat" jo zituztela.

Zerbait ona arkitu zieten maikide begi-luze aiek: ez zituzten "minoristatzat" artu beintzat.

1922 urteko Abuztuaren 3'an artu zuen nere osabak Gazteizen Hendarako trenan. Antxe zai zegokion Aranzadi bere familiarekin. Imatz-Hotelean egin zuten gau-pasa. Au izan zan European barrena egin zuen ikas-ibilialdiaren asiera.

Abuztuaren 5'an iritxi ziran Paris-a. Beneditar monjaen konbentu batean artu zuten ostatua, Monsieur-kalean, 20'gn zenbakian. Arratsalde artan bertan ekin zioten Museoak ikusteari.

Leenengo, Louvre-ko Museoa ikusi zuten. Tapizeri eta marrazki-gelatan barrena, España, Italia eta Flandes-ko ertilan entzutetsuak mireztuaz.

Biamonean, Paris-tik trenez ordu beteko bidean dagon Saint Germain-erriko Zaareri Museora jo zuten. Museoko zuzendari Hubert jauna ezagutzen zuen nunbait nere osabak: orretxegatik utzi zion 1921'gn urteko *Anuarioaren* ale bat, bere izenean eman zezaiotela, aginduaz.

Ikustaldi orren xeetasun batzuk eman dizkigu nere osabak, bilduma antzera. Ikustekoak dira an aztertutako gauzaen eta berak arkeoloji-miaketan aurkitutakoen artean jartzen dituen kidetasunak:

Geldiako ibilli nenduan I, II eta III salak ikusten. Lenengoon Achen-aldiko lanabes mota asko Abbeville'n arkittuak, ikusi neetuan; baita Mustier aldikoak ee, Mont Guillain'en billatuak; Solutre aldiko igeki eta muturrek ee bai, Grot de Placard'en azaldu zienak, batez ee igekitxo ugari Santimamiñe'koon kidekook... Ezkerreko apal bateen, arresiin ondoon, aagi oan suarri landu bat, txanal edo itxasontziin antzekoa, Santimamiñe'n agertu izen dien batzuek bezelakoa (2).

Abuztuaren 8'ko ikustaldiak edozein turistarenak bezelakoak izan ziran: Sacre Coeur'-en eta St. Pierre-en (Monmartre) elizak, Champ de Marte-n Eiffel-torrea, "bere arigabeko telegrafi-antenakin". Nere osabak aipatuko zuen antena ura: ainbeste aldiz entzun zuen Gazteiz eta Ataundik.

Funikulareko estaziora jeistean, Chevalier de la Barre-ren tupikizko irudi bat ikusi zuen nere osabak: "prozesio bat agurtu ez zuelako" zigorpean.

Abuztuaren 8'an, goizetik, betiko ikustaldiak eta zerbait erosi: atergabeko euritik bere burua babesteko, aterki bat *Au bon marché*-n. Berriz ere Louvre-ra arratsaldean: astiro ibili zan Egipto-gelan; ikusgarri askoren artean, tregu-arrietakoen antzeko tresnak, armak (gezi-mutur, zingifiarri, tupikizko aizkora etab. etab.).

Neoklasiko tankeradun Greciako tenploen antzeko Magdalenaren elizara azkeneko ikustaldia.

Osaba mintzo: Nere guraso ta arreba Sor Madalenatzaz oroitu nitzen an eta guzientzat otoitz egin nion Jaungoikoari (3).


10'an Biblioteca Nacional-era (rue Richelieu) joan ziran (dio): an liburu batzuen zeaztasunak artu eta Trocadero-ko Etnografi-Museoan, Amerika eta Europako etnografia-gelak ikusi zituzten.

Abuztuak 11, ostirala, azkeneko eguna Paris-en eta Coloniarako irteera, ostatuko kontua ordaindu ondoren: apaizek 12'na franko eguneko eta sekularrek 20'na. Aiek garaiak!

Paris-tik Coloniarako bidea ez zan izan oso atsegiña: (ia beti zutik pabilotan, kotxetan argirik ez); eskerrak lurralde ederrak ikusten zirala, baiño bai gerra bukatu berriaren ondorioak ere: bonbak erretako etxeak eta txikitutako zugaitzak.

Colonian *Etnografi-Museoa* ikusiaz, ordutxo batzuk pasa ondoren, biaramonean Maguncia-ra jotzen dute, Rhin ibaian barrena, *Kaiser Wilhelm II* ontzian. Ibaiko ibilaldi ura oso gogoko gertatu zitzaion nere osabari eta ikusita-koen xeetasun asko idatzi zituen bere Egunerokoan.

Eskuetan dauzkat biaje orren zazpi postal: batean, *Kaiser Wilhelm II* lenengo maillan eta bideko ikusgarri batzuk atzean. Postal batean eskuz idatzitako lerro auetan ederki adierazten du nere osabak zeñien xeetasunzalea dan:



"Kaiser Wilhelm II" ontziaren barruan.

1922'gn Abuztuak 13, arratsaldeko 6 eta 40 dira. Kaiser Wilhelm II ontziaren barruan. Arkaitz orren gainean bada, emen ageri ez den, gurutze bat. Ondotik pasa gainean mendizale batzuk agurtu ginduzten gainlurretik (4).

Nere osabaren nortasuna ezagutzen duenarentzat, baditu historia arek pasarte politikak. Adi bidez, bazkaltzen zenbat denbora pasatzen duten, dionean:

Ordu biak. Bazkaria bukatu degu. Bi ordu bazkaltzeko; Jaungoiko Santua! (5).

Ez da arritzekoa nere osabaren ateraldi au: bere otorduetan asi ta bukatu azkar egiten bait zituen. Noizbait entzun nion, bere otorduak ez zirala San Inazioaren gogokoak, "ez asiera eta ez pulamentu" ziralako: Gogojardunen Liburuaren leenengo meditazioa aotan artuaz, noski.

Maguncian trena artu eta Munich-era. Iritxi orduko Hofgarten-go Etnografi-Museora. Abuztuaren 16'an *Bayriches National Museum* ikusten dute, nere osabarentzat, "lurralde-museoen eredu", eta *Deutsches Museum* eta *Völkerkunde*-koa. Illaren 20'an Aranzadi ta familiarekin, Oberammergau errian Pasioaren entzuteaundiko antzerki ura ikustera. Antzerkia bi ekiñalditan egiten da: goizean 8'tatik 12'ak arte, arratsaldean ordu bietatik zazpiak arte.

Gertakizun onek zorrotz ukitu zuen nere osaba. Ala zion bere Egunerokoan: "Nere bizitzan ez det sekula ikusi au baiño gauza ukigarriagorik". Eta antzerkiaren ia irureun orrialdeko Liburuan, pasarte batzuen aldamenean, oar batzuk idatzi zituen: "Bai ederra!" "Ikusle guziak negarrez" "Au bikaiña, unkiarra da".

Illak 22, arratsaldeko seiretan Leipzig-era irixten dira. Nere osabak esan izan du, uri ortan gertatua: Aranzadiren esana entzunda, paisano-jantziak artu bear izan zituela, alegia; berari, museoko zera bati bezela, begiratzen bait zioten jendeek.

Grassi Museum ikusi zuen: bere zatirik interesgarrienak etnografi eta prehistori-museoak. Etnografikoa, berak aitortzen zuenez, "ordu arte ikusitakoen osoena". 24'an Berlin alderuntz, eguerdi inguruan irixteko.

Berlin-en gertatu zitzairen zerbait, esateko polita, pasatzeko ez ain atsegiña, bear bada. Aranzadi ta nere osaba rusitartzat artu zituztela bi aldiz. Aranzadiren irudi baldar eta zango elbarriak eta ondo ez zetorkion trajea soiñean zuen nere osaba, susmo txarrak sortzeko ainbat baziran aleman begi-luze aientzat.

Jatetxe batean bazkaldu ondoren, osabak dio, asi gain ostatu billa, ikusten genituen hotel guzietan. Ogeitik gora etxeetan bai, Hotel Catholic-en rusotzat artu ginduzten. Hotel Westend-en sartu gain azkenean (6).

Kontuan euki orduan lau urte zirala, amaitutako Gerra aundian ruso ta alemanek elkarrekin burukatu ziranetik. Susmo txar ori zalako ibilli ote ziran aldi artan ostatua ezin arkiturik?

Eta berriz ere rusoak giñalako susmoa, biaramonean Jandin Zoologico-n, jatetxe batean afaltzen ari zirala.

Nere osabak *Museum für Völkerkunde* —bereziki Afrikako gela— ikusi zuen 25 eta 26'an. Ondoko egunetan, illaren azkeneraño, lan asko egin zuen, *Märkisches Museum*, *Alter Museum*, *Nationale Galerie*, *Sammlung für Deutsche Volkskunde* ikusten.

Beste zerbait ere ikusi zuen —zertxobait arrituta— (aspaldiko kontuak): emakume asko ikusten ziran bizikletan eta zigarroa erretzen zerbezategi eta kafetegietan (!) (7).

Abuztuaren 31'an Aranzadi ta familia Pariseruntz abiatu ziran. Nere osaba Holandara joan bear zan, Españara baiño leenago. Biaramonean, Irai-llak 1, kontua ordaindu ondoren, Hotel Westend utzi zuen: 8 eguneko egonaldia 1.600 marko (7 pezta!). Nere osabak xuxen idazten ditu bere ordainketa guziak. Ez aaztu dana bere sakeletik ateratzen dala.

Berriz itzulita, Colonian, katedral inguruan dagoen, Arzobispo-Museoa ikusten du eta andik Aquisgran-era dijoa. Katoliko-Misioen Esposizio bat zegoen uri artan: *Kaiser Karls Gymnasium*-en eta misioetako jendeek egingadako eskulan asko ikusten ziran.

Azkenik, 4'ko arratsaldean, Holandako Meerkelbeek errira irixten da. Tren berean peregrinazio bat zijoan. "Apaizak —nere osabak dionez— bonete gaiñean osto orlegizko koro bat zeramakien". Apaingarri polita!

Illaren 5'an, arratsaldeko zazpitan Tilburg-en: 60 bat milla biztanle, katolikoak geienak. Bolsa de Comercio etxera dijoa: an antolatu bait zuten *Erljio-Etnolojiako Astea*. Erakunde exkaxa. Batzarkide-tarjeta eman zioten eta berriz kendu, ostatu-lekua beterik zegoelako. Garbi-gela estu batean jarritako oean lo egin bear.

Biaramonean beste tarjeta bat ematen diote eta apaiz-etxean ostatua: nere osaba arrituta: "ura zan etxea; erretorea eta iru koadjutore bizi ziran" Astea irikitzen da asiera-itzaldi baten bitartez eta leenengo mintzaldia A. Schmidt-ek. Entzule asko xamar: 150 inguru Europa guzikoak.

Illaren 7'an, goizeko amaiketari, D. Jose Migel Barandiaranen mintzaldia: *La religion des anciens basques* izenburua.

Itz gutxi nere osabak bere mintzaldia dalata, Aipatu bakarrik:

Goizeko amaiketarik amabietara Leengo Euskaldunen Erljioa, gaiatzaz nere mintzaldia (8).

Alata guztiz ere, Barandiaranen mintzaldi onek bazituen bi alderdi garrantzitsu, barruko mamiaren balioa aipatu gabe: nere osabak mugaz aruntz ematen zuen lenengo itzaldia eta gai ortan argitaratzen zan lenengo lana izatea.

Lenengo gaueko erakunde kaxkarra kendu ezker, Astea betea izan zan alde guzietatik.

Bruselasen egun bat igaro, ango Museo de Historia Natural ikusi —; bear-ko!— Paleolitiko ta Neolitiko bildumak asko goratuaz eta biaramonean Paris-a ta andik Atauna.

Egunerokoaren 1922'ko kuadernoa Ataunen sartzeakin bat bukatzen da, baiño oraindik bazituen bi orrialde, erantsigarri bezela eta beroietan dana aldatzen da: esakera, gaia eta letra bera ere bai.

Estu ta larri idazten duenaren idazkera dardaratsua —izan ere ainbeste aruntz-onuntza— orain erabat baretu da: egarri duenaren billa dijoanak oi duen berotasun ura oztu da zerbait. Orrenbeste lan kostata bilduak balioko ote du? Norbaitek aintzakotzat artuko? Norbait baliatuko?

Nere ustez, olako galdeera batzuk daude, emen jartzen ditudan nere osabaren itzen azpian:

Alemanin' in eindako ikaslanen eta musoetako ibilaldiin ondoen, Gasteiz'a iitxi nenduan, Leipzig eta beste lekuutati etorri nintzeneen bezela, oso alai eta etorkizune begi onez ikusten noola. Baiño Gasteiz'en Seminarioko zuzendariik etzeukean gogoeta berdiñe: etzeoan nee irakaslanen zai, Orri ikasi nian ez deale itxaro bear geiegi, nee asmoon neuriin gauzak gerta-ko, eta noizbait ee elburu onea iitxiko gean itxaropeneen ibilli (9).

Zer gartatu zan? Garbiketa-tresna bat jarri zuten Seminarioan. Eta beste norbaitek erabiltzen ikasi arte, eginkizun ori nere osabaren esku utzi zuten. Kursoaren leenengo iru illabeteak garbitegian bota zituen, beste eskola ta gaiñerako egitekoak kendu bait zizkioten. Blusa aundi bat jantzi, buru-lan guziak utzi eta bere lixubak ziran aren eginbearra iru illabete aietan.

Aldaketa beltza benetan. Ez da arritzeko aren barruan goibeltasun zerbait sortzea: toki onean zeuden lengo ames aiek.

1923 eta 1924'an bere ikasketak osatu zituen oraindik bi ikasaldietan. 1923'gn urteko lenengo bost illabetetan Parisko *Institut de Paleontologie Humaine* deituan ibili zan, mundu guzian entzute aundiko arkeologilari Breuil apaizaren erakutsiak entzunaz. Prehistoria-arazoak ziran ikasaldi aren gaia. Breuil berak deitu zuen nere osaba.

Berriz ere Parisen, 1924'an bi illabeteko ikasaldi batera joan zan: ikasaldi onen zuzendariak, aipatutako Breuil eta Eduardo Le Roy ziran. Bigarren au Bergsonen ikaslea zan eta bere Irakaslearen esanen arauera giza-arazo filosofikoak argitzea zan bere egitekoa.

Prehistorilari ospetsu ta frantzes Breuil apaizakin nere osabak zuen adiskidetasuna gogoratzean, ezin aaztu prehistoria eta paleontolojia-alorretan jakintsu zan, beste gizon baten adiskidetasuna ere. Hugo Obermaier Irakaslea zan gizon ori: nere osaba ta biok egin zuten Altamirako leizean billaketa-ekinaldi bat, 1920 urtearen inguruan: eta billaketa-lanen asieratik, askotan idatzi zioten alkarri: lekuko, Obermaier jaunak 1919 urtean idatzitako lerro auk:

Madrid
Alcala 143/7
11. XI. 22.

Cher Monsieur,
je viens de recevoir votre belle monographie et je vous en félicite bien vivement. En revanche, je vous ferai arriver prochainement mon étude sur le dolmen de Matarrubilla (Sevilla.) Savez-vous, qu'il existe un très beau vase campaniforme du dolmen de Pagobakorza dans le Museo Municipal de San Sebastian?
Cordialement
H. Obermaier.

Madrid
Alcalá 143 - I.

Jaun maite:

Artu berria det zure monografia ederra eta zorion beroak ematen dizkitzut. Ordaiñetan, denbora gutxi barru, nik Matarrubillako (Sevilla) tregu-arrietaz egindako azterketa bidaliko dizut. Bai al dakizu Donostiako Erri-lizeoan kanpai-irudiko ontzi eder-eder bat badagoela? Pagobakorza-ko tregu-arrikoa da.

Biotzez

H. Obermaier

OARRAK

- (1) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1922.
- (2) *Egunerokoa*, id.
- (3) *Egunerokoa*, id.
- (4) *Egunerokoa*, id.
- (5) *Egunerokoa*, id.
- (6) *Egunerokoa*, id.
- (7) *Egunerokoa*, id.
- (8) *Egunerokoa*, id.
- (9) *Egunerokoa*, id.

X

Jakintza-taldeak: «Lyceum Cassiciacum» eta
«Aranzadi, Barandiaran, Eguren» irukotea

*Ikasgai guziak alderdi asko ditu.
Talde-lana bearrezkoa da, bakoitzak
bere laguntza berezia eman dezan.*

J. M. B.

Nere osabaren adimen-nortasuna beti nabarmendu da, gai askotara zabaltzen dalako. Berakin artueman asko xamar izan duen edonork ezagutzen du alderdi ori eta onartuko ditu D. Tomas Ataurik, D. Jose Migel ezagutu zuenean, idatzitako itzak :

D. Jose Migelekin izan nuen leenengo alkarizketa, ez zait sekula aaztu eta ez aaztuko ere : bere talde ospetsu artako gazteena zan apaiz gazte ura : bere jakite ugariak, areman jator eta apalak zirrara zorrotza egin zidaten leenengo unetik. Edozein gai ikutzen zala alkarizketan —ezberdiñenak baziran ere— : izadi-jakintzak, fisika-kimika, historia, etnografia edo prehistoria, folklore edo sozial-arazoak, danentzat zuen argi-izpi bat adimen argi arek. Gai bateko ala besteko arazoak izan, ez zegoen beldurrik, bakoitzari zegokion erantzun jatorra emango zion aren buru azkarrak (1).

Gizadi onen amabostgarren urte inguruan, Prehistoria, Erlijioen Historia eta kulturen historiakin batera Sozioloji-gaiak ikasten ari zan, Soziologi-ikaskuntzen ardura onek eman zuen bere fruitu bat : 1925'an argitaratu zan *Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales* liburua.

Geroago gozatuko genituen *Gymnasium* eta *Idearium* aldizkarietatik

zuzenduko zituen sozioloji-billaketak, Euskalerriko erlijio-fenomenoa zer nola zan aztertzeko: gaurko Erlijio-Soziologiaren benetako bide-aurrelari izanik.

Ekintza oietaz gainera, itz-burrukak ere izan zituen, liburuxka eta periodikoetako artikuloak ugari argitaratuaz: teologia eta izadi-jakintzak oiñarri artuta, katoliko-sinismena sendo baieztatzen zuen. Fisika-jakintzen zaletasunak beste aldetik —Seminarioan gai ori erakusten zuelako areago— asko zirikatzen zuen beti, esperimendu asko egitera eragiñez.

1923 eta 1924 urteetan egindako fisika-esperimentu oietan, jomuga jakin baten atzetik zebillen, nere osaba: radio-telefonía. Jakin bear degu lenengo irrati-difusio-estazioa 1920 urtean iriki zala: arrigarria da, beraz, 1923'an nere osabak Ataunen irrati-telefonía artzaille bat eraikitzea. Alare urrengo urtean, 1924'an, irrati-esperimentu ugariagorik egingo zuen nere osabak.

Orrela Martxoaren 25'an, irrati-tresna bat egin eta, Palacio Valdes-en literatur-nortasunari buruz *El Siglo Futuro*-k argitaratutako idazlan bat zabaldu zuen. Irrati-kultura-saio aukeratu gero aldizka egingo ziran: ona zer dion gai ontaz nere osabak Maiatzaren 11'an:

Seminarioan arigabeko urrutizkin bat zeukeau (neonek eiñe). Orren bidez dizdira diau gaur *Eusko-Floklora* izeneko alkarteezaz itzaldi bat. Ixlarazko zabalketa ook asteazkenetan eta launbateetan eitten zetua, giza-ezikeren eta bee oiñarriin berri emateko (2).

Urte artan bertan, udaran, Saturrarango Seminarioan irrati-entzuekin bat antolatu zuen. Ekainaren 3'an, gaez, Londres, Cardiff eta Manchester-ko musika-saioak entzun ziran. An zeuden inguruetako baserritar batzuek, karabineroak, mikelteak eta Ondarrutar asko. Konzierto batzuk entzun ondoren, batzuk ziur zeuden, ura gramofono bat zala.

Aspaldi artako irrati-esperientzien zeastasun asko esan ditezke, baiño esandakoa naikoa da, nere osabaren adimen-lanaren alderdi bat azaltzeko: bere jakintza-zelai zabala, alegia.

Eta zabaldi ortan ibiliko da, jakintzaren frankotiradore bezela —bere gisa lan egiñaz— batzuetan, lana obeto egiteko billaketa-taldeetan sartuaz, besteetan.

D. Jose Migel taldeka lan egin zalea, lankide zalea zanik, iñork ez dezake ukatu. Berak bazkide bezela lagundu dien eta laguntzen dien ainbat jakintza-bazkun eta Etnologia-Laboratorioko taldea gogoratu gabe, bi lan-talde bereziki aipatu bear ditugu: biak oso ezberdiñak eta bietan zegoen nere osaba urte auetan: *Lyceum Cassiciacum*, erlijio-jakintza zalea eta ezagunagoa zaigun beste au: Aranzadi, Barandiaran eta Eguren irukotea, eusko prehistoria-ikaskuntzari zuzen lotua.

Gazteizko udazken batean, uste gabe bezela, adixkide arteko alkarizketa goxoan jaiotzen zan leenengoa. 1924'gn urteko Urrillaren 4'a zan. Goiz artan ospatu zan Seminario Konziliaren ikas-urtearen asiera. Bazkalondoan D. Antonio Pildain, D. Leoncio Aravio-Torre ta nere osaba Jose Migel ibilaldira bat egitera atera ziran. Elkarizketa aren mamia onela jaso zuen nere osabak bere Egunerokoan:

Alkar-izketak erligioan eta ikaskuntzan maillan eraandu nai-ta, asteen bi billera —asteartean eta launbatean— Seminarioko nee lantegiñ eittea erabaki diau: Pildain (Antonio)'ren iritzie ortan onartu diau: alkarte onen izena *Lyceum Cassiciacum* izango dala, alegia" (3).

Talde ortako beste bi apaizak, nere osabaz kanpo, bai Seminarioan eta bai beste leku askotan ere oso ezagunak ziran. D. Antoniok ez du iñork aurkeztu bearrik. Gazteizko Katedraleko kalonjea, Seminarioko Irakaslea, izlari bikaiña, Errepublikako korteetan eusko-napar-taldeko Diputadua izana. Eginkizun ori artzeko baldintza bat jarri zuen: iñungo politikoa alderdian ez sartzeko, alegia. 1936'gn urtean Canariasko Gotzai izendatu zuten, baita artzailan ugaririk egin ere lur aietan. Gotzai zala entzute aundiko eskutitz batzuk idatzi zituen. 1973'gn urteko Maiatzaren 7'an il zan, bizi izan bezelaxe, beartsu.

D. Leoncio Aravio-Torre ez zan ain ezaguna, Seminarioan ezik. Izadi-jakintza-zale porrokatua eta beroietarako oso trebea, Sarriako Bioloji-Institutoan ikasi zuen Biologia, biologilari ospetsu ta jesuita A. Pujiula-ren ardura-pean. Erabat apala eta izadiaren misterioak nabaritzen neurritz kanpo senti-bera, bere klaseetan gaiak otz-otz erakutsi baiño geiago, bere zaletasun-sua eransten zuen. Alare ikasleok, irakasle onegiaren mintzaldi sutuak entzun baiño, gure mingaiñari eragin naiago, zoritxarrez.

Auetxek ziran asieran *Lyceum Cassiciacum*-en bi bazkideak nere osabekin batera. Baiño irukote ura laixter biurtu zan laukotea, D. Manuel Lecuona, —Seminarioko Irakaslea bera ere— inguratu zitzairenean.

Taldeko bazkide bakoitzak eta billera bakoitzera bere gogoko txosten bat ekarri bearra zeukan. Iñork baiño obeto, nere osaba berak esango digu, *Cassiciacum* orren lenengo billera nola izan zan, Urrillaren II'an, osabaren lan-gelan:

Gure leenengo idaztiak badakarzkigu "L. Cassiciacum"era. Nik nere *Psicología Social*-en aurreitzetik iru orritxo irakurri nituen. Pildainek apolojetika-alorrean bereak, goi-maillakoak. Lecuonak bere billaketa-lan baten zati bat: udara ontan Oyartzunen, erri-erlijiotasuna gaitzat arturik: zentzuzko lana, ondo pentsatua. Aravio-Torrek biologiaren alderdi atsegin batzuk: Jainko Egillearen poema-zati batzuk, oso ondo idatzita. Pildain eta

biok berealdiko astindu latza eman genion. Asmo batzuk aurkeztu, adi bidez, periodikotan idaztea eta bakoitza bere txokora (4).

Ikasgai bikaiña lau gizon oiena, urteen buruan ere: eguneroko ta inguruko gauzatxoan gaiñetik gora, dana argituko duen adimen-argi billa.

Alare, adimen-jomugak bikaiñak ziran arren, billera-giro bera ez zan makala: bakoitzak bere iritziak emateko tolesgabetasuna, besteenak goratzeko edo astintzeko askatasuna, azkenik, buru-lan otza berotzen duen adixkidetasuna. Urrillaren 14'an egindako billeraren bildumak ederki azaltzen digu giro jator ura:

Illaren 11'ko lanari buruz, bakoitzak geuron idatziak aurkeztu ditugu. Aravio ta Pildain nere lantxoak astintzen: nere idazkera modernistagia dala, "intuimos", "buceamos" etab erabiltzen ditudalako. Pildain ain gora igotzen da, begien aurretik galdu egin zaigu: ori salatzen zaio eta beste jokaera bat artzera beartzen degu. Lecuona neurritsuagoa da eta ez gera berarekin aserretzen. Aravio biolojiako gai biurrietan sartzen da eta nik eraso diot, berez ondo esanak, baiño, jakintza zuzen adierazteko, ain egokiak ez diran esaerak dituelako. Aravio adiskideak *Cassi*-ri eskeintzen dion gai bat jorratzen degu danon artean: arreta biziakin eskeñi duen, azken-zergatien arazoa, alegia. Berotu giñan eta eztabaida askoren ondoren, Araviok atera uste zuen argirik ez zuen atera, gauza asieran baiño illunagoa gelditzeraiño. Beste gabe bukatu genduen (5).

Urrengo urtean, 1925'an, argitaratuko zuen liburu bat prestatzen ari zan nere osaba egun aietan: *Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales* zan liburuaren izena. Orregatik ez zan arritzekoa, nere osabak *Cassi*-billeratara zekarkien gaia Sozial Sikolojia izatea.

Garai artan beste lan bati ere eldu zioten, *Cassiciacum*-ek artutako erabaki baten fruitu bezela: Gazteizen jaio eta Elizbarrutira zabalduko zan parroki-orri batean idazten asi ziran. Gotzai jaunak auxe eskatu zien: parroki-orri ura Elizbarrutiko parroki guzientzat gai egitea, beren bizkar artu zezatela.

Ori zala ta, oso polita izan zan, illaren 21'an *Cassiciacum* bazkunaren billera: lau jakintsu bildu ziran —eta ez oso lasai— Guipuzcoa ta Vizcaya-ko Prensa onaren Batzarretara idaztitxo bat bialtzeko: Kortsetako Diputadu eta Gotzai izango zan bat, Biolojilari bat, izkuntzalari eta Euskaltzaindiko Buru izango zan bat eta nazioartean izen aundiko prehistorilari bat.

Historia onek badu alako jatortasun-usai atsegin bat: or ikusten da garbi, gizon elduak berekin daramala beti, noizbait izan zan, aur ura: gauzarik aundienetan garaille izan arren, ume-maillako eragozpen batean ostopo egin dezakela.

Illak 21. Pildain eta Araviok zorrotz eraso diote nere lanari; gogoko ez dituzten esaera batzuk diralata: esaera oetako bat kendu bearrean arkitzen naiz. Pildainek pasarte ukigarri batzuk irakurtzen ditu eta ez du ezertxo ere zuzendu bearrik. Lecuonak, lasai, bere billaketa-lanak irakurtzen ditu. Aravio ari da ikasten: ondo, oso ondo idazten du: baiño pixka bat begitan artuta daukagu. Gazteizen sortu bear dan parroki-aldizkari bati nola lagundu, mintzatzen gera. Oso ondo deritzaigu asmo ori: erriaren biotzean erakutsi jatorrak sartzea bait da bearrena. Vizcayan eta Guipuzcoan dirua biltzen diarduten bi batzarrei eskutitz bat idazteari ekin diogu. Batzuk ondo ikusten dute, itz auekin astea: "Atsegin zait zuri aditzera ematea". Beste batzuk "Atsegin zait zuri jakin eraztea..." jarri bear dala. Batek, "Gozzai jaunaren aginduz, atsegin zait zuregana jotzea" egokiagoa dala. Ortan galdu degu ordu laurden bat.

Karta labur bat idazten denbora geiegi zijoan ezkeror, lan ori beste batzar baterako uztea proposatu zuen Araviok, esaera egokirik ez zaigula bururatzten eta. Onek miñ eman die *Cassi* bazkideei eta karta idatzi arte gelatik ez irtetzea, erabakitzen da. Azkenik —jarri ta kendu— ordu bete pasa ondoren karta-gaia bukatu da.

Esan bear zan guzia auxe zan: Batzarrek beren lanetan erabili duten arreta oso pozik ikusi duela Gotzai jaunak eta aurtan ainbeste diru bildu dala ikusirik, aspaldiko asmo bat aurrera eramatea erabaki duela: au da, parroki-orri bat sortu, edo obeto esateko, Gazteizen argitaratzen dan parroki-orri ura, Elizbarruti guzira zabaltzea, prensa onari laguntzeko bildu dan diruaren erdia lan ortarako jarriaz (6).

Nere osabak, batzar artan artutako erabakien xeetasunak onela ematen ditu: Orriaren artikuluxkak Araviok idatziko ditu, euskera-sailla Lecuonaren esku, eta Apolojetika Pildain eta Araviorentzat, txandaka.

Billera auetan beste asmo bat ere jaio zan: geroxeago *Idearium* aldizkaria izango zana, argitaratzea: orren asiera bezela eta orren antzeko izango zan *Gymnasium*, baiño beste irakurle batzuentzat.

1925'gn Urtarrillaren 17'an eztabaidatu zan asmo ori eta "errien gaurko aldaketak elizgizonei argitzeko, aldizkari bat sortzea, erabaki zan: *Cooperator del Clero* deituaren ordekoa izango zan aldizkari ura.

Aranzadi, Barandiaran eta Egurennek osotzen zuten beste talde ura, *Cassiciacum*-dik oso bestelakoa zan, bi alderdietan. Lenengo bereizgarria, Euskalerriko prehistoria bereziki landu duen irukotea dala, betebetean jakintza-sailekoa, beraz, eta bigarrena, bere zabaltasuna bertako eta kanpoko jakintza-taldeetara irixten zala. Jo dezagun Liceum *Cassiciacum* ura, etxe barruko lanetan zebillela eta prehistori-irukotea, berriz, jakintza-eginkizun aundietan sartuta zegoela.

Lengo atal batean esan degu, iru jakintzalari aukeratuak elkar ezagutzea nola izan zan. Irukote orrek izen bat baiño geiago bazituen, oso ezagunentzat: "Iru leize-gizon arrote" batzuentzat: "Iru mosketeroak" beste batzuentzat, Busca Isusik dionez (7). Nere osabaren bi lagun ospetsu oien giza ta jakintza-nortasuna azaldu bear det orain.

Nere osabak D. Enrike Eguren eta Bengoa ezagutu zuen leenengo: esango degu nola. Atera ere bera atera zan taldetik leenengo: osasun ezagatik, 1923 urtearen inguruan: baiño ez zituen erabat utzi leengo lankideak, eta askotan joango zitzaaien billaketa-leku bertara.

D. Enrike Eguren Gazteiztarra zan eta, gorputz egokiaz gaiñera, giza-maillan eta jakintza-maillan, alderdi bikaiñak bazituen. Ara nere osabak itz gutxitan esan nor zan bere laguna: "Goiengo Antropologilari eta paleontologilari ta adiskide jatorra eta gutxi bezelako gizon ona" (8).


Eguren, Gazteizko Institutoan irakasle zan gizaldiaren asieran, gero Oviedoko Unibersidadera joan zan, Biologia eta Geologia erakustera. Unibersidade artan Jakintzako Dekano, Erretore-ordeko eta Erretore izan da gero, 30 urteko irakaskuntza utzi ondoren, 1944'gn urteko udaran il zan.

Berak idatzitako libururik garrantzitsuenak, *Estudios antropológicos del Pueblo Vasco* eta Arabako prehistoriaren monografia bat dira. Bere ikaskuntzak Arabako probinzian egin zituen, geienbat eta probinzia ontako espeleoloji eta tregu-arrietaz lantxo batzuk argitaratu zituen. Botanika-saillean ere saiatu zan. Alor ontan interesgarria izan zan *Yakintza* aldizkarian argitaratu zuen artikulo bat —besteen artean—: etxe-garbitetarako beti bearrezko eta aspaldiakoa dan tresna, erratza, zuen gaia.

Biotzeko min batek beartu zuen Eguren jauna, prehistorilarien taldea uztera: atsedean geiago artze arren. Eguren taldetik ain azkar atera zalata, —geienez sei urte alkarrekin— nere osabak gogoan zeukan gaitzaren leen-zantzua: elkarrekin Santimamiñen ari zirala, leize-zulorako bidean gora zijoazela, ain xuxen.

Nere osabak —Egurennek Barandi esan oi zion, abizena moztuaz— aipatze bakoitzean asko goratzen zuen Gazteiztar jakintsu aundi au: bere jaioterriarik ixilik euki badu ere. Ala ere zerbait erantsi bearrean nago: Gazteizko Udalak 1976'gn urteko Ekainan —bazan garaia— iru kaleei, eusko-historia zaarra argitu diguten iru gizon oien izenak —Aranzadi, Barandiaran eta Eguren— ematea erabaki du.

Aranzadiren nortasuna, ezagunagoa eta bizitzako xeetasunez ugariagoa zaigu. Telesforo Aranzadi eta Unamuno Vergaran jaio zan 1860 urtean. Migel Unamunoren lengusua eta lau urtez zaarragoa. Ikasle zirala elkarrekin ibili zirana eta ostatu berean bizi ere, Madrid-eko San Inazio kalean, oposizio-




Enrike Eguren
jauna Ataun-Burundako mendietan.
1919'gn urtea.

garaian. Unamunok aunditzat zeukan Aranzadi. Ez ainbeste Aranzadik Unamuno. Gero ikusiko degu zergatik. Bere Antropoloji-jakitea, oiñarri sendo biren gaiñean eraiki zuen: unibersidadeko bi karrera, Farmazia eta Izadi-jakintzakoak. Granadako Unibersidadean Mineralojia ta Zoolojia erakutsi zituen, eta Barcelonakoan Botanika ta Antropolojia.

Bere idaz-lana oso garrantzitsua da. Ona interesgarrienak: *El pueblo Euskaldun* (Antropolojia), *Lecciones de Antropología*, *El carro chillón y otras cosas de España*, *Interpretación de la nupcialidad, fecundidad y natalidad en España*, (Hoyos eta Sainz-ekin batera) Higiene ta Demografiaren nazioarteko IX'gn Batzarrak saritua. *Etnología* (gai ortan Españan leenengo argitaratua), *El yugo vasco comparado con los demás*, *Síntesis métrica de cráneos vascos*, *Exploraciones de la caverna de Santimamiñe* (Barandiaran eta Egurenekin batera egiña, Bilbon 1925-35).

Gaiñera Aranzadi marrazkilari ona zan eta marrazkilari bezela sartu zan Alcala-kaleko Izadi-jakintzaen museoan, Antropoloji-sail bat sortzean: D. Manuel Anton eta Ferrandiz zuen zuzendari: Aranzadik eta etnografilari Luis Hoyos-ek lanik asko egingo zuten berakin batera.

Aranzadi ordea ez izan laboratoriko gizona, 1922 urtetik asita, —udaran bere errian arkitzen zalazkoa— obi, leize ta tregu-arriak miatzeari ekin zion, bere bi ametsak bat egiñaz: antropoloji-zaletasuna ta eusko-lurraren maitasuna.



*D. Telesforo
ta nere osaba
bi langilleekin,
azterketa-lanari
ekiteko prest.*

Telesforo Aranzadi nor zan adierazi dezaken zerbait esatekotan, berezko jakintzalaria zala esan bear: liburuetan ikasi ta lurrean ikusten duen adimen-gizona, alegia. Nere osabak au baiezten du, Aranzadiren alderdi oni buruz:

Ez da arritzekoa Aranzadi liburu-jakinduriaren etsai izatea. Naiago zuen izadian irakurri, liburuetan baiño. Egun batez Lekeitiora joan zitzaizkion bere leengo ikasle batzuek eta, ia Barcelonako klaseetan lengo praktika-irakasbideari jarraitzen zion, galdetu zioten. Eta Aranzadiren erantzuna: "Len bezela jarraitzen det, baiño ez izutu; oraindik saltzen dira liburategietan jakintza-bilduma izeneko, texto-liburuak deitzen dieten oiek; alper eta zozoak estuasunetik ateratzeko onak dira" (9).

Gauza bera dio D. Pio Barojak, Antropoloji-gaian, Doktoradu-kursoan Aranzadiren ikasle izanak:

D. Telesforo Aranzadiri ez zitzaion gogoko, norbaitek ideietatik edo ezaupenetatik ondorio azkarregiak ateratzea (10).


Ain xuxen, orretxegatik ez zitzaion oso begiko bere lengusu Unamuno. D. Pio Baroja berak aitortzen du au:

Bere lengusu Unamuno ez zuen aintzakotzat artzen. Biak oso beste-lakoak ziran. Bat esaera-zalea, bestea aien etsaia. Unamunok errex eta zirt-zart baiesten zuen: bestea zalantza-ereille bat zan (11).

Len esan degu nere osaba Jose Migeli zeñien mesedegarri izan zitzaion, jakintza-jatortasuna kutsatze ura: biok bat etorri bait ziran ogei urtetan zear, langintza eta jokaera beretan, jakin-miñez zetozkien guziei jakintza ta jakin-bide egokienak emanaz.

Ortxe dauzkagu lekuko beren ikasleak. Bat aukeratzeko, D. Julio Caro Baroja, billaketa-lanetan jarri duen leiagatik oso itzalgarria, bere osaba D. Piorren gomendioz nere osabak bere billaketa-lankide bezela onartua: ona Juliorren itza:

Carranzara (Vizcaya) lenengo aldiz, zerbait ikasi-asmotan, iritxi nintzanean, nere gidari Aranzadi ta Barandiaranek gaztetxoak ikusi ninduten. Baiño oso ondo artu ere bai. Gure egon-lekua, ostatu txukun bat zan, leize ta azter-lekuetara ez bide geiegi. D. Telesforo laguntza gabe jeixten zan eta sarreran exeriko zan. Barandiaran, langilleen lanari begira, eta baetan



*"Itzea"-n D. Julio Caro Baroja ta D. Juan Garmendia larrañugakin izketan.
1975'gn urteko urtarrilla.*

azaltzen zana arretaz jasotzen: ezur, ezur-printza, lanabes, buztin ori edo ikatz, dana ondo sailkatuta gelditzen zan. Eta D. Telesforo bere ametsetan zegoen bitartean, D. Jose Migel nerekin ta bere illoba apaizgaiekin (nere anai Felipe) izketan: Eusko Folklore, Arkeologia edo Etnografia ziran gaiak. Unibersidadean, berriketa aspergarri aiek, Fernando de Herreroen analisis eta orren antzeko zozokeri aiek entzun bear izaten ziran bitartean, Barandiaranek ideia garbi ta zuzenak ematen zizkigun: historiko-kultural-bidea Malinowski-ren arkimen berri-berriai buruz, Durkeim-en pentsakera, edo Wundt-ena... Itz batean, Vizcayako paleolitiko-leize baten sarreran eta apaiz katoliko euskaldun batek esanda, unibersidade-gai geiago ikasi nuela Madrid-eko klaseetan baiño (12).

D. Pio Baroja berak ere aitortu zuen Aranzadi ta Barandiaranen jakintza-lanaren balioa. Bi jakintsuen lanari jarri zion arreta, eta bere illobaren jakintza-etiketa aien esku jartzea lekuko. Ortaz gainera, Erlijioen Historia ezagutzeko jakin-miñak, bi maixu oien kidako egiten zuen. Nere osabakin artueman batzuk izan zituen eskutitzez; ona oietako bat.

Marat 2 de Enero de 1931

Sr. Don Jose Miguel de Barandiaran

Muy Sr. mio: He recibido su amable carta con sus indicaciones y los dos trabajos Mani o el genio de las tormentas y Mitología del pueblo vasco (T. II) muchas gracias por todo ello. También hace tiempo recibí su conferencia sobre la religión de los antiguos vascos.

Mani o el genio de las tormentas lo tenía de un homenaje a L. Echegaray que murió mi sobrino. El otro

trabajo lo he leído con atención (Por cierto en esa cuestión de Laminas o Laminas se habla todavía bastante en Vera y hoy por allí cerca Lamiarri hamiaco y el arroyo hamiacingo-errea)

Voy a leer uno de los libros de mitología en inglés y el estudio comparado de las religiones de Pirard de la Boulaye

También quisiera hacerle una petición para el verano.

Lo vivo el verano en Vera. No he oído nunca que en esa zona del Bidasoa haya nada pre-histórico pero si Vdes tuvieran algún dato, alguna posibilidad de existencia de algo de ese carácter en la parte del Bidasoa entre Vera y el Bortan yo iría con mucho gusto, no a hacer exploraciones, por que para eso no tengo conocimientos ni dinero pero para tomar referencias y datos

Requiescunt in pace

Pio Baroja

Mendizabal 34

Madrid 1931'gn Urtarrillak 2

D. Jose Migel Barandiaran jaunari.

Jaun agurgarria: Artu ditut zure karta —oar eta guzti— ta bi lan-txoak: Mari edo ekaitz-inguma ta Euskalerrriaren mitologia (I. II) Eskerrik asko danakatik. Leengo Euskaldunen erlijioari buruzko zure itzaldia ere aspaldi jaso nuen. Mari edo ekaitzen inguma C. Etxegaray-ri egindako omenaldi batetik neukan: nere illobak bidali zidan. Beste lana arretaz irakurri det. (Ain zuzen, Lamia edo Lamiñak —gai ortan— oraindik bada zerbait Veran; inguru artan bada Lamiarri, Lamiako ta Lamioxingo-erreak).

Inglesez dagoen mitologiako liburu bat eskatu bear det eta Pinard de la Boulaye-ren Erlijio parekatuen Ikaskuntza ere bai.

Eske bat ere egin nai nizuke udarako. Udar, Veran bizitzen naiz. Ez det sekula entzun Bidasoaren lurralde oietan prehistoria-aztarrenik bai danik, baiño zuek zerbait baldin badakizue, Vera ta Baztan artean olako zerbait izan diteken susmorik balego, ni pozik joango nitzeke, ez noski azterketak egitera, —ortarako ez bait det ez ezaupenik ez dirurik— baiño bai berriak jasotzera.

Eskerrak berriz ere. Zure serbitzari

Pio Baroja

Mendizabal 34.

Pio Barojak gertakizun asko biltzen ditu bere Oroitzetan, Aranzadi dala ta: iritzi au ematen du Aranzadi ta Barandiaranen arteko artuemanetzaz:

Barandiaran eta Egurenekin prehistoria-txoko ta tregu-arri asko miatu zituen, Itxuraz, Aranzadi ta Barandiaranek alkar ondo artzen zuten eta aien artean ez zan izan etsakeriarik eta azpi jokorik (13).


Jakintza jatortasunak adimen-lana benetan artzea esan nai du. Aranzadi ta Barandiaran ez zebiltzan bada txantxetan. Lantokietan bakoitzak bere zereginia zeukan eta zeregin bakoitzak arretarik aundiena eskatzen zuen. Aran-

zadiren lan-gaia, giza ta abere-gorputz-pusketak izan oi ziran. Gaiñerakoa nere osabaren egitekoa izaten zan. Aranzadik ezur bakoitza marraztu ta neurtu egiten zuen, zamatu baiño leenago, ta xeetasun interesgarrienak bere kuadernoan idatzi. Ez zitzaion zeastasunik bat ere galtzen baean edo azter-lekuan.

Jakiña, alako lan-giro zuzen batean ez zeukaten zereginik sasi-jakintsuek, axaleko begi-luzeak, oiñarri gabeko arroak eta gezurrezko berri-emailleak. Orren ondoan jarri dezagun Aranzadiren izakera erre: erantzun minkatzak eta ustekabeko ateraldiak entzutea, ez zan arritzekoa giro artan, gizon bat buru-biotz lanari loturik zegoela.

Ari ortan gertakizun-xorta ez da makala. Nere osabari entzun nion: Santimamiñe-leizean ari ziran: egun batez Laidako udara-zale batzuk etorri zitzaizkien. Berak zekarten txakurrak laixter bota zituen lurrera ta zabaldu, egun guztian gure aztertzaileek bildutako gaiak: bitartean jabeak geldu. Laguntzen zebiltzan langilleei Aranzadik ala esan zien: norbaitzuk ondartzan egotea ohea zuten, iñori lana galeraztea baiño. Orduan batek, ori entzunik, aurrean tente asko, ala dio:

—Jakín bear dezu, zu bezin zaldunak gerala.



Santimamiñeko leizearen sarreran,
1920'gn urteko Irailan.
Lenengo Dr. Eguren, erdian,
saski itzuli batean exerita,
Dr. Aranzadi:
eskubitik zerbait ageri dala
nere osaba Jose Migel.

Aranzadik patxadan :

—Ni ez naiz zalduna : zu ala zerarik ez det ukatuko, zalduna zalditik bait dator.

Olako zerbait gertatu zan Ermitiako leizean, Devatik udara-zale batzuk etorri zitzaizkienean. Leizetik ateratako ezur eta besteak ikustean, maixukeri batean asi ziran, bat esan eta bestea galdetu bi azterlariei, pulamentu gabeko galdeerak egiñaz, nunbaiteko Unibersidadean ikasi omen zutelata.

Aranzadik, berriketa arekin denbora galtzen eta asperturik, galdeera bat egin zien :

—¿Eta, zuek ibili zeraten ikastetxe oietan, edukaziorik ikasten al da?

Itxuraz, udara-zale jakintsuek ulertu zuten itz aien esanaia ta itzik gabe, berriz ere ondartzara.

Pio Baroja berak ere badu olako gertatu bat, bere illoba Julio Carok bere *Los Baroja* liburuan aipatzen duena. D. Piok dio :

Jenio xorrotzeko gizona zan (Aranzadi). Prehistoria-billaketan zebiltzan, dirudienez, Aranzadi, Barandiaran eta Gazteizko apaiz bat, etnografi-zalea ta gai ori ikasi nai zuena : eguraldi bikaina zuten. Aranzadiren kopeta beltza gozatu nairik edo, ala esan zion apaizak :

—D. Telesforo, ¡bai goiz ederra!

Eta Aranzadik :

—Eta zuri ¿zer ajola zaizu? (14).

Esan degu, Aranzadik Antropolojia ta Etnolojia-gaiak lantzen zituela zuzenean, Prehistoria-ikaskuntzak, Etnolojia ta Antropolojiaren serbitzari jotzen zituen. Nere osabak bezela arek ere, prehistoria-billaketak, eusko-bizitzaren zeastasunak biltzeko erabili oi zituen.

Eusko-endari buruz —au ikasi zale izan zan beti— ondoriotzat auxer atera zuen : beste endekin zantzu berdiñak badituela, baiño, bere ustetan, bereiztasuna zera dala, zantzu oiek naasteko era.

1936'gn urtean, Urtiagako leizean, Itziarren, eusko-endaren kaska-ezur zaarrena arkitzeak —bi prehistorilarien arte— argitasun aundia eman zion Aranzadiri gai ontan. Ala dio nere osabak :

Urtiaga arkitu genituen Mesolitiko garaiko giza-ezur aiek, gaurko eusko-endak bere-bereak dituen zantzu naastuak bazituzten, Cro-Magnon-endaren beste batzuekin batera. Ortik asi zan Aranzadi, eusko eredua, Cro-magnon-en emengo aldaketa baten fruitua izan zitekela, pentsatzen (15).

Bere jakintza-lanetan beste alderdi bat Botanika zan. Arreta bizia jarzen zuen landareen izen errikoiak ezagutzeko. Prehistoria-lanetan zebillela, an-emenka erabiltzen ziran izenak bildu oi zituen.

Ta aren musika-zaletasuna ta Wagner-ganako leia! Julio Caro Barojak onela adierazten digu, aren nortasunaren alderdi aberats au :

Ontaz kanpo (antropolojilari) musika-zalea zan, obeto esan da, Wagner-zale porrokatua : ori ez dana, ezkutuko akatsen baten jabe dala, uste duten oietakoa. Arro-arro esan oi zuen gaztetan gertatu zitzaiona : Wagner-ek Baireut-en eraturako jaialdi batera joatea pentsatu zuen, sakela poliki zimurtuaz. Bavierako errira irixtean, ostatuan lekua bazegoen, baiño teatroan sarrerarik ez. Jaialdia asi baiño egun batzuk leenago, Wagner berari idatzi zion, bere zoritxarra adieraziaz. Wagner-ek abono osoa ta karta xamur bat bidali zizkion (16).

Nere osabak ere gogoan du "musika gogoko zitzaiola ta hoteletan edo ostatuetan piano bat topatzen bazuen, euskal-kantak jotzen zituela : bere lurra ta erria oroiteraziaz" (17).

Baiño, gizonaren alderdi bat aztertzen, ainbeste saiatzen zan Aranzadik, bizitzaren beste alderdiak eta bere erlijio-konziertziaren arauak ez zituen baztertzen. "Arazo au aurreneko maillan zeukan, eta ortara zuzentzen zituen bere gogarte ta izketaldiak", dio nere osabak. Nere osabak ez zuen sekula aaztu, Oberamergau-n —Jesusen Nekaldia ikustean— Aranzadik egin zion zirrarara ona : "an pasa genduen eguna meditazio sakon-eguna zan Aranzadirentzat" (18).

Aranzadiren nortasunak zuen jakintsu ta moral tankera au ta aren azaleko, oizbesteko, itxura ura ez zetozen bat, inñolaz ere. Bere ikasle Julio Caro Barojak onela azaltzen digu itz gutxitan :

D. Telesforo Aranzadi gizon berezia zan gauza guzietan. Nik ezagutu nuenean 70 urte zituen eta ipuietako fiaño bat zirudien. Ttiki, erren, musu-zorrotz, bizar zuri luze, ixeka-tankera (19).

Gorpuzkera orrekin eta mendi ta ibar zebillela, aren alamoduzko jantziak biltzen zituzten lokatz ta zarratakin, ez zan arritzekoa ez ezagutzea edo parregarri gertatzea.

Beren tankeragatik eta zerabilkiten lanagatik, Aranzadi ta nere osaba ez ezagunak gertatze ori, beti izan da parregai ta naiko aipatua.

Urbasako billaketa-lanetan laguntzen zieten Amezkoako artzaiek ezin sinistu zuten, gizon aiek ezur, arri ta eltze-puska bakarren billa zebiltzanik. Jentillek gordetako diru-billa ote zijoazen, susmoa zuten. Ez zuten lanik egin

nai, baldintza bat jarri gabe: arkitzen zana danentzat berdiñean zabaltzea, alegia: ain ziur zeuden.

Carranzan ere orren antzekoa gertatu zitzairen. Bi prehistorilariak nere anai Felipekin zebiltzan miaketaren batean. Laguntzen zieten langilleek, ortzaginiak jaso ta arretaz gordetzen zituztela ikusirik, nere anaiari galdetu zioten: ea puska aiek Bilboko dentistaren bati saltzeko al ziran.

Bedaronan gertatua, entzungarriena bear bada, askotan aldatu egin dute. Nere osaba berari entzun dezaigun:

Bedarona (Vizcaya) aldera goatzen egun batez: erri artatik zetorren emakume eskale batek —Aranzadiren agurrari leun-leun erantzun ondoren— oar au egin zion: "Bedaronan aberats gutxi". "An limosna gutxi bilduko dezute" esatea bezela (20).

Gure jakintzalarien gertakizun parregarri aukeratzeko, 1929'gn urtean Vienan Aranzadiri gertatutako bat esango det. Freheits-Platz-eko aulki



D. Telesforo Aranzadi, euskal-kulturaren aztertzaile ospetsu D. Resurreccion M.^a de Azcue ta musikalaria bikain Aita Donostia.

batean exerita zeuden Aranzadi ta nere osaba Jose Migel. Aulki berean exeritzaizen ezezagun bat eta izketan asi zan, judeo-arrazako gizon ospetsuak oso bero aipatuaz ta Españatik bidalitako judio aien ondorengoek, argitaratzen zuten *El Tiempo* egunerokoa erakutsiaz. Orduan Aranzadiri begira au esan zion:

—Zuk judio-tankera dezu.

Aranzadiri barruan zerbait irakiten asi zitzaion eta seriooki erantzun zion:

—Ez! ez naiz judioa ta judio-tankerarik ere ez daukat: ni euskotarra naiz eta nere aurpegiak eusko-endaren ezaugarriak ditu.

Europako bere ibillerak esaten jarraitu zuen ezezagunak. Españan ere ibilia zan eta Andaluziari buruz, ango etxe ta erriek beartsu-itxura zutela, zion eta hoteletako serbitzariak edukazio gutxi zutela.

Aranzadi ez zan esanak guzitaratu (jeneralizatu) zalea ta au erantzun zion:

—Edukazioa ta zikiña neurtzen ez da erreza, bear bada: zuretzat andaluzak zikiñak dira: andaluzak berriz, zikiñak judeoak dirala, pentsatuko dute, zerriak, deitzen bait diete.

Jakiña, ezezagun ura judio bat izango zala, asieratik pentsatu zuen Aranzadik. Ala izan ere: andik egun batzuetara, nere osaba sartu zan, ala bearrez, sinagoga batean eta an zegoen gure gizona, bizkar-oiala jantzita, salmoak kantatzen.

Olakoxea zan Aranzadi. Nik ez nuen ezagutu personalki, aren abizena txikitandik oso ezaguna nuen arren: Egurenena ere bai: eta ori nere anai Felipegatik, geienbat: onek bein baiño geiagotan lagundu bait zien iruroi beren billaketa-lanetan: orregatik ekarri ditut bere adixkide ta nere osabaren iritziak, bere ikasle on Julio Caro Barojarenakin batera.

Aranzadik eta Barandiaranek elkarrekin egindako azken ekinaldia, Urtegiakoa izan zan (Devan) 1936'gn urtean. Leize ortan egun batzuetan lagundu zien D. Enrike Egurenak. Ogei urtez leenago prehistoria-lanak asi zituzten irurok, berriz ere elkarrekin zorionean, azkeneko ekinaldi ori egi-teko. Gerra zibillak sakabanatu zituen.

Iru jakintzalarien oroitzak berritzeko idatzi ditugun lerro auen bukaera ta laburpen antzera, Inazio Maria Barriolaren itz bero ta egokiak dakarzkite: Aranzadi, Barandiaran eta Egureni, 1936 urtean, *La Academia Errante*-k eskeñi zien omenaldian esandako itzak:

Diru-laguntzaz urri, gastu bearrenetarako irixten ez dala, egunero oiñez bide luzeak eta txarrak ibiliz, tresnak bizkarrean, eskale-jantziak diruditen lan-jantziak soiñean, Aranzadi, Barandiaran eta Eguren irukotea,

lurazpian aztarrika ibili zan 1917 urtetik 1936 arte; udaratan utsik egin gabe, oporaldiak utzita. Aralaren asi ta Urtiagan, Itziaren bukatu: orduan ez zuten pentsatzen azkenekoa zanik. Orduantxe arto egon zitezken ba; ain bearrezko zuten eusko-kaska-ezurra —ezagutueta zaarrena— Mesolitiko garaikoa, arkitu zuten leize artan.

Gerrak sakabanatu zituen. Eguren 1944 urtean il zan; urrengo urtean, Barcelonan, Aranzadi ospetsua. Barandiaranek jarraitzen du oraindik eta jarraituko du lan ortan, Jauna lagun, gure Prehistoria ta Etnografia burutzeraifio (21).

OARRAK

- (1) Tomas de Atauri-ren, op. cit., *Antaño y hogaño...*, 72'gn orri.
- (2) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1924.
- (3) *Egunerokoa*, id.
- (4) *Egunerokoa*, id.
- (5) *Egunerokoa*, id.
- (6) *Egunerokoa*, id.
- (7) Jose Maria Busca Isusi-ren, *Las ciencias naturales y nosotros*. "La Academia Errante"-ren. *Homenaje...*, op. cit., 185'gn orri.
- (8) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit., *De mis recuerdos...*, 87'gn orri.
- (9) *Ibid.*, 86'gn orri.
- (10) Pio Baroja-ren, op. cit., *Desde la última...*, II'gn Lib. 91'gn orri.
- (11) *Ibid.*, 92'gn orri.
- (12) Julio Caro Baroja-ren, *Los Baroja*. (Taurus Argital. Madrid, 1972) 236'gn orri.
- (13) Pio Baroja-ren, op. cit., *Desde la última...*, II'gn Lib. 93'gn orri.
- (14) *Ibid.*, 92'gn orri.
- (15) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit., *De mis recuerdos...*, 90'gn orri.
- (16) Julio Caro Baroja-ren, op. cit., *Los Baroja*, 235'gn orri.
- (17) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit., *De mis recuerdos...*, 92'gn orri.
- (18) *Ibid.*
- (19) Julio Caro Baroja-ren, op. cit., *Los Baroja*, 235'gn orri.
- (20) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit., *De mis recuerdos...*, 90'gn orri.
- (21) Ignacio Maria Barriola-ren, op. cit., *Aranzadi...* "La Academia Errante"-ren. *Homenaje...*-n, 217'gn orri.

XI

Lan-taldeen eratzaille ta bizi-emaille Seminarioan

Ikasle jantzienak gaurko intelektual-giroa ezagutu dezaten, bearrezkoa da: gaurko pentsakerak, Sinismenaren aldekoak ala etsaiak: burukatu bear ditugun etsaiak eta nola burukatu.

J. M. B.

1926 urteko Iraillak 4, D. Jose Migel Barandiaran Agirreko Seminarioaren Erretore izendatu zuten, Seminario konziliareko Erretore-ordeko jarraituaz. Aurreko Ekainean zapuztu zuen erretoretza, orain, Gotzaiak beartuta, artu zuen: arrokeria puztu ez baiño denbora galdu erazi bai, egin zion.

Gazteen etxe bateko buru izateak, benetako aita bat izatea eskatzen du. Ama baten maitasunak umearen bizia zaintzeko erabiltzen dituen uskeri guzietaz baliatzen zan nere osaba, Seminarioan famili-giro bat sortzeko.

Auxe zion berak 1926'gn urteko Iraillak 29:

Agirre-Seminarioan auek izaten dira nere eginkizunak: zaitu, ikasleei disziplinatuz itzegin, berekin jolas egin, gaixoak zaindu, (orain bi urte 60'tik gora xirrixta prestatu ta eman nituen) ta botoiak josi, ikasle ttikien blusak konpondu, oiak arrotu, lan ttiki guziak erakusteko. Eginkizun ttiki auek jolastu egiten naute; gauzak diran bezela ikusten, bizitza zer dan, erakusten didate (1).

Ain zuzen, gaixo-zaintza ortan ezagutu dute apaizgaien belaunaldi batzuk, kuaderno txiki artan sukarraren goraberak, sendagillearen esanak, kon-

sulta-garaian esan bear diran gaitz-ezaugarriak, zuzen idatziaz; eta zenbat aldiz, sendagilleak agindutako pomada ta igurtziak emanaz.

Nork esan, nazioartean ezagutzen zuten prehistorilaria, Academico de la Española ta Euskalzaindiko bazkide ta beste gauza asko zan ura bera zala, lantegi apal aietan zebillena: 1927 ta 1928 urteetan eman bait zizkioten titulo oiek.

Seminarioko bizitzarekin ain estu lotzen zuen Erretoretzak eraginda edo, nere osabak, Etnologia ta Prehistoria saillak baztertu gabe, eziketa-lan sakon bati ekiten dio, Seminario barruan. Ia amar urte artu zizkion eginkizun orrek, 1936'gn urtean gerrak dana moztu zuen arte.

Nere osabaren irakasle-lan ura nolabait adierazteko, irudi au jarriko nuke: iturri oparo batek, urak alperrik bilduta euki ez baiño, millaka erretenetan barrena, inguruko baratz danak aberasten ditu.

Auxe da nik esan nai nukena: nere osabaren kezka ez dala izan, bereztat bakarrik pentsatzea, besteei pentsa erazi, adimen-lanerako gizonak ezitzea, baizik. Barandiaran irakaslearen erakusketak ez ziran klase-orduarekin batera amaitzen, gero ere jarraitzen zuten, bizitza-maillan erakutsiaz, ideiak eta kanpoko gertakizunak aztertuz. Itz batean, benetako maixua zan.

Nere osabaren eziketa-kezkak eraginda edo, 1927 urtearen asieran jaiotzen zan Gazteizko Seminarioan *Gymnasium* aldizkaria. Ikusi ditzagun asiera aiek.

Itxuraz, Eliz-buruzagi batzuk ez zuten ondo ikusten, apaizgaiei ematen zitzaaien mixio-eziketa. Goitik zetozen iritzi oiek onarturik bezela, Gazteizko apaizgaiek Erretoretari adierazi zioten, ordu arte *El Eco Misional* mixio-aldizkaria, argitaratzen zuten bezela, beste berri bat —aundinaiagoa edo— sortzea ez ote zan bidezkoa izango.

Erretore jaunak *Cassiciacum*-en bazkideei aurkeztu zien asmo au. Asmoa eztabaidatu zan eta, jakiña, zein bide artu, iritziak ez zetozen bat. Jokabide-rekin aserrena nere osaba zegoen: ez zuen onartzen ikastetxe aldizkari bat geiago —orduan ikusten ziranen antzekoa— barruko gertaera batzuk aizatzeke: alako antzerki, olako Jaunartze, ibilaldi-eguna, gizon ospetsu aren etorrera.

Seminarioaren —ikastetxe zanez— bizitza, zan bezela azalduko zuen aldizkari bat nai zuen nere osabak. Eta au bi eratara: lenengoa: apaizgaiek ikasgelatan jasotako ezagupenak bildu eta sakontzeko egokiera izanaz, esaera ulerterrezagoetan idatzirik.

Bigarrena: Seminarioko ta kanpoko pentsakeren artean zubi bat eraikiaz: Sinismenaren alde ala aurka dabiltzan pentsakerak, alegia: apaiz izatean topatuko dituen etsaiak alde aurretik arkitu ditzan, eta erantzuteko bear duen prestaera artu dezan.

Aurre-itzean —*Irakurleari*— *Gymnasium* aldizkariaren leenengo alean, garbi izendatzen ditu nere osabak, aren elburuak. Ona emen pasarte batzuk:

Beti uste izan degu bear-bearrezkoa dala, gure ikasleek gauzak erri-maillan jartzen, pentsamentuak danentzat ulertterazak egiten, ikasgelatan ikasitako jakintza, izkera errezean azaltzen, ikastea. Zergatik? "Zertarako gauza onak ikasi, gero adierazten ez badakigu? Irakaskuntza ez da ikasgela barruan azkarkerietan ibiltzeko, munduaren onerako baizik" (Balmes).

Ortaz gaiñera, ikasle aurreratuenek gaurko pentsakera ezagutu bear dute: nundik nora dabiltzan gaurko pentsamentuak, Sinismenaren eta Kristau-bizitzaren aldekoak eta aurkakoak: gaur burukatu bear ditugun gure etsaiak eta burruka ortan bear ditugun tresnak (2).

Nere osabaren irizia nagusi atera zan, aldizkariak artu bear zuen bide-ari buruz eta bere esku jarri zituzten jakintza-sailla ta aldizkariaren zuzendaritza. Sail ortaz kanpo beste batzuk ere baziran: mixio, literatura, katekesia eta naitanaiezko etxebarruko bizitzaren historia. Sail guzi oiei, beste bat erantsi bear zitzaien: bere izena, Eskola ondorea: sail ortan irakasle berak idazten zuten.

Benetan atsegingarri gertatzen da —ainbeste urte pasa ta gero— bi illa-betez bein, bost urtetan zear, Gazteizko Seminariotik atera zan aldizkariaren arkibideak ikustea. Orduko arazoei eranzun bat ematen zieten artikulo asko ikusiko ditugu: eusko-elizbarrutietako ikas-gelatan edo parroketan, beren apaiz-lana egiten duten gizon eldu askoren izenak ere bai.

Gaur Españako literaturan otsaundia duen abizen bat ere ikusi diteke arkibide oietan. Angel Maria Lera esan nai det: askotan saritutako nobelagillea ta gaurkotasunik galtzen ez duena: Gazteizko Seminarioaren ikas-gelatan ibili zaneke ezer gutxi daukat gogoan. 1928'gn urteko ale batean bada, Fray Luis de Leonen oroitzari egindako olerki bat: literato-gai asi berriaren lana (3).

Oraindik denbora gutxi dala, aldizkariaren barruko erakundeetaz galde-tzen nion nere osabari. Ikasle idazlarien aukera nola egiten zan, jakin nai nuen batezere.

—Lenengo bereizketa irakasleek egiten zuten, —dio nere osabak—. Aiek aukeratzen zituzten ikasle aurreratuenak.

Itz oietatik antz ematen nion, oraindik beste bereizketa bat ere izango zala: baita izan ere:

—Gero gaitasun-azterketa edo test bat egiten zitzaien. Or ikusten zan zein lanetarako joera zuen bakoitzak. Geienetan ogeikoren bat gelditzen zan aukeratu: oiek ziran sailka lan egingo zutenak.

Oraindik geixego jakin nai nuen ba: *Gymnasium*-Laboratorioko sail aietan ikasleak gidatzeko zein bide (metodo) erabiltzen zuen, alegia. Ona osabaren zeaztasunak:

—Lankide-taldea astero biltzen zan nerekin (igande arratsaldetan). Nik gai batzuetaz itz egiten nien billera aietan: filosofia, soziologia, etnologia, gizarte, sikologia etab. Orduko gai biziak aukeratzen nituen. Bakoitzak zegokion gaia artzen zuen eta nik konsultako liburuak eskeintzen nizkion. Ikasleak gaia landutakoan, laburpen bat egiten zan eta laburpen ori argitaratzen zan aldizkarian, artikulo bezela.

Noizean bein "separata" batzuk argitaratzen ziran, kuadernotxo batzuk bezela, sail bakoitzaren lanekin. Jakingarri bezela ta gazte aiek lana jator egiten zutela ikusi dedin, ona emen izenburu-xorta bat:

Gaurko arazoak liburuxkan (filosofia-sailleko ikasleek egiña) bestean artean, izenburu aukeratuak ditut: Filosofia ta Jakintzak, Giza-egueraren balioa; Mundua ta bere Teoloji-erakundea; Denboraren errelatibitatea... (4).

Giza-erlaketari buruz ikasketak laburrak liburuxkan (Sikoloji-sailleko ikasleek egiña) izenburu aukeratuak ditut: Talde-sena ta gizarte-bizitza; Erlaketa ta gure sentipen-egoerak; Nola ematen da kultura bat... (5).

Gaurko Etnologiaren ikasketari sarrera liburuxka (Etnoloji-sailleko ikasleek egiña) izenburu aipagarrienak: Gaurko Etnologiaren nora ta nola; Kultura-aldiak eta bere lekuak; Leenengo gizonaren pentsakera; Jainko-idea leenengo gizonarengan... (6).

Sozial-fenomenoak liburuxkan (Sozioloji-sailleko ikasleek egiña) izenburu nabarmenenak: Sozial-morfologia; Lan-banaketa; Jabetasunaren gizar-eginkizuna; Nazioa ta Estadia; Erljio-jakintza ta Artearen artue-manak... (7).

Garai artan erriek zeuzkaten arazoak ezagutzen —geroko apaizek ezagutu bear zituzten arazoak, erantzun jator bat emateko— asko lagundu zion nere osabari, orduko izparringi-lanetan sarturik egoteak.

Obeto esan da. Euskalerrian erlijioari buruz argitaratzen ziran artikulo-en bilduma bat egin zezala, eskatu zion Madrid-eko El Debate-k nere osabari. Era ortan *El Debate*-k fitxero bat egin nai zuen.

Ondo gogoratzen naiz oraindik, kandadoz itxitako kutxa baten billa joaten zala egunero nere anai zaarrena, *El Heraldo Alavés*-en etxera. *El Debate*-ko zuzendaritzak Urriburu ta probintziatako periodiku garrantzitsuenak bidaltzen zizkion kutxa artan.

Ain zuzen aukera-lan orrek ematen zion nere osabari berri ugari ta bizia: gero dana *Gymnasium*-go taldearen eskuetan jarriko zuen, taldeak az-

tertu zitzan giro artako ideia ta gertakizunak. Chesterton bezela nere osaba ere ziur zegoen, Juantxori latina erakusteko, latina ezetik, Juantxo ere ezagutu bearra zegoela.

Baño, ikasleentzat bereziki prestatutako *Gymnasium* aldizkariak, irakasleentzat ere zabalik zeuzkan bere ateak. Len esan degu, apaizentzat izendatutako Eskola-ondoren-sail bat bazegoela. Ain zuzen orri oietatik erantzun zioten Dr. Laforari *Lyceum Cassiciacum*-go bazkideek 1928'gn urtean, *Milagros curativos, laicos y religiosos* liburua erakusteko txikituaz.

Dr. Laforari emandako erantzuna, *Cassiciacum* osoak egin eta eztabaidatu zuen, baño idatzi, D. Leoncio Aravio-Torrek idatzi zuen, Alejandro de Arcaya ezizenarekin. Dr. Laforari emandako erantzun ura asko zabaldu zan eta oso onartua izan zan: Dr. Laforaren ideak asko barreatu bait ziran, liburua bidez eta berak personalki eman zituen itzaldi ugarien bidez. *El Debate*-k erantzuna berriz argitaratzeko baimena eskatu zuen; ain interesgarria zan gaia.

Dr. Laforari emandako erantzunari buruz, arkitu ditudan aldeko iritzien artean, *El Debate*-n azaldutako-etatik, pasarte bat edo beste aukeratu det. *Observaciones al Dr. Lafora* azalpena, Manuel Graña-k izenpetzen du ta 1928 urteko Apirillaren 14'an argitaratu zan.

Ez dakizu, irakurle, zoritxarrez ezagutzen ez degun D. Alejandro de Arcaya batek, "Observaciones" aietan, nolako irri-mirri-pilla —deabrukerizkoa esatera nijoan— bota duen. Oarpenak ez baño benetako masailleko lotsagarriak ematen dizkio Arcayak, arrigarrizko jakintzakin "mirarien menderatutako ospetsuari" ta sendagille ezaguna dan Dr. Laforari. Dialektikari izugarria, eziduria adarjotutako garrantz, asko dakien gizona degu liburuxka onen egilea. Arcaya jauna ez da asi, mirariak badirala egiztatzen —66 orrialdeko liburuxkan ezin diteke ori— Dr. Laforaren ez kristau, ezjakintza diran esanei erantzuten baizik, danak txikituaz.

Nere ustez, liburuxkaren balio aundiena ez da pasarte jakintsu pilla batekin Dr. Lafora estaltzea, jaun orren lojika ta jakintza-jokaerak zorrotz eta zuzen aztertzea baizik. Gezurra dirudi, Dr. Lafora bezelako jakintzalari trebe batek —ala pentsatu bear beintzat— ain lotura gabe, jakintza-zuzentasun gabe, idaztea, erantzule zorrotzak egiztatzen duen bezela (8).

Oraindik denbora asko ez dala, itz-burruka aren goraberak ziralata, osaba ta biok itzbidetu giñan eta akatsen bat arkitzen ziola, antzeman nion. Alatsa auxe zan: lan aren pasarte batzuk garrantzegiak zirala ta iritzi ori azaldu zuela, *Cassi*-ren aspaldiko batzar aietan.

Erljioa erasoka aldeztu naia, aspaldiko arrixkua da. Batzuetan armaen erasoakin eta bestetan itzen erasoakin. Garai bateko apolojetikak asko maite

zituen bide oiek. Egiaren jabe bakarrak ziralako ziurtasunak, ez zuen onartzen besteek beren egia aitortzerik.

Auxe zan, *Gymnasium* aldizkaria sortu ta zuzenduaz, nere osabak Seminarioan bere bizkar artu zuen eziketa-eginkizun bat. Gaur oraindik, ixildu zanetik berrogei urtera, aztergarri ta miragarri gertatzen da.

Jakintza-gaiekin batera, Gazteizko Seminarioaren histori-zati aundi bat gogorazten digula aldizkari onek, ez degu aaztu bear. Mixio-saillaren azterketa batek, mixio-ideak Seminarioan izan dituen aldaketak azalduko lizkioke irakurleari; andik atera ziran mixio-bokazioetatik asita, udarako ikasalditxoraiño: tartean, 1928 urtean —España-n lenengoa— Misionolojia-ikasgaia jar-tzea.

Vida colegial saillak, urte aietako historia dala bide, gertakizun asko argitu ditzazke; illun xamar azaldu bait dira iñoiz eta Seminarioakin ezik elizbarrutiakin eta nazioakin zerikusirik izan bait dute: Seminario berria iri-kitzea, Ezkiogako agerketak eta Aita Labururen oarrak, Errepublikaren eto-rerra, Elizbarrutiko Gotzaia atzerriratzea etab...

Zerbaitegatik esaten zidan nere irakasle maite ta Seminario liburu-zai D. Jose Zunzunegik —il berria da— ikasle zala *Gymnasium*-go idazlari izan-ak, bere apalean *Gymnasium*-xorta ezosoaren billa nebillela:

—Ez arritu zenbaki batzuk ageri ez badira: gaur goxoki bat da aldizka-ri ori.

Ikasleen eziketa osoa beti izan zan buruauste bat nere osabarentzat. Len ikusi degu, 1924'gn urtean, irratia asi berria zalata, iñork olakorik pentsatzen ez zuen bitartean, arek *Radio Club* taldea sortu zuela, bere ikasleen artean. Tresna ori zabalkunde-bide bezela erabiltzen, apaizgaiak trebetzea zan, el-burua.

Berdin esan diteke beste sail batean. Oporaldietan galdekizunak ematen zizkien Geolojiako ikasleei, beren jaioterriko lur eta errekek azter zitzaten, lu-razpiak zer arri-motakoak, zein garaikoak eta beste zeaztasun bereziak.

Ari berari jarraituaz, zenbat fitxa bete ote zituzten bere ikasleek, beren erriak aztertuz etnografia ta prehistoria-sailletan. Ez dago zalantzarik, nere osabaren ardurapean egindako ekinaldi aietan sortu zitzaiola askori lan ortarako leia. Askok, apaiz egin ondoren, beren parroketan lan ortan jarrai-tu zuten. Ez da gutxi ikasleek maixuari etnoliji ta prehistori-billaketan la-gundu diotena. Ikasle izandakoek eman zioten nere osabari, tradizio ta pre-histori-lekuen berri asko.

Baiño apaizgaien eziketak ezik, apaizen gaitasunak ere ematen zion kez-ka nere osabari.

Gymnasium aldizkaria ezkutatu zan. Bein eta berriz, Seminarioko arau-e-tatik kanpo bizi zirala, salatuak izan ziran bere egilleak: Laboratorioko bi-llerak paseo-ordutan egiten ziralako zan guztia. Salaketa au bakarra zanik, ez nago ziur, baiño aldizkaria ixteko, aitzaki ori aintzakotzat artu zala, bai.

Gymnasium-en azkeneko orrialdeak —1932 urtearen erdi aldera— Luis de Ayalaren kronika dakar: gaia, Armentiaiko San Prudenzioren omenez egindako jaiak. Arabako Zaindariaren jaiak, ikurriña erdizut. Ez "txaranga" ez etxapero, ez txistulari, zergatik? Elizbarrutiko Gotzaia erbestean dago. Dolu-miña bidezkoa da. Eta alaxe, dolu-miñagatik il zan *Gymnasium*.

Gymnasium aldizkariaren bideari jarraitu asmotan, Seminarioko Irakas-le-talde batek, erakutsi onak errian zabaltzeko, Argitaldari bat sortzea pen-tsatu zuen. Bere izena *Ediciones Gamblet*: talde-kideen abizenekin osotu-tako itza: Goicoecheundia, Aravio-Torre, Manchola (Aauri), Barandiaran, Lecuona, Enciso, Thalamas.

Bizitza laburra izan zuten *Ediciones Gamblet* diralakoak. Nik bi liburu-txo bakarrik ezagutzen ditut: *En torno a la existencia de Dios* (ateo baten li-buruxkari erantzuna) ta *Salario, Propiedad y Familia*: argitaratutako leenengo bi zenbakiak. Lenengoa geixego zabaldu zan, eta frantzes ateo batek, Sebas-tian Faure-k, argitaratu ta Angel Pestaña-k kastellanora aldatutako, Jainkorik ezaren arrazoï batzuei erantzuna, zan gaia (9).

Garrantzi geiago izango zuen *Idearium* aldizkariak, (Erljio-jakintzaren bi-llaketa ta laburpen aldizkaria): 1934 urteko udaberrian jaio zan eta ia 1936'-ko gerra asi arte bizi izan zan.

Lengo atal batean esan da, Cassiciacum Bazkunak *Cooperador del Clero*-ren ordezkari bat sortzea erabaki zuela. Gazteizko *Montepio Diocesa-no*-k babestu ta nere osabak zuzendutako *Idearium* zan, ordezkari aldizkaria.

¿Zein zan *Idearium*-en egitaraua? Lenengo zenbakiaren aurreitzean —¿Zertara gatoz?— nere osabak onoko laburpen au ematen du:

Eginkizun bikain batean laguntzera dator *Idearium*: Kristau-bizitza baietzta ta zabaldu, ta batezere Gazteizko elizbarrutian erlijio-pentsakera ta jokaeraren agerbide izan: idea-burruken goraberak sailkatu: lurralde txi-ki baiño espiritu-bizitza aberatseko ontan, era askotako idea-burrukena, ale-gia: giroakin alkarizketan jarri ta, al bait, zuzendu itzez eta egitez (10).

Biblia, historia ta soziolojia gai zituzten artikuloaz gaiñera, zenbaki ba-koitzak bazuen beti *Nuestras Encuestas* sail bat: nere osabak antolatutako galdekizun batzuei erantzunaz, elizbarrutiko erri edo baillara batzuetako egoe-

ratzaz, orri batzuk azaltzen ziran: Irun, Markina, Mina-baillara Ullibarri de Gamboa etab-takoak.

Errien sozio-erlijioso azterketak geienetan, giroa, oiturak, lanak, ikaste-txeak, zenbat parroki etab. azalduaz, asten ziran. Gaurko erlijio-egoera ta eragin txarren iturriak (prensa, ikastetxeak, jolasak, etab...) aztertu, kristau-bizitza zaindu ta indartzeko bideak aukeratzen ziran.

Nere osabaren zuzendaritzapean, *Idearium* España-ko sozio-erlijioso-bilaketaen nagusi zala esatea, ez det uste, geiegi esatea danik. Oraindik aste gutxi dirala, Floren Unzueta-k, *Idearium*-i buruz idatzitako artikulo bat irakurtzen nuen: ala zion:

Leenengo denboraldia *Idearium* aldizkariak aztertu zuen: au izan zan, D. Jose Migel Barandiaranek zuzenduta, elizbarruti baten sozio-erlijioso-egoera, España-n lenen, aztertu zuen aldizkaria (11).

Orduko laguntzailleen artean, auetzek bereizi bear dira: gero Mallorcako Gotzai izango zan, D. Jesus Enciso biblialari trebea, ta Joakin Azpiazu, elizbarrutiko sozial-arazoetan gidaria; AVASC (Kristau-Sozial-Ekintzaren Eusko Taldea) elkartearen bidez emandako itzaldi ta ikasaldien bitartez, bereziki.

Arrigarria benetan AVASC-ek egindako sozial-lana: Joakin Azpiazuk itz auekin adierazten zigun bere jomuga:

1931'gn urteko azken egunetan, kristautasun bero ta euskotasun jator batek eraginda, sortu zan AVASC. Eusko-sozial-bizitza gero ta geiago garbitu ta katolikotasun utseraño jasotzea zan, Sortzailleen leia (12).

Jomuga ori lortzeko, ezinesanala itzaldi eman zituen eta eusko-langileen Sozial Unibersidadea (USOV) sortu: anemenka zebillen Unibersidade orrek, illabete batean, eguneroko bost klasetan, langille-buruzagiak gaitzeko, oiñarrizko eziketa ematen zuen.

Apaiz eta sekular askok artu zuten parte Azpiazukin, egitarau auek betetzeko. Bidezkoa zan eusko-elizbarrutiko Gotzaiak, Elizaren sozial-irritziekin bat zetozen ekiñaldi aiei indarra ematea.

Bere *El paro obrero y su solución* pastoralean ala zion elizbarrutiko Artzaiak:

Kristau-sozial-sailean ideia auek zabaltzen dituzten erakundeek —AVASC-ek bezela— gure txalorik beroenak merezi dituzte (13).

Jose Migel Barandiaranen intelektual-nortasunaren apaingarri izan ziran

xeetasun asko aipatu ditezke, goi-maillako maixua zala adierazteko. Baiño nik uste, esandakoa naikoa dala. Berriz ere Inazio Zumaldek amaitu ditzala iritzi auek:

Urte askotan Seminarioko ikasgelatan, aren erakutsiak artzeko zoriona izan duten guziek maitekiro gogoratzen dute, asko zor diotela, ez gai batean edo bestean erakutsi zielako, pentsatzen erakutsi zielako, baizik. Bazekien Barandiaranek adimena ezitzen. Auxe da gure ikasgelatan gutxien ematen dan irakasketa aietako bat: orra aren merito aundia.

Arengandik bonzoak ez izaten ikasi genduanok, era batean ala bestean, beste ainbeste esan dezakegu. Eta au da arrigarriena: dana apalki egin duela, ezer ez balitz bezela. Bere arbasoek Aralaren ikatza egin edo ardiak zaindu oi zituzten bezela. Birtute oiek ez dira Barandiaranengan, iñori iruzur egiteko estalgarriak. Berezkoak ditu, bere frantziskotar animarenak (14).

OARRAK

- (1) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1926.
- (2) *Irakurleei* Gymnasium-en, 1'go zenb. (Gazteizko Seminarioa. 1927'gn Urtarri-lla-Otsailla), 2'gn orri.
- (3) *Ibid.*, 1928, 209'gn orri.
- (4) Filosofia ta Teologia-saileko ikasleen, *Cuestiones de nuestro tiempo*, Gymnasium-Laboratorioetako lanak (Gazteiz 1930).
- (5) Talde-Sikolojiako Sailean ikasleek egindako, *Breves estudios acerca de la vida colectiva humana*, Gymnasium-Laboratorioetako lanak (Gazteiz 1930).
- (6) Etnologia-Saileko ikasleen, *Introducción al estudio de la Etnología moderna*, Gymnasium-Laboratorioetako lanak (Gazteiz 1930).
- (7) Sozioloji-Saileko ikasleen, *Los fenómenos sociales*, Gymnasium-Laboratorioetako lanak (Gazteiz 1930).
- (8) Manuel Graña-ren, *Observaciones al Dr. Lafora*. Madrid-go. "El Debate"-n, 28-4-14.
- (9) *En torno a la existencia de Dios*, (ateo baten liburuxkari erantzunaz), 1'go zenb. (Gamblet Argital. Gazteiz).
- (10) *A qué venimos*, *Idearium*-en, 1'go zenb. (Gazteiz 1934'gn Martxo-Apirilla), 1'go orri.
- (11) Floren Unzueta-ren, *Condicionamientos socio-culturales de la Pastoral en el País Vasco*. Surge-, 315'gn zenb., 1973'gn Apirilla (Gazteizko Seminarioaren Argital), 173'gn orri.
- (12) Joakin Azpiazu-ren, *La labor de AVASC*. *Idearium* aldizkarian, 3'gn zenb. (Gazteiz, 1934'gn Uztaila-Abuztua), 213'gn orri.
- (13) Mateo Mugica-ren, *El paro obrero y su solución*. Gotzaitzegiko Aldizkari Nagusia-n, 12'gn zenb. (Gazteiz, 34 (6-1), 377'gn orri).
- (14) Ignacio Zumalde-ren, op. cit., *Jose Miguel de Barandiaran...*, "La Academia Errante"-ren, *Homenaje...*-n, 39'gn orri.

XII

Ikas-ibilaldi berria Suiza ta Austrian: España-n Elizaren egoera larria ta Politika

*Eliz-gizon batzuek erlijioaren bi-
tartez erri-elkartean agintzeko tenta-
zioa, zaarra da historian. Erlijioa
politika bezela artzetik dator kleri-
kal-mota au.*

J. M. B.

Beste bein, udarako oporraldiak diralata, nere osaba ikas-ibilaldi berri bat atera dijoa, Aranzadikin batera. Oraingoan bere ikas-lanak museotan, bereziki, Suiza ta Austriakoetan, izango dira.

1929 urteko maiatzak 29, Gazteiztik aterata Barcelonara jotzen du. An Museo Geologico ikusten du. Eta Exposición Internacional ikusita —nola ez— gero Museo Arqueologico-an gelditzen da batezere: berak Euskalerrian arkitutako tresna batzuen antzekoak ikusten ditu an: Kutzemendiko buztin erretako kurpillak bezelakoak, Lasarteko abaila bezelako jaurtikiak...

Ekainaren bian trena artu ta Francia ta Suiza alderuntz: bere Egunero-koan Barcelonako tranbietan irakurri duen anonzio bat idazten du: "Zuri dagokizun persona-giro bat bota zazu. Usai-gozatu zaitte Orgiak". Umore-puntu bat biajea alaiteko.

Lyondik Ginebrara dijoan bideak ikusgarri asko ditu: mendi, landare-zugaitz, baserri, aintzira. Esan diteke Euskalerrian gaudela. Ginebran Hotel Victoria-n sartzen da ostatuz, "Ecole de danse" baten aurrez-aurre: bi gazte ikusten ditu dantzan ari dirala, maixuaren ardurapean. Iru orduko bidea egin

ondoren, Bernara irixten da ta Hotel Bären-en artzen du ostatua. *Bernisches Historisches Museum* arretaz ikusten du: an Suizako etnografi-saillak eta Su-lurreko ta Kolon-aurreko Ameriketako tresnak arritu egiten dute.

Trinidad elizako erretoreak, Bernako eun milla biztanletik, katolikoak amar milla bakarrik dirala, esaten dio.

Klein Schanze ta *Bundestärrasse* parkeetan barrena dabillega, txoriak eskuetan gelditzen zaizkio. Personen eskuetatik jaten oituak daude, nunbait. Baso baten erdian jasotako uria dirudi Bernak, zugaizti aundiak bait ditu.

Zurich-erako bidean, uriak baratz-uriak dirudite. Erri ortan *Landes Museum* ikusten du:

Bazkalondo *Landes Museum* dalazkora juun nauk eta ango apaletan leengizakiñ eta erromatarren garaiko lanabes eta beste tresnak ikusi. Tresnari, batik-batik Neolitos-aroti erromatarren aldi arterañokoa ugarie eta ikusgarrie dek. Guztie Suiza'ko aztarnategiittati, batez ee palafitootati, eldu dek (1).

Zurich uriak 260 milla biztanle zituen orduan; oietatik 60 bat milla katolikoak. Nere osabak oar au egiten zuen: ango biztanleak oso atsegiñak dirala atzerritarrekin kalean, eta begirune aundikoak elizan.

Pintura ta eskultura-museoa—*Kunsthaus*— ikusitakoan, iritzi berezi batzuk ematen ditu: ona emen:

Pintura ta eskultura museoa ikusi det. Gaurko ertilarik askok ez dute jantzia giza-gauza jotzen; orregatik gizona billusik jartzen digute. Larru gorria naturalagoa dala, uste badute, zergatik ez dute gizona azaltzen erraiak aterata? Erraiak ere naturalak dira. Nere ustez, museotan ikusten diran ainbeste larru gorrik gizonaren ezkultura ta gizatasuneza, adierazten dute (2).

Unibersidadeko etnografia-sailla ere ikusi zuen: arrigarrienak, Nigerialburrunbari batzuk, Nueva Zelanda-ko, Nuevas Hebridak-eko ta Nueva Caledoniako "aizkorak", Angolako idolo bat iltzez josia. Idoliak daramakian txartel batek dionez, idoloari zenbat iltze sartu, ainbat gurari betetzen dira.

Museo nazionalako prehistori ta erromatarren ertilanak ikustatu ondoren, Viena-ra abiatzen da, otsaundiko zingira ikusita gero, ordea; eta gogoratu ere bai, berrogei urtez izoztu ez ziran ur aiek, azkeneko neguan izoztu ziralara, eta Zurich-eko biztanleek, negu artan, txirrixta-leku biurtu zutela.

Ekainaren 8'an irixten da Vienara ta an jarraituko du aste bete, Haberland-ek emandako erakutsiak ikasiaz. Esperanto-ren Sortzaillea —Foriani— bizi izan zan Hotel Hammerand-en egon zan ostatuz.

Biamonean *Volskundliches Museum*-era, baiño itxita zegoen. Egun berean Viena-ko lagundi ta bizibideen exposizioan agertzeko, Museo artako gauza asko atera bait zituzten. Gertakizuna xeetasun bereziz kontatzen digu nere osabak:

Erakusketaren zaldiketak (cabalgatas) ikusi ditut: erriaren erditik aterata Rotund-eraño. Lagundi edo bizibide bakoitzak bazuen bere gurdia, bere ikur eta guzti; esne-zaleek, —beiak, lan-tresnak, langilleak— zera-mazkiten... berdiñ burgiñek, ardo-saltzailleek, okiñek Vienako ogiak, zer-bezalariek zerbeza-upel aundia ta Gambrinus erregea bere gurdiaren nagusi (3).

Vienako egunak, ikasaldiko klaseetan eta museoak ikusten, banatzen ditu nere osabak. Goizetik museotan eta arratsaldetik klasean. Illaren amarrean *Museum für Volkskunde*-n egindako ikusketaren berri ematen digu: antxe arkitzen da folklore-saillik ugarienetako bat, Austriako inperioak, Europako gerra baiño len, mendean zeuzkan errietako kultura errikoia, bereziki.

Italia, Suiza, Irlanda ta Euskalerriko gauzak ere badira. Azkeneko sail oni buruz, nere osabaren oar bat:

"Führer" en Haberlandt-ek au idatzi zuen: "Reibsteine zum Reiben der Schokolade (baskisches Nationalgetränk)", ta ori ez da egia; txokolatea ez bait da janari berezia euskotarrentzat (4).

Ondoko egunetan, astiro, *Technisches Museum*, *Naturhistorisches Museum*-en Museo prehistorico ta Hofburg-en etnografikoa, ikusten ditu. Ikasaldiakin batera bukatzen da Vienako egonaldia ere. Ogeita amar persona ibili ziran ikasaldian eta nere osabak "interesgarria" jo zuen.

Illaren 15'an Innsbruck-era. Ostatutzat Hotel Kreid artzen du ta an siniskeri-ezaugarriak nabarmen ikusten ditu: sarreran, lurrean, bi zaldi-perra, gelaen zenbakietan ez da azaltzen 13. Egun ori osoa, *Tiroler Volkskunstmuseum*-en igarotzen du nere osabak: errialde-artearen museotan ikusi dituen garrantzitsu-enetakoa. Museo orretako gela ta gauzen berri, iru fitxa osotan ematen digu.

Illak 16, berriz ere Zurich-era, Lucernarako bidean. Uri onetan, zingiraren inguruan zebilela, hidroabioi bat jeisten ikusten du. Pilotoakin izketatu ta, arratsalde berean alkarrekin egatu bear dirala, erabaki dute. Zertarako egan egin, ona emen:

Alpe-mendiak eta glaziar batzuen egoera ikusi nai ditut. Nere maixu ta lagun Aranzadikin arkitzen naiz (5).



"Ad Astra" hidroabioian egan astekoan. Txano-luze-duna nere osaba: ezkerretik Dr. Aranzadi bere emazte ta alabarekin.

Baiño Aranzadi ez zan geiegi fiatzen egaketa arekin. Aurreneko aldiz hidroabioi batera igo baiño len, San Leger-en elizan ikustaldi bat egitera sartu ziranean, ala zion nere osabari: "Elkarrentzat otoitz egin dezagun, Jaunak arratsalde au, gure bizitzako azkenekoa izatea nai dezake ta".

Nere osabak esango digu zer gertatu zan arratsalde artan :

Arratsaldeko bostak eta laurdenetan hidroplano *Ad astra*-n ibilli bat egin det. Goitik Bürgenstook, Weggis, Greppen, Meggen eta Lucernari fotografiak artu dizkiet. Pilotoaren izena Hartman. Atzo eman zioten asiera serbizio oni Lucernan. Kaian eta inguruetan jendetza aundia, hidroabioiaren ibillerak ikusten (6).

Ondoren, egaketa naiz egazkin beraren zeaztasunak ematen dizkigu: ikusten danez ordukoak eta gaurko supersoniko ta kontinente arteko egaketak ez dira berdiñak.

Egan ibiltzea atsegin da. Motorrak ots aundia egiten du: zerbait esaterakoan ere ots aundian esan bear, beraz; dardaizoa ere etengabekoa. Aize-utsunak ez itxasoan ainbat eta ain aundiak. An goitik ikusita, gauzak zoragarriagoak gertatzen dira.

Egazkiñaren barruan, pilotoaz kanpo, bost persona sartzen dira. Exerlekuak, auto aundi batenak bezain eroso ta lasaiak (7).

Goitik artutako fotografi oietako batzuk, *Glaziar-Baratza* renakin eta abar, nere osaba berak argitaratu zituen *Apuntes de Geología general y de la del País Vasco* liburuan (8).

Illak 18, Lucernatik Interlaken-era. Katolikoek elizako erretoreak dionez, bere eliztarretatik % iru bakarrik dira katolikoak. Lurralde au Berna errialdearena (Canton) da ta Berna geienbat protestantea da.

Interlaken-go kale batean *El Sol*, *Heraldo de Madrid* eta *El Liberal* us-tekabeen ikustea (Vienan eta Zurich-en ez ain errez) zerbait arritzekoa da. Baiño Interlaken-go kale nagusian, Kursaal-en ondoan, ez zer eta ez nola, Eibarko lanen (*Spanisches Werk*) bitxi-denda batekin topo egitea ta denda-jabea Ojanguren, bada zerbait. Ataundar bati gertatu bear ori ere ta 1929 urtean. Ikusten danez ordurako ere mundua ttikia zan eta Eibartarrak edozein txokotan arkitzen ziran.

Interlaken-en igarotako urrengo iru egunetan, funikularrez inguruko mendigaiñetan ibili zan, glaziarak aztertzen eta fotografiak artzen. Plateau-n (3.560 m.), Jungfrau Aundiaren egaletan, jarri zuen arreta berezia.

Ekainaren 24'an, etxerakoan, berriz ere Burdeos-en eta iru egunez Donostiako Eusko-Ikaskuntza-Bazkunaren aretoan iru itzaldi eman zituen, eusko-Etnografiari buruz.



Jungfrau-ren gailurrean, Aranzadi ta onen emazterekin.

Uztaillaren 5'an, Aranzadikin batera, Itziaren, Urtiagako leizera, aurreko urtean asitako lana jarraitzera ta andik Saturrarana, udarako Seminarioko ikasleengana.

Ain zuzen, 1929 urteko udaran Saturraranen apaizgai gutxiago ikusten da: talde bat Erroman arkitzen bait da. Baiño gertakizun au geldixeago ikusi bear degu.

1929 urtea Vaticanorentzat eta XI'gn Pioentzat urte garrantzitsua izan zan. Otsaillaren 11'an, erregearen izenean, Benito Musolini'k eta XI'gn Pio Aita Santuaren izenean, Gasparri Kardenalak, Letran-go elkargoa (tratado) izenpetu zuten: orrela lengoratu zan Aita Santuen munduko agintea, Vaticano-Urriko Estatu berria eraikiaz. Ortaz gaiñera urte artan bertan, Aita Santuaren apaizgintzak 50 urte betetzen zituen.

Elkargoa izenpetu zanetik illabete gutxira, Uztaillaren erditik aurrera, Gazteizko apaizgaiek izango zuten Aita Santuari beren maitasuna gertutik azaltzeko egokiera, gertakizun aiek ziralata, mundu guziko apaizgaiekin Erroman bilduta.

Uztaillaren azkeneko amabost egunetan, 117 eusko apaizgai Erroman, Aita Santuaren inguruan dabiltza, Gazteizko Seminario osoaren izenean. Aita Santuari egindako ikustaldia gogora dezagun, lekuko zan baten itzetan:

Uztaillak 22. Letran-go San Joanen Scala Santan arkitzen gera. Pompili Kardenalak emandako meza entzuten degu. Santa Maria Aundiena-ra jubileo prozesioa. Mundu guziko apaizgaiak 5.000 tik gora. Amabietan Aita Santuarekin Vaticanon. Gu errege-gelan jartzen gera. Goraka beroak Aita Santuari. Aita Santuak, erdiparrez, muiñ emateko bere eskua luzatzen digun bitartean, Gazteiztarrok "Inazio" kantatzen degu. Aita Santuaren aldamean dijoan gure Erretoreak, esaera lilluragarri bat entzuten dio: "Victorians hano portato la victoria" (Gazteizkoek eraman dute garaipena) (9).

Nere osaba jakintza-lanetan, apaizgai gazteek su-garretan eta bitartean Españaren politiko-etorkizuna illuna.

Primo de Rivera-ren Dictadura koloka dabillega ta, persona kezkatuek larri daude, Españaren politiko-etorkizunari begira. Ta gero zer? Ona galdeera larria.

Lizarrako Markesaren lagun ustez, *Unión Patriótica*, España aundi baten ametsak batzen zuen gizataldea, naikoa zan. Baiño alderdi ori Diktaturakin batera il bearra zan. Erregetzaren alde jokatu zuen *Partido del orden* bat eskatzen zuen *La Epoca*-k.

Iritziak ordea oso zatiturik zeuden. Madrid-eko *La Libertad* egunerokoak onela jasotzen zituen iritzi ezberdin aiek:

Politiko ta sozial-indarrek errejimen berri bat sortu dezaten, *La Epoca* ta *El Debate*-k eskeñi duten ekinbidea, gogo biziz onartu du *ABC*-k (10).

Gero, *La Libertad* "Partido del orden" dalakoaren etsai agertzen zan:

Ona emen gure iritzia garbi esana: gobierno jator bat sortzeko gauza izan ditezen, zibil-indarrak bateratzea bearrezkoa duela España-k. Baiño indar ori erregetzaren serbitzurako bear danik, ez degu onartzen. Gure gogo ta indarrak erriari ematen dizkiogu, erregetzari baiño leenago: erriak esan dezala, askatasun osoan, zein errejimen aukeratzten duen.

Gure iritziak nagusitu bear baluke, demokratak, liberalak eta radikalak geranez, Errepublika ohea jotzen degula, diogu (11).

Ortaz gaiñera, Españako Elizari klerikala omen zalako salaketa gogorra egiten zaio. Klerikal-salaketa ardatza emen zegoen: elizgizonek geiegi sartzen zirala erri-bizitzan.

1928 urtearen azken egunetan Dr. Segura Kardenalak, Españako Elizaren egoera larriari buruz, Pastoral bat idatzi zuen. Elizak Españan zeuzkan arazoaren artean, Kardenalak bat auxe izendatu zuen; elizgizonen txirotasuna. Eliza barruan ondoez baten iturri ta Elizaren alderdi bati erasotzeko aitzakia dala, dio, txirotasun ori. *El Debate*-k onela aztertzen zuen leenengo arazoa:

Elizgizonek luzaro jasan duten dirueza orrek egoera mingarria sortu die askori. Ezin kontaala karta, laguntza-eske, kexu, maxia apaizengandik jaso dituela, dio Kardenalak. Apaizen eskubideak aldezteko, Gotzaiek ez dirala geiegi arduratzen, uste izateak, biurrikeri-giro bat sortzeko arrixkoa dagoela, dio (12).

Kardenalaren Pastoraletik itzbidea artuta, ezkerreko periodikoek zorrotz erasotzen diote Jerarkiari. Adi bidez, ona *El Socialista*-ren itzak:

Elizgizonentzat sari obeak eskatzen dituztenek, ez dute berentzat eskatu bearrik: beartsu izatea ta apaltasuna birtute maiteenak dituzten oiek, Elizaren goi-maillako buruzagiak diran Arzobispo jaunak, España-ko Estadutik sari bikaiñak jasotzen dituzte ta kristau-bizitzakin zerikusit gutxi duten aundizkiekin berdiñean azaltzen dira, ortarako beren buruei mortifikazio latza ezarriaz (13).

Garai batean, Jacinto Benaventeren *Pepa Doncel* antzerkia botatzean, —erlijio-egoeraren kritika zorrotza— bezela, gero, 1929'an, Kardenalak Rotarismo ta kidakoei buruz idatzitako Pastoral zalata, antiklerikal-sua biziro piztu zan. Ona Madrid-eko *El Liberal*-ek esanak:

Españaiko Kardenalak argi ta garbi gaitzetsi du rotarismoa. Ori bakarririk ez, emakumeen Lyceum Club eta "ligas de bondad" deituak ere bai: susmo txarreko, ixilkako diralako ta katoliko-sinismena aitortzen ez dutelako. Orri beretan Aita Gafok sindikatu askeen alde idazten du: eta sindikatu oiek ez dira konfesionalak eta askotan sindikatu katoliko izendunen etsaiak dira.

Orañ arte Españaiko klerikalek zuurrigo jokutzen zuten. Nazio barruan ez zegoen kontraesanik. Mejikotarrentzat konzientzi-askatasuna eskatzen zuen bitartean, España katolikoaren batasuna gogor aldeztzen zuen. Baiño Españan iturri beretatik sortutako gertakizunentzat arau berdiñak zituen.

Orain Kardenalak puskatu da berdintasun ori: eta ola jokatzekotan, jolas-elkarte ta gaiñerako guzietan, konsiliario bat, eguneroko meza, maia bedeinkatzea, jarri bearko lirake (14).

Elizgizonek geiegi sartu bear ortatik jaiotako antiklerikalismo ori, erriko jendeetan ere nabari zan. Nere osabak jaso zuen Lekeitioko Hotel Beitian entzundako alkarizketa baten zati au. Lumentxan azterketak egiten ari ziran egunetan zan:

Hotel Beitiako jangelan bazkaltzen ari naizela, andre gizen batek —bera bezin emakume gizen batekin (bere alaba) eta jaun batekin jaten ari zala— erretoreak agintzen duten errietan aspertuak daudela, zion, Mariaren alabei dantza-lotuan uzten ez dietelako: eta ori diktadura dala.

Beste andre batek —Bilbotarra— inguruko maitik onela erantzuten dio: "Tres bien, madame". (Ondo esana) (15).

Beeko elizgizonek ere iñoiz gogor xamar mintzatu oi ziran, buruzagiek apaizen bizitzan geiegi ta ez egoki sartzen ziralako. Adi bidez, Gazteizko elizbarrutian zeresana jarri zan 1927'an, Jesus Guridiren *El Caserío* ikustera joan ziranak, Bikario Jeneralak zorrotzegi zigortu zituelata.

1927 urteko Martxoak 1, Gazteizko Elizbarrutiaren Aldizkari Nagusian "Monitum" (oarra) bat azaldu zan: antzerki ura ikustera joan ziran elizgizon guziei egun bateko "suspensio" zigorra ezarriaz. Egun artan mezaririk ez, eta egun osoko erretiroa (etxetik atera gabe), eta Martxoaren 20 baiño len Gotzaitegira, egindakoaren berri eman bearra (16).

Gazteizko Teatro Principen zarzuela ura ikustera, Seminariotik iru irakasle, kalonje bat eta apaiz batzuk izan ziran.

Euskalerriko iru probintzietatik, apaiz zigortuen talde aundi batek, gaitzespen-agiri bat izenpetu zuen, Jerarkiarri eman asmotan, zigorra legezkoa ez zala edo adieraziaz, baiño ez zan iñora iritxi. ¡Beldurra! ¡Ogeitaka urte aietako protestalari tolesgabeak!

Ona bada, 1929'an politika ta erlijio-alorretan zer giro zegoen jakiteko, zenbait ezaugarri: Diktadura ta Erregetza erortzera zijoazen eta Errepublikak zetorren une artako giroa alegia. Nere ustez, giro artan zer egosten zan jakitea bearrezkoa da —diktadura-errejimen baten ilzorian eta Elizari klerikal-keria salatzen zitzaionean Errepublikak gizarteari ta Elizari ekarritako ondorioak ulertzeko.

OARRAK

- (1) Jose Migel Barandiaran-en *Egunerokoa*, 1929.
- (2) *Egunerokoa*, id.
- (3) *Egunerokoa*, id.
- (4) *Egunerokoa*, id.
- (5) *Egunerokoa*, id.
- (6) *Egunerokoa*, id.
- (7) *Egunerokoa*, id.
- (8) Jose Migel Barandiaran-en, *Apuntes de Geología General y de la del País Vasco*. (Montepío Diocesano. Gazteiz 1932).
- (9) *Vida colegial, Gymnasium*-en. (Gazteiz 1929), 309'gn orri.
- (10) *Nuestra opinión. La Libertad*-en, Madrid 29-II-22.
- (11) *Ibid.*
- (12) *Admonición pastoral. El Debate*-n, Madrid 28-XI-1.
- (13) *Los arzobispos y los haberes del clero. El Socialista*-n, Madrid 28-XI-6.
- (14) *Rotarismo y clericalismo. El Liberal*-en, Madrid 29-I-31.
- (15) *Egunerokoa*, 1929.
- (16) *Gotzaitegiko Aldizkari Nagusia*. Bikarritza Orokorra. "Monitun". (Gazteiz 27-III-1), 89'gn orri.

XIII

1931'ko Errepublika ta politika-griña Eliza-barruan

Apaiz politikalaria beti gaitzezgarria. Politikak alderdi asko ditu erlijioa ez diranak eta apaiza naastu dezaketanak.

J. M. B.

1930 urteko Iraillaren 28 egun berezia izan zan Gazteizko Elizbarrutia-
rentzat. Egun orretan iriki zan Seminario berria: Zacarias Martinez Gotzaiak
1926'an asia ta Mateo Mugica Gotzaiak bukatua.

Seminarioa eraikitzeke lau urte bear izan ziran, eta dirua eusko-elizba-
rrutiaren eskuzabalak eta Conde de Dávila-k eman zuten.

Ospakizun nagusiena 28'aren goizean izan zan, Seminarioko Elizan Meza
Santua emanaz: an zeuden XIII'gn Alfonso Erregea, bere laguntzaille ta
aundizkiekin, meza-emaille Aita Santuaren Nunzio Tedeschini jauna ta alda-
menean Seminarioen Kongregazioko Ordezkari Rufini jauna. Eguerdian eliz-
barrutiak bazkari bat eman zien Errege ta agintariei.

Erreagandik asita guziek goratu zituzten etxe aren sendotasuna ta eder-
tasuna. Etxegintzaren zuzendari, Vizcayatar apaiz eta arkitekto D. Pedro Asua
zan: lan arrigarria Elizbarrutia, España ta munduarentzat. Izan ere, bere
sendotasun eta erosotasunaz gai ortan guzien eredu izan ziteken. Semina-
rioen Kongregazioko Ordezkaria esan da esan ari zan: "E un Seminario pul-
cherrimo" (Oso ederra da Seminario au). Tedeschini Kardenalak berriz, apaiz-
gaiei egindako itzaldian ala zion:

Seminario-etxea gauza arrigarri bat da munduaren aurrean eta Erregeagandik asita azkeneko erritaraganaiño, denek txalotzen dute pozik: Españan eta beste nazioetan ere eredu da (1).

Alare arrigarriagoa zan bere ikas-maillan irakasle-talde bikain eta bere laboratoriotan erabiltzen ziran jakintza-bideak, Europako onenen kidakoak bait ziran.

Gure Seminarioaren ikas-gaitasun ori askotan goratu zuten bai bertakoek eta bai urrutikoek. Adi bidez: Erretore Escarzaga jaunari, bere apaizgintzaren zillarrezko eztaiak ziralata, egin zitzaion omenaldian, irakasle ta ikasleek *Omen-Liburu* bat eman zioten: kritikalar askok goretsi zuten liburuaren egille, irakasle-ikasleen trebetasuna ezik, Seminario osoarena ere. *La Gaceta del Norte*-k au zion:


Lan guzti oiek —bai erderazko bai euskerazko— irakasleen jakinduria ta ikasleen aurrerapena adierazten dituzte: or agiri da Gazteizko Seminarioa egitan eredu dala (2).

D. Pio Baroja berak ere —klerikal-kutsu gabea noski— nolabait aitortu zuen, Gazteizko Seminarioan garai artan ikasketak zeramakiten bide jatorra. D. Julio Caro Barojak badu zerbait esateko gai ontan:

Nere osabak gerra aurretik idatzi zuen azkeneko nobelak *El cura de Monleón*, aditzera ematen du, egoera berri bat nabaitu duela (apaiz gaiek kultur-kezka geiago dute): Gazteizen apaizgai izandako batek esan zizkion



XIII'gn Alfonso Erregea Gazteizko Seminario berriaren atarian, irikitze-egunean.



Gazteizko Seminarioen etxe-aurrea, irikitze-egunetan.

bere ikas-ikusiak: apaizgai izandako ura, garai artan *guardia de asalto* zan. Nik ere zerbait adierazi nion —beste bide batzuetatik— arkeoloji-lanetan ezagututako irakasle-ikasle aurreratuenen pentsakera zein zan. Kultura-berritze ura gerrak moztu zuen; gero, elizgizon gazteen artean, zerbait azaldu bada ere (3).

Seminarioari oraindik berri-usaia ta poza zerizkiola, Elizaren alde ekin-tza aundiei ekiteko ametsetan zebillen bitartean, 1930-31 ikasurte berean, Errepublika etorri zalata, alako zalantza-giro bat sartu zan pake-etxe artan.

Errepublikaren etorrera, beste askorentzat baiño berri biziagoa, izan zala Gazteizko Seminarioarentzat, esango nuke. Oraindik sei illabete ziran apaizgaiek Erregea txaloka artu zutela, eta Santiago-ko Arzobispo Zacarias Martinez-ek apaizgaiei, Kristoren esaneko izateagatik eta erregetzaren maitasunagatik iltzeko prest egotea, eskatzen ziela.

Botaziotan Errepublika-zaleak nagusi atera ziranetik, ez zetorren berri onik. Gazteiz bertan, Apirillaren 13'an bi manifestaketa egin ziran: bat AA. Karmeldarren aurka, bezperako botaziotan, Gabriel Martinez de Aragon-ek boto batez —eta Karmeldarren erruz— galdu omen zuelako, eta bigarrena D. Mateo Mugica Gotzai jaunaren aurka, katolikoei botoa nola eman bear zan, esan zielako. Gotzaitegian 40 gizon egon ziran zaintzen, gauerdi



D. Pedro de Asua:
Gasteizko Seminario
berriaren
lanak zuzendu zituen
apaiz-arkitektoa.

arte. Apirillaren 14'tik —Errepublika ofizialki onartu zanetik— errepublika-
noen eta komunisten mitiñak eten gabe ospatzen ziran: azkeneko aukerak itzal-
diak izan zituzten Ideal Cineman, iru egunetan, elizgizon eta Gotzaia garbi-
tzea, oñuka eskatuaz.

Zalantza-giro naastu ortan —kalean berdin gertatzen zan— nere osaba
Jose Migelek apaizgai aundienak *aula magna*-ra deitu zituen, politika-egoera
berria zerbait argitzeko ta lasaitasun pixka bat emateko.

Ez dira egun asko, billera aren ondorioak zeintzuk izan ziran, galdetzen
niola nere osabari. Ona erantzuna:

—Errepublika, Demokrazia-saio bat zala ta eskolastikoentzat ere, go-
bernu-kerak egokietako bat zala, esan nien. Errejimen berriaren etorkizuna,
gobernatzailleen eskuetan zegoela.

Ari berean, Errepublika ta Elizaren arteko artuemanen berri, galdetzen
nion:

—Errepublikak, bere anarki-jokaeran, erriak aske utzi zituen Elizari ta
elizgizonei erasotzen, eta ori benetan lotsagarria izan zan, zion nere osabak.

Eta ni galdezka berriro: ¿Elizak ez al zuen aitzakirik eman, alako nas-
pillak sortzeko?

Nere osabak, ondo pentsatu ondoren, erantzuten dit:

—Naaspilla oiek, zibilizazioeza diranez, gaitzetsi bearrekoak dira beti.
Baiño Eliza ere errudun zan.

Errepublika aurreko Elizak bazuen erdi-aroko tankera, Gaiñera, Aita
Santuak bere erakutsietan baieztutako sozial-justizi-egien berri gutxi eman
zitzairen kristau-konziientziei. Apaizek nekez adierazten zuten katoliko-pen-
tsakera justizi-gaietan. Bazirudien Ebanjelioko esaera zalata —"Beartsuak
beti zuekin izango dituzue"— beartsuak izatea bearrezkoa zala.

Nere osabak berriz ere pentsatu ta gero esan:

—Nolanai ere, pentsakera au ez da Españakoa bakarrik izan. Francian
ere apaiz askok erakutsi oi zuten, langilleen biurrikeria, kristau-sena galtzearen
ondorio bat zala: beartsuek edozein moduz ere aberatsen mende egon bear
dutela; erlijioak nunbait ori erakutsiko baluke bezela.


Sozial-justizia baztartuta zegoen erakutsietan ezezik, baita erlijiosoen ikas-
tetxe askotako bereizketan ere.

Jesuiten ikasle zaarren bazkun-taldeak Valencian, 1973 urteko uztaillan
ospatu zuten billeran, onela mintzatu zitzairen Aita Arrupe:

Ez gaude justiziarako ezita, gaur Jaungoikoak eskatzen digun neu-
rrian. Ez zaudete justiziarako ezita. Eta gaur gure ikastetxetan eta batez bes-
te, apostoladu-ekintzan, gaurko gure ikasleok, justiziarako ezitzen ari ge-
ranik, ez nuke esango (4).

Egia esan bear bada, ez dago elizgizon guzietan salaketa ori egiterik. Ba-
ziran gizon sutsu ta langilleak: Arboleya kalonjea, Aita Gafo, geroago, Aita
Joakin Azpiazu bezela, Kongresoan, Prensan edo AVASC-en hasaldietan,
sozial-alorrean lanik asko egin zutenak. Ona Aita Gafo-ren itzak:

Auxe da Españaren benetako egoera larria. Españako eskubitarrek, ez
dute sozial-indarrik eta erri-indarrik eta gaurko politikan ori izan nagusi.
Españako eskubitarrak, geienean, ez dira minberak sozial-arazoarentzat eta
aipatzerik ere ez dute nai (5).



Gazteizko Seminarioko Buruzagiak 1935'gn urtean, D. Justo Etxeguren jauna Gotzai sagaratua izan zanean. Exerita, ezkerretik eskubira: Manuel Lekuona, Eduardo Ezkarzaga, Etxeguren jauna, Jose Migel Barandiaran, Marzelino Kortabarria. Zutik: Jesus Enziso (Mallorca-ko Gotzai zalarik illa), Luis Emiliano Pinedo, Juan Thalamas, Eustakio Agirreureta, Felix Zarate, Felix Zatarain, Roberto Agirre, Jaime Aranburu, Joakin Goikoetxeaundia, Fernando Arzuaga, Antonio Eiguren.

Sozial-konzientzieza ori sakonki aztertu du gure egunotan Domingo Benavides-ek, Arboleyaren lana aipatzekoan, *El fracaso social del catolicismo español* liburuan.

Alare, Elizaren akatsak akats izango dira, baiño, konbentuak erretzeraiño iritxi zan anarkia ura ez menderatzea, Errepublikaren errua izango da beti.

Gertakizun illun ori zalata, nere osabari Seminarioan gertatu zitzaion au gogoan daukat oraindik. Konbentuak erretzen ari ziralata, Seminarioan bazan alako ezinegon bat: laixter Seminarioari eraso bear ziotela, zurrumurrua zabaldu bait zan.

Gau batzuetan buruzagi ta apaizgai aundiennen talde bat zaintzen egon zan. Nere osabak bi bonba antolatu zituen: (gaurko "molotov" oien aurrelari) besterik ez bazan, izutzeko balio zutenak, noski. Gau batean barrengo telefonoz dei bat: orma gaiñetik jendea sartu dala. Nere osaba, bi bonbak esku banatan dituela, etsaietara. Inor ez zan azaldu. Beldurtiek mamuak ikustea ez da arritzekoa. Au berritzen dan bakoitzean, parre lasai egiten nere osabak: parregarria izan ere gau-ibillera ura.

Ez dago ukatzerik, Españaiko katoliko asko ukituta zegoela, Errepublikaren leenengo illabeteetako larritasun arekin. Euskalerrian izan zan bai, egun aietan, jendeari zer pentsatua eman zion gertakizun bat. Guipuzcoako erri txiki batean, Ezkiogan, Ama Birjiña agertzen omen zala, zabaldu zan maiztaren azken aldera. Egunero millaka persona asko biltzen ziran leku artan, Errosarioa esatera. Egunen batean 40.000 tik gora. Egia zan ala ez, iritziak ez zetozen bat.

Ezkiogako "mirari" usteko oien etsairik aundienetakoa, Aita Jose Antonio Laburu ta Olascoaga zan: itzaldi askotan —an bertan artutako fotografi eta guzti— gezurrezko agerketa-itxura ura, zan bezelakoa azaldu zuen eta Elizaren Jerarkiari gaitzeppen-bidea antolatu.

Diktadura-garaian lotuta egondako askatasunak, Errepublikarekin asko lasaitu ziran eta politika-maillan —apirillaren 14'tik asita— iritziak era guzitara agertu zitezken.

Pluralismo politikoa, giza-askatasunaren agerkai bezela, gauza ona da beti. Alaxe aitortu izan du Elizak lengo denboretan eta gauza bera esan du Konzilioan (6).

Okerrena zera da: erlijio-saillan kidakoak diran alderdi politikoak, baikoitza erlijioaren jabe bakarra balitz bezela, azaltzen dirala, politika ta erlijioa naastuaz. Eta beren katolikotasunean sendo, politikan pentsakera ezberdiña dutenei, tiroka erasotzen diete, erlijioan ere etsai balira bezela.

Eta politika-griñak —griña izan— katoliko asko itxutu zituen Errepublikagaraian, bereizketa txikien artean lokarri aundi bat ez ikusteko. Auxe izan zan urte aietako "eskubi" izeneko aien arazoa.

Besteen artean Ramiro Maeztu eskuindarren bateratze orren alde mintzatu zan:

Egoera larri au ikusita, badirudi, zer egin bear dan, garbi dagoela: alderdikeriak utzita, iraultzari erantzun gogor bat eman (7).

Eskuindarren zatiketa au Euskalerrian ere izan zan, eta ez beste lekuetan baiño motelagoa. Teoria-maillan gauza garbi zegoen eta denek bat zetozen. Beraz asmoa ona zala esan bearko degu. 1934 urteko iraultzaren gertakizunak ziralata, ala zion *La Constancia*-k:

Milla bider esan da: Elizak katolikoei ez die galerazten erlijio-erakutsien aurka ez dauden politika-iritziak onartzea: baiño eskatu bai, Erlijioa denok batera aldezte, eskatzen die. Bide ori, errejimen edo autonomia edo beste zerbaiten aitzakitan, baztertzen duena, kristau-pentsakeraren saltzaillea dala, esan bearko (8).

Baiño egintza-maillan zailla gertatu zan. Eskuindar asko, griñak beren pentsakera zuzenetatik saieztu egin zituela, pentsatu bearko det. Egia auxe bait da: alkartzeko itzak janda, sakabanatu, eraso ta alkar il egin zutela.

1936'gn urteko Otsailak 16, ala idazten zuen bere Egunerokoan, nere osabak:

Korteetako diputaduak aukeratzea. Araban Oriol, Landaburu ta Flores Estrada, katoliko bezela aurkeztu dira; Viguri, Frente Popularraren izenean. Botorik geiena Oriolek izan du. Ondoren Viguri, Landaburu ta azkenik Flores Estrada. Legeak eskatzen zuen % 40 iñork ez du lortu.

Elizbarruti guztian katolikoak banakatuta doaz eta alderdi bakoitzak, katolikoa bera bakarrik dala, dio. Elkarrekin egiten duten burruka —gezur beltzeria tartean dala— ez da kristauek egitekoa. Bat bakarrik ere ez da Kristoren erlijioaren adierazle (9).

Argitaratu berria da *El Decenio crítico (La política y la guerra en el País Vasco entre 1930-1940)* liburua, Daniel Mugarza ta Mecolalde izenpetua. Len esandakoa egiztatzeko, Gazteizko Gotzaiak katolikoan burruka lotsagarri artan nola jokatu zuen adieraziaz, ona emen Mugarza jaunak diona:

Eliztarren banaketa negargarria zalata, bere naigabea ainbeste aldiz azaldu zuen D. Mateo Mugica Gotzaiak berak, 1933'gn urteko Iraillan, Elizbarrutiko Aldizkari Nagusian Zirkular bat idatzi zuen. Aita Santuari egindako ikustaldia ta arek emandako agindu zorrotza aipatzen zituen: katolikoan artean batasuna ta pakea sortzeko agindua, alegia: Jesukristoren, Elizaren, animen interesak aldeztu ditzaten, kristau-ekzkontzaren santutasunari ta seme-alabaen eziketari buruz, bereziki.

Gero Gotzai jaunak arau batzuk ematen dizkie apaizei bakarrik; biltoki zibilletan itzaldirik ez dezatela eman eta Gotzaiaren baimen garbirik gabe, periodikoetan ez dezatela idatzi.

Geroxeago onela dio Mugarza jaunak:

Urrena periodiko katolikoari gogorazten die, periodiku antikatolikoek egiten duten ekinialdirik ez dezatela egin, gauza, persona, erakunde sagaratuari erasoaz, edo —sagaratuak izan ez arren— katolikoak diranei, olako edo alako alderdian ez daudelako... 1931'gn urteko Abenduaren 20'an argitaratutako *Declaración del Episcopado Español* aipatzen du, bere mami gogoratu eraziaz, batezere, periodiku katoliko bati ez erasotzeko arauak (10).

Politik-griñak katoliko sekularrak astindu zituen, baiño bai elizgizonak ere, batezere Euskalerrian.

Politika-burruka guzien oiñarrian, garai eta belaunaldiak zerikusirik bai dutela, esango nuke. Eta elizgizonen arteko gorabera ere, belaunaldiadiñ-ara-zoa dala, uste det.

Obeto esan da: len idatzi nuen, nere osabaren gazte-aroan, integrismoak nolako indarra zuen elizgizonen artean. Eta ez da arritzekoa. Integrismoak España katolikoaren tradizioa osorik aldeztu zuenez, bazirudien alderdi politiko ortan arkituko zutela apaizek biderik egokiena, beren eginkizuna betetzeko, liberalismo antiklerikalaren aurka, bereziki.

Gero, urrengo belaunaldietan, bizitza bera bezela, politikagintza aldatu egin zan. Lengo integrismo edo karlismo aldakaitz aren ondoan —politika katoliko baten pentsa-molde bakarria balitz bezela— bide berri batzuk —katolikoak auek ere— sortu ta indartu ziran.

Gizarte-giro berriak, gizonei politika-jokaera berriak, artu erazten dizkiela, esan nai du orrek. Ortaz gaiñera, gizona beti biotzkoa da bere eginkizun guztietan eta bere burua ezitzen ez bada, odolbero egiten da oso errex. Gure gazte-aroaren alde egiten degu askotan, geurea zalako bakarrik; eta gurasoek beren pentsakeren alde berdiñ, arte eta beste edozein gaitan, bere-bereak dituztelako, gazteen iritzi berrien aurrean.

Auxe esan nai nuke: politika baten aldekoak naiz aurkakoak arrazoi asko buruan ez baiño biotzean sortzen dirala. Askotan belaunaldi gorabera.

Ari ortan eta eusko-elizgizonen giroan, gazteen azaleko oitura berrietan, politika-aztarren bat ikusi nai izan da, adin-arazoa politika-arazo biurtuaz. Gogoan daukat, nola edadeko apaiz batzuek, gazteak separatistatzat zeuzkaten, manteoa ta teja uzten zituztelako, latinean Erromako mintzaera edo baita txapela erabiltzen zutelako ere.

Nik uste, neurri onekin neurtu bear dirala ezinegon politiko asko nun-nai ta bereziki eusko-apaizen artean. Denbora asko ez dala, Gazteizko Seminarioari leporatu zioten salaketa baten berri, galdetzen nion nere osabari: 36'ko gerra aurretikako politika, salaketa, alegia.

—Garai batean —zion nere osabak— erri-giroak eraginda, apaizak karlistak edo integristak ziran. Gero, apaiz gazteek beste bide batzuk artu zituzten, erri-giroa bera aldatu zalako ta Seminarioak idea oiek sartzen zituela, esan zuten. Au da: giroari erantsi bear zitzaiona, Seminarioari erantsi zitzaion.

Gai ortan, bere apaizgai-denboretako apaiz eta apaizgaien politika-giroa zalata, laburpen bat egin zidan, nere osabak. Orduko politika-giroa, gaurkoa bezelaxe, errietako giroaren ondorio bat zan.

—Seminarioko buruzagi ta irakasleak —dio nere osabak— geienak integristak ziran. Periodiku kuttunena, integrista-alderdiaren zaintzaille sutsu *El Siglo Futuro* zuten. Apaizgaiak (400 bat) famili karlisten semeak, familiko pentsakerari jarraitzen zioten. Integristak oso gutxi ziran. Abertzaleak ere ez asko.

Apaizgaien politika-sua piztu egiten zan botazio-garaietan. Pasatakoan, karlistek irabazi bazuten, baziteken karlistaren baten leioan eskoba-makilaren muturrean oe-azal bat, ikurriñ antzera, azaltzea. Eztabaida beroak izan oi ziran, iritzi ezberdiñeko apaizgaien artean. San Karlos egunean karlistek komunidadeko meza, beren alderdiaren alde eman zezala, eskatzen zioten Buruzagiari: berdín integristek Nocedal-en eriotz-urteurrenean. Meza-dirua pentsakera artako apaizgaiak eman oi zuten: egun artan meza eskatu zuten alderdiko guziek Jauna artu ere bai. Abertzaleek ez zeukaten olako politiko-erlijioso-sua eukitzerik, Buruzagi ta Irakasleen artean ez bait zan pentsakera ortakorik.

Gero nere osaba garai artako Gotzai ta kalonjeen politika-griñatnaz mintzaten da.

—Katedraleko kalonjeegan ere baziran zatiketak. Kalixto Garzia Magistralaren sermoi sutsuak oso karlisten gogokoak izan oi ziran. *Estado moderno*-ari ta liberalismoari —entzuleen iritziz gobernuko alderdien aurka— ematen zien egurra, txalogarri zan askorentzat. Katedraleko beste kalonje Ganbari'k sakristiara alde egiten zuen, sermoia Magistralak zuenean.

Baiño politika-griña Gotzaienganaiño ere irixten zan. Cadena y Eleta jaunak, Seminarioko integristei eraso ta buruzagiei saria kendu egin zien. Vizcarra ta Echeguren jaunak Seminariotik bota ere bai, "beren politika-jokaeragatik" (batzuen iritziz), "Gozaiaren politika-griñagatik" (besteek ziotenez). Pierola jauna ez zan ola sartzen eliztarren politika-zatiketa aietan. Leenagokoak berriz, Mariano Gomez jaunak, liberalen aurka lasai itzegiten zuen.

Gauza bat esan nai du orrek: personek bakarka dituzten politika-goraberak eta inguruko giroaren goraberak batera joaten dirala. Edozein lagunarte —Seminarioa izan ala beste talde bat izan— kanpoko giroak kutsatuko duela. 1930 urtean Gazteizko Seminarioari separatista-salaketa egin bazitzaion, amar urtez leenago, integrista edo karlista zalako salaketa egin zitzaiokeen.

Personen erruak erakundeei leporatzea, gizona bezin oitura zaarra da. Gaur ere, apaiz gazteen pentsakerak asko aldatu diralako, errua Seminarioari erantsi nai diote: ez dute pentsatzen, bizitzak berak daramazkiala gaurko gazteak bide berrietan barrena.

—Nere apaizgai-garaian —nere osaba mintzo berriz ere— Seminarioan egin zan politika, karlista ta integrista izan zan, euskaldunen aurkako ekiñaldiekin batera; eusko-izatea español-izatearen etsaia balitz bezela. Ziur zeuden euskera ta eusko-zaletasuna Españaiko kulturaren etsaiak zirala ta euskera lurpean sartu bearra zegoela.

Pentsakera ori nagusi izanik, ez da arritzekoa, nere osabaren garai aietan euskera onartua ez egotea Ari ortan jarraituaz, teologo zaneke gertatu bat esaten zidan: egun batez Gazteiztik kanpora paseoan zijoan irukotea: an zebillen txakur bat ikusita, nere osabak esan omen zuen: ¡Ori txakur gorrie! Lagunek arriturik, euskeraz entzun ziotelata. Sekula ez zioten entzun.

Euskera, España-zaletasunaren etsai-señale ezezik, kulturik ezaren seiñale ere bazan. Eta au egia ez bada ere, ulerterreza da. Guipuzcoa ta Vizcayako erri txikietan, gizaldi onen asieran, iru-lau eskoladunek bakarrik egiten zuten erderaz: maixu, sendagille, botikario, apaiz eta zerbait ikasitako gizontxoren batek. Au da: erriko jauntxoek bakarrik zegiten erderaz. Beraz baserritar batentzat erderaz egitea, jauntxoen maillara igotzea zan.

Gero, erri-nortasuna aintzakotzat artu ala, euskeraren inguru-giroa ere aldatu egin zan. Baiño aldaketa oso motela izan da, euskera España ta kulturaren etsai omen dalako iritzi ortan.

Ain zuzen, Gazteizko Seminarioa "separatista" omen zalako salaketa, D. Manuel Lecuonak, —gero Euskaltzaindiako buruak— zuzentzen zuen Kardaberaz Akademiarentzat zan bereziki: euskera-gaiak sakontzea ta euskera bera zabaltzea ziran, Akademia orren elburuak. Ori "separatismoa" baldin bazan, euskera-ikaskuntzan ari diran, nazioartean izen aundiko izkuntzalari ta Europako naiz Ameriketako Unibersidadeak, separatistak izango dira.

Onekin loturik dagoen gertakizun bat: 1970 urtean, Kardaberaz be-
rreun urteurrena betetzean, Kardaberaz-Bazkuna bersortu egin zan: kemen-
tsu sortu ere, D. Manuel Lecuonaren ardurapean, "Euskalerrriaren onerako ta
euskeraren bizitzarako, kristau-sena jatorreko izkuntza garbi batean idaztea,
elburutzat arturik".

Bidezkoa dirudi apaizek euskera lantzea —len eta orain— apaiz-laneta-
rako laguntzaille bezela. Urte asko dira, Eusko-Ikaskuntza-Bazkuna, Guerni-
kan ospatutako billeran, onela mintzatu zala:

Eusko-Ikaskuntza-Bazkunak, euskaldun apaiz guziei eske bat egiten
die: politika-alderdikeri guzietatik at, euskaldun erriari euskera erakusten
eta eusko literatura lantzen, aalegindu ditezela (11).

Eta pastoral-ikuspegia utzirik ere, bidezkoa dirudi ta egokia, eusko-enda-
ren izkuntza berezia ta gizadiaren altxorreko pitxi ederra danez, euskera lan-
tzea ta erabiltzea. Onela pentsatzen zuen XIII'gn Alfonso Erregeak, Oñateko
Eusko-Ikaskuntzaren Biltzarrean:

Landu zuen izkuntza, euskera zaar, agurgarria, gizadiaren aberasta-
suna: zuen gurasoeagandik jaso zendutena, osorik eman bear diezue zuen
seme-alabei (12).

Baiño Gazteizko Seminarioaren aurkako politika-salaketa, etengabe zebillen eskuindar batzuen izparringietan.

Ona emen bat: Joakin Arraras-ena: eusko-abertzaletasuna aipatzean onela zion:

(Abertzaletasuna) aberatsek babestu, Gasteizko Seminariotik irten berriak diran apaiz gazte batzuk bedeinkatu ta baserritarrek lagundua (13).

Beste salaketa bat ere izan zan. Calvo Sotelo zanak egiña. Gazteizko Gotzai D. Mateo Mugicak erantzun zion. Ona nola:

Ekaitza gero ta indartsuago: Calvo Sotelo berak ere eraso zion Seminariori, eusko-abertzale-politika egiten zan "batzoki" zala esanaz. Ona nere erantzun laburra salaketa oiei: 1.º Seminario barruko Irakasle guziek eta neronek izenpetutako gaitzespen-karta bat bidali zitzaion Calvo Sotelo jaunari ta aren erantzunik ez genduen jaso. 2.º gn. Garrantzi aundiko gaia zanez, Erretore jaunari zin bat eskatu nion; eta Santo Tomasen jai egunean, nere ta barruko irakasle guzien aurrean, D. Eduardo Escarzaga Erretoreak zin egin zuen: Gazteizko Seminarioan ez zala politikarik egiten, ez abertzale ta ez bestelakorik.

Erretore jauna ziñausle zala dionak ez dauka anima txukuna, alajaña! 3.º gn. Españako beste Seminariotara bezela, Gazteizkora ere Aita Santuaren Ordezkaría etorri zan, ikustera ta berri ematera: eta iturri onetik jakin det, Seminarioen Kongraziara bidalitako berrietan, nik diodana bera esaten duela: Seminarioan ez zala abertzale-politikarik egiten (14).

Gotzai jaunak aipatzen duen, Santo Tomas eguneko biltzar aren zeastanunik asko ematen digu nere osabak bere Egunerokoan:

Politikalarí batzuek Seminarioaren aurka darabilten eraso-aldiaz mintzatu zaigu: etxe onetan gazteak abertzaletasunean ezitzen omen diralako salaketatzaz, alegia.

Eta ori gezurra da, dio Gotzaiak. Eta esan ori baiezteko, Erretore jaunari ziñezko erantzunak eskatzen dizkio: "Seminario onetan inñolazko politikarik ez dala ar erazten, ¿zin egiten dezu?" "Seminario onetan inñor ez dala estutzen zenbait politika-ideagatik, zin egiten dezu?". Erretorearen erantzunak: "Zin egiten Seminario onetan, irakasle batek ere ez duela inñolaz ere politikarik arrezazten". "Zin egiten det Seminario onetan inñor ez dala estutzen, bere politika-idekatik, eta inñork politikarik egin ez dezan, aalegiñak egiten dirala". Gero itzbideari jarraituaz, alderdi politikoek alkar ezkatolikotzat gaitzesten dutela, zion Gotzai jaunak, ortarako aginterik euki ez arren.

Azkenik, euskera maitatzea ta euskerari laguntzea, politikatzat jotzen dutenak badirala, dio. Eta ori ezin diteke onartu, esaten digu berak. Derecho Canonico ta Elizaren espirituaeren arauera, gure erriaren izkuntza ta oitura onak zaindu ta indartzera, beartuak gaude. "Eta pentsakerak nola

aldatzen diran ikusteko, dio, emeretzigarren gizaldiaren erdialdera, Vizcaya ta Guipuzcoako Diputazioek ziotena, irakurriko dizuet". Eta bazkun oiek euskeraren alde artutako erabakiak irakurtzen ditu (15).

Bein baiño geiagotan nere osabak ere entzun ditu politika-salaketak. Berak obekiago esango digu:

—Alaxe da —dio batere berotu gabe—; askotan erantsi didate izen txar ori. Nere jakintza-lanekin naastuta sortu zan olako zurrumurru. Etnolojía orokorraren ikasketak astean, etnia jakin bat, gertuenekoa, ezagutu bear nuela, iruditu zitzaidan. Etxe atarian neuzkan infusorioak utzita, Ipar-lurretara aien billa joatea, zozokeritzat jo nuen beti. Etnia bat aztertzeke, nere euskolurrean arki albenezake etnia ori, ez daukat Castilla-ra joan bearrik.

Nere osabak, une batean ixildu, goibeldu ta ala zion:

—Itxuraz auxe izan nere okerra ta pekatua. Aukera au zalata —bidezkoa noski— naigabe batzuk izan nituen: Afrikako Bantuengana jo banu, ez zan olakorik gertatuko.

Ni oraindik zirikatzen jarraitu nintzaion:

—Eta —galdetu nion— politikan sartutako apaizatza, zein da zure iritzia?

Apaiz politikalaria ezin diteke onartu. Erliziozkoak ez diran eta apaiza naastu dezaketen alderdi asko ditu politikak. Bere politika-alderditxoagatik apaiza bera gorrotatu dezake sekularrak. Apaizak bere iritzia eukitzea —politika-burruketan ez sartzekotan— beste gai bat da.

Errepublika zalata Elizarentzat sortu zan egoera berezia aipatzean, Gazteizko Gotzai D. Mateo Mugicaren erbesteratzeari buruz —Gobiernoko ministroaren aginduz— zerbait esan bearra dago. 1931'gn urteko Maiatzak 17, atera zan Gazteiztik Frantzi aldera, ta an egon zan urrengo urteko Maiatzaren 13 arte; orduan ere erbestean gelditu zan, bere Elizbarrutiatik kanpo, Bujedon (Burgosko probintzian).

Gotzai jaunaren erbeste-aldi onetan gertatu zan Seminarioko Erretore-aldatzea. D. Roman Laspiur atera ta D. Eduardo Escarzaga sartu. Erretore berriaren zeastan auk eman zituen nere osabak: "gizon zuzena, aremanetan biguña, ta beldurtia. Beldurtia zalako bearbada, ez zan lagunkoia. Apaiz bikaiña izan zan beti". Ikas-gizona zan eta historia-gaietan, Euskalerrikoetan bereziki, lan asko egiña.

Bere Erretoretzarako Gotzai jaunak eman zizkion oarretan bazan bat,

buruzagiekin nola jokatu, esaten ziona: "agintekeriarik gabe baiño leor". Olakoxea zan bada orduko agintari-pentsakera.

Nere osabaren jakintza-lana ez zan aldatu politika-aldaketarekin. Auek dira Errepublikara-garaian argitaratutako liburuak: *Apuntes de geología general y de la del País Vasco* (1932); *Breve historia del hombre primitivo* (1933); *El hombre primitivo en el País Vasco* (1934).

Arkeoloji-billaketa-Daillean, Santimamiñeko, Lumentxako (Lekeitio) ta Urtiagako (Itziar) ekinaldietan jarraitu zuen.

1930'gn urtean Madrid-eko *Pueblo Español*-en Museoan, Errialde-Zaindari (*Patrono regional*) izendatu zuten. Ori zalata, asko ibilli bearra zeukan. Orregatik, lagunaren baten aolkua entzunik, bigarren eskuko berebil bat, "Renault" ttiki bat erostea, erabaki zuen: berebil-mota orri jendeak izen txarrez "Ortxe ustelduko al aiz" esan oi zion. Automobilla erosteko 1,600 pezta joratu zituen eta errialde-zaindaritzak ainbat iraun zion, au da, 4 urte. Orduan saldu egin zuen; tresnaren eginkizuna bukatu bait zan. 1934'gn Ekainean, Londresen, Antropolojia ta Etnolojiaren nazioarteko Batzarkide izendatu zuten.

OARRAK

- (1) *Nunzio jaunaren Itzaldia*. *Gymnasium*-en (Gazteiz 1930) 431'gn orri.
- (2) Erretore jaunari... *La Gaceta del Norte*-n (Bilbo 35-VI-2).
- (3) Julio Caro Baroja-ren, op. cit., *Los Baroja*, 275'gn orri.
- (4) *Los Jesuitas*. *La Voz de España*-n (Donostia 73-IX-4).
- (5) *El Liberal* (Bilbo, 11.825'gn zenb.).
- (6) "Gaudium et Spes" Araudia, 75'gn orri.
- (7) *El Pueblo Vasco* (Bilbo 34-XII-27).
- (8) *La Constancia* (Donostia 34-XI-17).
- (9) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1936.
- (10) Daniel Buganza-ren, *El Decenio Crítico*. (Loroño Irarkola. Bilbo 1974), 87'gn orri.
- (11) Migel Intxaurrenaren, *La Iglesia y el euskera*. Iruña-ko Seminarioan 1926-27'gn ikas-urtearen Asierako Itzaldia. (C. S. M. Elkártasunaren irarkolan), 8'gn orri.
- (12) Ibid.
- (13) Joaquin Arraras-ek, *Acción Española* aldizkarian, 62-3'gn zenb.
- (14) Mateo Mugica-ren, *Imperativos de mi conciencia*. Cinna-ko Gotzai ta Gazteizko Gotzai izandako Mateo Mugica jaunaren Eskutitz irikia. (Cambo, 1945'gn urteko Apirilla).
- (15) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1936.

XIV

Leizeetako pakean gerra

Motrico-ko Jentiletzeta-leizean gurre betiko azterketak egiten ari ginala, Donosti aldetik kañoi-otsa zetorkigun.

J. M. B.

Olaxe, bi eginkizunetan aaleginduaz, zijoazen nere osaba Jose Migelen urteak: bere ikasleak jakintza-soiñekoz jantziak eta arkeolojiaren eta etnolajiaren laguntzaz, gure erriaren sorrera aztertuaz.

Jakintza-lan oiek ez ziran beti aintzakotzat artuak izaten eta iñoiz ixeka pixka bat ere egiten zitzairen.

Julio Caro Barojak zionez, arkeolojia "eltzeolojia" zan batzuentzat, gauzak umore-puntu batekin esan da: au da, eltze autsiak lurpetik atera ta konpondu (1).

Umoresail ortan jarraituaz, 1928 urtean, Inozente egunez, Bilboko Arkeoloji-Museoko Zuzendariari gertatu zitzaiona, idazten du nere osabak bere Egunerokoa. Historia ori girotzeko, garai aietan asko entzuten zan kanta bat gogoratu bearra dago: "El aldeano tiró, tiró la piedra y no la encontró". (Baserritarrak arria bota zuen eta ez zuen arkitu).

Museoko Zuzendari arek beintzat, artu du ondo lotutako pardel bat. Txartel bat gainean, onela ziona: "Oso auskorra, arkeoloji-pitxi bat". Alako oarrak ikusita, arkeolojilariak arduraz zabaldu du pardela. Ondorena nere osabak:

Barruan arri koskor bat zegoen: alderdi batean orritxo bat; orrian itz auek: "Auxe da baserritarrak botatako benetako arria" (2).

Eta ezur, lokatz eta arri artean, arkeoloji-lan bete-betea ari zala arrapatu zuen nere osaba 1936 urteko gerrak. Nere osaba Aranzadi ta nere anai Felipekin, Urriagako (Itziar) leizean ari zan, Ekainaren 29'tik, leen asitako azterketa-lanetan.

Leizeko ixiltasun eta pakean ere entzun zan, Uztaillaren 18'an gerra-otsa. Nere anai Felipe ordurako ez zegoen an. Gazteizera joan zan bezperan, bere urtebetetzea familiarekin batera ospatu asmotan: andik aurrera bi gauzak alkarrri lotuta geldituko ziran. Bost urtetan zear osabaren lankide zintzoa ta arkeoloji-gaietan ikasle ona izan zan: orduan moztu zan jakintzabide ura ta bakoitzak bere bidetik jo zuen. Geroago alare, Parisen ikasketak sakondu zituen eta, urte batzuetan Gazteizko Seminarioan, osabak erakutsi oi zituen gai berak erakutsi ere bai.

Illaren 19 igandea zan. Atsedeen-eguna zalata, nere osaba, Aranzadi ta Jesus Aldanondo apaizgaiarekin —orduan aste batzutako laguntzaille, gaur Donostian apaiz— Andutz-mendi aldera abiatu ziran, bazkalondoan. Aranzadi ezin igo ta bide erdian gelditu zan.

Nere osabari barrurairiño sartu zitzaion erriko ixiltasun eta bakardade ura: automobil gutxi ikusten zan eta persona elduek ez zuten ezkututzen baruko kezka. Lengo politika-buruketan ikasiak izan eta etorkizunari ezin lasai begiratu.

Etixerakoan, Salegi-ostatuan, irratia berri txarrak ematen ari zan. Guipuzcoako agintariak Donostiako irratia bidez, gazteei Errepublikaren alde burrukatzera dei egiten zieten. Ortaz kanpo, Madrid-etik Sevilla, Malaga ta Barcelona bakarrik altxa zirala ta iru erriburuak menderatuak izan zirala, zioten.

Biamonean, Uztaillak 20, nere osaba ta Aranzadi betiko lanetara. Leize-zulotik ederki ikusten zuten bidezabalean gertatzen zan guztia. Andik zebiltzen auto bakar aiek, ikurrin gorria edo abertzaleena zeramakiten. Ortaz gairi, irratia zionez, Gazteiz, Iruña, Burgos, Zaragoza, Valladolid eta Avila uriak gobernuaren aurka jaiki ziran.

Afal ondoan irratia entzuter a etorri ziran erriko maixua bere emaztearekin —biak Asturias-ekoak— Devako udara-zale D. Luis Sierra Bustamante, injenierotako Komandantea, Itziarko parrokiaren koadjutore zan D. Jose Maria Alcibar-ekin.

Sierra Bustamante oso arkeoloji-zalea zan. Ain zuzen, udara baiño leen-

xeago, karta bat bidali zion nere osabari; arkeoloji-gai batzuk bildu zituela ta gauza oiei buruz udaran eta Itziarren itz egin naiko zukela, zion kartak.

Ori gogoan izanik, nere osaba arritura gelditu zan D. Luisen jokaerakin; irratia berriak entzun ondoren, karta ura eta aren mamia aipatu ere gabe, agur esan eta joan bait zan Alcibar apaizarekin. Biamonean argitu zan gertatua. Sierra Komandanteak ez zeukan berrikerako gogo aundirik. Leenagoko lanik bazeukan. Zeintzuk ote ziran ba aren kezak?

Biamonean, Uztaillak 21, meza eman ondoren, Sierra komandanteakin topo egin zuen. Nere osaba fiagarri iruditu zitzaion, nunbait, komandanteari, eta bere barrua ustuz zion. Asieratik esan zion, *Movimiento Nacional* dalako ortan sartuta zebillela ta Gobiernoaren aurka Guipuzcoan jendea biltzeko egingizuna zeukala.

Geiago ere esan zion: Donostiako irratia ixiltzeko agindu zuela, baiño, arritzekoa, oraindik ez zala ixildu. Ortaz kanpo, bezperan Zumarragako estazioa joan zala, Iruñatik zetorkion soldadu-talde bati itxoitera, baiño Zumarragako estazioan, Alsasuako ferrobiario zarpail-ikaratu talde aundi bat besterik ez zuela ikusi: Naparroako tropak Alsua artu berria bait zuten.

Dirudienaz Sierra Komandantearen asmoa Zumarragako estazioan Naparroako tropekin batzea zan, gero Donostiari erasotzeko. Ain zuzen Zumarragatik zetorrela, Azcoitian gelditu zuten ura zekarren taxixa, baiño aske utzi zuten eta taxixtak berriz Itziarko aldapan laga. Orrela argitzen da Sierra jaunari Salegi-ostatuan gertatua.

Urriagako leizera lagundu nai ziola, esan zion goiz artan nere osabari. Bai lagundu ere, egun artako bazkaria ostatuan ordainduta gero. Esan bear da, Ostatutik leize-inguruko baserri batera eramaten zutela jana: arkeologilari ta lagunak baserrira jaisten ziran jatorduan. Nere osabak esan zion, ez zeukala jana ordaindu bearrik eta zeukatenetik denek jango zutela: alperrik izan zan. Sierra jaunak erantzun zion, bazkaltzera geldituko ez bazan ere, ordaindu bearra zeukala, etsaiei iruzur egiteko.

Ordu terdi bezela egon zan leizean. Larri zegoen. Noiznai bere prismati-koekin urrutira begira, norbaiten zai balego bezela. Ala izan ere: bidezabala ta leizearen arteko sakanetik nun azaltzen dan gizon bat. Geldi zetorren, baztarretara begira, karakol-billa ormak miatuaz. D. Luisek Devako bere etxera, arrixkuko paperak puskatzera bidalitako gazte bat zan, Itziarkoa. Aren berrien zai zegoen. Sierra jaunak sudur-zapi bat atera ta astindu batzuk eman zizkion. Nere osabak, bere burua nunbait ezkutatzeko esaten zion eta jatena nolabait ere sortuko zutela. Komandanteak eskertu zion aolkua, baiño ez zuen nai izan eta au erantsi zion: bidean inork ezagutzen ez bazuen, azkar baiñutegi batean izango zala, eta une artan aurrera jarraitu bearra zeukala. Bai joan

ere mutil arekin, taldeari agur egin ondoren, mendian ezkututzen zala. Joan baiño len ala esan zion nere osabari:

—Bearbada emendik egun batzuetara zure esanak egingo ditut, baiño orain ez.

Elkarizketa artan Sierra jaunak beste gauza asko ere esan zizkion nere osabari. Besteak beste, gerra azkar bukatuko zala, Franco fiatzekoa zalako ta burruka bere bizkar artu zuelako. Ari berean jarraituaz esan zion, 1934'gn urteko iraultza zalata, Arabako aberats batek Francogana bidali zuela —Sierra alegia— albiste onekin: matxinadaren buru egiten bazan, bear zan diru guzia izango zuela. Alare —Sierak zionez— Franco ez zan ausartu ezertara, garaipena illun ikusten zalako. Auxe zan Sierraren arrazoia: Francok matxinadaren buru izatea artu badu, garaipena garbi ikusten du. Orregatik oso baikor zegoen.

Baiño uste on orrek ez zion asko iraun Sierra Bustamanteri. Urtiagatik aldendu zan arratsalde berean baitu zuten Zumayan eta erri artako Udaletxean sartu.

Nere osabak laixter jakin zuen Sierraren baiketa. Urtiagatik atera zanezik bi egunera, Devako gizon bat —kixkillero ezizenez, bere ogibidea ori bait zuen— azaldu zan Itziaren, komandanteak bidalia, baiketaren berri ematera. Kixkillero dalako, gallego sozialista, Sierra zegoen kartzelan gauzai egona zan, nunbait. Eta presoak eskatu zion albiste ura nere osabari ematea, baita kiskilleroak itza bete ere.

Nere osabak beti izan zuen zalantza bat, albiste ura ez ote zan, erne egoiteko oar bat. Elkarrekin ikusi zituenen batek susmo txarren bat izan zezaken. Baiño irudipen utsa zan. Egia auxe zan eta nere osabak jakin zuen, komandantea il zala. D. Jose Maria Alcibar andik egun gutxitara il zuten. D. Jose Mariak Errepublikaren aurka sermoian zerbait esan omen zuelako, gertatu zala ori, zion jendeak. Nere osabak gogoan zuen illetak Motricon egin zitzaizkiola Abuztuaren 12'an. Sierra Bustamantekin zituen artuemanak bai ote zuten zerikusirik bere eriotzarekin?

Egun aietan jende asko ikusten zan Itziar inguruko mendietan, gerraren igesi zebiltzan gazteak ziran. Salegi-ostatuan ere maiz azaltzen ziran errietatik igeska, bakardade paketsu artan babesbilla zebiltzan bezeroak. Oietako bat, Eibarko sendagille D. Heraclio Etxeberria, bere erriaren beldur zana ta Azpeitia ta Azcoitiako gazte batzuk: otordutan azaltzen ziran eta gauez ezkutatu.

Larritasun-giro au larriago egin zan Uztaillaren 25'an: goizeko bostetan gudari-talde bat aurkeztu zan Ostatuan. Batzuk etxea inguratu zuten bitartean, buru egiten zuena —etxe-nagusiarekin izketa'di bat egin ondoren— bezeroen gelak miatzen asi zan.

Nere osaba bere gelatik jabetzen zala, gelaz-gela zebillen gudaria. Sierra Bustamanteren albiste a etorri zitzaion burura. ¿Nere billa ote? Atea jo zuten. Buruzagiak agiriak eskatu zizkion. Bai ondo begiratu ere.

—¿Zer politika dezu zuk? galdetu zion nere osabari.

Nere osabak, itzak ondo neurtuaz, zearka erantzun zion:

—Zergatik apaiz egin nintzen, galdetzen badidazu, baliteke nik arrazoi batzuk ematea: baiño nere politikataz galdetzen badezu, gai ori ez dedala ikasi, esan bearko dizut eta ez dedala ezagutzen: eta ez det uste zozo baten erantzuna naiko dezunik.

Gudariak onartu zituen, itxuraz, nere osabaren itzak eta leen baiño leunago esan zion:

—Danak zu bezelakoak izan balira, gerra au ez zan asiko. Ni sozialista naiz. Nerekin dabilzanak, ori diote beintzat.

Une artan berealdiko iskanbilla sortu zan atarian eta gudaria adi-adi jarri zan. Leiotik begiratu zuen. Eibarko sendagille Etxeberria leiotik salto egin zuen, igesegin asmotan. Baiño an zeuden gudariak arrapatu. Buruzagiak ezagutu zuen Eibarko sendagillea zana ta onela zion:

—¡Au da gauzak zaillagoak egin bearra! Orain Devara eraman bearko degu. Ez diote ezer egingo, baiño gogaiteragin bai.

Gelatik irteteen, onela zion nere osabari:

—Dioten bezela gerra au azkar bukatzen bada, zugana etorriko nintzake, zurekin itzegitera, politikaz ez baiño bai erlijioatzaz.

Eibartarren bat izango zan, Etxeberria sendagillea ezagutzen zuen ezkerero. Gizon jator bat, beste asko bezela. Aurreko egunetan an jan zuen Azpeitiako reketean nagusiaren billa zebiltzan, gero jakin genduan ez. Organistaren etxea ere miatu zuten, alperrik ordea. Eta antxe zegoen ezkutuan, baiño ezkutalekurik arkitu ez.

Gauzak zorrozten ari ziran leku aietan. Nere osaba ta Aranzadik Bilbo aldera joatea erabaki zuten. Devan eman zieten ortarako bear-bearreko zuten igaro-txartela (salbokonduktoa). Nere osabak oso-osorik idatzi zuen bere Egunerokoan txartel ori:

Guipuzcoako Frente Popularra. Devako sailla.

Jose Migel Barandiaranentzat igaro-txartela, Bilborá joateko, geldi-aldi bat egiañaz, jarraitu ta Museoan utzi ditzan azterketetan arkitutako arkeoloji-gauzak.

Serbitzuko Ordezkarria, E. Antú.
Deva 1936'gn Uztaillak 26.

Sillu bat ere bada; ola dio: Devako erri Jator eta Zintzoko Udala.
Ta beste bat: Sozialista-taldea, Deva (Guipuzcoa) (3).

Egun bereko arratsaldean iritxi ziran Bilbora. Ekiñaldi artan bildutako arkeoloji-gauzak zeramazkiten Bilboko Museoa gordetzeko, ez bait zegoen Donostira joaterik. Achuriko estaziora iritxi ziranean, iru gudari, agiri eske ta maletak miatzen bidari guziei. Aranzadiren esku-saskia nere osabak zera-makian.

—¿Zer daramazu or? —galdetu zion nere osabari gudari batek.

—Kaska-ezur bat, —nere osabak erantzun. Gudariak ikaratuta begiratu zion eta bere lagunengana aurpegia itzuli.

—¡Iriki ba! —Agindu zion, beldurra zeriola.

Baiño Aranzadik zeukan giltza ta aruntzago arkitzen zan. Esku-saskia iriki bitartean, iru gudariak inguruan larri. Nere osabak iriki zuenean, kaska-ezurra ikusi orduko, gudariak agindu zion, ezin egonik:

—¡Itxi!

"La Estrella" Ostatuan sartu ziran. An jakin zuen Aranzadik, Barcelonako bonbardeo batean, bere etxea zegoen eta familia bizi zan kale berean bonba batzuk erori zirala. Berri onek zirrara latza egin zion eta Barcelonara joateko prestaketak egiten asi zan. Bai lortu ere. Antxe, Bilbon, banakatu ziran betiko bi adiskide, bi jakintsu ta amets batek uztartutako bi bizitzak: eusko-antziñatea aztertzeke ametsak uztartuak, noski.

Zerbait leenago, elkarrekin ziran Itziarke leizean Aranzadi, Barandiaran eta Eguren. Ogei urtez leenago, Ataunen prehistoria-lanetan aritutakoak —Jauna ala naita— 1936 urteko udaran bildu ziran berriz ere. Orduan bukatu zan otsaundiko irukote —Aranzadi, Barandiaran, Eguren— orren historia luzea, jakintza-fruitu ugariak eman ondoren.

Gerrak ondatu zituen aztertzaile auen pakea ta leize maiteen ixiltasuna. Bilbotik nere osaba ta Jesus Aldanondo (apaizgaia) Lekeitiora joan ziran. An, beste Urte askotan, Lumentxako billaketan aritzen ziran bezela, Beitia Hotelean gelditu ziran ostatuz. An igarotako egun bakar aietan, inguruko leizetan barrena zebillela, esangarri zerbait gertatu zitzaion nere osabari.

Egun batez, Aldanondo ta biok joan dira Guizaburuagako leizeari neurriak artzera. Etxerakoan nere osabari gogoratu zaio, inguru aietan beste leize bat bazala. Baita arkitu ere. Sakeletan azaldu ziran argizari-mutur batzuk besterik ez zeukaten argi egiteko. Aldanondo leize-erdialdean gel-

ditu ta nere osaba leize-barrura, planoak ateratzera. Lan bete-betea ari zala, zulo artean galdu. Argizariak ez zion asko iraungo. Nora ezean arkitu zan. Bai bera ta bai laguna laixter illunpetan zirala pentsatzeak, ematen zion kezkarik geiena.

Egoera larri artan, adorea galdu gabe, arkaitz gaiñean exeri ta pentsatzen asi zan. Gero zutitu, beatzak aoan sartu ta, artzaiak bezela, txixtua jotzeari ekin zion, indar guziekin. Baiño erantzunik ez. Bein da berriz txixtua jo arren, alperrik. Alako batean urrutiko oiartzun bat. Poliki-poliki, bide naasi aietan barrena, oiartzunaren billa. Lagunarekin topo egitean bukatu zan nere osabaren argizaria. Bear ainbat iraun zuen. Uraxe izan zan nere osaba leize batean leenengo aldiz galtzea. Izualdia ez zan txantxetako.

Uztaillak 31. Loyolako San Inazioaren jai-eguna, Guipuzcoako Zaindaria: nere osabak alako oar illun batzuk idazten ditu, egun aietako gerta-kizunak diralata:

Gaur Saturraranen izan naiz. Beasain, Ordizia, Tolosa, Errenteri ta Oyarzunen burruka gogorak ari dirala, esan didate. Saturrarango ondartzan ia iñor ez. Itxaso ta udara-zaleak beren etxeetan gerragatik. ¡Au da ixiltasuna! Lekeitiora itzultzerakoan, Aldanondo ta biok bidari bakarrak autobusean. Ondarrutik Bilbora iñor ez. Udarako jai batean ez det sekula olako ixiltasunik nabaitu (4).

Aldanondokin batera, arkeoloji-lanetan jarraitzen du nere osabak Abuztuan: denbora gutxian bigarren aldiz leize zulora. Berriatuan leize bat bazala, esan zioten Guizaburuagan. Eta aruntz abiatu ziran. Ayerdi baserrian galdetu zuten, nun ote zan leize ori: iñork ez zekien ezer. Inguruko beste bat ikustea pentsatu zuten orduan: Goiko-lau leizea.

Leenago beste garai batean nere osabari lagundu zion langille baten etxean bazkaldu zuten: Elexpuru-erdiko Jose Malax-Etxeberria zan langillea. Onek eta bere anaiak lagundu zioten nere osabari leizera.

Nere osaba, sotana kendu ta lan-soiñekoa jazten ari zala, leize-zulotik ots bat atera zan. Langilleak arriturik, nere osaba aiei begira. Baserritarren itzak:

—Gaytan de Ayala egongo da or ezkutatuta.

Gerra zalata sortu zan alako egoera larri bat: batzuk al zan bezela beren buruak ezkutatzera iñor ta besteak zulo guziak igeslariz beteta ikustera iñor. Ain zuzen, Markinatar Gaytan de Ayala, Vizcayako Diputadu Probintziala, inguru aietan omen zebillelako otsa zabaldu zan. Eta Malax-Etxeberria anaiei uraxe etorri zitzaian burura.

Nere osaba sartu zan metro batzuk leize-barrura ta ango illunai itzegin zien, jende paketsua zirala ta ez zeukatela asmo txarrik, esanaz: ori euskeraz eta erderaz. Erantzuna, ixiltasun osoa.

Bere karbuero-krisaillua eskutan, asi da nere osaba sartzen. Berriz ere ots bat entzun zan eta nere osaba geldi. Bigarren aldiz lengo mezua: ¡jende paketsua gerala! Alako batean, krisailluaren argira zerbait bazebillela ta azkar ezkutatu zala zulo batean, ikusi zuen.

Baserrira txakur billa joandako laguntzailleek ere etorri ziran. Txakurrek ere ez zuten personik arkitu. Zaunka ta zaunka, azkonar bat aurrean erabili zuten: gizon kezkatien irudimen gaxoak, diputadutzat artu zuten azkona-arra. Berriz ere gerra leizetako pakea ondatzen eta pizti gizarajo bati estuasun gorriak ematen.

Orduan konturatu zan nere osaba, susmo txar eta zurrumurru-giro ura bere lanerako ez zala egokia. Eta alde egitea pentsatu zuen.

Aldanondokin batera Saturrarana jo zuen: bazeuden an berrogei bat apaizgai tiki, geienak arabarrak, gerragatik beren etxeetara joaterik ez zeukatenak. Aien buruzagiak naiko larri zeuden. An nintzen ni ere, amairu urteko mutiko au, gazterik gerraren ondorio beltzak nozitzen.

Berri pozgarri gutxi zetorren: gerraren bukaera ez zan agiri, asieran bezela, egun gutxiren gorabera. Bestalde, inork ez zekien egoera benetan zein zan. Bakoitzaren iritzien arauera ematen ziran berriak.

Adi bidez, nere osabak Saturraranen bi berriemaille arkitu zituen, oso ezberdiñak: itxas-bazter ura zaintzen zeudenetako karabinero bat, San Pedro, eta Madrid-eko udara-zale bat, Blanch jauna, bestea: leenengoa gobernoaren aldekoa, Franco-zalea bestea. Iraillaren 6'an au idatzi zuen nere osabak:

San Pedro karabineroak diona: "Militarrek ez dezakete gerra irabazi. Gobiernoak arma ta gizon asko dauzka. Gobiernotarrek lenengo atzeraka egiten dute, gero etsaia erdian artzeko".

Blanch-ek ziona: "Au ondo dijoa. Militarrek egun gutxi barru garaille dira. Irun artu dute. Nazioarteko zubien bikoloredun ikurriña jarri dute. Interes-burruka da gerra au, eta interes oiengatik, militarrek nagusi geldituko dira: Gobiernoak irabaziko balu, interes oiek betiko galduak bait zitezken" (5).

Saturraranen ere nere osabak ez zeukan geldi egoteko asmorik. Jentiletaketako leizea miatzen ibili zan aste batzuetan, iru apaizgaiekin. Lan ortan ari zirala, kañoi-otsa entzuten zan: Donosti-aldetik zetorren. Baiño gertuago ere iritxi zan gerra: Motricoko Frente Popularetik dei bat telefonoz: Jentil-etxeta leize inguruan ez geiago azaltzeko, aginduaz.

Berriak, beti bezela, ezberdiñak eta kolore guzietakoak zetozen. Nere osabak inoiz entzun oi zituen Gazteiz-irratia ta Castilla-irratia. Lenengo irratia orren bidez jakin zuen, D. Mateo Mugica Gotzaiak Pastoral bat idatzi zuela, eusko-katoliko guziak Francoren esanetara deituaz. Egun batzuk geroago, Castilla-irratia emandako, bere adixkide D. Luis Miner kalonjearen itzaldia, eta Arabako irratia emanda, Arabatar apaiz batzuen itzaldiak entzun zituen. Bitartean nere osabak —San Lukasek Ama Birjiñari buruz idatzi zuena— "gauza auek guziak bere biotzean jasotzen zituen" eta ondo ausnartu ere bai.

Baiño Saturraranen buruauste bat zegoen: apaizgaiak etxeratzea. Zerbait egin bearra zegoen: Loyola utzi zuten gudariak Seminarioa gudarien kuartel egin bait zuten. Ortaz gaiñera, Francoren tropak aurrera zetozen bezela, jende asko igesi zijoan. Iraillaren 16'an au idatzi zuen nere osabak:

Saturraranen gerra-gizon eta pake-jende, guzietatik gaude: apaizak, apaizgaiak, gudariak, mikeleteak, erromes bat, gertuan karabineroak ta meteorolijilariak (6).

Orduan asi zan nere osaba, Arabako apaizgaien irteera antolatzen. Lenengo Gerrako Ordezkarri Manuel Irujo jaunarekin eta donostiar Abogadu ta Korteetako Diputadu, Joseba Rezolakin itz egin zuen. Leenengoak uste zuen, apaizgaiak Lenizko Gatzagan trintxerak pasatzea zala egokiena, bigarrenak berriz Mondragoi aldetik. Eta Mondragoitik egin ere.

D. Roberto Agirre ta D. Puis Pinedo buruzagien babesean (oraindak begien aurrean ditut: baserritar tankeran leenengoa, pajarita ta guzti bigarrena), Iraillaren 21'an atera giñen, autobus batean, Santa Agueda aldera: nere osabak eta Santa Agedako kapellau D. Pedro Gotik (gaur Bilboko erreto) eratu zuten gure egoera: kapellau-etxean pasa genuen aste bat —erdi ezkutuan— Mondragoira noiz pasako zai.

Ez zait beiñere aaztuko ibilaldi ura eurlitan, beldurrez, Mondragoi aldera, udaizkeneko arratsalde ilun batean. Eta gero... Gazteizko nere etxean sartutakoan nabaitu nuen poza.

Nere poza, edozein mutikorentzat bidezkoa izango zan, baiño neretzat bereziki. Saturraranen San Pedro karabineroari entzun nion, Gazteiz bonbaz txikituta zegoela ta ondartzat bat zirudiela. Konparaketa orrek zirrara latza egin zidan eta illabete aietan ez zitzaidan aaztu. Gazteizen sartzean, eta kaleak beti bezela ikusirik eta autobusak nere kale ta etxe aldera jo zuenean, nere biotza saltoka asi zitzaidan eta etxera sartzean, nere gorputz osoa ere bai: ainbestekoa zan zirrara ura. Une ura nere bizitzako une zorionsuetan zorionsuenetakoa izan zan.

Baiño eldu deiogun lengo ariari ta nere osabak Saturraranen pasa zituen azken orduak esan ditzagun. Iraillaren 20'an —egoera estutzen zijoala ikusirik— Motricon kai-ordezkarikin itz egin zuen, Franciarako irteera lortu naiean. Beti asmo batekin: Franciatik Gazteizera irixtea, alegia. Nere osaba, 18 personentzako baimena sakelan zuela, itzuli zan Saturrarana.

Bi irteera-egun iendatzen zituen baimenak. Lenengoa gau artan bertan izango zan, iru personentzat (Escarzaga Erretorea, Irigoyen Mayordomoa ta nere osaba). Beste amabostak andik bi egunera. Bigarren talde au, Francisco, Felipe, Felix ta Jose Migel Auzmendik (nere lengusuak laurak), D. Segundo Berrondo ta bere seme apaizgaia, Ataungo Aita Bonifazio: Esnal anaiak, Beraza, Altuna ta Alkain apaizgaiak, Arandia (Andoaingo koadjutorearen anaia) ta Bartolome Auzmendik osotzen zuten.

Lenengo taldearen itxasbidea onela jaso zuen nere osabak Egunerokoan, zan bezelakoa, ikaraz inguratua:

Iru izendatuok gaueko bederatzietan Motricoko kaira goaz. Konsigna "Itziar" da. (Motricoko apaizgai) Arruti, (Zumayako kai-ordezkar) Abaitua, alkate Andonegi jauna ta nere illoba Felipe Auzmendi etorri zaizkigu agur egitera. Kaien jende asko ta organizazio gutxi. Kaitik kanpo dauden ontzietara —urbera bait zan— txalupa batek darama jendea, al duen bezela. Noizbaitean sartu gera "El ángel de la guarda" ontzian. 45 ekoren bat izango gera. Gurekin batera lau edo bost mendigoizale, bere fusilekin, zer gerta ere.

Amaiak bost gutxitan atera gera erbestera. Izarrak beren lekuetan ixilik. Motricoko argitxoak urrutiratzen ari zaizkigu. Gero Ondarroa, Deva, itziar, Lekeitio, Zumaya ta Getariako argiak berdiñ. Itxas-zabalera goaz; gero eskubira joko degu, Donibane Loitzun aldera. Argi gabe, ikusi ez gaitzaten. Irigoyenek txiskero bat pizten du, zigarroari su emateko: alde guzietatik eraso diote.

Goizeko bostetan sartu gera Sokoan. Ibili illuna auxe: gurekin batera Motricoko gazte asko dator: gerraren igesi, zer egin, nora jo ez daki-tela, Donibanera irixitakoan. Nere aldamenen andre bat: negar-saio garrazak egiten ditu. Bakoitza bere egoerari aieneka (7).

Sokoan ordubeteko itxoinbearra, gero Donibanera joateko. Kai onetan xandarmak bidari guztiak zenbatzen dituzte, lurreratu baiño len. Lurrean miaketak, pardelak ikusi ta Udaletxera: an agiriak eta zeaztasun guziak eskatu ta txertatu. Ondorenean, kamioi batzutan erriko pelota-lekura: an, nora doazen eta nola biziko diran, galdetzen diete. Era ortan bukatu dira irixpideak. Orain dator zaillena: nun bizi ta etorkizunari aurpegi nola eman.

Banko batean peztak franko biurtu (100 pezta: 115 franko) ta iru apai-zok Hotel Euskaldunara bazkaltzera. Andik aurrera erriz-erri Francian ba-

rrena. D. Eduardo Escarzaga ta D. Antonio Irigoyen Ascainera ta nere osaba Anglet-era, bere arreba monja ikustera.

Olaxe asi zan nere osabaren erbeste-aldia, beste askorenaren antzekoa: beretzat sekula pentsatu ez zuena, iñork iñorentzat pentsatu bear ez lukena. Auxe da ba gerra; gorroto, mendeku, erbeste ta guzti. Egia zion Kant-ek: "Gerra txarra da, il baiño gizon geiago gaiztotzen dituelako.

OARRAK

- (1) Julio Caro Baroja-ren, op. cit., *Los Baroja*, 238'gn orri.
- (2) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1928.
- (3) *Egunerokoa*, 1936.
- (4) *Egunerokoa*, id.
- (5) *Egunerokoa*, id.
- (6) *Egunerokoa*, id.
- (7) *Egunerokoa*, id.

XV

Erbesteko ogi garratza

Erbesteko ogia garratza dala ulertzen oraintxe asi naiz. Erbestean eta karidadetik bizi naiz: inon ere ez dutela nere bearrik, deritzait.

J. M. B.

Beti pentsatu zuen nere osabak, Francian barrena Gazteizera irixtea. Gazteizko Seminarioko Erretore Escarzaga jaunak asmo berdiña zerabilkian.

Francian sartu ziranetik iru egunera, nere osaba Ascainera joan zan : an, Pasiotarren konbentuan, zeuden Gazteizko Erretorea ta Saturrarango Mayordomoa. Ikustaldi onen berri nere osabak eman zigun bere Egunerokoan, Iraillaren 24'an :

Askainera noa, Pasiotarren konbentuan daude nere lagun Escarzaga ta Irigoyen jaunak. Baita ere Motricutar diakono Andonegi, Ariztimuño (Nemesio), Usobiaga (Apaizgaia), Arostegi (Apaizgaia) etab... Gazteizerako pasaportearen lortzen duen bezin laixter, Seminarioko Erretoreak albistea eman-go dit (1).

Zoritxarrez pasaportearen bidean gelditu zan eta aberrira itzultzea 17 urte luzatu. Bide luzea D. Jose Migel Barandiaranentzat : 17 urte erbestean. Bide luze ta latza : familikoak urruti, lanak erdi egiñak, etorkizun beltza, diruak urri, izen ona galtzea, gorputz-animentzat bide ezoituak.

Eta dana gauetik goizera .Atzo Itziarko Urriagan leizea miatzen, lantegi,

persona ta leku ezagunen artean. Gaur, gerra dalata, erbestean, lantegi ta lagunengandik urruti.

Iraillaren 30'an garbi ta labur adierazten ditu bere sentipenak:

Erbestean, gure errialde ta, 22 urte auetan izan ditudan eginkizunetatik aldenduta (2).

46 urtekin berriz ere bizierari asiera eman bear. Alare, gauza asko aaztu eziñik, nere osabak tajutu zuen bere bizitza, lengo oiñarri beren gainean: jakintza-billaketa ta apaiz-birtuteen, oiñarrien gainean.

Leenengo bearra, jatena ta etzatena lortu. Illak 25, au idatzi zuen Egunerokoan:

Arratsaldean, nere iloba Francisco ta biok Urt-eko Belloc-era AA. Benitorarren Konbentura goaz. Ostua eskatzen diegu ta gure errira itzultzen geranean, ordainduko diegula, agindu. Oso goxo artu gaituzte ta asi gera praille-bizitza egiten (3).

Belloc-eko txoko maitagarri artan pasatzen ditu nere osabak bere egunak salmo-kantak eta liburuen artean. Ona emen nere osabaren eguneroko egitaraua.

Iraillak 29. Vinson-en *Notice bibliographique sur le folklore basque* liburutik zeaztasun batzuk jasotzen ari naiz. Arratsaldean frantsesa ikasten det: irakurri ta itz egin: aspaldi ontan oso utzita neukalako, oso nagi arkitzen bait naiz.

Belloc-Monastegiko bizitza: 6'tan jeiki; 6 3/4'tan gogartea; 7 1/2'tan Meza; 8 1/4'tan oiak antolatu; 8 1/2'tan gosaldu (esnea ta ogia); 9-12 Liburutegian ikasi, irakurri; 12'tan berriketa, pauso batzuk beste errefujiatuekin, periodikoak irakurri; 1'ten bazkaldu (barazki-salda, arrautzak, aragi errea, eltzekoa, frutak, ardoa ta ogia); 1 3/4'tan elizatxoan ikustaldia ta gero jolas-aldi bat; 3'tan frantsesa ikasi; 5'tan ibilketa, Aita Benito Begiristainekin frantses-izketa; 7'tan Errosarioa; 7 1/2'tan afaldu (belar-salda, arrautzak eta mermelada); 8'tan jolas-aldia ta ikustaldia; 9'tan lotara (4).

Egun aietan, Belloc-en arkitzen zala, historilari Pierre Dop jaunaren dei bat artu zuen, Sarako mendietan billaketak asteko.

D. Pedro Garmendiaren bitartez artu zuen deia: ona emen erantzuna: garbi ageri da or bere politikarik eza, eta apaiz ordenatu aurretik artutako erabakiari leialtasuna:

Adixkide agurgarria: Zure esanetara naukazu. Dop jaunak, egokien datorkion eguna izendatu dezake, ni lanik gabe bait nago, Iraillaren 21'an Donibanen sartu nintzenetik.

Ementxe naukazu Monastegi atsegin onetan. ¿Noiz arte? Ez dakit. Gazteizera joaterik, ez eta pentsatu ere orain-orain bezela. Ortaz gainera, Seminarioan ez nitekela sartu, esan didate. Ezin det sinistu: ez bait naiz politikan sartu sekula, ori zer zanik ere ez nekien da: nik egin dedana auxe izan da: beste errietako lagunekin batera, lenengo gizonaren historia, soziolojia ta errien sikolojia ikasten saiatu: ortarako, lan-toki bezela, jaiio nintzen eta bizi naizen errialdea aukeratu det eta lan orri eman dizkiot nere kemenak eta nere txanponak... (5).

Nere osabak onartu zuen Dop sendiaren deia —emaztea Maria Teresa Lardizabal, Guipuzcoako Segurakoa, Lerenboure sendagillearen koñata— eta etxe artan gelditu ostatuz. Adixkide atsegin oiekin biziiaz, inguruko mendi ta errietan billaketa batzuk egin zituen nere osabak. Dop jaunak Akoka muiñoan arkitutako tregu arri batzuk baieztu ta berriren bat arkitu zuen. Biriatou inguruko mendi batzuk eta Askaingo txokoren bat ere miatu zituen.

Bitartean burrukak sutan jarraitzen zuen Españan. Rusiak gerra-ontzi batzuk bidaliko omen zituela Bilbora ta armak Madri-era, zioten. Beste aldetik, Musolini'k len alako bi gerra-gai emango omen zizkiola Francori. Zurrumurruak.

Gerra beraren arian baiño beste sail batean, Euskalerritik zetozen berri jakingarrienak eta bi izen oso ezagunak: D. Mateo Gotzaia ta Escarzaga Erretorea.

Escarzaga jaunak Gazteizko Gotzaiaren agindu bat artu zuen: Gazteizera itzultzeko. Gizon orri buruz Franciara zetozen berriak ain pozgarriak ez ziralata, D. Mateoren egiazko asmoa zein zan jakin nai zuen. Ortarako, garai artan Irungo koadjutore zan D. Leonardo Urteagari eskatu zion, Erretore jaunaren izenean itz egin zezala Gotzaiarekin eta aien kezkek azaldu. Nere osabak Gotzaiaren erantzuna labur adierazten du:

Urrillak 14. Agindua bete ondoren, Urteaga jaunak telegrama bat bidali zion Hendayatik Erretore jaunari, Gazteizera ez joateko, ziona (6).

Ain zuzen, biaramonean jakin zuen nere osabak, Gotzaia bera, Mugica jauna, Donibanen barrena igaro zala, Erromarako bidean: itxuraz, Misionolojiako Batzar batera, baiño urte askotan ez zan Españara itzuliko ta etorri zanean, ez zan iñungo Gotzai.

Bere erbeste-urteak Erroman, Belgican eta Francian pasako zituen. Geienak Ipar-Euskalerrian, Uztaritzen lenengo ta gero, azken arte, Canbon, bere abizen bereko jaun baten etxean: emaztea Rusiakoa zuen.

Bitartean, Gazteizko Elizbarrutiaren buru Perez de Ormazabal (D. Antonio Maria) Bikario Jenerala ta ango Katedraleko kalonjea, zan: D. Mateo berak izendatu zuen, irten baiño len, D. Jaime Berastegiren orde.



*Dr. Ezkarzaga,
Gazteizko Seminarioko
Erretore izana.*



Dr. Mateo Mugica jauna, Gazteizko Gotzai izana.

Sara inguruko jakintza-ibilalditxo aren ondoren, nere osaba berriz ere Belloc-eko pake goxora; Benitotarren ostatu bero artan bizi dira iges egindako beste apaiz batzuk ere: Aranguren, Beobide, Ostolaza ta apaizgai bat, Alkain, gazterik eta ezbearrez, 1938 urteko udaran, Parisko Seminarioaren urtegian itoko zana.

Baiño Belloc-eko egonaldi au bukatu bearrean gertatu zan nere osaba. Gazteizko Gotzaiak, Franciara igesi joandako euskal-apaizgaien arduradun izendatu zuen.

Beraz, Bayonako Seminarioaren Erretoreakin izketatu ondoren, nere osaba Seminario artara dijoa bizitzera, eta apaizgai-taldetxoa zaintzera: auek ziran apaizgaiak: Usobiaga (Motrico), Mitxelena (Irun), Otaitz (Irun), Estala (Lazcano), Alkain (Donostia) ta Isasti (Getaria).

Auxe azpimarratu nai nuke: nere osabak Bayona-Seminarioko eginkizuna, elizbarrutiak ofizialki emanik artu zuela. Orixe egiztatzen dute, Urri-llaren 21'an, Bayonako Seminarioan sartu zanekoa aipatzean, idatzitako itz auek:

Gue Seminarioon zuzendari dan Eskarzaga jaunek —Gazteizko oar-pidez— idatzi zeak esanez Seminarioa gaixo-etxe biurtu doela eta aurten ez daola an guretzat zeregiñik; baiño bere bidera itzultzen doenean, adierazingo dieela ara juun nadin berriro nee lanera; bitartean juun nadilla, oain beintzet, Bayona'ko seminariora, an Gasteiz'ko elizbarrutik gudaren bildurrez igeska juun dien apazgaiak launtzera. Gasteiz'ti eldu baitzaieak oarpide au, ezin neikek oaingoiz itzuli Gasteiz'a (7).

Au zalata, Franciako egonaldiaren lenengo urteetan dei batzuei ezetz esan bearrean arkitu zan: adi bidez, Manilako ta Columbiako (Nueva York) universidadeak, bere-bereak zituen gai batzuk erakusteko egin zioten deiari, alegia.

Bayonako Seminarioan pasatako egunei buruz, ikastetxe artako buruzagiek egin zioten arrera zoragarriarentzat oroitz atsegin eta esker ona besterik ez dauka nere osabak. Apaizgaiekin batera, Seminarioan bizi dira Gazteiz Elizbarrutiko apaiz batzuk. Ori dalata, Ipar-Euskalerriko kale ta plazatan euskaldunak ugari ikusten dirala esatean, zerrenda luze bat idazten du azaroaren 3'an: Franciara igesi joan diran apaizen zerrenda: urteak pasatakoan, ja-kingarri gerta diteke:

Ezagutzen ditudan apaiz errefujiatuak auek dira: Escarzaga (Eduardo), Larrañaga (Policarpo), Ariztimuño (Nemesio), Aranguren (Juan), Andonagi (Andoni), Aurquia (Bernardo), Leaburukoa; Barandiaran (J. M.) Gazteizkoa; Beobide, Irungoa; Etxeberria (Juan) Bilbokoa; Irigoyen

(Antonio) Saturrarangoa; Iruretagoyena, Zarauzkoa; Laborda (Ramon) Donostikoa; Larrea, Getarikoa; Mendiola (Manuel), Donostikoa; Mitxelena (Alberto), Irungoa; Montoya (Pio), Alegikoa; Ostolaza, Ondarrabikoa; Rezola (Secundino), Alzokoa; Rodriguez (Jose Luis), Bilbokoa; Salazar (Francisco), Gazteizkoa; Sese (Juan), Tolosakoa; Uriarte (Eustakio), Ondorroakoa; Urresti (Joseba), Amalozakoa; Zaragueta (Juan), Madrid-ekoa; Zatarain (Felix), Usurbilgoa; Zenarruzabeitia (Ramon ta Bruno), Ondarroakoa; Aramburu (Gelasio), Pasaikoa; Olaizola, Errenderikoa; Jauregi (Migel), Donostikoa (8).

Aietako bakarren bat politikan sartuko zala, balitzeke, baiña nik ez dakit. Baiño egun beretan eta beste alderdian, pulpitotan, prensan eta irratan politika egiten zuten apaizak bazirala, nork ukatu: baiño beste kolorekoak izan.

Esan dedanaren alde, badet zerbait nere paper zaarren artean (txikitandik artxiberoa izan ni). 1937 urtearen Abenduak 6, Vergarako Seminarioa iriki zanean, antxe nintzen nere 15 urtekin, beste apaizgaien artean. Inauguratzeko batzarreko esanak eta esaerak (itzaldia jasota daukat) bazuten politika-usaitik naikoa.

Eta apaizgai-talde batzuk jaietan eta irteera batzutan —buruzagien onenarekin— sotanaren apaingarri bezela, jazten zituzten txapel gorri aieki aipatu gabe. Baitaere jasota daukat "Seminario" bilduma osoa: Gazteizko Seminarioak gerra-garaian argitaratzen zuen lau orriko aldizkari apala: frentetan zebiltzan apaizgaiekin artuemanak eukitzea zuen bere elburua: alderdi batentzat txalorik beroenak, bestearentzat gaitzespena.

Gauza bat esan nai det: eusko-elizgizon-talde bati erantsi zaion politika-salaketa, beste alderdikoei ere —kolore berdiñekoak ez izan arren— erantsi lezaikela, 1936'ko gerra-garaian. Eta ez naiz asko arritzen. Alamo-dukko politika-giro batean, gizona oso errex berotzen da alde batera edo bestera.

Leenago apaiz integristari buruz esandakoak, edozein garaiko apaiz politikoaentzat ondo datoz; gaur ere bai, atzerakoi ta aurrerakoi omen dirako oientzat.

Noiznaiko apaizak ikusten du arazoaren muiñean apaizgoa ta politika ez datozela bat: orduan, ona irtenbidea: gure politika Jaungoikoaren eta Elizaren interesekin lotu, gure alderdia susmo txar guzietatik garbitzeko ta besteak gaitzesteko.

Gaitz au ez da apaizena bakarrik, katolikoena ere bada ta ez gaur goizekoa. 1882'gn urtean XIII'gn Leon Aita Santuak, Espainako katolikoai idartzitako "Cum multa" eskutitzean ala zion:

Erljioa alderdi politiko batekin naastu edo berdintzen dutenen iritzi okerra bazartu bearra dago: beste alderdikoak ez dirala katolikoak pentsatzen bait dute (9).

Gaur egunean gai ontan Elizak duen iritzia argi ta garbi dago. 1971 urteko Sinodoan, apaizak politikan nola jokatu, zerbait esan zan: itz oiek jaso ta bere egin ditu Espainako Gotzai Batzarren, 1973 urteko *La Iglesia y la comunidad política* Agiriak. Eta 1971 urteko Gotzai-apaizen Billera bateratuaren Agirian au irakurtzen da:

Politika, sozial edo ekonomi jokaera ezberdiñak onartzen dituen egoera batean, apaizak —erri-gizon danez— bere gogoko bideak artu ditzake. Alare eskubide orrek baditu neurri batzuk: pastoral-giroa bat: aren iritzia ez bedi azaldu, kristau batentzat iritzi bakarra balitz bezela, edo eliztarren artean bear ez diran zatiketak sortzeko eran (10).

Erbestean dagoenarentzat ere egia da, ezbearrak ez dirala bakarka etortzen: beretarrek zapuztu eta besteek nekez artu, etsai bezela ez bada. Olako zerbait gertatu zitzaion nere osabari Anglet-en. Ango ikastetxe ospetsu artan



Paris-en 1936'gn urtean.

bizi zan aspalditik bere arreba Sor Micaela. Bere anaia konbentuan bizitza nai zuen gajoak, monjei meza bat geiago emanaz.

Abenduaren 6'an au idatzi zuen nere osabak bere Egunerokoan :

Nere arreba Micaela etorri zait eta Ama Jeneralakin itz egin duela, esan dit, ni konbentuan bizitza nai lukela, adieraziaz. Ori dala ta monjek kapituloa egin eta ni ez artzea, erabaki dute: denbora asko egon bear dedan ezker, beste kapellanak ez dituzte beartu nai, nerekin bizitzera: naiago lukete neri dirua eman, etxe batean bizi nadin. Orrela antz eman diot, kapellauek ez nautela gogoko. Orain jabetzen naiz, erbesteko ogia garratza dala. ¡Eta ni baiño okerrago, zenbat! Erbestean eta limosnatik bizi naiz: bazter guzitan gogaitgarri naizela, esaten dit orrek (11).

Escarzaga jaunak ere ez zuen erlijiosoen etxeetan sartzetik izan; Jesuiten etxeetan, esan nai det :

Azaroak 7. Gazteizko Seminarioko Erretore izana, D. Eduardo Escarzaga, gaur Donibane Loizunen izan da: Marneff-era (Belgica) Jesuiten etxean ar zezaten egindako eskea ez dutela onartu, esan diote an: beren etxeetan errefujaturik ez artzea, erabaki dutela. Baiño Gazteizko Seminarioko atea jesuitei ez zitzaizkien itxi, 1931 urtean, ordena ori Españan urratu zutenean. Aita Ereño antxe bizi izan zan illabete askotan (12).

Azaroaren 25'an nere osaba Paris-a dijoa. Urriburu artako museo nagusietan ikastea ta Henri Breuil Irakasleak zuzenduko zuen Prehistoria-ikasaldi batean parte artzea, zuen elburu nagusi. Baita ere egia da, aldizkari bat argitaratzeko asmotan zebillen eusko-idazlari-talde batek, ara joateko eskatu ziola. Bere pentsakeran sendo ta alderdi politikoetan parte ez artzeko erabakian zintzo, onela mintzatzen da nere osaba :

Azaroak 30. *Euzko-Deya* artu det. Emendik politika-ekiñaldiak asi dituen aldizkari ori ez zait gustatzen. Bere zuzendariek laguntza eskatu didate. Baiño nere eginkizuna ez da ori. Beraz ez diet laguntzarik agintzen. Erljioa aldezea ta zabaltzea da nere eginkizun bakarra. Museotako ta College de France-ko lanak bukatu orduko, banoa. Gaiñera Paris-a ortara etorri nintzen, bereziki: museotan ikastera, Biblioteca Nacional-en, College de France-n et Institut de Paleontologie Humaine-n lan egitera (13).

Biaramonen, aldizkariari buruz, au dio :

Iru artikulo eskatu dizkidate. Ez dakit nereak Zuzendaritzaren gogoak izango ote diran. Nik ez dakit, bada, beste lanik egiten. Nere ustez aldizkariak ezi egin bear du ta ez grñak arrotu (14).

Ain zuzen, *Institut de Paleontologie Humaine*-n ezagutu zuen nere osabak Teilhard de Chardin, jesuita jakintsua. Izadiaren Teoria Orokorrari buruz

itzaldi bat entzun zion. Ondorenean Breuil Irakasleak aurkeztu zion nere osaba.

Abenduaren 11'an Breuil jauna agurtzera joan eta onek berekin afaltzera artu zuen. Eta berriz ere Belloc-en, eta laixter erbesteko lenengo Gabonak. Beste amasei ere alaxe joango ziran, etxe-giro maitagarritik urruti :

Abenduak 24. Gabon goibela. Labastide ta bere eliza ikusi ditut. Gaztain batzuk erosi ere bai. Gauean Meza Pontifikala, Maitiñak eta Laudes ospetsuak.

Abenduak 25. Meza Pontifikala. Bezpera ospetsuak. Gero sartaldeko etxetxora goaz. Sukaldean sua piztu ta gaztañak erre. Gaztañak jaten ari geran bitartean, gerrako berriak jorratzen eta periodikuak irakurtzen, bota degu arratsaldea. D. Alfonso Carlos, Españako errege izatekoa, etxe onetan bizi izan zan urte erdi bat. Su ondoan gauden errefujatuak: Ostolaza (Jose), Aranguren (Juan), Moco-roa (Justo), Begiristain (Luis), Leizarazu (Francisco) ta ni (15).

Era ortan, erbesteko lenengo Gabon illun aien berri emanez, amaitzen du nere osabak, 1936 urteko atzerri-kondaira.

Gabon-gauez gaztañak jatekoan, bakarren bati bururatuko zitzaion *Ator*, *ator*, *mutil etxera*, euskal-oitura zaarra gogorazten digun kanta zaarra: gu-raso ta seme-alabak suaren inguruan, gaztañak jan eta kontuak esan.

Baiño oraindik badu zertxobait, urtearen azken egunean, San Silbestre egunean, esateko.

Urte-zar eguna egun señalatua da nere osabarentzat. Jaio zaneke urtemuga. Egun ortan berritzen ditu bere apaiz-asmo onenak :

Nere urte-betetzea. Gaur 47 urte. Oraindik biziko naizena, Jaungoikoaren aintzarik aundienerako bedi. Bear ez dedan atsedetik gabe, lan egin go det, nere eredu ta ideala dan Kristori begira (16).

OARRAK

- (1) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1936.
- (2) *Egunerokoa*, id.
- (3) *Egunerokoa*, id.
- (4) *Egunerokoa*, id.
- (5) *Egunerokoa*, id.
- (6) *Egunerokoa*, id.
- (7) *Egunerokoa*, id.
- (8) *Egunerokoa*, id.
- (9) *Egunerokoa*, id.
- (10) Gotzai ta apaizen Batzar bateratua. Lenengo txostena, 30'gn Erabakia, *Vida Nueva*-n (Madrid 71-IX-25), 4'gn orri.
- (11) *Egunerokoa*, id.
- (12) *Egunerokoa*, id.
- (13) *Egunerokoa*, id.
- (14) *Egunerokoa*, id.
- (15) *Egunerokoa*, id.
- (16) *Egunerokoa*, id.

XVI

Berriz etnografi-billaketak, orain Francian:
eusko-erbesteratuak eta Eliz-buruzagien jokaera

*Elizgizonen egiazko edo alausteko
pekatuak diralata, asko saiestu dira.
Alare, ondo pentsatu ezkerro, bai so-
zial, bai espiritu-bizitzan, pekatuan
jaiotako gizonaren kutsadura ezin-
bestekoa da.*

J. M. B.

Nere osabak Francian bizi zan artean, geien zor zien personetako bat, D. Manuel Intxausti zan: Filipindarra, abogadua, Euskalerriko odolekua bera.

Onek eraginda, ekin zien billaketa-lanei Francian. Egia, *Comisión Internacional de Artes y Tradiciones Populares* deituakin itzeman zegoen, Ipar-Euskadin etnografi-lan batzuk egiteko, baiño ortarako bear zan diru-laguntzarik ez zan oraindik.

D. Manuelek berotu zuen lan orri bereala ekin zezaion, bear ziran laguntzak eskeñiaz.

Gero, lendik eskeñitako beste laguntzak etorri ziranean ere, Intxausti jaunarenak ez ziran agortu. Nere osabak asko aipatzen ditu bere Egunerokoan bai aren persona, baita aren esku zabala ere. Europako bigarren gerran, Nueva York-en bizi ondoren, Ustaritzen il zan.

Lenengo Etnografi-billaketak Doneztebiri errian asi zituen. Andik asi ta inguruko mendietan egin zituen bere azterketak, lurralde artako prehisto-

ri- miaketekin batera: gero Heleta ta Uhart-Mixe errietan jarraitzeko. Lan ortan pasa zuen 1937 urtearen lenengo erdia.

Nere osaba billaketa-lanetan zebillen bitartean, Españaiko gerrak sekula baiño gogorrago jarraitzen zuen, ez armetan bakarrik, aldizkari, periodiku, liburu etabarretan ere bai. Batzuk alderdi baten alde, besteak bestearen alde.

Gerrari buruzko idea-burruka bero oien artean, erlijio-ikuspegi batekin begiratuta, jakingarria da, Españaiko Jerarkiak 1936 urtearen bukaeran eta 1937 urtean zear argitaratutako Agiriak, Euskalerrian izan zuten erantzuna: eusko-sail batzuetan, noski.

Bat, 1937 urteko *Carta Colectiva del Episcopado Español*: idatzi ortan Españaiko jerarki geiena, Francoren alde garbi jartzen da: Leenago baziran beste bi agiri, Goma Kardanalak idatziak, eta entzute aundikoak biak: *El caso de España* ta *Carta abierta al Sr. D. José Antonio Aguirre*.

Toledoko Kardenalaren *El caso de España* agiriari erantzunaz, argitaratu ziran oar aietan, eskuarte bazuen nere osabak; ori egia da.

Olaxe gertatu ziran gauzak. Len esan det nere osaba Saran, Dop familiaren etxean bizi izan zala. Elkarrekin bizi ziran ezker, gerra-gaietaz mintzatzea bidezkoa zan: ori zan gaiñera, etxe artara zetozen periodiku ta aldizkarien gaia.

Orrela, Dop-en emazteak "Etudes" aldizkarian, Euskalerriko gerrari buruz argitaratutako artikulu baten aldamenen oar batzuk idatzi zituzala, eskatu zion. Nere osabak oso gozoz artu zuen lantxo ori.

Beste beñ, erregu berdiña onartuaz, Goma Kardenalaren *El caso de España* liburuxkaren argibide batzuk idatzi zituen: 36'ko gerra-garaian Españaiko Jerarkiaren agiriaren zabalduenetakoa ta eztabaidatuenetakoa izan zan liburuxka ori.

Bere idatzi guzien aldakia (copia) gorde oi zuen nere osabak, Goma Kardenalaren agiriari egindako oarrena ere gorde zuen. Bein batean, beste askotan bezela, Bayonako Seminarioan zeuden apaiz euskaldun errefujiatuengana joan zan, eta, izketan ari zirela, Kardenalaren agiriari ta nere osabaren oarrei eldu zieten. Oar oiek ezagutzeko gogo bizia azaldu zuten apaiz aietako batzuk. Nere osabak eman zizkien, beraientzat bakarrik, ordea.

Eta ona emen nere osabaren biotzondokoa: norbaitek oar aien aldakia atera, bere oar batzuekin naastu ta Bilbora bidali zituen eta liburu batean argitaratu, Goma Kardenalaren *El caso de España*, *Carta abierta al Sr. D. José Antonio Aguirre* ta nere osabaren —norbaitek ikututako— oarrak. Dana 130

orrialdeko liburu batean: *Un cardenal español y los católicos vascos* izenakin eta "Angel de Zumeta ezizena egille zalarik.

Ez izendatzeko ohea dan apaizen batek egindako azpijoko orren oroime-nak beti naigabea ematen zion nere osabari.

Paper-burruka zebillen bitartean, beste burrukaren ondorioak, errurik gutxiena zutenak ere jotzen zituen. Ala, 1937 urteko udaran, Bilbotik 500 bat aur iritxi ziran Ipar-Euskadira. Donibane Garazin bizi-leku bat tajutu zituzaien eta nere osabak kapellau bezela lagundu zien, D. Pedro Menchaca ta D. Pedro Zubeldia ofizialki izendatu zituzten arte:

Arratsaldean D. Manuel Intxausti ta Zabalo arkitektoakin Donibane Garazira noa: gaur bertan aurdegi bat antolatu bear dute an, Bilbotik datozen aurrentzat (500 bat) Kapellau bezela gelditzen naiz, egun batzuetarako. Sendagille Justo Garate, eta Zuzendari Vicente Amezaga datoz, andereño asko ta serbitzariekin. Pabelloietako batean, lurrean etzanik, egiten det lo (1)

Egun aietan, Francoren alderdian arkitzen zan, Aita Santuaren ordezkari Antoniutti jauna azaldu zan Bayonan: beste eginkizunen artean, Bilbotik ateratako aurrak etxeratzeak zekarren. Donibane Garazi-ko aurdegia ikusi zuen, eta ondorenean, Goma Kardenalaren Ordezkaria lagun zuela, Dax-ko Gotzai Mathieu jaunarekin izketatu zan.

Antioniutti jaunaren ikustaldia onela idatzi zuen nere osabak:

Gaur Donibane Garaziko etxean Antoniutti izan da. Aurrak beren gurasoekin egon bear dutela ta Bilbon ogi zuria jaten dala ta "orain ez dala gorriekin zeundetenean bezela", esan zien umeai. Gauza oiek entzunda, aurrak alde egin diote, "apaiz orrek politikatzaz itz egin digu" esanaz.

Egun batzuk badira; eusko-talde batek gai batzuei buruz, itz egin nai diola, esan dio Onaindiak, beste persona baten bitartez: Antoniuttik bi-tartekoari erantzuna: "Euskaldunekin ezer ez: ez dira itzeko gizonak" (2).

Gero ta apaiz erbesteratu geiago azaltzen da Francian. Azkeneko estadistikak diotenez, andaemen, atzerrian dabilzanak 110 dira. Eta au da okerre-na: asko minberatzen ari dirala, Elizarekin fiakaitz azaltzen dirala, eusko-arazoari buruz Jerarkiak oker jokatzen omen duelata.

Egun auetakoa da *Carta Colectiva del Episcopado Español* deitua, Goma Kardenalaren agiriaren ondoren azaldua. Ordutik, erbesteko apaiz euskaldunek beren erriaren zati bat aldeztara beartuak daudela, uste dute. Ordezkaritalde bat ofizialki bidali zan Vaticanora, Aita Santuaren aurrean, euskaldunek gerran zerabilkiten jokaera garbitzera.

Nekez lortutako billera artatik gauza bat bakarra gelditu zan: eratzailleen etsipen garratza:

Erromatik etorri berria dan D. Pedro Menchacarekin itz egin det: D. Agustin Isusikin ara egin duen joanetorriaz mintzatu zait. Secretario de Estado Kardenalak —Pacelli— ez zituela artu nai, dio: Gazteizko Gotzaiak bein da berriz eskatuta, artu zituela, baldintza auekin: 1.^a zeramakiten gaia ez ikutzea; 2.^a artu zituelakoa ixilik eukitzea (3).

Eta danetik zerbait izan zedin, zisma-asiera bat ere izan zan. Nere osabak diona:

Au gaizki dijoa. Eusko-apaiz-talde bat aurrean darabilkite. Eliz-alorean, euskaldun izatea jatorrizko pekatua da. Euskaldun-sail aundi batek, sismo txarrez begiratzen dio eliz-jerarkiari Egun batzuk dirala, iru apaiz etorri zaizkit, eskeintza bat egitera: agiri baten bidez, apaizei ta erritarirei zisma batera otsegin: eliz-Jerarkiaren lokarriak eten (4).

Nere osabaren erantzuna erabatekoa izan zan:

Nik ala esan nien: "Apaiz egin baiño len, Historia ikasi nuen, eta Historiak erakutsi dit, edozein erakundeetan azaldu, agindu edo irabazi ditekenean, ausartak —gutxien merezi dutenek— eskuratzen dituztela goieneko maillak.

Elizan ere berdin gertatzen zan: zailla da bestela izatea. Baliotsuenak —santuak— askotan ezezagunak izan dira. Irtenbidea ez da Elizarekin austeria, erlijioa politikatzat ez artzea ta gure espiritu-bizitza ta maitasun-bizitza indartzea, baizik (5).

Jerarkia politikaren serbitzari dalako salaketa oso zaarra da: gaur ba da ta len ere ba zan. Eta nere osabak esan duena, elizgizon askok "Erljioa politikatzat artu dutela" aitortu egin bearko degu.

Egurtua izan dan gizon batek Jerarkiaren aurka esan zituen itz gogor batzuek ziralata, nere osabak egindako oar zuzenekin loturik dago au dana:

Eusko-Ordezkaritzaren gizon au, Elizaren aurka mintzatzen da. "Ni Ebanjelioarekin nago, dio: Kristori jarraitu nai diot, baiño ez Aita Santuari ta Gotzaiei; politikaren serbitzari utsak bait dira".

Gogora dezagun hereji ta zisma asko olako jokaeratik asten dirala geienetan. Elizgizonen egiazko edo alausteko pekatuak diralata, asko saiestu dira Alare ondo pentsatu ezkerro, bai sozial bai espiritu-bizitzan, pekatuan jaiotako gizonaren kutsadura ezinbestekoa da. Buruzagi batzuk gizonak izaki-oker ibiltzea, ez da arrazoia Eliza uzteko Kristo maite badegu, Kristorena dan Eliza ere maite bear degu (6).

Eusko-erbesteratuen artean asko benetan naastuta zebiltzan. Burrukagirotu artan nere osabak izan zuen dana bertan bera utzita, beste mundu pake-tsuago bat gozatzeko egokiera goxoa. 1937 urteko Uztaillan, Manilako Santo

Tomas Unibersidadean Irakasletza eskeñi zioten. Eskeintza onartu ere bai, baiño Gazteizko buruzagiei itzeman baiz zegoen, ezezkoa eman zien:

Oraindik Bayonan nengoela, Manilako Santo Tomas Unibersidadean Irakasletza eskeñi zidaten. Asieran baietz, baiño denbora gutxirako esan nien: Gotzaiak baimenak eman zizkidan, baiño, gelditzea erabaki nuen, bereala itzultzeko aginduko bait zidaten bear bada Gazteiztik (7).

Francian gelditzea erabaki zuen ezkerro, etxe-bizitza bat antolatzea pentsatu zuen. Belloc-en, Bayonako Seminarioan, eta D. Gorgonio Renteriaren ostatuan, D. Polikarpo Larrañagarekin egon ondoren, alditxo baterako, Anglete-en, "Endara" etxean jarri zan bizitzen. Renteria jaun ori urrutiko itxa-soetan, ontzi bateko kapitana bezela, ibilitakoa zan. "Endara" etxe aundia zan eta zugazti bat zeukan aurrean. Jakingarria da, Segura Kardenala, Errepublikak erbesteratu zuenean, nere osabaren gela berean bizi izan zala. Baiño "Endara"-n politiko buru geitxo zebillela, oartu zan nere osaba ta beste txoko bat billatzea erabaki zuen.

Alaxe, Biarritzen artu zuen etxe-bizitza bat, bere illoba batekin batera. Bizitzaren zuzenbidea 27, Avenue de la Marne, 2.^o (Casa A. Nouste), St. Charles parrokiatik oso gertu.

1938 urtean bi gertakizun garrantzitsu nabarmentzen dira nere osabaren bizitzan: *Laboratorio de Etnologia y Eusko-Folklore* Francian berpiztu zuela, Franciako museoen laguntzakin eta Copenhageneko *Congreso Internacional de Ciencias Antropológicas y Etnológicas*-en laguntzakin: biltzarre ortan izlari bezela sartu zan.

Lenengo gertakizuna, Laboratorioaren berpiztea, nere osabaren etxean egindako billera baten ondorioa izan zan: an bildu ziran urte artako Apiril-lan D. Angel Apraiz, D. Isaac Lopez Mendizabal eta D. Francisco Javier Landaburu. Erbestean anemenka zebiltzen jakintsuen artean, eusko-ikaskuntzak berritzea erabaki zan: ordu berean —Instituto Americano Rockefeller-i laguntza eskatuaz— egin nai ziran lanen egitaraua antolatu zan.

Nere osabak egin zituen lanak izan ezik, ez dakit zertan gelditu zan asmo bikain ura. Nere osabak *Laboratorio de Etnologia y Eusko-Folklore*-ren ekitaldi berri bat asi zuen, illero liburuxka bat argitaratuaz.

Ipar-Euskalerriko erri ta mendietan etnografi eta prehistori-billaketak utzi gabe, eta oien jarraipena bezela, Francian, aipatutako Laboratorioa berriz eratzeari arretaz ekin zion. Bere leenengo lanek —1938 urteko Irailla-Urri-lakoek— *Euskotarren prehistoria* ta *Euskalerraren oizko kultur-bereizgarriak* aztertzen dituzte.



Etxe onen bigarren bizitzan bizi izan zan nere osaba Biarritzen zegoen bitartean.

Copenhagueko *Congreso Internacional de Ciencias Antropológicas y Etnográficas* aipatu baiño len, beste zerbait esan bearra dago, arin xamar badaere: maiatzaren azken egunetan nere osaba D. Eduardo Escarzaga ta D. Alberto Onaindiakin, Budapest-eko Eukaristi-Batzarrean izan zala, alegia.

Magiar-erriak Eukaristiari zion maitasunaren agerpenen artean, Verdier Kardenalak, Gizon aundien plazan, emandako Mezan bildu zan jendetzak —300 bat milla persona— egin zion zirrara berezia nere osabari.

Baita ere zoragarria gertatu zitzaion nere osabari, Danubio-ibaian, Sakramentu Santuakin egin zan Prozesioa: amar ontzi argiz ondo ornituak Jaunaren aldamenean, zubiak Eukaristiaren ikurrez apainduak eta argiz josiak, berdin jantzitako gazte-lerroak suziak eskuetan ibai-ertzak argitzen, eta bitartean, gertuko muiño batetik bost dirdiraillu (reflector) indartsu, kolore politezko argiz Budapesteko zerua argitzen.

Baiño nere osabarentzat Batzar arek ez zituen alderdi onak bakarrik.

Adi bidez, español- izkuntzako batzarkideen billeran eta "Jakintsuen munduak Sakramentu Santuari egindako Omenaldia"-n politika geiegi ikusi zuen.

Gaiñera, eusko-talde batek Paccelli Kardenalari —Batzarrean Aita Santuaren Ordezkarria— euskeraz itz batzuk esateko —beste izkuntza askoren artean— egin zion eskeari ezezkoa eman zion. Arrazoi au eman zieten: "euskotarrek ez dute erri bat osotzen".

Nere osabaren oarra:

Au jokaera bitxie! Ez al gea gu, euskaldunok Pirineo-lurraldeen, Filipinatan tagalook, Yugoslabiin Kroaak, Indian teluguuk eta Belgikan flamanarrak dien beziñ errialde? Bittarteen ook itz eñ al izen zoia denen aurreen Jainkooi, bakoitzek bee izkuntzan, Budapesteko billera ontan; Euskaldunok ordea ez. Beraz euskaldunok eziñ erabilli zeikeau euskera —Jainkook eman diun alkarbide au— Elizeen Biltzar-nagusiittan gaiñetiko errialdeek bezela. Jainkoa gooratu nai ba-dek or, euskeraz ez baiño, beste izkuntza baten bidez eñ bearko dek. Elizeen izeneen edota Kristoren izeneen dabilzela dioten gixon ook Kristoongandi eta Elizati aldenduerazingo diia Euskalerrie. Bizi danak ikusiko dik (8).

Billera aietako batean D. Luis Minerekin topo egin zuen nere osabak: D. Luis Gazteizko kalonjea ta apaizgaietako ikaslaguna zuen. Aren aotik Gazteizko Barrutiaren apaiz-maillako berri asko jakin zituen. Ez zuen asko pentsatu orduan, Budapesteko topaketaren ondoren, nere osabak (Miner jaunari) idatzitako karta batek, kalonjeari naigabe latzen bat ekarri bear zionik. Ona nola dion nere osabak:

Arabako Gobernadore cibillari idatzi diot, nere karta batean arkitu omen duten salaketa batengatik, D. Luis zigortu ote duten, entzun dedala, esanaz. Ez det ori onartzen: nik ez det salatu Miner jauna nere kartan (9).

Baiño arrigarriena au da: Miner jauna, elizgizonen artean, iñor bezin Francoren aldekoa azaldu zala gerraren asieratik.

Eta Budapest-eko Eukaristia-Batzarra alde batera utzirik, Copenhague-n 1938 urteko Uztailan ospatu zan Congreso ura zerbait aipatu dezagun. Trenez eta itxasontziz egin zan ibilia: andre biguñ te-zaleak eta begi-zorrotzeko gizonak aldamenean: ez ba ain begi argiak; nere osaba Franciako eliz protestantearen artzaitzat artu bait zuten.

Bidean, Batzarrera zijoan, Manchester-ko Unibersidadean irakasle zan Murphy jauna ezagutu zuen.

Abuztuaren 1'an Copenhague-ko Unubersidadean arkitzen da nere osaba: Bazkun Iraunkorra osotzen duten bere 40 bazkideen artean. Thomas

Thomasen Lendakariak ongietorria egiten die guziei. Gero Batzarra irikitzea Paraninfoan, Dinamarca-ko Erregea aurrean dala: nazioetako ordezkarien agurrak esaten dira ta azkenik "Musikalari gazteen Elkartearensaioa.

Urrengo iru egunetan lana erruz egin zan, itzaldiak zirala edo museoak ikustea zala. Alare noiz beinka unetxoren bat arrapatzen zuen nere osabak, oarpen bat edo beste idazteko. Studiustrade kalean, Unibersidadearen ondoan, bi bizitzako eskaparate aundi bat ikusten du: beekoan jangarri guzietatik; liburutegi ugaria goian. Azpian janak eta gainean liburuak ikusita, latinezko erri-esaera zaar bat datorkio burura nere osabari: "Primum vivere, deinde philosophare": Lenengo bizi, gero gogoetan ari.

Udaletxearen ormetan dagoen Absalon Gotzaiaren irudiak ere —esku-bian ezpata, ezkerrean artzai makilla— zerbait esan erazten dio: "Gaurko Gotzai askoren irudia, zoritxarrez".

Illaren 5'an irakurri zuen nere osabak bere mintzaldia: *Euskotarren leenengo erlijioen aztarrenak*". Erdia frantzesez eta erdia kastellanoz irakurri ere. Zorion aslo entzun zituen: Frankfurt-en *Forschungsinstitut für Kulturmorphologie*-rako, Frobenius jaunak aldaki bat eskatzeraño.

Batzar ura Itzaldi eta Museo-ikusketaz naiko trinkoa, jaialdi bikain batekin bukatu zan. Ala ere Dinamarca-ko egonaldia, beste zerbaitekin bukatzen du nere osabak: ango katolikoen estadistikakin, alegia:

Dinamarca-n 26.000 katoliko dira, 90 apaiz, erlijiosoak sartuta (oien artean jesuitak, lazaristak, eta domingotarrak). Copenhague-n 8.000 katoliko, 30 apaiz eta 24 eliz katoliko. Katolikoak oso onartuak dira Dinamarca-n. Jakintsu asko katoliko egin dira (10)

Urtearen bukaeran —Gabonak ez dira urruti— erbestean bizi diran apaiz euskaldunen aldizkari bat ia antolaturik dago: izena, *Anayak*.

OARRAK

- (1) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1937.
- (2) *Egunerokoa*, id.
- (3) *Egunerokoa*, id.
- (4) *Egunerokoa*, id.
- (5) *Egunerokoa*, id.
- (6) *Egunerokoa*, id.
- (7) *Egunerokoa*, id.
- (8) *Egunerokoa*, 1938.
- (9) *Egunerokoa*, id.
- (10) *Egunerokoa*, id.

XVII

Europako bigarren gerra ta Alemanek artutako Francia, erbesteratuen ikuspegiz

Orain amabost egun adixkide ziranak gaur etsai: atzo arte gaitzetsi ta arrikatu dituen politika ta sozial-erakundeak gaur txalotu egiten ditu Franciako prensa aundiak.

J. M. B.

1939 urtean XII'gn Pio Aita Santu egitearekin, ez zan asko arindu Francian erbestaturik bizi ziran euskaldunen egoera, beraien ustez. Ordu arte Paccelli Kardenala zanak ezagutzen zuen zerbait eusko-arazoa, eta euskaldunek gogoan zuten zeñien arrera fiakaitza egin zien beti, Vaticanoko Estaduaren Ordezkari zala: ori garbi dago *Euzkadi y el Vaticano* liburuan (1935-1936). Baiño euskaldun oien etsipena ez zan txikiagoa, Apirillaren 16'an Españako katolikoei egin zien itzaldia entzun zutenean: erbestertatu aientzat, garailleari zorionak ematea bait zan (1).

Erbestean bizi bearra —naiko mingarria berez— mingarriago egiten da, inguruan giza-oztasuna nabaitzen bada. Eta ez jerarkiaren aldetik bakarrik.

Nere osabak nozitu zuen bein da berriz frantzes apaizen oztasun ori, eusko-erbestertua zalako; eta etsai politikotzat jotzen zuten Frantzes sekular Franco-zaleengandik, areago.

Gogoan daukat gai ontan Biarritzko St. Charles parrokiari, D. Pedro Menchacak eta nere osabak meza ematen zuten parrokiari gertatua: Alako egun batean emango ziran meza guziak, ilberria zan gizon baten alde izan

zitezela, eskatu zuten, baiño Menchaca jauna ta nere osaba sartu gabe. Ildakoaren alargunak arrazoi au eman zuen: "Ils ne sont pas de nous": aiek ez dira guretakoak.

Ez dakit andre arek zer adierazi naiko zuen, bereizkeri orrekin: erbesterratu oien mezak ez zutela balio, ala jaun oiek ez zutela laguntzarik merezi.

Erbestean ere pakerik ematen ez zion politika-salaketa orrek min eman-go ziola nere osabari, ez dago esan bearrik: are geiago, biotzean ain zorrotz bizi zuen politikaririk eza, kanpotik politikaz kutsatua jotzen zutelako.

Urte orren Abenduak 31, bere bizitzari begiratu bat botatzean, espa auxe azaltzen du: errurik gabe politikotzat artzen dutela:

Batezere oso pozik nago iñungo alderdi politikoetan parte artu ez delako.

Euskalerrian egin det lana, an jaioa ta euskotarra naizelako. Nere erria maitatu det, baiño iñor zapuztu gabe. Beren aunditasuna besterik onartzen ez dutenentzat, Euskalerria ezagutu ta maitatzea "zatikeria" dan une ontan jaiio bait naiz, zoritxarrez. Orregatik bizi naiz erbestean Ni bezelaxe beste asko ere; lojika gabe epaituak izan gera: gure epailarien arrazoiaketa au da: "eusko-ikaskuntza landu duen alderdia E. A. J. da: olakok ikaskuntza ori landu du: berez ori E. A. J.-koa da, ots, zatiketa-zalea" (2).

Baiño nere osabaren eta beste euskaldun erbesteratuen ezbearrak, Europa-maillako ezbear ikaragarri batean naasturik geldituko ziran egun aietan. Urte aren Irailetik asita, urte batzutan, Europa guzia jorratu bear zuen gerra esaten ari naiz.

Urtearen asieratik igerrri zitzaion gerra izugarri bat bazetorrela. Bai etorri ere. Iraillaren 1'an, Alemanek Polonian sartu dirala ta nazio artako uri batzuk —besteen artean Gracovia— bonbaz estali dituztela, diote. Hitler-ek dio, Poloniari, Danzig-arazoa pakean bukatzeko egin dion eskeintza ez dala onartua izan. Baiño beste berriemaille batzuek esango zuten, Poloniako gobernoak ez zuela alako eskeintzarik ezagutu.

Andik bi egunera Ingalterra ta Francia gerran sartzen dira, Alemania-ren aurka. Gertakizunak ikusita, Bayonako Gotzaitetik Bikario jeneralarengana aurkezten da nere osaba, Franciako Elizari, ordu estu aietan, bere laguntza eskeñiaz.

Iraillaren 17'an gauzak len baiño naastuagoak agertzen dira: Rusia Poloniaren aurka gerran. Ori dala ta, nere osabak oar batzuk idazten ditu bere Egunerokoan:

Toulouse irratia dio, Rusiak Poloniaren aurkako gerra asi duela. Gero ta okerrago gauza. Errien artuemanetan agintzen duen legea auxe da:

aundiak txikia irentsi; bestela esanda "arrai aundiak txikia jan". Nazioen arteko artuemanak zuzentzeko onartu ziran moral-oñariak eta erakundeak, beren jokaerakin zerikusirik ez balute bezela, jokatzen dira erriak, interesak eta gogoak beste zerbait eskatzen badiete. Interes eta indarraren aurrean ez arrazoiak, ez filosofiak, ez erlijioak, ez moralak balio dute ezer. Bai gutxi igo dala gizona —bere nortasuna, konzientzia ta "gizatasuna" lortzeko laguntzak eskeintzen dizkion— izadiaren maillatik gora (3).

Berriz ere, burruka-leku ontatik iges egiteko egokiera datorriko nere osabari: 1939 urteko Urrillaren asieran Columbia University-n irakasle izatera deitzen diote. Len Manilako Santo Tomas Unibersidadearekin gertatu zan bezela, ez zan ausartu lantegi berria artzera. Jokaera txalogarria, berealaxe zetorkion gurutze aztuna goz onartzea bait zan.

1940 urteko udaberrian Franciako jendea ikaraturik zegoen, Alemanek Holandan, Belgican eta Luxenburgon sartu zirala entzun da. Francian arkitzen diran euskaldunak batikbat larritzen asi dira, Eusko-Gobernoak Bayonan duen Ordezkaritza itxi egin dutela jakitunik. Franciako Gobernoak eusko-errefujiatuentzat eman dituen aginduak ere artu dira: 20 urtetatik 48 bitartekoak Gurs-ko errefujiatu-biltokira eramane bear dirala, alegia. Zaarragoak iparalderago oraindik.

Agindu aietan sartzen ziran Ipar-Euskadin zeuden euskal-apaizak ere. Gotzai jaunak, Departamentuko Prefetoagandik, parroki-kargoak zituzten apaizak, zerrenda ortatik ateratzea lortu zuen. Jakiña, nere osaba zerrendaren barruan zegoen.

Biarritzen bizi ziran apaiz errefujiatuetatik, D. Pedro Menchaca ta nere osaba bakarrik arrapatzen zituen, itxituran sartzeko aginduak. Ipar-aldera, Normandiaraño joan bear zuten, beraz, Orrela lengo erbestearen gainean beste erbeste bat, lengo naigabeen gainean beste naigabe bat.

Bayonako estazioan 24 apaiz biltzen dira. Uri ontako Komisarioak Alençon-era (Orhe) joateko, agintzen die. Irteeran zeaztasun auek ematen ditu nere osabak:

Maiatzak 31. Bidean gau illuna. Ez degu lorik egiten. Tours-en trenez aldatzea. Iparaldetik igeska, leku paketsuagoen bila datozen jendez beterik espaloiak. Aurpegi illunak: zaarrak, emakume ixillak, aur negartiak, maletaen eta estalki pillen artean. Ekainaren 1'an, 9'tan Le Mans-era irixten gera. 24 apaiz gainen eta geroxeago bi geiago (4).

Le Mans-en egonaldi luzea, tren batetik bestea bitartean: eskerrak errefujiatuei laguntzen zieten andereño batzuk gosari beroa eman zieten. Polizien Komisarioak, "laissez-passer" erakutsi ondoren, nora jo, esaten die: Ses-ko Seminario Aundira, Alençon-dik 21 kilometrora.

Apaiz errefujiatuen taldetxo bat Ses-ko Gotzaiarengana dijoa: arrera otza. Batzuk —egun gutxirako— Seminarioan dute ostatua. Octavio Pasquet Gotzaiaren arrera otza ta Alkatearen beroa ez ziran berdiñak: eta Alkatea komunista zan: ostatu-arazo guziak konponduko zizkiela, agindu zien. Baiño, zoritxarrez, ostatua ez da egokia ta apaiz-lana eziznekoa. Gotzai jaunak nai izan balu, tajuz egin zitezken gauzak.

Egoera ontan, apaiz-taldetxo bat Orne-ko Prefektoarengana azaltzen da auxe esanaz: Ses-ko Gotzaiarengana berak bidali zituela, baiño Gotzaiak ez ziela lagundu nai, eta Alkateak —borondate ona euki arren— zetozkion errefujiatu jendetzarekin, ezer gutxi zezakela: beraz, artu nai dituzten Gotzaien Departamentuetara, adi bidez, Dax eta Bordeaux-era, bidaltzeko.

Prefektoaren erantzuna: agindua Paristik datorrela ta arek ez daukala goikoen agindua aldatzeko eskubiderik.

Ses-ko Alkateak —bere buruz— apaiz-talde osoari agiri bat ematen dio ta, beste gabe, Dax-ko bidea artzen dute, kañoi-otsak gero ta gertuago entzuten dirala. Berak zeramakiten trena azkenekoa izan zan, alemanak sartu aurretik: ain gertu entzuten ziran kañoi-otsak. Biaramonean alemanek bonbak bota zizkioten erri ari. Bonba bat San Jose Ikastetxean lertu ta mutiko batzuk il zituen. Beste bonba bat monja-konbentu batean erori zan eta emezortzi monja il zituen.

Bitartean Italiak gerrakin eraso zien Francia ta Inglaterrari. Gerra naasten eta Europa guzian zabaltzen ari zan. Leku paketsuen billa zebillen jendeak aldegin da, erriak ustutzen zijoazen. Osabak gogorazten ditu gerra-gertakizun batzuk:

Bazkaldu ta trenera. Bidea kotxez, kamionez, gurdiz beterik: gerra-lekueetatik jendea igesi dator beren maleta, manta, koltxoi, bizikleta etab-ekin: Alençon-era dijoaz (5).

Egoera larri artan nere osabaren biotza Jainkoagana dijoa ta Euskalerriko Santutegi bat gogoratzen zaio, agintzari (promesa) sutsu bat egiteko. Ekainaren 13 da, Urkiolako San Antonioren eguna: alde guzietatik erromes jaiaratsuak mendian gora dijoaz.

Antonio santuari agintzen diot, 1941'an Ekainak 13 Urkiolako Santutegian ikustaldi bat egingo diotela, ordurako nere errira onez itzultzen banaiz. Gertueneko erritik oiñez igoko naiz Santutegira. Baiño bitartean ekaitza au al dan egokien igaro bear degu (6)

Ekainak 14, goizetik Bordeaux-en. Estazioak badu errefujiatuentzat leku bat: an mermelada, txerri-pastela, gazta, kafe bero ta ogia ematen diete. Gizartearen maitasuna, gerraren igesi dijoazen eunka milla aiei laguntzeko

prest. Igeslarien jendetza aren erdian 24 apaizen talde ura ikusgarri gertatzen da. Une aietan alemanek Parisen sartu omen dirala, esaten da.

Dax-era jarraitzen dute ta arratsaldean goiz irixten dira. Gotzai jaunak maitasun berezi bat agertzen die. Poyanne-ko Seminarioan bizi ditezke, Departamentu ortan daudeneño.

Poyanne erria Iparaldetik etorritako errefujiatuz beterik dago: laixter danak alemanen mendeko izango dirala, ta ikara larrian. Gauzak orrela, Poyanne-ko Alkateak Biarritz-era itzultzeko, esaten dio nere osabari. Daxko jendarmerian bide-agiria ematen diote ta berriz ere etxera: Franciarentzat garrantzi aundia duen zerbait gertatzen da bitartean: Gobierno aldatzea.

Alemanek badatozelata, izu-ikarak artua ikusi zuen nere osabak Biarritz. Polako ta inglesak Inglaterrara joateko prestaketak egiten ari ziran: eusko-errefujiatu askok ere asmo bera dute, andik Ameriketara jarraitzea pentsatuz. Bestalde, francoa balioa galtzen ari zalata, jendeak gauzak erosteari ekin zion. Denda batzuetan erostunen lerro luzeak ikusten ziran.

Ekainaren 27,an sartu ziran Biarritzen aleman tropa motorizatuak. Francian asi da Aleman-aroa. "¡Deutschland, Deutschland, über alles!". Jendea geienbat goibel, baiño begiluze, kaleetan pillatzen da, alemanen auto, kamioi ta motoak pasatzen ikusteko. Batzuk beren atsekabea, aberri zapalduaren maitasuna, garbi-garbi agertzen dute: beste batzuk alemanen alde daude, Frente popularra nagusituko dan beldurrez.

Bitarrean Biarritz aleman-tankera artzen ari da ofizialki. Etxe ta kaleetan aleman idazkunak ugari. Adi bidez: bere Udaletxea —"Hotel de Ville"— orain *Ortskomandantur* da. Alemanek etxe asko artu dituzte: Eplendid Hotel, Hotel Metropol, Hotel d'Anglaterrre, Hotel Regina, Hotel Termes de Salina, Hotel Miramar.

Kultura apur baten jabe diranak arriturik daude, gauetik goizera mundu berri bat sortu dala ikusita. Nere osabaren itzak:

Orain amabost egun adixkide ziranak, gaur etsai: atzo arte gaitzetsi ta arrikatu dituen politiko ta sozial-erakundeak, gaur txalotu egiten ditu Franciako prensa aundiak (7).

Aldioroko gertakizunak ara ta onera daraman gizonaren betiko aldakortasuna.


Orain denboraldi berri bat sortu da nere osabarentzat: aleman-aroa Francian. Bizilekuz ere aldatu da. Sara errira joan da. Berekin bizi da bere illoba Pilar Barandiaran: osaba-illobak alkarrekin biziko dituzte luzaro pozak eta atsekabeak.

Saran, *Ibarsoroberria*-etxea du bizileku, La Rhun-en oiñetan: bizileku zoragarria, idazlari belga, France Adine andrearen, Pirineo-txoko ontako etxea. Bera Belgica-n arkitzen da, inguruekin artuemanik gabe, gerra dalata: etxe-zaiek, an bizitzeko eskatu diote nere osabari. Olakoetan etxea beterik obe, utsik baiño.

Erkaizti-erreka baztarrean, baratzez inguratutako etxe ontan jartzen du bere lantokia sei urterako. Gero, aldatu zan *Bidartea* etxera, an 7 urte bizitzeko. Andik ekingo die bere prehistoria ta etnografia-billaketei, Pirineo-lurraldean.

Ortaz kanpo, martxoan *Forschungsinstitut für Kulturmorphologie*-tik (Frankfurt-eko Unibersidadetik), ango argitalpenetan laguntzeko deia artu zuen. Laguntza oiek eta Franciako museoak eskatutako billaketek beteko zuten gerrak moztutako *Comision Internacional de Artes y Tradiciones* dala-koak utzitako utsunea.

Etnografi-billaketa-lan oiek Pirineotan egiteko, lurralde artako aleman-agintari militarrek —Biarritz-ko Feldkomandant— Ipar-Euskalerra guzian planoak eta fotografiak artzeko ta bere lanak egiteko baimena eman zion.



“Ibarsoroberria” etxea: bere jabea Belgica-tar nobelagille Mme. Adine: Sarako egonaldiaren zati bat ementxe igaro zuen.



Nere osaba Jose Migel
Mme. Adine-kin izketan,
1974'gn urtean
egin zion
ikustaldian.

1941 urte osoa etnografi ta prehistori- billaketa oietan eman zuen. Bazutan bakarrik eta askotan Dop jaun adixkidearekin, Sara inguruan azterketa batzuk egin zituen eta tregu-arri, cromlechs eta beste prehistoriko obi batzuk arkitu ere bai La Rhune ta Artzamendi artean.

Ordu berean etnografi-billaketa asko egin zituen. Idatzi ere illero *Eusko-Folklore* zenbaki bat idatzi zuen eta *Leizeak eusko-mitologian* liburua ere bai, gero alemanera itzuli ta *Paideuma* aldizkarian argitaratu zana. Berdiñ, aldizkari berean argitaratzeko, Itziarko Urtiagan, leizean egindako billaketak.

Nere osabaren jakintza-lanetaz kanpo, gerra: Alemania ta Rusia elkarrekin burrukan. Ori dala ta, alderdi burrukalarien lagunek, arrazoiak bildu ta bildu, bakoitzak bere astoari arre. Nere osabak entzundako arrazoi batzuk:

Ekainak 25. Alemaniako Gotzai katolikoek, Aleman eta Rusoen arteko gerra onetan, Eliza Alemanen alde dagoela adieraziaz, agiri bat argitaratu bear dutela, dio Aleman irriatiak. Ingles irriatiak berriz: Westminster-ko Gotzai katolikoak esan du, Rusiari Alemaniaren aurka laguntzea —Inglaterak egiten duen bezela— zillegi dala, Rusiako gobernoaren erakutsi komunistak onartu gabe, noski (8).

Urte ontan bertan —bere persona-maillan eta etorkizunari begira— Francia uzteko dei berri bat artzen du nere osabak. Oraingo deia Españatik dator. Bi aldiz —Iraillan eta Urrillan— albiste au eman diote: Vizcayako arkeoloji-billaketaen buru zanak Gobernazioko ministroari ta Bellas artesko Lendakari Markes de Lozoyari eskatu diela, ezereen eragozpenik gabe, Españan bere lanetan jarrai dezan. Ortarako segurantzi guziak eskeintzen zaizkio, agian, Madrid-eko "catedra" bat ere bai.

Baiño nere osaba lanpetua zebillen Francian eta alemanen aldetik erreztasun guziak zituen ezker, beste baterako utzi zuen Españara itzultzea.

Egia da, Alemanek erreztasun guziak eman zizkiotela bere lanean jarraitzeko. Gazteiztik zetozkion langaiak Irun-en geldierazi zizkiotenean, Alemanek berek eskatu zieten Españako frontera-agintariei, alako eragozpenik jarri ez zezaten.

1942 urteko Martxoak 11, Alemanek agiri bat eman zioten: Ipar-Euskalerriko frontera inguruan askatasun osoan ibili zedin, eta, galerazi ez baiño laguntzeko agintzen zien bera topatu zezaketen guardiei.

Sarako etxera nagusi aleman asko datorzkio, Frankfurt-en alemanez argitaratutako bere liburuaren eske, eta, egille danez, liburu oietan eskeintz-itz batzuk (dedicatoria) idatzi ditzala, erregutuz. Ordu berean, Alemanen mende egonaz, aleman jakintsuekin artuemanak izatea errezagoa gertatzen zaio. Egun batez, Berlingo Unibersidadeko Irakasle Albert Herrman-ekin izketaldi bat izan du eta errialde batzuetako geografi-historikoaren mapak egiteko, argibide batzuk eman dizkio. Beste bein, Unibersidade bereko Izkuntza-maixu Bouda jauna datorkio: Eusko-Billaketaen Instituto bat sortu nai du.

Lanerako bideak zabalik ikusita, denborarik geiena Ipar-Euskalerriko erri ta mendietan, etnografi ta prehistori-billaketak eramaten diote. 1943 urtean lenengo sei illabeteak Ezpeleta naiz Itsasou lurraldetako prehistori-gaiak billatzen eta etnografi-azterketak egiten, pasa zituen geienbat.

Ekainaren azken aldera, Bayonako *Societe des Sciences, Lettres et Arts*-eko bazkide izendatu zuten. Aurkespena Pierre Dop eta William Boissel jaunek egin zioten.

Udara erdian —1943 urteko Abuztuan— politika-saillean gauzak naas-

tu egin dira. Musoliniren erorketa dalata, alemanek urduri dabilta. Ondorioa, baihetak ugari egiten ari dirala, illabete auetan.

Azaroaren bian Gazteizko Gotzai Mugica jauna baitzen dute. Donibane Garaziko Gaztelura eraman zuten. Eta antxe euki egun batzuetan giltzapean, Españara igesi joan nai zuten zortzi frantzes gazte, gela-lagun zituela. Ez D. Mateoren adiñari, ez gotzaigoari begirunerik gorde zitzaion, bat-bateko presondegi artan: garbitasun-gaiak oso urri. Gela-txokoan jarritako ontzi bat denen pixa-toki. Galtzak askatzeko, ategabeko komuna.

Militar nagusiak galdeera auek egin zizkion:

—Zerekin bizi zera? Zer diru daukazu? Politikarik egin dezu? Gotzaiaren erantzuna:

—Cambo-ko lagun baten etxean bizi naiz; berak jaso nau ta bein baiño geiagotan esan dit, ni serbitzeko edozein sakrifizio —biziarena bada ere— egiteko prest dagoela, ain zintzoa da.

Gero bere kartera ikutuaz:

—Nere diru dana ementxe daukazu: ikusi. Politikan berriz, sekula ez det politikarik egin. Gazteizko Gotzai nintzela, illero joaten nintzen Seminariora ta politika-etzabaidetan ez zitezela naastu, esaten nien apaizgaiei.

1944 urtean nabarmen ikusten zan alemanen ezinegona. Martxoaren 27'an aliadoen bonbak Biarritzeko une minberenak jo zituzten. Orduan ildako irureun personetatik, erdiak alemanak izango omen ziran.


Egun aietan Saratik 80 gizon eraman zituzten alemanek arresiak egitera. Baiño aliadoen ejerzitoak Normandian sartu ziralako otsa entzun zanean, alarma Francia osora barreatu zan.

Nere osabak dionez, Abuztuan, Sara inguruan arkitzen ziran aleman bakar aiek Ipar-aldera igesi zijoazen, ikusi ala guziak arrapatuaz, autobus, kamio, auto ta zaldi. Atzo garaille, gaur garaituak!

Abuztuaren 21 ta 22'an, aleman nagusitzaren azkenak eta aliadoenaren asierak onela jaso zituen laburkiro nere osabak:

Abuztuak 21. Ingles eta Amerikanoen gerra-ontziak azaldu dira gaur Donibane aurrean. Olako berriak entzunik, poz-itxura agertzen duten askori, biotza illundu egiten zaie

Abuztuak 22. Alemanek alde egin dute emendik; autoak eta bizikletak asi dira. Egun guzian jolas egin du jendeak. Mutillek illea moztu diete alemanekin ibili diran neskeei (9).



Bouda Irakaslearekin,
1951'gn urtean.

Urrillak 1. Askatasun-egunaren ospakizuna. Ala dio nere osabak :

Saran askatasun-jaiak ospatzen da. FFI. FC. indarrak parrokiako Meza Nagusira etorri dira beren ikurriñekin. Mezaren ondoren tropa aien desfilea plazan barrena. Arratsaldean ezpata-dantza. Meza-garaian Bikarioak ala esan du: "Franciaren askatasun-jaiak ospatzen dugu gaur. Jaungoikoari ta etsaien aurka burruka egin duten gizon bulartsuei zor diegu askatasun au. Jaungoikoak gure aberria salbatu du berriz ere" (10).

Gaur eguneko nobela baten izenburua gogoratuaz, esan dezagun Europan "pakea leertu dala". Nere osabaren Egunerokoak inguru-giro paketsuaren kutsua artu du ta gerra-idazkera ura utzi.

Baiño burruka-lekuetan pakea azaltzeak ez du esan nai naitanaiez, bio-

tzak pakeatu diranik. Francian errefujiaturik zeuden eusko-talde batzuek, bereziki, 36'ko gerran egindako zauriak odoljario zeuzkaten oraindik.

Bat esateko. 1945 urteko Apirillan bere Cambo-ko erbestetik, agiri bat idatzi zuen Gazteizen Gotzai izandako D. Mateo Mugicak: len ere zerbait aipatu dan eta gerra-ondoren artan ots aundia egin zuen agiria. Euskaldunek 36'ko gerran eukitako jokaerari buruz, Elizaren iritzia zein zan, galdetzen zutenei erantzun jator bat zan, *Imperativos de mi conciencia* izeneko agiri ura.

Agiri au egosten ere zerikusirik —ta ez gutxi— izan zuen nere osabak. Historia oso garbia da. Esaten ari geranez, jakintza-billaketa naiz zabalkunde-lana eten gabe ari du garai onetan. Billaketa-lanak eta izlari-lanak naasturik darabilzki askotan.

Itzaldien ondorengo elkarizketa aietan, eusko-arazoari buruz Elizaren pentsakerataz galdetzea, noiznai gertatzen zan. *Jainko-idea oizko euskal-kulturaren* gai artuta, Donibane Loitzunen esandako itzaldian, alako galdeera zuzen eta garrantzidunak egin bait zizkioten entzuleek, galdeera aiek D. Mateori bidaltzea eta erantzuna eskatzea bearrezko jo zuen nere osabak.

Eta auxa izan zan *Imperativos de mi conciencia* agiriaren asiera: nere osabak 1945 urteko Martxoaren 20'an kartaz bidalitako galdeerei erantzuten die D. Mateo Mugica Gotzaiak agiri artan: eta agiriaren asieran osabaren karta bera azaltzen da.

Nere osabaren politikoeza ta apaiz-jatortasuna goratuaz bukatzen da Agiri ura: alako eskuetatik datozen lerro aiek indar berezi bat dutelako, ementxe jartzen ditut:

Beti politikatik urruti ibili bazera ere, Seminarioari eraso zioten aiek berak bota zinduten zu, arrera oneko nazio onetara: emen urterik urte —bederatzi auetan— guziei on egiten jarraitu dezu, zure apaiz-birtuteekin, zure jakintzakin eta zure arkimenekin.

Eta zure, ondo irabazitako tituloak eta zure birtuteak begirune aundiz ikusi baditut beti, gaur, erbeste luze onetan atsekabe-kide zaitudan ezkerro, munduko elizbarruti onenetakoan Artzai ninduzun eta gaur, Kristoren Eliza Santuaren azkeneko Gotzai naizen onen maitasun beroa merezi dezu ta daukazu.

Azkenik, España ta Euskalerrria salba ditzan eta Jesukristo bai Españan eta bai mundu guzian gero ta nagusiago izan dedin, Jaungoikoari eskatuaz, agur esaten dizu zure serbitzari ta adixkideak.

Mateo Mugica, Cinna-ko Gotzai. Lengo Gazteizko Gotzai.

Campo 1945'gn Apirilla (11).

OARRAK

- (1) Ildefonso Moriones-en, *Euzkadi y el Vaticano* (1935-1936). Italo-Oriente Irarkola. "S Nilo". Roma, 1976.
- (2) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1939.
- (3) *Egunerokoa*, id.
- (4) *Egunerokoa*, id.
- (5) *Egunerokoa*, id.
- (6) *Egunerokoa*, id.
- (7) *Egunerokoa*, id.
- (8) *Egunerokoa*, 1941.
- (9) *Egunerokoa*, 1944.
- (10) *Egunerokoa*, id.
- (11) Mateo Mugica-ren, op. cit., *Imperativos...*

XVIII

Franciako jakintza-lanen egitarau betea

Nere elizbarrutiaren egoerak laguntzarik eta lanik gabe utzi ninduen, baiño Jaungoikoak ez nau utzi. Lan-faltari ez det izan orain arte ta aurrera izango dedanik ez det uste.

J. M. B.

Españaiko gerrak aurrena ta Europakoak gero sortutako eragozpenak menderatu ondoren, 1946 urtetik aurrera, bere jakintza-eginkizunak sendotzeko denbora-aldi bat asten da nere osabarentzat.

Ez da badaezpadakoa nere osabak Francian azkeneko zazpi urte aietan egindako lana. Leen ikusi da, erbestera joan zanetik, aren jakintza-lanean ez zala etenik izan. Baiño aipatzen ari geran garai onetan, asko ugaritu zan billaketa lan ori.

Etnografi ta arkeoloji-arian beti, eta Ipar-Euskalerriko mendi ta base-rietan gaiak zuzenean biltzen beti aspergaitz, etnografi-billaketaen ardura-dun bezela, monografi antzera, ikaskuntzak pillatzen ari da. Garrantzitsuenak aipatzeko, esan ditzagun Saint Esteben, Helete, Iholdy, Uharte-Mixe, Laginge, Sara, Ibarre tabarrekoak.

Bestalde, Ipar-Euskalerriko megalitiko-aztarrenen zerrenda egiteko arduradun zanez, lengoen zerrendak egin ezezik, beste berri batzuk arkitu zituen. Nork zenbatu Barandiaranek arkitutako tregu-arri, cromlechs, illarri ta gain-nerako arkeoloji-tresna pilla!

Arkeoloji-miatze lanetan, garrantzitsuenak Izturitz eta Bidarray-n egin zituen, bakoitzean ekiñaldi oso bat egiñaz.

Garai ontan —1946 urtean ain zuzen— *Ikuska* Institutoa sortu zuen nere osabak, izen bereko aldizkariarekin; aldizkari ori bera izango zan *Boletín del Institut Basque de Recherches*. Antropoloji-billaketa-arazoak aztertzen ditu bereziki aldizkari onek. Saran argitaratzen zan, nere osabaren zuzendaritzapean, eta Zuzendari-Batzarra Bilbao, Veyrin eta Elso jaunek osotzen zuten, besteen artean.

1947 urtearen azkenean sortu zan *Eusko-Ikaskuntza* ere, Lendakari nere osaba, eta Saint Pierre, Lafitte, Intxausti, Monzon, Lagasse, Manu Sota, Bilbao, Lasarte, Doyanburu laguntzaille zituela.

Bazkun onen aldizkari bezela ta Bazkunakin batera jaio zan Bayonan *Revue d'Etudes Basques Eusko Jakintza*; eusko-ikasketaren arazoak bereziki aztertuko zituena. Bi aldizkariak onartuak izan ziran, bakoitza bere saillean, baiño Eusko-Jakintza bereziki, Iper-Ameriketako Unibersidade guzitan eta Mejico, Argentina ta Venezuelako onenetan sartzen bait zan.

Bestalde, bere billaketa-lanak eta bazkun eta aldizkari oien Zuzendari-lanak, garai ontan, Nazioarteko Biltzar askotan itzaldiak emanaz, osatzen dira.

Adi bidez, 1946 urteko Apirillak 11, Londres-ko *Royal Anthropological Institut*-en itzaldi bat eman zuen *Les Recherches ethnographiques au Pays Basque* gaitzat artuta.

Oxford-en —1946'gn urte berean— *International Congress of Anthropological and Ethnological Sciences-Oxford-Meetings*-eko ospakizunetan izan zan, Batzar oien onu-batzarkide iraunkor bezela, eta Batzarkide zanez, *On the Conservation of the Basque Peoples* izeneko lan bat aurkeztu zuen: gero "Man" aldizkariak argitaratu zuen lan ori.

1947 urteko Iraillaren azkenetan, Paris-en *Comission Internationale des Arts et Traditions Populaires*-en Batzarrean izan zan. Batzar ortan itzaldi bat eman zuen *Etat actuel des etudes ethnographiques* gai zuela. *Musee de l'Homme*-ren aretoan izan ziran billerak eta egun aietan Europako Etnografilari ospetsuekin artuemanak euki zituen: Riviere, Corso, Maertens, Van Gennepe, Marinus, Foundonkidis etab.

Batzar-Lendakari Salvador de Madariaga españatarra. Elkarizketa batean, bere eusko-jatorria aipatu zion, Vizcayako Busturiakoa, alegia: ortik Sevillara aldatu ziran bere arbasoak XVII'gn gizaldian. Gai ortan jarraituaz, ala zion nere osabari: "Españaren sustraia euskotarra da ta lorea Andalucia".



Nazioarteko Antropoloji ta Etnoloji-Jakintza-Batzarren Batzorde Iraukorra. Bruselas, 1948. Jose Migel Barandiaran lenengo lerroan dago (ezkerretik irugarrena). Baita ere ikusten ditugu besteen artean: Erroma-ko Corso; Portugal-go Mendes-Correa; Austriako Koppers; Españako Bosch-Gimperera.

1948 urtea, aurrekoak bezela, etnografi-billaketa, *Ikuska* ta *Eusko-Ikaskuntza* aldizkarien zuzendaritza ta nazioarteko batzarretan txostenak aurkezte-urtea izan zan bete-betean.

Era ortan, 1948 urteko Uztaillaren lenengo astean, Paris-en *Congres Internationale d'Archéocivilisation*-en arkitzen zan eta *Les symboles magiques au Pays Basque* gaiari buruz itzaldi bat eman zuen an. Dr. Varagnac zan Batzar Lendakari. Españaren izenean Bosch-Gimperera Irakaslea joan zan. Rumanian Carciu Irakaslea nere osabari —bere itzaldi zalata— egin zion oarra, arrigarria iruditu zitzaion: Rumanian ere ekaitz-egunetan aizkora aozgora jartzeko oitura bai omen zala, alegia.


Andik illabetera beste batzar bat: Bruselasen oraingoa: *Junta Permanente de los Congresos Internacionales de las Ciencias Antropológicas y Etnológicas*-eko Batzarkide bezela. Lagun zaar batzuk topatu zituen an: Erromako Corso; Portugal-go Mendes Correa; Franciako Riviere; Austriako Koppers eta Pericot eta Españako Bosch-Gimperera.

Abuztuaren 19'an esan zuen bere itzaldia: *L'etat actuel des études prehistoriques au Pays Basque* zan itzaldi-gaia: biaramonean, bazkalondoko saioan, Ameriketarako mintzaldi bat egin zuen, Inglaterrako B. B. C.-tik.

1948'gn urtean, Iraillaren 12'tik 20'ra *Eusko-Ikaskuntzaren Nazioarteko Batzarra* ospatu zan, ikasaldi askorekin, Biarritz-eko Lizeoan: Batzar orren Lendakari Jose Migel Barandiaran izan zan.

1949 urtea berdiñ: beste urteetako lanketak. Martxoaren 23'an *Societe Meridionale de Speleologie et Prehistoire*-eko Landakari izendatzen dute: urrengo urtean lendakaritza ori utzi ta oorezkoa artu zuen.

Uztaillak 13. Bruselasko Batzar batean, *Toponimia-Batzar*ean parte artzen du. Nere osabaren itzaldi gaia izan zan: *Rapports entre la toponomie et l'archeologie au Pays Basque*. Batzarraren lan-saioak *Palais des Academies*-en



Sarako parrokiaren barruko zati bat. Lenengo koroan D. Jose Migel egon oi zan aitorlekua.

zaretoan izan ziran. Ikustaldi batzuk egin zituzten: auek aipagarrienak: Lovainako *Institut d'Onomastique et Exposition d'Oeuvres d'Onomastiques*-era egindakoak. Uri berean, ango Unibersidade ospetsuan oorezko arrera bikain bat egin zieten: Bosch-Gimpera ta Caro Baroja zituen lagunak nere osabak.

Baiño nere osabaren egitekoa ez zan jakintza-alorrean bukatzen, bizitzak eta giza-arazoak ere kezkatzen zuten.

Nere osabaren moral-tankeran atal bat —eta ez makalena— auxe da: bere arrera irekia, guziekikoa. Gai ontan badute zeresanik amaika personek: apaiz, sekular sinistun ala ateo, gorri ala zuri; arengana argi-billa, barrua ustua naiean, erbestearen asieran babes goxo-billa jo zutenek.

Ain zuzen, 1949 urtearen azken egunean idazten du nere osabak bere Egunerokoan urteko kontu-garriketa bat, naiko adierazgarria:

Urte ontan 281 oturdu eman zeau, etxera etoi zaiutzan aixkide eta arrotzai. Ainbeste baitittuk beste aldeti igeska datoztenak! (1).

Aipatzen ari geran epe onen barruan, beste askoren artean, berezi diteke Indalecio Prietoren bi alabek bere etxean egin zioten ikustaldia; geroago, 1952 urteko Abuztuaren 30'an, aita berak egingo zionaren iragarpina bezela.

Egun aietan baita ere etorri zitzaion Ansaldo koronel sonatua: izketan ari zirala, "Españan III'gn Joanen Erregetza ber-eraiki bear zala" zion.

Nere osabaren gizarte-artueman oietan, guziekiko serbitzu ortan, bere apaiz-serbitzua ere azpimarratzekoa da, naiz egiteko ori oparo bete bere ikusliarren artean; apaiz zanez, erlijio-serbitzua, Elizak dituen bideetatik, eman nai izan dio lagun urkoari.

Sara parrokiari sarturik, beste edozein apaiz bezela, erretorearen esanetara zegoen, eskatzen ziona egiteko prest. Aitorle-lanari arreta berezia jarri zion beti. 1949 urteko Abenduaren 24'an ministeritza au aipatzen zuen:

Gaur sei-zazpi ordu pasa ditut aitortzak entzuten (2).

Nere osabagan gizona ta apaiza ondo uztarturik dabilta. Jakintza ta sinismena, Iturri beretik sortuak, elmuga berera dijoaz. Ori bai, bideak ez dira berdiñak. Ikasiaz eta billatuaz bazkatzen du Jakintza; otoiaren bidez Sinismena. Baiño dana dala, beti Egi bat bera Jakintzak eta Sinismenak.

Eta Egi Bakar orrekin oso errez topo egiten du nere osabak. Erretiro-egunak mendiko bakardadean egiten ditu. Kempis zaarra espirituaarentzat eta ogibitarteko bat gorputzarentzat; Jainkoa topatzen du izadian, jakintza-gaiak topatzen dituen bezela.

OARRAK

- (1) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1949.
 (2) *Egunerokoa*, id.

XIX

Itzulera prestatzen eta itzuleraren leenengo pozak

Azkeneguna "Bidartea"-n. Amairu urte Sarara etorri nintzela. Lagunon eta zintzoak erri ontakoak. Une auetan auxe da nere agurra: ¡"Beste bat artio"!

J. M. B.

Nere osaba bere errialdera ekartzeko aalegiñak ez ziran gaurkoak. Len aipatu degu, Marques de Lorianaren gogoia 1941 urtean, Marques de Lozoya-kin batean. Baiño gogoia oiek ez zuten bidea garbitu aal izan.

1946 urtean, orduan Gazteizko Gotzai zan Carmelo Ballester jaunak, eskeintza bat egin zion, baiño segurutasunik ez zan agiri. 1948 urtean ere asmo-saiaketa bat izan zan: D. Manuel Lecuona ta D. Pio Montoya ziran eragilleak, nere osaba Euskalerriko billaketaen gidari jartzeko asmotan.

Lan berean aalegindu zan baita Españako Azterketen Komisario Jeneral zan Martinez Santaolalla jauna ere: au aitortu bearra dago.

Baiño euskaldun apaizen artean baziran, ez etortzea ohea zala, uste zutenak. 1950 urtean gertatzen zan au. Elizbarrutiako apaiz-giroa naastua zegoela, zioten, eta ura —D. Jose Migel— eredutzat bear zutela. Baiño, Elizbarrutira itzultzen bazan, naasketak erdibitu zezakela ta eredu-egitekoa betetzea galerazi.

Bitartean nere osabak ez zuen aintzakotzat artzen itzultzea. Alare, noiz-baiterako txoko bat bere lurrean antolatzea, pentsatzen asi zan.



Sara erri osoa.

1950 urtean, erbesteko urte aiek berarekin igaro zituen bere illoba Pilar-ek, Ataunen etxe bat jasotzeko bideak antolatu zituen. Baiño elburu nagusia auxe zan: illobak, bere jaioterrira etortzea erabakitzen bazuen, ez zedilla aterpe gabe gelditu.

Izan ere, 1952 urteko Martxoan etxea bukatuta zegoen. Biok bat zetozen etxe berriari izena jartzerakoan: amairu urtez bizileku goxo izan zuten Lapurdiko txoko polit, Sara-ren izena: ta barru ta kanpo *Bidartea*-ren antzekoa izango zan.

Nere osaba, beti bezela, bere lanetan. 1951 urteko Maiatzaren erditik aurrera, Parisen, *Conseil Permanent du Congrès International des Sciences Antropologiques et Ethnologiques* deituan zebillen: billerak UNESCO-ren etxean egingo ziran.

Batzar-buru Paul Rivet zan. Lagun askoren eskuak estutu zituen an: Schmidt, Koppers, Vallois, Riviere, Leroi-Gourhan, Sergi, Pericot, Alcobé... bereziki.

Eta, Francian bizitzen asi zanetik artutako oitura jarraituaz, prehistori ta etnografi-lanekin eta Batzarretan parte bizia artzarekin batera, jakintza-elkarreetan ere sartu zan.

Ala, 1951 urteko Azaroak 15 *Comisión Superior de los Monumentos*


Históricos de Francia izenekoaren Bazkide zalako albistea artu zuen. Louis Méroc-ek izenpetutako albisteak, itzez-itzez, auxe zion:

Historiko Monumentuen Goien Komisioak, aipatutako Komisio orren Bazkide izendatu zaitu, azkeneko Urrillaren 30'an egiñiko billeran (1).

Andik ilabete gutxira, Franciako Nazio-Eziketako Ministeritzak Ipar-Euskalerriko megalitiko-monumentuen zerrenda egiteko, eskatu zion ofizialki.

1952 urtean, nere osaba itzultzeko prestaketak, indartu egiten dira. Otsaillaren 8'an D. Jesus Elozegi dijoakio nere osabari, prehistori-lanak gidatzeko Guipuzcoara etorri dedilla, eskatzera.

Il beraren 28'an beste elkarikusketak bat: au bai jaso zuen nere osabak bere *Egunerokoan*, zeaztasun guziekin: orain ere albistarien buru Elozegi bera zetorkion. Orduan garrantzitsuena au izan zan: nere osabak Guipuzcoara itzultzea onartu zuela, eskeñi zizkioten baldintza ta garantiakin.



Sarako "Bidartea"-ren zati bat. Francian pasa zituen azkeneko 13 urte aietan ementxe zuen bere txoko maitagarria.

Gaur etoi zaiutzak alkarrekin bazkaiatea Elosegitar Jesus, Laborde'tar Manuel eta Zirikiaín-Gaiztarro, "Sociedad Vascongada de los Amigos del País" eta "Aranzadi" bi elkargo auen izeneen nei Gipuzkoa juun nadiñ deia eittea. Baietz eantzun zeat, ara juungo naizela, leengizonai eta etno-ikuskai buruz, beak nai doen bezela, ango lur eta errietan lan eittea. Ara juun-etorriik eitteko baimena eskutaatuko diaela eta an lan eitteko eta bitzeko bidean jarriko naueela esan zeia (2).

Len esan dan ikustaldi orren asiera, badirudi ola izan zala: *Real Sociedad de los Amigos del País* dalakoak jakin du nunbait, Salamanca-ko Unibersidadeak Barandiaran ikastetxe artara eramateko asmoa daukala. Orduan, Bazkun orren Zuzendariek "Aranzadi"-koekin izketatu ziran eta aipatutako enbajada izendatu zuten.

Eta izan ere, Salamanca izango zan nere osaba etxeratzeko eragillerik indartsuena. Guipuzcoara itzultzeko lan asko egin zuen ainbeste lagun jator baztatu gabe, Salamancako Unibersidadearen Erretore D. Antonio Tovar-ek lortu bait zion, Ego-Euskalerrira erabat itzultzea.

Elburua irixteraiño, bideko eragozpenak nola ezkutatziran? Nere osabari entzun diodanez, Ruiz Gimenez Nazio-Eziketako Ministroa zalarik, Unibersidadeko Irakasleek Batzar bat egin zuten: Salamancan "Catedra Larramendi" sortzeko erabakia artu zan batzar artan. Kursoari asiera Barandiaranek eman bear ziola, eskatu zuen Tovar jaunak.

Ala gertatu ere. 1952 urteko Abuztuak bat, Salamancako Unibersidadeko Erretore Tovar jaunaren karta bat artu zuen nere osabak, "Catedra Larramendi"-ri asiera ematera joateko, esanaz.

Eta 1953 urtearen Urtarrillak 6, erabaki zuen nere osabak dei ura onartzea. Berak obeto esango digu:

Gaur Salamanka'ko Unibersidadean buruzagi dan Antonio Tovar'en eskutitza artu deat. Ara juun nadilla, 12 itzalditan "Catedra Larramendi" dalazkoari asera ematea, esaten zeak. Dei au leendik eñ zeacan. Ill onen 24'n ara juun neikeala iduri zatak; bear-bada, 19'n (3).

Baiño beste bein, gizonak pentsatu ta Jaungoikoak eratu. 17 urte aietan ainbeste amets egin erazitako itzulera, azken orduan, gerorako utzi bear.

16'n Eguna. Bart nolabait nee burue arkittu deat: usuriikiñ odola eitten. Atzoko jauzi bateen —mendiin— beartue edo mindue nunbait. Aatsaldean Agirretxe sendagilleeri deittu zoat. Egun belune gaurko au!

Urtarrillak 16. Gaur gaixo xamar arkitzen det nere burua. Poxakin batera odola bota det. Arratsaldean Dr. Aguirrecheri deitu diot.

Urtarrillak 18. Nere gaitza gero ta okerrago. Illunabarrean Donibane-ko Darricau klinikara eraman nau Dr. Aguirrehek.

Urtarrillak 19. Salamancako Unibersidadera joatekoa nintzen gaur. Klinikari arkitzen naiz, oiñazez eta aula.

Urtarrillak 20. Elizakoak artu ditut gaur. Nerekin ditut nere arreba Mikaela ta nere illoba Pilar. Idiarregaray-ren odola sartu didate.

Urtarrillak 21. Gaur citoscopia egin didate. Prostatitis daukatela ta operatu egin bear nautela, esan didate. Miña gorputzean: etorkizun beltza: "Kristori jarraitu". Gure lagunek eskeintza ta emaitza asko egin dizkigute. Aguirreche, Camino, Inchausti, Leremboure, Sansinenea, La Sota (Erramun eta Manu) denek klinikako zuzendariari esan diote, gaixotasunaren gasto guziak berak ordainduko dizkiotela (4).

Ikusten danez, nere osaba ez zegoen bakarrik bere gaixotasunean. Lagunak gertu ditu. Adixkideen laguntzak eta Jaungoikoaganako pentsamentuak arintzen dizkiote oiñazeak:

Ilbeltzaren 31'n egune. Oaındio Klinikari. Neekiñ arreba Mikela eta illoa Pilare. Ikustaldia eñez, lagun asko etoi zaietzak, baita eskutitzez galdeak eñ ee beste askok... Noiz amaittuko nee miñek? Mundu ontan, leen ee, aski miñ eta atsekabe izen zeetuat; egun alai eta gozook ee bai: onak eta txarrak, miñek eta atsegiñek alkarrekiñ kate bat eñik zeiltzek: ala dek mundu ontako legea: Kristo'k erakutsi ziuk, denetaik izengo dittugula emen: gero, Kalbario onen ondoren, zoriona; ez leenago (5).

Otsaillaren 14'tik berriz ere bere etxean, indartzen. Ain zuzen, Klinikatik atera zaneke aste artan ikusi nuen nik Saran. Tankera exkax ura ez zait sekula aaztutzen.

Andik illabetera, gutxi gora bera, bigarren operazioa egin bear zioten. Atsekabeak neurtzen da sinismenaren indarra. Eta atsekabeak astindutako nere osabaren sinismenak ondo erantzun zuen; bere nortasun sendoa arkaitzean eraikia izan:

Otsaillak 27. Biar noa klinikara, bigarren operazioa egin dezaidaten. Ondo ateratzen banaiz, eskerrak Jaungoikoari. Bestela, Jaunak lagun bezait. Bere gogoa nere gogoa izango da.

Martxoak 3. Guy Berri-ren odola sartu didate. Bear baiño aulago nago. ¡Au kalbario mingarria da! Oiñazean ere Kristoren antzekoa izan bear det, ez lanean bakarrik.

Martxoak 5. Gaur bigarren operazioa: prostata kendu. Goizeko 10,30'tik arratsaldeko 4'ak arte ezaguera gabe egon naiz. Atsegin da Kristokin sufritzea!

Martxoak 17. Sonda lodiago bat jartzeko anesthesiatu egin naute. ¡Nolako oiñazeak! Baiño munduko legea au dala, erakutsi digu Kristok (6).

Bigarren operazioaren ondoren, sendagilleak kezkatzen zituen kakoren

bat azaldu zan. Jakintzak uts ematen zuela ikustean, nere osabak Jaungoikoa-rengana jotzen du. Andre euskaldun baten aolkuz, Ama Sancho Guerrari bederatzaurren bat egitea, erabaki zuen. Baita nere osabak egin ere:

Jorraillaren 28'n eguna. Asi nauk Jaikoagan itxaropen geiago artzen, nee inguruun daitzen lagunek galdu baitdiia. Ama Sancho de Guerra'ri beaziurrune eitten asi nauk. Beak sendauko natxok. Irri eitten zoia oni askok. Nik ordea bazekiat guri eta mundu oni eragitten dion baten baittan geala eta ari eskatzea eta beragan itxarotea ez dala beti alperrikakoa. Lagun eta aixkide asko etoi zatak ikustea. Arreba Mikela maiz egon deken; illoba Pilare berriz aldi guztiñ (lau illabeteen) emen nei lagun-zen (7).

Auxe zan arazoa: sondak egindako zauria ez zala ixten. Alare azkenik, Maiatzaren 18'an gauzak aldatu ziran. Sonda kendutakoan zauria itxirik zegoen.

Jaunkoari eskerrak, gaitza menderatu zuen. Bitartean Tovar larri Salamancan, "Catedra Larramendi"-ri nere osabak asiera eman zezaion. Nere osabak idatzi zion, bai Tovar-en erantzuna jaso ere azkar:



UNIVERSIDAD DE SALAMANCA
RECTOR

Salamanca, 20 de abril de 1953

*- Es Manco: el
montado del sobre
jone "21 May 53"*

Rvdo. Sr. Don José Miguel de Barandiarán
SARE (Francia)

Mi distinguido Sr. y amigo:

Agradezco mucho su carta y celebro la noticia de su mejoría. Desde luego que es una contrariedad que no hayamos podido inaugurar todavía la cátedra "Manuel de Larramendi", pero convenido de que conviene precisamente que sea Vd. quien la inaugure, esperearemos hasta el próximo curso académico en el que inmediatamente de que las clases comiencen le pediremos a Vd. que venga a dar su curso. Convendrá sea tan pronto porque para esa fecha quiere venir también Bouda y quisiera que para entonces estuviera ya inaugurada la cátedra. En tal caso podría Vd. comenzar y después de la primera lección ya podría dar su conferencia Bouda y terminar Vd. después su curso. Por consiguiente deseo que mejore Vd. del todo y que podamos al próximo curso comen-
zarle, una vez que pasen las fiestas del Centenario, con la inauguración de la cátedra.

Le escribo a su casa por no tener la dirección de la clínica en San Juan.

Reciba un afectuoso saludo de su amigo y s.

q. d. s. m.

Antonio Tovar

Salamanca 1953 urteko Apirillak 20.

D. Jose Migel Barandiaran jaun agurgarria.

Sara (Francia).

Nere jaun eta adixkide:

Eskerrak zure kartagatik eta pozten naiz sendatu zeralako. Benetan, ezbear bat izan da "Catedra Larramendi" oraindik ez irikitzea, baiño kurso ori zuk iriki bear dezula, etsita nagon ezker, urrengo ikasurte arte itxoingo degu, eta klaseak asten diran bezin laixter, zure ikas-urtea ematera etortzeko eskatuko dizugu. Ain azkar astea ona litzake: egun ortarako bait datorkigu Bouda eta katedra ori irikia egotea nai nuke. Beraz zuk asi, gero Boudak bere itzaldia eman dezan eta zuk kursoa amaitu. Erabat sendatu zaitezela opa dizut, eta datorren kursoa asi aal dezagula, Eun urte urrenaren jaik bukatu ondoren, katedraren irikitzearekin.

Donibaneko klinikaren zuzenbiderik ez daukatelako, zure etxera idazten dizut.

Zure lagun eta serbitzariaren agur bero bat ar zazu.

Antonio Tovar

Ordutik nere osaba azkar bizkortzen asi zan. Naigabeak urruti gelditzen ziran baiño ez aaztuta: gaixoaldian lagundu ziotenen borondate ona ere ez zan aaztuko. Ondo-ondoan egon ziran etxekeotaz kanpo, gaixotasun ura arduraz jarraitu zuten personak zenbatzea ezinezkoa da. Batzuk beren esku zabalakin: besteak beren maitasunarekin:

Garrilleen 13'n egune. Eguerdian juun nauk Donibanea. Dr. Darricau'ren klinikara leenengo. Sendagille onek ikusi natxok eta ondo noala esan zeak eta ortan jarraitzeko. Nei eñdako ebakintza eta beste lanen ordez, ez dik sariik artu nai... Geo Agirretxe'en etxea juun nauk bazkaittea. An giñuztan alkarrekin Agirretxe bee andreekin, Camiña (Jose) eta Oraindia'tar Domingo. Onek esan zeak klinikako nee zorra (286.700 libera) sei lagunek eman doen diruukin ordaindu dala. Sei ook dituk: Garzia Urtiaga (Martín), Intxausti (Manuel), Epalza (Txomin), Monzon (Isidro), Azketa (Jesus) eta Unzain (Andres).

19'n eguna. Nere sabeleko zaurie —gaiñe— gaur zearo itx dek. Illoba Pilare'k gaur eñ dik, nee osasune eskatuuz Ainhoa'ko Andre Mari'ri agindue: Ango elizañora oiñutsik igo eta jextea. Onaindia (Juana)'k laundu zook. Barrune beiz Ama Sancho de Guerra'ri ototzezko beaziurrune eñ nioneen itxi eta sendau oan.

Gaur jakin deat zenbat diru nee ongilleek eman doen nee klinikako zorra ordaintzeko: Garzia-Urtiaga'tar Martín'ek, 100.000 libera; Intxausti'tar Manuel'ek, 50.000; Monzon'dar Isidro'k, 50.000; Euzkadiko Jaur-laritzak, 50.000; Epalza'tar Txomin'ek, 5.000; Azketa'tar Josu'k eta Un-

zain'dar Andres'ek, 300 dolar. Geiagoree ba-dittuk saria emateko asmootan zienak, bearrrik bazan.

21'n egune. Nee gaixoaldiin, 546 laun etoi zaeztzak been agertu bat eitteá (Araba'ti, Bizkaí'tti eta Gipuzkoa'ti, 81) (8).

Gaixo-aldia garaituta, nere osabak bere leengo bizikerari elduko dio. Abuztuaren 21'an "Uztaritzeko Udarako Unibersidadean" azaltzen zaigu, "Eusko-gizon prehistorikoa"-ri buruz itzaldi bat ematen.

Bitartean Tovar jauna nere osabaren gaixoaldiaz kezkatu zegoen eta "Catedra Larramendi" irikitzea gerorako utzita zeukan. Onela idatzi zion:

Salamanca 1955'gn Iraillak 13.

D. Jose Migel Barandiaran jaun agurgarria.

Nere jaun eta adixkide:

Zure karta artu det eta, erabat sendatu zerala jakiteak poza eman dit: banekien zerbait. Catedra Larramendi irikitzeke zure zai gaude. Ori aalik azkarrena egitea nai nuke, kursoa asi bezin laixter: Bouda Españara bait dator eta itzaldi bat edo bi emango ditu: ordurako zuk Catedra irikitzea da nere gogoa. Beraz, eun urteurrenaren jaiak amaitutakoan, au da, Urrillaren 15'etik aurrera, zuk egun bat aukeratu, ill orren barruan. Zure itzaldien egitaraua bidaltzen badidazu, eskertuko dizut: iazkoa galdu egin zait eta.

Gertakizun ori jakin eraziko degu, ospetsua izan dedin.

Agur bero bat.

Antonio Tovar (9).

Kursoaren asiera egun batzuk beranduago izan zan eta nere osaba ere egun batzutan Francian gelditu zan.

Iritxi zan bada, —ez nai orduko— Urrillaren 20'a: egun pozgarria nere osabaren biotzarentzat: zenbat amets egun orren zai zegoen bitartean. Baita leengo gauza maite aiek ere zai zeuzkan: ikusgarri ezagunak, jaiotetxea, sendiko maiteak, lagun zintzoak: 17 urte aietan bere oroimenak barru-barruan jasorik zeuzkan mundu zoragarri ura, Euskalerra maitearen txoko kuttun ura.

Itzuleraren pozarekin batera zetorren ordea agurraren naigabea. Muga ertzeko Sara, "erri paketsu, apaiña, txoko politen benetako eredia", D. Isaac Lopez Mendizabal-ek zionez (10), biotzaren erdiraiño sartu zitzaion nere osa-

bari; jende xalo ta arretatsuak eta euskal-oitura garbiak maitagarri egiten bait zuten Sara.

Bidartear-en atea azkeneko aldiz ixtean, —bere jabe Sansineneak esku-zabalez utzitako ta 7 urtez babes goxo izandako— etxearen atea ixtean, Sarako olerkari Elizanbururen bertso apaiñak bururatuko zitzaizkion: *Nere Etxeari* jarritako bertsoak.

Izan ere Sara izan zan nere osabarentzat, mugaz aruntzko bigarren Ataun eta *Bidartea* bigarren *Perune-zarra*. Entzun izan diot nere osabari: —noiznai Saran bait da— muga igaro ta Donibanetik Sarako bidea artzean, bere etxera dijoala, iruditzen omen zaiola.

Egun ortan ixurtzen ditu nere osabak bere Egunerokoan, uzten dituen jendeenganako esker ona ta arkitzen dituen lagunzarrentzat biozkadak:

Urriaren 20'n egune. Gaur azkeneko eune Sara'n. Ba-dittuk ia 13 urte erri ontan etoi nintzela. Oain beste bat artio esan bear. Lagun onak, leialak eta eziik saratar ook. Elosegitar Jesus'ekiñ irten nok bazkalondoon Donibaneako asmoon. An artu deat Salamankaako txartela, Sautotar Enrikeen bidez. Onak etxeak ordaiñik artu: eskerrak beari. Donibanen Sansinenea'k artu gatxeetuk bere billeen edo autoan eta mugaa eaman. Emen ongi artue izen nok. Irun'en ikusi zeetuat Sistiaga'tarrak. Geo Pasa-ya'ra, Elosegitar etxea. Andi beela Lezo'ko Kristo gurenaan elizaa, Jainkori eskerrak ematea, nee gaurko ibillaldi au ondo dijoolako (11).

Biaramonean biotzikara ez zan nolanaikoa: bere errian, jaiotetxean, etxekoez inguratua: bi egun pasa zituen an.

Urrillak 24. Salamancan, ostatua Hotel Universal-en duela. Itzaldia emateko egunaren zai dagoen bitartean, uriko monumentoak eta lagunak ikusten dabil. D. Lamberto Etxeberria, Gazteizen bere ikaslea izana ta orain kallonje ta Unibersidadeko irakasleak, maitekiro artzen du ta berak erakusten dio katedrala. D. Jose Zunzunegi ere an barrera dabil, Gazteizko Seminarioko irakaslea: Gasteizko Seminarioa Salamancako Unibersidadearen ordekotzat onartu dezaten, lortu nairik dabil.

Azkenik, Azaroak 3, iriki zan "Catedra Larramendi, *Facultad de Letras*-en aretoan, nere osabak lenengo itzaldia ematen zuela. Gaia: *Eusko Ikaskuntza gaur*. Itzaldiek —10 guzitara— illaren 13 arte iraun zuten.

Salamancako egonaldi arek oroimen atsegiña utzi zion betirako nere osabari: bereziki, atsegin izan zitzaizkion Erretore Tovar eta Irakasle Maluquer, Ruiperez eta Cortés.

Berriz ere Gazteizen, Seminaria deitu dute, baita arrera beroa egin ere Erretore jaunak eta irakasle askok. Bere antziñako irakasle ta gero erbeste-

kide D. Pedro Menchaca jaunari ere ikustaldi bat egin zion. Gazteizko Gotzai, D. Jose Maria Bueno Monreal-ekin elkarizketa bat euki ere bai.

Azaroon 16'n eune. Gasteiz'en ipixtikuana juun nok: ondo artu na-txok, eta beartzen ba-naiz edo ustegabe Prantziitti etoi bearra izeten ba-det, beari deitzeko esan zeak, al doona eingo diala-ta (12).

Atauna itzulita, ase aldi bat ematen die bere begi-biotzei, lur maitearen ikusgarriak irentsiatz eta txikitako oroitz goxoak piztuaz:

30'n eune. Etxeen nee lanetan. Aatsaldeen Gaztiñerre'ti, Atseen-le-ku'ra eta Igartu'ra juun nok. Geo Keiñuestraata'n zear San Gregorio'a jetxi. Zenbat oroipen bide oriittan!

Abenduun 5'n eune. Gaur leenengoz, ia 40 urte ezkeo, Beraan'di Danbolinsoro'a eta Usuela'a io nok... Nee txiki-garaiko eta gaztearoko oroipenak berrittu zeetuaz (13).

Urtearen bukaeran... Gabonak. Beste batzuk ez bezelako Gabonak. Ataundar txikiak ate ondora datozkio Gabon-kanta zaarrak kantari. Gabon-gaua, gerrak moztutako oitura bat berrituaz, gure Gazteizko etxean ospatu zuen, etxeko guziekin batera.

Erbestea utzi ta bere lurrera itzultzeko eguna iritxi zan: aspalditik ega-rrri zuen zoriona gaur eskuartean: mendi ta ibar ezagunen artean, erritarren maitasunez inguratua.

Jaiotetxetik urruti zebillen bitartean, Iparagirrereren bertso negarti aiek aopean abestuko zituen:

Erri-alde guztietan
Toki onak ba-dira;
Bañan biotzak dio
Zoaz Euskalerrira.

Egia da, Euskalerrriaren barruan bizi izan zala, baiño txoko maitea falta. Biotzaren egarri aiek ase dira erabat.

OARRAK

- (1) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1951.
- (2) *Egunerokoa*, 1952.
- (3) *Egunerokoa*, 1953.
- (4) *Egunerokoa*, id.
- (5) *Egunerokoa*, id.
- (6) *Egunerokoa*, id.
- (7) *Egunerokoa*, id.
- (8) *Egunerokoa*, id.
- (9) *Jose Migel Barandiaran-en, Eskutitzak*.
- (10) Jose Migel Barandiaran-en, op. cit., 1953.
- (11) Isaac Lopez Mendizabal-en, *El País Vasco*. (Ekin Argital. Buenos Aires 1946), 167'gn orri.
- (12) *Egunerokoa*, 1953.
- (13) *Egunerokoa*, id.

XX

Berriz ere zeruertz maiteen artean
eta betiko eginkizunetan

*1954'gn urteko Urrillak 18. Gaur
asi degu Urtiagako leizearen amarga-
rren miaketa-ekiñaldia. Guk, 1936'gn
urteko Uztaillaren 24'an, utzi gen-
duen bezela dago, Diputazioak jarri
duen burnizko atea ezik.*

J. M. B.

Nere osabak, orain amazapi urte utzitako Ataungo bizitza ta eginkizu-
nak berriz astea adierazteko, itz bat auxe esango nuke: berezkotasuna. Ezer
gertatu ez balitz bezela.

Lau gizaldi leenago Fray Luis de Leone-ek egin zuenaren antzera: In-
kisizioak aurrean erabili, bost urte karzelan pasa ta Salamancako klasera
itzuli zanean, bezperako ariari elduko balio bezela, ola asi omen zan: "Atzo
genion"...

Eta Francian bere jakintza-lanak sekula utzi ez zituen nere osabak, azkar
eldu zion Ataunen bere billaketa-ariari. Eta Francian bezela bere "Velo-solex"
zaldian zaldun, an dijoa lengo lan zaarretara ta gaurko berrietara, baiño Fran-
cian artutakoak utzi gabe.

Atauna etorri berritan —1954 urteko Martxoan— "Aranzadi" taldeak
omenaldi bat egiten dio Donostiako San Telmo museoa: eta nere osabak
itzaldi bat ematen dié, ordañetan; Etnoloji ta Prehistori-lanetarako bideak
argituaz. Billera artan bertan erabaki bat artu zan: urrengo Iraillan —Aran-

zadi taldeak lagunduta— Itziarren Urtiagako leizean billaketan jarraitzea.

Billatzailea ta billatzaileen gidaria, asi da bide berriak irikitzen, etnografi ta prehistori-ekiñaldiak tajutuaz. Gai berean, Apirilla ta Ekainean, San Telmoko museoan itzaldi batzuk eman zituen, prehistori ta etnografi-billaketak nola egin, erakutsiaz.

Bi lanbide aukeratu —billaketak eta itzaldiak— berdin jarraitu zuten, Franciatik etorri ezkerozko ogei urte auetan. Esan zitekeen bere bizi guzira ere orixe bera izan zala. Baiño garai onek badu, besteek ez zuten zerbait, D. Jose Migelen jakintza-lanean.

Lenengo alderdiaren —billaketaren— bereizgarri, ugaritasuna da. Sekula ez zan leenago ainbeste miaketa egin. Gai ortan egindako lanak zenbatzera ez goaz orain. Miatutako leku nagusienak bakarrik.

Franciako mendi ta ibar, illarri-billa egindako ibilketaz kanpo, edo taldean, Boucher eta Laplace-kin batean Haristoy leizeko an egindako miaketaz kanpo, garai ortan Araban, Guipuzcoan eta Vizcayan egindako lanak kontaeziñak dira.

Egutegia kontuan arturik, laburki esango ditut billaketa nabarmenenak: 1955 urtean —Medrano lagun— Zuazo de Cuartango-ko *Gurpide* tregu-arria.



Jose Migel Barandiaran Francia-ko arkeologijari George Laplace ta bere laguntzailearekin. Zutik bat, Bilboko Museo Historico-ko Zuzendari Mario Grande. Museoaren Laboratorioan, 1960'gn urtean.

1956 urtean Santa Agedako (Mondragon) *Leze-txiki* miatzen asi, amar ekiñalditaraiño luzatuko zana. Ekiñaldi auetan persona ezagun askok lagundu zioten: frantzitar prehistorilari Boucher eta bere alaba, Medrano, Apellaniz, Altuna, Vallet, Quadra-Salcedo andereñoa, Muñoz Amilibia, La Lastra...

1957. Aldaban (Guipuzcoa) *Intxur*-ko Gazteluan egindako miaketak aipagarrienak.

1958. Medranokin Subijana de Morillas-en (Araba) eta Lesacako (Navarra) *Aginamendi*-n, Luis Vallet arkitektoak eta zizelkari sonatu Oteizak lagunduta.

1959. Aurreko urteetan bezela, Urtiagan eta *Leze-txikin*.

1960. Nere osabak arreata berezia du Errenderiko *Aitzbitarte* leizearentzat: lantoki ortan, ekiñaldi batzutan, lagundu zioten Inazio Barandiaran, Altuna, Apellaniz, Garcia de Diego, Laburu, Rodriguez Ondarra eta abarrek. Guernicako *Atxeta* leizean ere egin ditu miaketak. Leize ortantxe ari zala, gertatu zitzaion bada nere osabari gertatzeko bat: berak esan dezaigula:

"An ingurau zaiuk M.-M'go nausie eta esan zeak: —or, lurra beste gauzarik ez dozu billatuko; baiña zuk ere denpora nolabait pasa bear. Onek ee uste dik nunbait, mundu-aldi au zertan igaro ez deala nik oaindio ikasi. Gipuzkoa'ko Diputazioan oain agintzen doen batzuuk ee oi uste diia. Ala zirudik beintzet: Arkeologian eitten dittuun lanezaz "no rinden" esate emen diia (1).

Urte beraren barruan au ere, Joco-ko (Araba) *Solacueva*-leizean miatzen asten da, Medranok lagunduta.

1961, 1962 ta 1963 urteetan, lengoak eta berri bat: *Goikolana* leizea: laguntzaileek: Nolte, Ugartetxea ta Lecuona.

1964. Lantokiak Laguardia, *Lumentxako* leizea (Lekeitio), Albaina (Araba): laguntzaile Llanos. Azkeneko miaketa orrek beste bi ekiñaldi ere bearko zituen.

1967. Diman *Axlor* leizea miatzen asi (Vizcaya), oraindik bukatu gabea ta geroxeago *Zestuako Ekain*: oraindik jarraitzen du onek.

Bigarren alderdiak, izlari-alderdiak —aspaldikoa ta betikoa izanik— bereiztasun bat artzen du. Garai ortan errikoia egiten da.

Jakintzaren goi-maillako itzaldiak utzi gabe: adi bidez: 1956 urtean Salamanca-ko Toponomia-Batzarra, Sorbonan Axularen omenaldia, 1958 urteko udaberrian Madrid-eko Unibersidadean, eta urte bereko Ekainan, Oporto-ko *Coloquio de Estudios Etnográficos Dr. José Leite de Vasconcelos*: oietaz kanpo, zabaltzaile ta errikoitankeran itz egin zuen mota guzietako entzu-

leen aurrean eta leku ezberdinenetan: onek bereizten du garai au. Esandakoa sinisgarri dedin, emen dezu entzule ta lekuen zerrenda bat, gairik izendatu gabe: au gertatu zan 1955 urtetik 1968 urtera:

- Donostiako San Telmo Museon (1955'gn Urtarrilla).
- Aranzazuko Espeleolojiaren I'go Eusko-Napar Bazarra (1956'gn. Ekaina).
- Bilboko Luistarren biltokian itzaldi-sailla (1956'gn Abendua).
- Donostian "Eusko-Filoloji-Seminarioak eratuta (1956'gn Abendua).
- Bilboko Erri-Liburutegian (1957'gn Otsailla).
- Aranzazuko Erlijosoei itzaldi-sailla (1957'gn Martxoa).
- Urréxuko Erlijososo Pasiotarrei itzaldi-sailla (1956'gn Maiatza).
- Eibarko "Club Deportivo"-n (1957'gn Maiatza).
- Donostian, Probintzi-Aurrezki-Kutxaren aretoan (1957'gn Azaroa).
- Carranzako Instituto Laboral-ean (1958'gn Uztailla).
- Gazteizko Aurrezki-Kutxa Munizipalaren aretoan (1958'gn Irailla).
- Donostiako Irakurleen Biltokian (1959'gn Otsailla).
- Bilboko Gazteluera Ikastetxean (Opus Dei-rena) (1960'gn Otsailla).
- Arrasate (Mondragon) (1960'gn Ekaina).
- Donostiako San Telmo Museon (1962'gn Irailla).
- Lekeitioko Parroki-aretoan (1962'gn Irailla).
- Beasaingo Ateneoan (1965'gn Urtarrilla).
- Zumarragako Ateneoan (1966'gn Apirilla).
- Arayako Parroki-aretoan (1967'gn Urrilla).
- Bilboko Santiago Apostoluaren ikastetxean (1968'gn Maiatza).
- Zestuan Guipuzcoako JOC-eko Konsiliarioei (1968'gn Maiatza).
- Iruña gazteen ezitzaille apaiz-talde bati (1968'gn Uztailla).
- Bilbon Diputazioak deituta (1968'gn Urrilla).

Euskalerriko uri ta errietan emandako itzaldien zeastasan guziak esatekotan, ez genduke sekula bukatuko.

Beste ikuspegi batetik begiratuta, idazten ari geran garai onetan gertatzen dana, Franciatik etorri ezker D. Jose Migeli egiten zaizkion omenaldien eta izendatzen ugaritasuna, kontuan artu bear degu.

Emen ere bi sail berezi ditezke: jakitunen eskuetatik artuak eta erri-maillakoak.

Izendatze-saillean ona aipagarrienak:

- Arkeoloji-azterketaen Probintzi-Komisarioa (1956'gn Urtarrilla).
- "Real Sociedad de los Amigos del País"-en Bazkide (1956'gn Ekaina).
- "Aranzadi talde"-ko Oorezko Lendakari (1960'gn Urtarrilla).
- Napar Errialdeen Lagunen Bazkide (1964'gn Apirilla).
- Euskaltzaindiako Bazkide (1965'gn Ekaina).

Omenaldietan aukeragarrienak:

"La Academia Errante"-ren Omenaldia: eusko-jakintsu-talde polit bategen osatzen duen Akademia: itzaldi batzuk "Añamendi"-k argitaratu zituen liburu batean (1962'gn Otsailla).

Ataungo "Aizkoate" Bazkunaren Omenaldia (1963'gn Urtarrilla).

"Don Jose Miguel de Barandiaran-i omenaldia" liburua argitaratzea Vizcayako Diputazioak (1965'gn Otsailla).

Eusko-probintzietako apaizen omenaldia, apaizgintzaren urrezko eztaiak diralata, Guipuzcoako Gotzai Bereciartua jauna Lendakari zalarik, lareun bat apaiz bilduta (1965'gn Apirilla).

Aranzadi-Taldeak "Homenaje a D. José Miguel de Barandiaran" Liburua (iru tomotan) argitaratzea. Donostia, 1971.

Bere jaioterriaren Omenaldia, Euskalerrri osoak parte arturik, itzaldi ta jai erriko ugariekin (1973'gn Ekaina 12-21).

"Don Jose Migel Barandiaran billaketa-saria" sortzea, Ataungo Guraso-Elkarteak eta Lankide Aurrezkiak eratua (1974'gn Apirilla).

Bermeoko Ikastolen Omenaldia (1974'gn Abuztua).

Don Jose Miguel de Barandiaran Lizeoa irikitzea Donostian (1974'gn Abendua).

Urretxua-ko erriaren Omenaldia.

Gazteizko Manuel Iradier Elkarte Eskursio-zalearen urrezko domiña ematea (1974'gn Abendua).

Naparroako Unibersidadearen Prehistoria ta Arkeologia-Seminarioak "Prospecciones arqueológicas en Navarra" izeneko Omen-Liburua argitaratzea.

Euskalerrriko Unibersidadeak "Dr. Honoris Causa" izendatzea. Bilbo, 1978.

Arabako arkeologoen D. Jose Migel Barandiarani Omenaldia "Estudios de Arqueología Alavesa"-ren (IX'gn tomoa) Gazteiz 1978.

"Instituto Vasco de Criminología" deituak Donostiako Eskubide-Saillean egindako Omenaldia, 1979.

Gasteiz-ko Uriak 1979'gn urteko Azaroaren 4'an egin zion Omenaldia: ori zalata Araba-ko Uriburuaren Udalak uriaren urrezko domiña bat eman zion bere Alkatearen bidez, Escuela de Artes y Oficios izeneko etxean ospatu zan kultur-jaialdi bikain batean.

1979'gn urteko Azaroak 4, Euskalerrri osoak "Eusko-kulturaren Aitalenari" Oñaten egindako Omenaldia: eskeintzaille Eusko-Ikaskuntza izan



"La Academia Errante"-ren Omenaldia.



*Apaizgintzaren urrezko eztaiak ospatu zituztenak :
exerita, ezkerretik eskubira : De Santiago, Ormaetxeberria, Zarate, Angoitia,
Barandiaran, Aretxaga; zutik : Meñaka, Orue, Aboitiz eta Markos.*



Marizulo-ko leizeanen (Urnieta) sarreran, oarrak idazten.



Jose Migel Barandiaran
Universidad Vasca-ko
"Doctor Honoris Causa"
izendatu zuten egunean
(1978'gn urtea).

zan, lau eusko-Diputazioen babesean. Meza Nagusiaren ondoren eta jendetza aundi baten aurrean D. Jose Migel Barandiaran-en berri eman zuten, beste batzuen artean, D. Jesus Altuna, D. Julio Caro Baroja ta D. Koldo Mitxelena. Une berean, "Jose Migel Barandiaran" izeneko billakuntza-beka baten sorrera adierazi zan: bekaren sortzailleak eta diru-emailleak lau eusko-Diputazioak dira, Eusko-Ikaskuntza arduradun izanik: Arkeoloji eta Etnoloji-billakuntza-lanei laguntzea da bi milloiz ornitutako bekaren elburua.

Ari oni jarraituaz, Omenaldi berezi bat aipatu nai nuke: Gasteizko Seminarioko Teoloji-ikas-saillak, Euskalerriko apaiz guziekin, 1980'gn urteko Otsaillan, eusko-jakintza ta eusko-elertien aztertzaile ospetsu D. Jose Migel Barandiaran eta D. Manuel Lekuonari eskeini nai dien Omenaldia, alegia: bioi "Doctor honoris causa" izena emango zaielata: Seminario ortan eta urte askotan lanbide garrantzitsuen ardura euki bait zuten bi apaiz txalogarri auek, 1936'gn urteko gerratea arte, eta ain zuzen, Seminarioa iriki zaneko urrezko eztaiak ospatzen bait dira.

Oore guzti oiek ez zuten sekula aldatu bere apaltasuna, baiño bere umore ona zirikatu bai iñoiz. 1965 urteko Apirillaren 14'an, eusko-apaizek prestatzen zioten Omenaldiaren berri eman ziotenean, oar au idatzi zuten bere Egunerokoan:

Ai, Joxemiel, Joxemiel! Nola ezaun dean zaartu aizela! Dijoanai urrezko jantzie (2).

Oore guzietan aipagarrienak, 1958 urteko Otsaillan Almagro Irakasleak egin zizkion bi eskeintzak: Españako Etnoloji- Museoaren Zuzendaritza ta Madrid-eko Unibersidadean Etnoloji-ikasaldi bat erakustea. Biak utzi zituen nere osabak, Ataunen bizitzeko etorri zala Franciatik eta bere jaioterritik ez zuela luzarorako aldendu nai, esanaz.

Baiño onartu zuten Almagro Irakaslearen eskeintza, Madrid-eko Unibersidadean eta *Consejo Superior de Investigaciones Científicas*-en Prehistoriasaillan itzaldi batzuk emateko. Apirillaren azkeneko amar egunetan ospatu ziran itzaldi auek.

Madrid-en ikasaldi bat emateko, Almagro Irakaslearen eskeintza artu zuenetik sei urtera, beste eskeintza berdin bat artu zuten Iruñako Unibersidadetik.


1964 urteko Urtarrillak 13, Iruñako *Filosofía y Letras* Ikas-saillako Decanoaren (Ikas-sail-buruaren), au da, Dr. Antonio Fontan-en karta bat artu zuten: ikas-sail artan Eusko-izkuntza ta kulturaren "Catedra" bat sortu zala, zion. Fontan jaunak zer nolako asmoak zituen "Catedra" orretan, karta berak argitzen dizkigu:

Erakus-gela bat ezezik euskal-kulturak dituen arazoak (izkuntza, etnologia etab) aztertzeko biltoki bat antolatzea da gure asmoa (3).

Urtarrilla beraren 30'an Fontan jauna, Ferrer Irakaslea lagun zuela, Atauna etorri zitzaion nere osabari, Unibersidade artako Etnoloji-maixutza onar zezan, eskatzera. Nere osabak baiezkua eman zion, baita lanean asi ere Otsaillaren 21'an: maixutza ortan jarraitzen du 15 urte auetan, urtearen lenengo erdian, asteko bi klase emanaz.

Nere osabak garai luze onetan egin dituen billaketa-lan ugariak aipatzen ari geran ezkerro, bidezkoa dirudi, nere osabarekin pozak gozatu ta nekeak eramantzen dituzten ikasle ta laguntzaile batzuk gogoratzea.

Arabatar ikasleen artean aipagarriena, Medrano, taldeko zaarrena ta Ar-



D. Jose Migel,
D. Manuel Laborde ta
D. Tomas Ataurirekin
"Balcón de la Rioja"-n.

mando Llanos: bi oiek lagundu zioten nere osabari Arabako ekiñaldi geienetan.

Guipuzcoako ikasleen artean, Santanderko Unibersidadean Irakasle dan Ignazio Barandiaran aipatu bearra dago: Errenderiko *Aitzbitarte* leizean asi zan nere osabarekin batera billaketa-lanetan.

Jesus Altuna ere nere osabarekin asi zan Arkeologian, baiño gero Paleontolojiara jo zuen.

Vizcayako ikasleen artean berriz, Apellaniz nagusi: ikasketak Madrid-en egin ondoren, Almagro Irakasleak nere osabari gomentatu zion, azterkerak egiten ikasi zezan. Baita Maria Angeles Alberdi ta, Naparroako Unibersidadean irakasle dan Maria Amor Beguiristain-i ere, berak eman zizkien leenengo erakutsiak.

Nere osabaren erakutsiak zuzenean jaso zituzten ikasle oietaz gainera, beste laguntzaille nabarmenen izenak ere esan bear ditut. Atauri, Elozegi, Laborde ta Nolterenak. D. Jose Migelen billaketa-lanekin betiko lotuta geldituko dira izen oiek.

Ona D. Jose Migelen bizitza-zati luze bat labor-labor esana: Franciatik itzuli zan ezkerozko zatia, alegia.

1979 urtearen azkenetan, 90 urteetara dijoa ta leengo lan guzietan jarraitzen du. Miaketak, itzaldiak, Iruñako maixutza, eta oraindik Idazti osoak tajutzeko denbora badu: amasei tomo argitaratuak eta beste ainbesteen gaiak emanak.

Bizitza oso baten lan-bilduma aberatsa: eusko-antziñatea ikasi nai duten guzientzat arrobi oparoa.

Baiño D. Jose Migelen bizitzaren une onetan aipatu bearreko gai bat badago oraindik. Franciatik itzuli ezker, nere osabak sakonean pentsatutako gaia.

Euskalerrriaren gaurko egoerak eta biarko etorkizunak kezkaturik dauka nere osaba, bere Egunerokoan ikusten danez: euskeraren eta kristau-senaren galtzea, mundu aldakor onen aurrean elizgizon aldakaitz asko ikustea etabarrek, alegia.

1964 urteko Egunerokoan idatzitako itz garratz batzuk dakarzkite emen:

1964'go Azaroon 21'n eune. Alde guztiattan —Euskal-erri'ñ— zalan-tza asko: euskerea eta euskal-ezikera galduko ote zaitzak? Bide ortan zijoatzek: leengo izakerak arras aldatzen ari dittuk: leen nekazaritza, ar-zantza, arrantza eta eskulangintza geien; oain berriz olagintza nausi. Leen hiltoki nausiena bakoitzarentzat bere etxea eta bere auzoa; oain oletako lantegia eta ikastola: etxeoakiñ eta auzoakiñ artu-eman gutxi. Leen euskerea aski, orduko lanetan ikasteko eta bizikerea eraentzeko: oaingo lanetaako, ikastolaatan yaiotu bear eta ori dana erdaaz eittea beartzen. Leen bakoitza, ezikeran bee mailla batea ezkeo, bere erabakiz, geientsu, lanak edo egin-bearrak eraendu oi zeetuan —oaiñ ee berdiñ toki batzutan— eta azken-eldulekutzat Jainkoa ezautzen zian eta orrela nortasune azitzen; oaiñ bakoitze bestek eraendutako lanai, lantegietako lagunei eta beste giza-taldeai lotue eta goseai, egarriiri eta beste grifia atsegiñ ematen baiño aratagoko elburuik ote litekean ee bear-bada jabetu gabe.

Beaz leengo izakerea juun zaiuk: lan berriik eta oitura berriik; irakaskuntza guztie erdaaz, euskerea baztartue. Gue izkuntzeeri iraunaazteko bidea, ikasi bear deun guztie euskeraz ikastea oke. Ori, ordea, noiz eiñ al izengo diau?"

Euskal-gizabidearee galtzen ari lasterka, baita erligioaree; baiño beste indar eta bide batez. Mundue, gizaki au, aldatzen ari aspaldian. Buruauste berriik eta galdeak ee alakook, eta een neurriko erantzuerak eskatzen. Iñork ordea ez ematen, Elizati edo Elizaren neurrian beintzet. Bittaarteen giza-kiik ba-zijoatzek aurrea, een iritzizko ikusbirak zurajetzen eta Eliza gabe bizitzen. Gue alkaarte onek ee ba-zeetuk ikuspegi bi: bata, leenauko oitura eta gogoetaatan ustez oiñarrituik daren lagunena; bestea, eraen eta gogoeta berriik onartuta dabilzanena. Elizgizonak, batez ee giltzalarik, een




Ataunen egindako Omenaldian aurren eguna.

maillati, bietakoai beida bear arren, leenengo taldeari lotuuk ibilli dittuk emen geientsu, eta besteari ezikusi eñ: orra gaurko gue zoritxarraren iturburu bat (4).

Pasarte au sakontzean, galdeera batzuk sortu zaizkit eta nik nere osabari pasa dizkiot, argitu ditzan: nere galdeera:

—Lengo lerro oietan maiz aipatzen dituzu euskera ta euskaldun izakera galtzea. Nik galdetzen dizut: zein da euskaldun-izakera ori, edo eusko-izate berezi ori?

Euskotar izatea, euskera jakitea dala uste dute batzuk. Berarizko pentsakera bat, euskeraz "gizabidea" esaten dana gizonaren eta munduaren iritzi bereizgarri bat eukitzea da eusko-izatea. Ortik sortzen da bere-berea duen "etika". Jan, edan etab... berdin egiten dituzte gizonak eta abereek. Baiño gizonak bakarrik galdetzen du bizitzaren eta munduaren elburuetaz: adimendun bakarra dalako. Au da giza-kultura baten bereizgarria. Baiño gizonari, munduari ta bizitzari buruzko iritzi ori, kulturen arauera aldatu egiten da. Eusko-kulturak badu bere iritzia. Eusko-kulturaren ezaugarri berezienak aue-txek esango nituzke:



Barandiaran-dar Jose Migel-en "Liceo"-a.

Gure baldintzazko izatea ta gizona ta munduaren gaiñetik dagon, gure asiera ta elburu dan Jainkoa aitortzea: onartutako kristautasunak argitu ta sendotu duen aitormen ortan oiñarritzen dan bizitza-egitarau bat: giza-persona beti ta amaigabe bizi dalako sinis-betea: bizi diran sendi-kidez eta il ziran arbasoez osatutako sendi-enborra: etxearen izenean itzegiteko ta ondare-gaietako eskubideetan gizon da emakumearen berdintasuna: etxearen osotasun eta kutsa-ezin- eskubidea (gaur asko galdu da zoritxarrez), ingumek ere errespetatzen duten leku sagaratua: auzounea ta erria etxearen osagarriak: munduaren irudi berezi bat ematen digun, eta kultura zaar-zaar baten aztarrenak gordetzen dituen izkuntza, euskera: bere luraren ezaguera errikoia, —lur-azala, goibeak, landaredia, abeldia, giroa— eta oien adierazpen naturakoi ta mito-zaleak: bere erti errikoiak, bizikerekin, erlijoarekin eta mito-sinismenekin estu lotuak: bere bizi-bideak —abel-azkera, arrantza, nekazaritza, eskulangite ta industria— Pirineo-zati onek dituen aukerekin lotuak eta berdin bere aspaldiko kulturakin lotuak: lurralde ontako paleolitiko-taldeen errotua dagon bere leen historikoa: bere taldearen barne-ezaguera, ots, etnia berezia dala, leengo ta gaurko tankerak batuta.

Eusko erlijiokerari buruz xeetasun geiago galdetzen diot:

—Kulturaren alderdi bat erlijioa da. Euskotarrak nola azaldu du ori?

—Erri batzuk izadi-endarretan adierazi dute beren erlijioa. Orregatik, emen ere izan da animismo zerbait (izadi-endar jainko-maillaratuak eta mendi naiz leku jakinetan izendatuak). Gero Kristautasuna etorri zan: eta leengo azal zaarrak sustraitik aldatu gabe, elburu berri bat eman die, baita mamia ere ifnoiz. Kristautasunak iritzi berri bat ekarri du: izadian ari diran indar denak iturri batetik datozela; gure gaiñetik, indar guzien gaiñetik eta mundu fisikoaren gaiñetik jainkotasuna dagoela, alegia.

Eusko-endaren bereiztasun batzuk geiago sakonduaz, ala dio nere osabak:

—Erljioa oiñarriztat artuta, eraikitzen du euskaldunak bere etika, jo-kaeraren arau bereziak. Giza-bizia lurrekoa bakarrik ez, gerokoa ere badala, ta an bakoitzak bere egiteetaz erantzun bearke duela, sinisteak, alako zintotasun-tankera bat ematen dio eusko-bizikerari. Adi bidez: eusko-Eskubidearen (Derecho) muiña da etxea; leku sagaratuatzat jotzen dalako, nunbait. Furoak bizi ziranean, eusko-baserri batean sartzen zan erasotuarentzat, bazan ies-leku eskubide bat: eta ertzainei baserrira geiegi inguratzea, debekatzen zien eskubidea ere bai. Askotan entzuten dira inguma gaiztoen ipuiak: ipui oiek diotenez, inguma gaiztoek, persona aurrean erabili arren, baserrira sartzen ez dira ausartu, baserriko atea, eliz-atea bezela dalako. Beste munduko bizitza bat badalako, sukaldeko suak beti pizturik iraun bear du, arbasoek etxera etortzen bait dira, etxea bedeinkatu ta babestera.

Badira bizi-legez betetako mitoak: gurasoenganako begirunea, ezkonduen zintzotasuna. Ari ortan bada mito bat: ingumek erasotutako gizon batek, bere burua babesteko, "Nere andrearekin batuta nagi", erantzun omen zien. Ingumek gezurra nola zigortzen zuten ere, azaltzen digute mito batzuk. Gaia aldatuta, Eusko-Eskubideak beti aitortu du gizon-emakumeen eskubide-berdintasuna: Erromakoak eta Napoleonenak ukatu ta kristautasunak onartu duen eskubide-berdintasuna: beraz gurasoek oiñordekoa izendatzean, semearen mailla berean zegoen alaba oiñordeko izateko, eta askotan emakumea gizona baiño gorago jartzen zan.

Ona emen —dio nere osabak— eusko-izateak berekin daraman jokaera bereziaren sinisgarri bat.

Ni galdezka oraïndik:

—Etnia jakin bat goratzean ez al dago razismo-arriskurik?

—Bai-dio nere osabak—: Hitlerrek bezela, arraza goieneko ondasuntzat onartzen bada. Azkeneko elmuga, guzizko balore bezela, beti Jaungoikoa izango da, beste dana bidea da. Etnia bakoitzak badu bere bide berezia. Besteena ez degu gaitzetsi bear, gurea onesteko. Baratza bereko lorak bezela dira etnia guziak.

Nere galdeera berriz ere:

—Nundik datoz euskera zaintzeko zailtasunak, eta euskera gorde ta indartzeko, zein irtenbide aukeratu?

—Sustraizko zailtasuna auxe da: gaur ikasketa guziak erderaz egiten dirala. Len ere bazan au, baiño gaur areago: goi-maillako kulturarik gabe, gaur ez bait dago zereginik eta ori lortzeko ez dago erdera beste biderik. Irtenbide bat eskatuko nuke nik: egokiera berdiñen bizi-legea ezarri dedilla. Au da: euskaldunak dana euskeraz ikasi aal izan dezala. Belgican bezela: an flamenkoak kultura lortu dezakete flamenkoz: edo Suizan bezela: eskualde bakoitzak bere izkuntza badu: frantsesa, alemana, italiarra, eta bakoitzak bere izkuntzan itzezin eta dana ikasten du.

Eta orain arazoa Elizakin lotuta:

—Zenbat erru izan dezake Elizak, eusko-nortasuna galtze ortan?

—Elizgizonek askotan lagundu egin diete Estaduaren araei, baiño, naita esan det errudun elizgizonek dirala, ez Eliza. Eta euskerari eustea dalata, euskal-idazlari geienak elizgizonak dirala, aitortu bear.

Nolanai ere, berak izan dute oitura gai ortan eta berak eusten diote beren erriekiko artuemanetan. Gure idazkari (escribano), legegille eta maixuek (ez ziran elizgizonak noski) erderaz idatzi izan dute gizaldietan. Ni ere, nere belaunaldiko guziek bezela, ulertzen ez nuen izkuntza —kastellanoa— bakarrik zerabilkian eskola batean asi nintzen ikasten. Apaizek bakarrik erakusten zuten euskeraz kristau-ikasbidea. Euskal-literaturari, eliz-liburu-literatura dala, salatzen diote. Apaizek zer idaztea nai zuten, bada, maitasun-nobelak?

Galdekizunak bukatu baiño len, beste gai batean ere sartuko nintzeke, ba:

—Zorioneko "eusko arazoa" dalata, zein alderdi azpimarratuko zenduke ta zein irtenbide eskeñi?

—"Eusko arazoa" auxe da: nola eutsi Euskalerrinari, eusko-etniari: bestela esanda: nola eutsi kultura jakin au duen talde oni. Irtenbide bat au litzake: irakasketa-mailla guzietan euskera jarri, bere kultura-gaiei begirunea gorde, eta bere burua zaintzeko bear dituen eskuarte egokien jabe izan. Bere buruaren jabe izan, eta bere kulturari eusteko bear diranen jabe ere bai. Lengo gizaldietan Furoekin gertatzen zan bezela.

Euskalerrria nere osabarentzat, Cervantes-en ametsetako andre ura bezela da, Usandizagak bere "Mendi-mendiyan" operan ain egoki abestu zuen andrea bezela, eta antzerkian gertatzen danez, ezinegona eman eta mendirik mendi ibiltzera ta bere zoritxarretan negar egitera, eragiten diona.

Berak ere abestu dezake Mendi-mendiyan, eusko Operaren, bertso au :

Nere maitasuna
amodioz biurtu zan ezkeru,
joaten naiz baso ta mendi ezin bizirik
zure txabolatik urruti.
Luziak iruditzen zaizkit gabak
zuga pentsatzen ez badet,
ta beñere ez nau loak artzen
esan gabe, andrea, "Euskalerria", maite zaitut.

OARRAK

- (1) Jose Migel Barandiaran-en, *Egunerokoa*, 1960.
- (2) *Egunerokoa*, 1965.
- (3) *Egunerokoa*, 1964.
- (4) *Egunerokoa*, id.

XXI

Ataunen bizi da San Frantziskoren
anima duen jakintsu bat

*Jakintzak eman dizkidan atsegi-
ñak baiño aundiagoak dira nere bi-
zitzan Sinismenak eman dizkidan
pozak: izadiaz kanpo zerbait badala
ta gizona beti biziko dala, ziurki
erakusten bait du gure erlijioak.*

J. M. B.

Luis Martin Santos, len aipatutako sikiatra ospetsu arek esan zuen: "izadi-zalea berez eta sustraitik gizon ona da; gaiztakeri, maltzurkeri gabea lagun urkoarentzat: eta fiagarria" (1).

Esaera auek nere osabaren giza-nortasunari ondo datozkiola, uste det. Ez nere osaba dalako, baiño norbaitek berarekin artuemanik izan baldin badu, —gutxi ala asko— lengo itz oiek ontzat emango dituela, iruditzen zait.

D. Jose Migel "lagunurkoarentzat maltzurkerigabea ta fiagarria dala" testigu askok aitortu dezakete: konseju-billa, poz-billa, argi-billa edo beren barren larria ustutzeko arengana jo duten eundaka personek, alegia. Ori personen bereizkuntazrik egin gabe. Berdin artu ditu erriko jende xeeak, nazioarte-maillako jakitunak, gazteak eta amona xarrak, apaizak —zergatik ez— eta gotzaiak: guziak adore-billa ta argi-billa.

Eta bere onberatasuna? Sikologoak dion bereiztasuna azpimarratu dezagun eta Barandiarani aitortu dezaiozun: "Izadi-zalea berez eta sustraitik

gizon ona da". Nere osabaren ontasuna —onberakeriarik ez— espirituaren egoera iraunkor bat da ta ori barruko onizatetik dator.

Lanak bezela bisitariak ere estutu dutela ta lan-galerazte bakoitzari irri-parre batek erantzun diola, esan da, dana esan degu. Bisitariak —ezin konta ala— egin dizkien arrerak ezin beroagoak: ain gizakoiak ziran. Inork ez dio igerriko lanean estu ta larri ari danik: guziak arreta aundiaz artuko ditu —lanik gabe balego bezela—: atariraño lagunduko die ta, maiean, exerleku bat eskeñi ere bai, nai duanerako.

Ontasun ori bisitariak ezezik, berekin artuemanak nunai izan dituztenek ere ezagutu dute.

Ataungo bere errikideen artean ere maitagarritasunaren "profeta" da. Ataundar batek obeto esango digu ori. Donostiako *La Voz de España*-n maiz idazten duen Enrike Zurutuza, nere osabaren bizi-leku Sara-ren auzoko da Ataunen. 1973 urteko Ekainan egin zitzaion omenaldian, onela idatzi zuen:



Sara Baserria, Ataunen. Emen bizi da orain Barandiaran-dar Jose Migel.

Jakintsuek esango dute, bere garaian, zenbateraiño berraketa egin duen. Ataundarrok bere gizatasuna geiago ederesten degu. Gizon on apala, ta apaiz jatorra...

Oitura neurtuetako gizona, umore onekoa beti, bere irtenaldietan auzokoekin itzaspertu batzuk egin zale; —aitalentzat daukatenez— bere bizitzako gertatu entzungarri pranko esan dizkie. Neronek ere bein baiño geiagotan entzun izan dizkiot batzuk (2).

"Auzokoekin itzaspertu batzuk egin zale" neronek ikusi det. Eta izkeltaldi oietan gai guziak jorratuko ditu. Soro-lanak, etxekoen osasuna, aurren ikasketak, lanak oker ala zuzen joatea... dana benetan artzen du ta biotzeraiño sartzen zaiola, ikusten da. Latiñezko esaera zaarra beretzat artu duela esan ditekete: "Gizonarenik ezin zapuztu nik".

Nere osaba iztun aipatu degun ezker, esan dezagun beste au ere: jakintza-gaietan sartzen danean, benetan entzungarri izan oi dala; adimen argia, esaera neurtuak eta jakite oparoa dituelako.

Idazlari yayoa izan arren, ez zaizkio gogoko maixukeri ta otsaundiko izlariaren aixekeriak. Nere osabaren itzaldien aberastasuna, barne-muñean dago ta ez mamigabeko itz utsetan.

Alare bere bizitza geienbat bete duen egiteko bat eta bere billaketak erakusteko biderik egokiena, itzaldia izan da. Izan ere, ale billa dabillanak lastoari arreta gutxi. Izlari berritsu ta arrigarri baten billa dabillanak jai du nere osabagandik. Boza mea geienbat eta adierazpena urria. Gai ortan ondo dagokio —geiegizkoa bada ere— Ortega y Gasset-en esana: "Euskaldun izatea, beste gabe, adierazpenari uko egitea da".

Nere osabaren nortasunak badu beste bereizgarri bat: lan-zaletasuna. Argibiderik bear ez duen esaera. Bere bizitza ta lana begiratu. Iru sailletan banatzen dan lan ikaragarria: billaketa-lana, idatz-lana ta itz-lana. Etengabeko lana: ez udarik, ez oporrik, ez beillarrik, ez alperkeriarik. Bizikera neurtu ta osasungarri batean oiñarritzen dan lan ikaragarria.

Bizikera osasungarria esan dedanean, bere oitura neurritsuak jan-edanean aipatu nai nituen, bereziki: barazki-zuku ta katillukara esnea oiñarri, eta ez alkoolik eta ez bixigarririk sekula. Ortaz gaiñera —bizitza osasungarrian goaz— ezin aaztu arratsalderoko ibilaldi utzieziña: Gazteizko denboretatik zintzo gordetako oitura.

Marañon-ek bezela nere osabak ere esan dezake: "Denboraren zatarbiltzaille naiz". Guk alperrik galtzen ditugun unetxo guztietaz baliotzen bait da.

Goizeko seiretatik —jaikitzen danetik— gaueko amarrak arte —oeratu arte— erabat lanari lotua, bearrezko ez dan guzia baztarta. Aalegin setatsu baten ondorio bikaiñak ikusita, batzuk uste dute, mirariren bat gertatzen ote

den. Beren eginbearren mendeko diran beste askok bezela, nere osabak ere erantzun dezaieke, Dr. Marañon beraren itzekin :

Nik ez det miraririk egiten. Jokoan, eizean, beillatan ez naiz ibiltzen: ori da guztia. Lan-egun bakoitzean pentsatzen det, arratsaldeko seiretan egazkia artu bear dedala ta egunaren minutu guztietaz baliatzen naiz, egiaz seiretan norabait joan bear banu bezela. Ordu ortarako nere eginkizun guztiak bete ditut, eta oeratu arte, oraindik sei ordu gelditzen zaizkit (3).

Nere osabaren eguneroko egitarauan dana neurtuta dago: Meza santua, korreoari erantzun, periodikoak irakurri, bi telediarrio ikusi, otorduak, ibilaldia, ta, jakia, lan-orduak.

Baiño nere osabaren egunean une ederren eta gozonenetako bat, gaueroko Errosarioa: illunabarrean, atea itxita, Sara-ko bi biztanleek, beren Errosarioa esaten diote Ama Birjiñari euskeraz, beti bertso zaar batzuekin amaituz: ttikitan baserrian, Errosarioaren bukaeran abesten ziran kanta zaar berekin. Eguneroko, aldi illun eta alaietan, gerra ta pakean, erbestean eta jaioterrian, osaba-illobak Mariari abestu dioten kanta zaarra.

Ezin utzi ditut emen idatzi gabe :

Itxasoko izar,
lagun ekaitzetan;
argi egin zaiguzu
aizken orduetan.

Eiozu Jesusi, otoitz Andre Mari,
zuzen bizi gaitezen
orain eta beti.

Emen dezu bada, bere billaketa sonatuengatik munduko erritar, baiño bizilekuz eta biotzez Ataundar, nere osaba Jose Migelen giza-nortasun aberatsa.

Ementxe, Goierriko erri menditsu-latz onetan, bere jaiotetxetik gertu, bizi da nere osaba. Mendi aldapatsuen magalean, belarzari ta sagastiei begira, Agauntzaren urotsak entzunaz, pake santuan, dijoaz nere osabaren egunak eta urteak; etxeko gorabera guzien arduradun eta bisitarien artzaille-kide, illoba Pilar-en ondoan.

Laixter egingo ditu 90 urte —1979 urtearen erdian ari naiz— nere osaba Jose Migelek; aragiz urri, zangoz arin eta buruz argi, izadiaren mirari txiki bat dirudi. Gazte batek ere ez dio errezege jarraituko bere bidean: pentsamentu-bideetan jarraitzea zaillagoa oraindik.

Baiño gaur, bizi-kondaira onen amaieran, ausartu naiz bere oinkada ta pentsamentuekin batera ibiltzen, arratsalderoko —bearko— ibilaldian.

Bere "frantziskotasuna" baztarrean utzita, "jakintsuari" galdezka ekin dior:

—Sinismena argitu ta sendotu nairik asi ziñen zu Erljioen Historia ikasten: "korapillo batzuk askatu" edo konzientziko arazo batzuk askatu nairik, itz batean, erlijio-krisi bat argitu nairik. Lortu al dezu?

—Asieratik auxe esan bear dizut: nik ez det beñere izan egiazko erlijio-krisirik. Erljio-ezjakintasunaren krisia zan nerea: eta ori uxatzeko, erlijioa ikututzen zuten arazo batzuk garbitu bear nituen. Orretxegatik asi nintzen erlijioak aztertzen zituzten liburuak irakurtzen. Bazan, argi berezia eman zidan, bat: *Problemes et conclusions de l'Histoire des Religions*. Atomo-fisikalarari ospetsu baten anai, Aita Broglie-k idatzia zan. Erljioa ta Erljioak aztertzen zituzten beste liburu batzuk irakurriaz, adi bidez, Marx eta Engels-en *Die deutsche Ideologie*, Durkeim-en *Les Formes elementaires de la vie religieuse* eta W. Wundt-en *Elemente der Völkerpsychologie* eta geroago (1913) Leipzig-en Wundt beraren ikasbideak entzunaz, iritzi sendo au lortu nuen: sikologo alemanaren mitokeriak, soziolojilari frantzesaren totemismoak eta maixu komunisten materialismoak, oiñarri aulak zeuzkatela: orrela uxatu ziran nere barruko lañoak. Ortaz gaiñera —nere erlijio mundua argitzeko— nere lurrean eta nere buruz, billaketak egiten asi nintzen.

—Sinismen eta Jakintzaren artean etsaigorik edo zailtasunik iñoiz ikusi al dezu?

Ez sekula. Nola elkarrekin burukatu, egi beraren billa dabilzan bi espiritu-bideak? Jakintzak arkitzen duen egia, Erljioak egarri duena bera da. Erljioak aitortzen duen egia bera, Jakintzak giza-argiz billatzen du: sustrai berak dituzte biak: biak osotzen dute giza-jakitea.

—Zer derizkiozu mundu sekularizatu oni, bere ateo-sinistea ta agnostizismoa adierazteko "Jaungoikoaren eriotza" slogan antzera darabilkian mundu oni?

—Gizona bizi diteke Jaungoikoa badala sinistu gabe, baiño Jaungoikorik ez dala sinistuz, ez. Ezin diteke. Jainko gabeko ateismorik ez dago. Izen au baztatu dezakegu, izana ez: gure gaiñetik dagoen eta gure asiera ta azkena degun "izana", ez.

Nere osabaren itz auek, Pieter Van Der Meer-en *Nostalgia de Dios* liburuaren itzaurrean Leon Bloy-k idatzitako esaerak gogorazten dizkidate:

Ogi, ardo, etxe, maitasun, zorion gabe bizi diteke: misterio gabe ez. Giza-izakerak naitanaiezkoa du (4).

—Bere gai-eza aitortzea, —dio nere osabak— billaketa, jakintza ta bizitza-alorretako teoriarik antzuen da, agnostizismoa. Gure ezaupenak azalekoak dira, baiño ezaupenak dira. Gizona mundik datorren, —ajola aundiko galdeera orri—, gure konzientziak eta erlijioak erantzuten diote. Eta

ona lenengo erantzuna: ez gera geure buruaren jabeak. Gure gaiñetik bada norbait. Ni naizen izadizatitxo onetan, gauza asko nere adimen eta askatasunaren bidez egiten ditut. Bere antzeko nauen Izaki adimendun eta aske bat izan bear du.

Orain, berriz, Van Der Meer beraren itzak datozkit gogora:

Izadia gai bizigabe utsa baldin bada, konzientzidun adimena ta pakebillaketa setatsu ori nundik ditugu? (5).

Nere osabak berriz ere:

—Giza-biziaren jatorri-arazoaren beste ertzean badago beste arazo bat: adimendun biziaren azkena, giza-bizitzaren azken-elburua. Erlijio guztiek ez diote erantzun berdiña eman. Arazo oni bere erantzuna eman dion erlijio-giro batean —kristautasuna— jaio nintzen. Giza-biziaren orain eta geroaren oinarritzko arazoei erantzunaz sartu zaigu Kristo Historian. Nik Bera aukeratu det, Berak erantzun bait dio egokien gizonaren elburuari. Jaiotzetik inguratu nauen erlijio-giroari eustea, bidezkoa iruditu zitzaidan eta iritzi ori aizkeneraño eraman det, apaiz egiteraño. Jakintzak eman dizkidan atsegiñak baiño, aundiagoak dira, nere bizitzan Sinismenak eman dizkidan pozak; Itxaropenez, lurraz gaindi bizitzea, ematen didan erlijioaren sendotasunagatik. Gure gaiñetik dagoen Norbait ez badago, bizitzak ez du sentidorik.

—Zure jakintza-lana dalata, ezinermanik edo fiakaitzkeriarik izan al dezu Elizaren aldetik?


Erlijioen Historia ikastea, batez beste, ez. Nere asmoa, ta ni Seminarioan gai ori erakusteko nai ninduten, eliz-buruzagiaren asmoa bat zetozen. Baiño, nere etnoloji-ezaupenak, Euskalerriko erlijio-ikasketan sartu nai izatea, or zegoen kakoa. Len ere esan dizut, nere "pekatua" dirudienez, ta nere zorigaitza orixe izan dala. Ordutik asi nintzen —elizgizon askoren ustetan— "politika" egiten eta "judeo-masoi" jokaerak artzen: zer dala ta? Nere Eusko-Folklore-ren billaketaen berriak orri batzutan argitaratzen nituelako. Itxuraz, nere erriaren sustriak aztertzea, "politika egitea" da, batzuen iritzian.

Nik ez nion bere erlijio-esperientzia personalaren berri bakarrik entzun nai: euskaldunen leenengo erlijioari buruz, zein ondoriotara iritxi dan ere, entzun nai nion.

Orregatik nere galdeera:

—Zer derizkiozu, kristautasuna berezko euskotartasunaren etsaia dala dion esaera orri?

—Gaur asko esaten da —gazteen artean batez ere— Euskalerraren oiñarritzko iritzi batzuk galdu egin dituela kristautasunak. Jakiña, kristautasuna



D. Jose Migel Barandiaran pentsakor.

Europar zear zabaldu zanean, euskaldunak izadiari ta gizonari buruz zeukan pentsakerari egokitu egin zitzaion, azaleko gauzetan. Baiño kristautasuna etorri zitzaigunean, euskaldunek zeuzkaten pentsakera berezi aiek danak, ez ziran bertakoak, batzuk ala uste duten arren. Emengo animismo ta politeismoak indojermaniko aztarren garbiak zituzten. Sorginkeria dalata, berdin esan diteke: batzuk uste dute bertakoa dala: baiño sua, Eguzkia ta Illargia gurtutzea bezela, sorginkeria ere kanpotik ekarria edo ezarria izan zan.

—Zein da orduan euskaldunaren oiñarrizko erlijio-bereizgarria?

Len esan dizudana ta garbi dagona zera da: euskaldunaren espiritu-barne-muñetan gizonataz eta munduataz pentsakera bat badagoela, eta gure gainetik dagoen izaki baten aitormena duela oiñarri pentsakera orrek. Beraz Euskalerrriaren jatorrizko erlijio-pentsakera ez da animismoa edo sorginkeria —eragiñak (influencia) izan badira ere—, gizona beretzat lain ez dala, funtseko iritzia, baizik: gaur ere ori adierazten dute gure jendeek beren estuasunetan, "Ez gera gure baitan" esaten dutenean.

Leengo euskaldunen oiñarrizko erlijio-jokaera osabari entzundakoan, gaurko egoerara aldatu naiz: iritzi berrien maixu batzuk, Euskalerrriari eskeintzen dioten erlijio-norabidea —inoiz zorrotz eztabaidatua— dalata, zer pentsatzen duen jakin nai nuke. Nere galdeera:

—Begien aurrean dago, talde batzutan, leengoen antzik ez duten erlijio-bizikerak sartzen ari dirala. Adi bidez: sinboloei muziñ egiten zaiela. Zer diozu?

Ara egia esan: sinbolo gabe gizonak ez genduke alkar aditu aal izango. Gure ideak gauza jakiñetara biltzeko, sinboloak bear ditugu. Gaur bazter guzietan ikusiko ditugu Marx, Lenin, Mao-Tse-Tung etab.-en irudiak. Birtartean, gure erlijio-gaietan, sinboloak txokora. Adi bidez, irudiak, kofradiak etab. ezkututzen ari dira. Ori dana oikerizkoa biurtu omen da, edo irudia goratzea, animismo-ondarrak izateko arrixkoa omen dago. Eta zugaitza iñauzteko, gerria moztu. Besteak ez bezelako izan nai da, lengoak kenduaz, ez berriak egiñaz. Errosarioa, gauza bat esan da esan aritzea omen da. Ez al dakite gizonari gauzak bein da berriz esan bear zaizkiola. Begira dezatela, saltzailleek zenbat aldiz oiukatzen dituzten beren salgaiak eta deporte-zaleek beren deiadarrak.

—Erljioa erakustea ere aldatzen ari da, erabat baztartzten ez danean: eta ain zuzen, beren buruak euskal-kulturaren babesle jatortzat jotzen dituzten ikastetxeetan.

—Bai: arrixku ori argi ta garbi salatu bearra dago. Eusko-irakaskuntzaren eredu bezela aurkezten diran, eta eusko-kulturakin zerikusirik ez duten ikasbide arrotzak dituzten ikastetxeak badira. Azaldu nai duten exkax guzieren

arrotz-zalekeriak, goieneko maillak jo ditu gure egunetan. Gure artean ezin kontaala dira, bertakoa ikasteko gai ez diralako edo ezjakiñak diralako, nabarmendu ditzaketan edozein idea edo jokaera onartzeko prest daudenak: ajola gutxi Euskalerrriaren oizko bizitza baztartzten bada ere.

Ari ortan, sendiaz gaindiko bizitzari garrantzi geiegi emateko joera bat bada. Aurak, —familiarri baiño estaduari lotuagoak— nabaitu ditzatela beren buruak, gurasoek beren pentsakera kutsatu ez dezaieten. Orrela Eusko-Eskubidearen aurka dijoaz: gizarte-bizitzaren ardatza ta personak bizi izan diran ingurunea izan bait da beti sendia eusko-eskubidean. Berdiñ, erlijioa baztartzu egin nai da, alienazioa omen dalako: gaur aurrei buruan sartu nai zaizkien pentsakera ta ideiak alienatzaillak dirala, pentsatu gabe; eusko-pentsakerari arrotzak zaizkion ezker.

Gure ibilaldia bukatuta etxeratu geranean, entzundakoak ausnartzen ari naizen bitartean, nere kolkorako esaten nuen: au dek bi alderdi ezberdiñeko gizona: xaloea, irixgarria, ain tolesgabea bere bizitza ta oituretan, alde batetik: ain sakona, ain neurtua ta zuzena bere jakintza-billaketaetan, beste aldetik. Ataundar bat, Sara baserriko bizilagun bat Ataunen. Nazio-arte-maillako billatzaille bat... jakintza-munduan.

Nork esan, euskal-txapel aundi batek babesten duen gorputz txiki orren barruan, berreun liburu baiño geiago argitaratu dituen prehistorilari ta etnografilari jakintsua, Jakintza-Akademia ta Bazkun askok saritutako jakintsua ezkututzen danik! Aipagarrienak bakarrik esateko: *Academia Española de la Lengua*-ko Bazkide Laguntzaille da, Euskaltzaindiako Bazkide, Franciako "Comission Superiur des Monuments Historiques"-eko Berriemaille, Berlingo "Deutsches Archeologischer Institut"-eko Oorezko Bazkide, Franciako *Ministerio de Educación Nacional*-eko Laguntzaille, Franciako etnografia-billaketaen Arduraduna, UNESCO-ko *Comisión Internacional de Artes y Tradiciones*-eko Bazkide, etab.

Gizon ikusgarri, setatsu ta jakintsu baten historia labur eta osagabea dezu au: "orain" au buru-belarri bizi duen, eta "orain" ori obeto ulertzeko, leenari begira jarri zaion jakintsuaren historia: eusko-antziñateari bere misterioak arrapatzeko leiatsu dan jakintsuaren historia: auxe da jakintza-gizonen, bereziki Euskalerrriko seme-alaba kezkatuen elburua.

Bere historia onen bukaeran, berak Isturitz-eko (Francia) leize baten sarreran azaldu zigun esaera zaar ura jarriko nuke: "Ibi, historia silet. Lapides ossaque loquuntur". (An historia ixildu. Arri ta ezurak mintzatu egiten dira).

Urte askotan egia gerta dedilla, bere azterketari esker, antziñako arri ta

ezurrak, beren mezu iraunkorra eskeñiaz jarraitzen dutela. Barandiaranek gure arteik alde egitean, berak irikitako bide asko ez ote dituen larrak artuko, beldur naiz. Ez naiz arritzen Caro Barojaren esanakin: "¡Zer gertatuko da gizon au joaten zaigun egunean!" (6).

OARRAK

- (1) Luis Martín Santos-en, op. cit., *El naturalista...* "La Academia Errante-ren". *Homenaje...*, 203'gn orri.
- (2) Enrike Zurutuza-ren, *José Miguel de Barandiaran*. "La Voz de España"-n, Donostia 73-VI-17.
- (3) Marino Gomez Santos-en, *Vida de Gregorio Marañón*. (Taurus Argital. Madrid, 1971), 408'gn orri.
- (4) Pieter Van Der Meer, *Nostalgia de Dios*. (Desclée de Brouwer Argital. Buenos Aires 1951), 7'gn orri.
- (5) *Ibid.*, 74'gn orri.
- (6) Jorge de Oteiza-ren, *Cromlechs y estelas funerarias*, op. cit. "La Academia Errante"-ren. *Homenaje...*, op. cit.-an, 151'gn orri.

JOSE MIGEL BARANDIARAN-I BURUZ BIBLIOGRAFI-ARKIBIDEA

Jon Bilbao-k egin eta "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Cuerpo C. Eusko-Bibliographia"-ren I'go Liburuan (Añamendi Argitaldaria, Donostia, 1970) 446-9 eta 231-2 orrialdeetan jasotako bilduma ber-agertzen du argibide onek. Jon Bilbao-k bere aurre-itzaren 29'gn orrialdean dionez, 1960'gn urtea arte inprimatutako lan guztiak izendatzen dituen bibliografia bat asi nai zuen.

CLAVE DE LAS ABREVIATURAS:

- BCMN = *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*. Pamplona.
- BIAEV = *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*. Buenos Aires.
- BISS = *Boletín de la Institución Sancho el Sabio*. Vitoria.
- BSVAP = *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*. San Sebastián.
- RABM = *Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos*. Madrid.
- RIEV = *Revista Internacional de Estudios Vascos*. San Sebastián.

- "Agerketa berriak", *Ikuska*, 1949, III, 1.
- "Algo más sobre el trillo", *Munibe*, 1955, VII, 229-231.
- "Algunos amuletos del Pueblo Vasco", *RIEV*, 1927, XVIII, 525-526.
- "Algunos casos de arte rudimentario en la etnografía actual del Pueblo Vasco", *Quinto Congreso de Estudios Vascos*, 1930, pp. 39-47.
- "Algunos vestigios prehistóricos en la etnografía actual del Pueblo Vasco", *Anuario de Eusko Folklore*, 1932, XII, 101-110.
- "Antigüedad del Pueblo Vasco", *Euzko Enda*, 1939, I (núm. 1), 5.
- "Antropología de la población vasca", en ARANZADI, T.; BARANDIARAN, J. M.; ETCHERRY, M. A.: *La Raza Vasca*. Zarauz [1959], páginas 11-46.
- "Antropología de la población vasca", *Ikuska*, 1947, I, 193-210.
- Apuntes de Geología general y de la del País Vasco*. Vitoria: Imp. del Montepío Diocesano, 1932 (126 pp., ilustr., mp., 17 cms.).
- "La arquitectura dolménica en Alava", *Vida Vasca*, 1936, XIII, 29-31.
- "Arte popular. Orbiso. Santa Cruz de Campezo [Alava]", *Anuario de Eusko Folklore*, 1921, I, 121-123.
- "El arte rudimentario en la etnografía actual del Pueblo Vasco", *Libro de Oro*, [1935] (2 pp.).
- "El arte rupestre en Alava", *Boletín de la Sociedad Aragonesa de Ciencias Naturales*, 1920, XIX, 65-98.
- * BREUIL, H.: *Anthropologie*, 1923, XXXIII, 210 (1).
- * MUGICA, G.: *Euskalerraren Alde*, 1919, IX, 237.
- "Aspectos sociográficos de la población del Pirineo Vasco", *Eusko Jakintza*, 1953-1957, VII, 3-26.
- "Ataun en la Edad Media. El antiguo castillo", *Euskalerraren Alde*, 1916, VII, 486-489. También en BCMN, 1917, VIII, 121-123.
- "Axular chaharraz kondaira poltit zonbeit", *Gure Herria*, 1956, XXVIII, 355-364.
- "Axular'en itzala", *Gure Herria*, 1957, XXIX, 97-110.
- "Axularren eginkizunak eta Axularren ize-na", *Euskera*, 1956, I, 285-293. También en *Euskaltzalen Biltzarra*, 123-131.
- "Baschi. Etnografía", *Enciclopedia Italiana*, VI, 268-269.
- "El becerro de Oikina (Leyenda vasca)", *Euzko Enda*, 1939, I (núm. 4), 15.
- "Bolinkoba y otros yacimientos paleolíticos en la sierra de Amboto (Vizcaya)", *Cuadernos de Historia Primitiva*, 1950, V (núm. 2), 73-112.
- * ELOSEGUI, J.: *Munibe*, 1952, IV, 262-263.
- "Bosquejo etnográfico de Sara", *Anuario de Eusko Folklore*, 1960, XVII, 147-216.
- Breve historia del hombre primitivo*. Vitoria, 1933. Tirada aparte de *Anuario de Eusko Folklore*, 1931, XI [parte II], 1-208.
- Breves instrucciones para el investigador folklorista*. Vitoria: Montepío Diocesano,

(1) El asterisco indica reseñas o críticas sobre la obra.

- 1921 (21 páginas, 23 cms.). (Extr. de *Anuario de Eusko Folklore*, 1921).
- * MUJICA, G.: *Euskalerriaren Alde*, 1922, XII, 274.
- "Caballo grabado de Ermitia", *Munibe*, 1949, I, 3-4.
- * PERICOT, L.: *Ampurias*, 1949, XI, 228-229.
- * VILA, J.: *Pirineos*, 1950, VI, 317.
- "III Campaña de excavaciones en el yacimiento paleolítico de Lezetxiki y I Campaña en el de Kobaxo (Garagarza-Mondragón)", *Munibe*, 1959, XI, 15-19.
- "El castro de Inchur [Guipúzcoa]. I Campaña de excavaciones, 1957", *Munibe*, 1957, IX, 139-143.
- "Las cavernas prehistóricas en la mitología vasca", *Cuadernos de Historia Primitiva*, 1946, I, 71-89 (Trad. de su "Die Prähistorischen Höhlen...").
- * ELOSEGUI, J.: *Munibe*, 1951, III, 105.
- "Compte rendu des recherches préhistoriques dans le département des Basses-Pyrénées pendant l'année 1948", *Bulletin de la Société Préhistorique de France*, 1949, XLVI, 82.
- "Contribución a un catálogo de cavernas del País Vasco", *Ikuska*, 1948, II, 64, 71-72.
- "Contribución al estudio de la casa rural y de los establecimientos humanos. Pueblo de Ataun", *Anuario de Eusko Folklore*, 1925, V, 1-30.
- "Contribución al estudio de la casa rural y de los establecimientos humanos. Pueblo de Kortezubi (Bizcaya). Los establecimientos humanos y las condiciones naturales", *Anuario de Eusko Folklore*, 1925, V, 45-67.
- "Contribución al estudio de la mitología vasca", *Homenaje a Fritz Krüger. Tomo I*. Mendoza, 1952, pp. 101-136.
- "Contribución al estudio de los cromlechs pirenaicos", *Homenaje a D. Julio de Urquijo*, 1949, V, 197-212.
- "Contribución al estudio de los establecimientos humanos y zonas pastoriles del País Vasco", *Anuario de Eusko Folklore*, 1927, VII, 137-141.
- "Contribución al estudio de los refugios en el País Vasco", *Anuario de Eusko Folklore*, 1928, VIII, 43-47.
- Contribución al estudio paleontológico del Pueblo Vasco. El Magismo. Trabajo leído en la sección IV de Ciencias Naturales del Congreso de Ciencias de Bilbao.* [Madrid]: Ribadeneyra, [1919] (36 pp.). (Extr. de la *Asociación Española para el Progreso de las Ciencias. VII Congreso*. Bilbao, 1919. Madrid, 1920, VI (primera parte), 39-73).
- "Creencias y ritos funerarios en Orozco, Ziortza (Zenarruza), Kortezubi, Otazu,

- Ataun, Arano, Ziga, Otxagabia (Navarra)", *Anuario de Eusko Folklore*, 1923, III, 5-12, 22-30, 36-43, 62-69, 112-138.
- "Crónica de prehistoria. Alduides", *Ikuska*, 1949, III, 7-14.
- "Crónica de prehistoria. I: Del 23 al 27 de noviembre de 1948 en Baigorri; II: En los montes de Baztán sobre Urdax", *Ikuska*, 1949, III, 71-78. También en *Eusko Jakintza*, 1949, III, 471-478.
- * MALUQUER DE MOTES, J.: *Pirineos*, 1950, VI, 677-678.
- "Crónica de prehistoria. I: Una excursión a Abuski y a los Mairietxe o dólmenes y cromlechs de la región de Mendive; II: Excursión a Zugarramurdi y a los montes de Baztán; III: En Ayherre; IV: Excursión a Turzilo y Zahó", *Eusko Jakintza*, 1950, IV, 425-438. También en *Ikuska*, 1950, IV, 127-140.
- * MALUQUER DE MOTES, J.: *Pirineos*, 1951, VII, 652.
- "Crónica de prehistoria. Prospecciones en las regiones de Baigorri, de Mendive, de Lecumberri y de Alzay. Cromlechs y dólmenes de Iraty y de Bagargi. Dólmen de Xuberaxainharri. Cueva Mikelauen-zilo", *Eusko Jakintza*, 1952, VI, 154-161.
- * ELOSEGUI, J.: *Munibe*, 1954, VI, 157-158.
- * MALUQUER DE MOTES, J.: *Pirineos*, 1952, VIII, 614.
- Cuestionario de psicología colectiva del fenómeno religioso* [Vitoria, s. a.] (1 h.).
- Cuestionario para la investigación de monumentos y prácticas religiosas*. [Vitoria: Ed. Social Católica, 1927?] (1 h., 21,5 cms.). (Laboratorio de Etnología y Eusko Folklore de la Sociedad de Estudios Vascos).
- Cuestionario para las vacaciones de Navidad. Nochebuena. Navidad, Inocentes. Año Viejo. Año Nuevo. Reyes*. Vitoria, 1921. (Sociedad de Eusko Folklore).
- "Cuestionario para un estudio etnográfico del Pueblo Vasco", *Ikuska*, 1948, II, 26-36, 122-130; 1949, III, 55-65. También en *Eusko Jakintza*, 1949, III, 456-465.
- "Cuestionario para una investigación etnográfica de la vida popular", *Anuario de Eusko Folklore*, 1934, XIV, 157-209.
- "Cueva de Goiko-lau [Berriatua, Vizcaya]", *Ikuska*, 1948, II, 1.
- * MALUQUER DE MOTES, J.: *Pirineos*, 1950, VI, 681.
- "Cueva de Pepetxo [Amoroto, Vizcaya]", *Ikuska*, 1948, II, 70-71.
- "Las cuevas de Jentiletxeta", *Anuario de Eusko Folklore*, 1927, VII (Segunda parte), 7-16.

- "Cuevas y simas en las creencias y mitos del Pueblo Vasco", *Homenaje a D. Joaquín Mendizábal*, 1956, 71-75.
- "De antroponimia vasca. Los nombres de familia de Sara", *Eusko Jakintza*, 1949, III, 163-172.
- "De etnología vasca", *Jakintza*, 1933, [1], 61-64.
- "De etnología vasca. Sistemas de poblado y ambiente natural", *Jakintza*, 1933, [1], 306-309.
- "De la vida tradicional vasca. Valores de algunos símbolos", *Homenaje a Don Luis de Hoyos*, 1950, II, 36-44.
- "De mis recuerdos de Aranzadi [Telesforo]", *Munibe*, 1951, III, 84-93.
- "De prehistoria vasca. Exploración de la cueva de Urriaga (en Itziar, Guipúzcoa)", *Eusko Jakintza*, 1947, I, 111-126, 265-271, 437-456, 676-696.
- * ELOSEGUI, J.: *BSVAP*, 1948, IV, 270-271.
- * MALUQUER DE MOTES, J.: *Pirineos*, 1950, VI, 680-681.
- "Découverte de deux couloirs ornés dans la grotte d'Etcheberri-ko karbia, Camou-Ciniquel", *Bulletin de la Société Préhistorique de France*, 1950, XLVII, 196-197, 201.
- "Despoblados de Alava", *Anuario de Eusko Folklore*, 1929, IX, 95-100.
- Discurso leído en la apertura del curso de 1917 a 1918 en el Seminario Conciliar de Vitoria*. Vitoria: Montepío Diocesano, 1917 (39 pp., 21 cms.) [sobre Prehistoria Vasca]. Reproducido en *Euskal Erria*, 1917, LXXVII, 386-392, 431-442, 488-496.
- "Los dólmenes de la sierra de Gibijo (Alava)", *Anuario de Eusko Folklore*, 1932, XII, 115-120.
- "Los dólmenes de Landarbaso (Gipuzkoa)", *Anuario de Eusko Folklore*, 1928, VIII, 155.
- "Don Julio de Urquijo e Ibarra", *Eusko Jakintza*, 1950, IV, 352.
- "Du nouveau sur les groupes sanguins chez les Basques", *Eusko Jakintza*, 1951, V, 216.
- "Ele zaar (El oro del monte)", *Eusko Jakintza*, 1948, II, 345-346.
- "Ele zaar (Fragmentos de mitología vasca). Herensuge", *Eusko Jakintza*, 1950, IV, 259-278.
- "Ele zaar. Lamiñaren itzak (Las palabras de la Lamia)", *Eusko Jakintza*, 1948, II, 593-594.
- "Ele zaar (Peru eta Mari)", *Eusko Jakintza*, 1948, II, 1-2.
- "Ele zaar (Suge eskergabea). (La serpiente desagradecida)", *Eusko Jakintza*, 1947, I, 487-489.
- "Ele zaar. Urgeldiegaz (sobre lagos)", *Eusko Jakintza*, 1949, III, 3-8.
- "Ele zaar. VII: Aitte baten azken-itza (El

- último consejo de un padre)", *Eusko Jakintza*, 1949, III, 299-300.
- "En el Pirineo vasco. Crónica de prehistoria. Estaciones megalíticas de Sara", *Eusko Jakintza*, 1951, V, 243-256.
- * ELOSEGUI, J.: *Munibe*, 1952, IV, 187.
- "Esquema de distribución geográfica de algunas creencias y ceremonias relacionadas con las fiestas populares", *Anuario de Eusko Folklore*, 1921, I, 151-158.
- "Establecimientos humanos", *Anuario de Eusko Folklore*, 1929, IX, 1-40.
- Los establecimientos humanos en el Pirineo vasco. Conferencia*. Zaragoza: Gambón, 1933 (25 págs., ilustr., 25 cms.). (Extr. de la *Revista de la Academia de Ciencias Exactas, Físico-químicas y Naturales*, de Zaragoza, 1932, XVI, 38-62).
- "Los establecimientos humanos y las condiciones naturales (Deva-Motrico)", *Anuario de Eusko Folklore*, 1928, VIII, 9-32.
- "Una estación megalítica en la Rioja [Dólmen de Elvillar]", *BISS*, 1957, I, 47-50.
- "Etnografía vasca. El idioma", *Eusko Enda*, 1939, I (c. 10), 6-7.
- "Etnografía vasca. Nuestro propósito. Los oi y los oi-dian", *Eusko Enda*, 1939, I (c. 6), 3.
- "Etnographie basque. Calendrier traditionnel de Sare", *Ikuska*, 1947, I, 47-57.
- "Etnographie basque. Matériaux pour une étude du peuple basque à Uhart-Mixe", *Ikuska*, 1947, I, 107-125, 167-175; 1948, II, 2-3, 84-93.
- "Etnología de la Península Ibérica [sobre BOSCH GIMPERA: *Etnología*]", *RIEV*, 1933, XXIV, 637-650.
- "Etnología vasca", *Libro de Oro*, [1934] (2 páginas).
- "Euskal-mitologiaren ikaspiderako", *Eusko Gogoia*, 1954, V, 155-158, 198-202, 1955, VI, 23-25, 56-57. [Trad. al euskera por A. Ibi-nagabeitia].
- Euskalerriko Leen-gizona. (Eusko-lurretan lenengo izan ziran gizonen edesti laburra)*. Donostia: Beñat Idaztiak, [1934] (103 pp., ilustr., 19 cms.) (*Egia-Sorta, Zabalkundearen Euskal-Erantskia*, I) [Trad. de su *El Hombre primitivo en el País Vasco*].
- "Eskual-Herriko Leen-Gizona. Paleolithos-aroa", *Aintzina*, 1942, III (núm. 4), 11.
- "El euskera en Alava a fines del siglo XVIII", *RIEV*, 1926, XVII, 464-467. También en *Geografía histórica de la lengua vasca*. Zarauz, [1960], pp. 61-66.
- "Eusko Folklore. Cuentos y leyendas", *RIEV*, 1925, XVI, 173-183.
- Eusko Folklore [hojas etnográficas mensuales]*. Vitoria, San Sebastián, 1921.
- * LACOMBE, G.: *RIEV*, 1922, XIII, 254.
- Eusko-Mitologia*. San Sebastián: P. E. E., 1924.

"Eusko Mitología", en *Lenengo Euskalegurenako Itzaldia*. Bilbao, 1922.

Excavaciones en Atxeta, Forua (1959). En colaboración con don Mario Grande, director del Museo Arqueológico de Vizcaya; Prof. Pierre Boucher, de la Société Préhistorique Française; Domingo Medrano, delegado de Excavaciones en Laguardia; Sres. Terrachet, Latorre y Cortés, miembros del Seminario de Arqueología del Museo de Bilbao; Juan San Martín, de la sección de prehistoria del Grupo Aranzadi. Bilbao: [Imp. Provincial], 1960 (31 pp., ilustr., 21,5 cms.). (Servicio de Investigaciones Arqueológicas de la Excm. Diputación de Vizcaya).

* NIETO, G.: *RABM*, 1960, LXVIII, 838-839.

"Exploración de dos dólmenes en Kalamua [Marquina]", *Munibe*, 1954, VI, 263-266.

"Exploración de la cueva de Lezetxiki en Mondragón (Memoria de los trabajos de 1957, 1959 y 1960)", *Munibe*, 1960, XII, 273-310.

"Exploración de la Cueva de Urutiaga (XI y XII campañas)", *Munibe*, 1960, XII, 3-18.

"Fernando López de Cárdenas, naturalista. Cartas autógrafas", *Asociación Española para el Progreso de las Ciencias. Congreso de Bilbao*, 1919. Madrid, 1921, VI, 35-51.

"Fiestas populares en Osintxu (Mártires) y Plazentzia-Itziaz", *Anuario de Eusko Folklore*, 1922, II, 126-129.

"Folklore vasco. Necesidad de su estudio", *RIEV*, 1922, XIII, 33-36.

"Fragments d'ethnographie basque. (Trad. de Ph. Veyrin)", *Bulletin du Musée Basque*, 1937, XIV, 61-66.

Fragmentos folklóricos. Paletnografía vasca. San Sebastián: Martín, Mena y Cia., 1921 (60 pp., 22,5 cms.). (Publicado primero en *Euskalerraren alde*, 1920, XI, 182 ss., 224 ss., 396 ss., 431 ss., 425 ss.).

"Los grupos sanguíneos en la población vasca", *Eusko Jakintza*, 1951, VI, 91-92.

"Un gurdi au Musée Basque de Bayonne [Introduction de Charles Parain]", *Musées de France*, 1947, II, 158-160.

"Hace cuarenta años. A la memoria de D. Telesforo de Aranzadi", *Anuario de Eusko Folklore*, 1960, XVII, 7-8.

"Hensuge o la serpiente de Ahuski (leyenda vasca)", *Euzko Enda*, 1939, I (c. 3), 18.

El hombre primitivo en el País Vasco. San Sebastián [Zarauz: Itxaropena], 1934 (112 pp., ilustr., 19,5 cms.). (Colección Zabalakunde, III).

* ARANZADI, T.: *RIEV*, 1934, XXV, 549-550.

* LASSALLE, P.: *Gure Herria*, 1934, XIV, 456-459.

El hombre prehistórico en el País Vasco. Buenos Aires: Ekin, 1953 (267 pp., ilustr., 18 cms.). [Biblioteca de Cultura Vasca, número 42].

* BIAEV, 1954, V, 124-125.

* CRUZALEGUI, J. L.: *Gernika*, 1953 (Oc.-Dc.), (núm. 25), 240.

* ELOSEGUI, J.: *Munibe*, 1954, VI, 83-88.

* MALUQUER DE MOTES, J.: *Pirineos*, 1955, XI, 359.

* MICHELENA, L.: *BSVAP*, 1953, IX, 561-562.

* NARR, K. J.: *Anthropos*, 1955, L, 1019.

* VEYRIN, PH.: *Gure Herria*, 1954, XXVI, 381-382.

Huellas de artes y religiones antiguas del País Vasco. Vitoria, 1953 (17 pp., ilustr., 21,5 cms.). (Tirada aparte del *Homenaje al Sr. Dr. Escárzaga*. Vitoria [1935], pp. 375-426).

* ARANZADI, T.: *RIEV*, 1935, XXVI, 385-387.

* LUQUET, G. H.: *Anthropologie*, 1936, XLVI, 129.

"La industria prehistórica de la región inferior del Nive", *Eusko Jakintza*, 1950, IV, 302.

* MALUQUER DE MOTES, J.: *Pirineos*, 1951, VII, 652.

"Industrias tradicionales derivadas de la leche en Ainhoa", *Anuario de Eusko Folklore*, 1955, XV, 47-51.

"Investigaciones prehistóricas en la diócesis de Vitoria", *Boletín de la Sociedad Aragonesa de Ciencias Naturales*, 1917, XVI, 210-236.

"Jentilkoba de Iperrax [Isparter, Vizcaya]", *Ikuska*, 1949, III, 2.

* MALUQUER DE MOTES, J.: *Pirineos*, 1950, VI, 679.

"Leyendas de Goyeri. Cómo se propagó en nuestro país el cultivo del trigo", *Euskalerraren Alde*, 1918, VIII, 10.

"Leyendas vascas. Versiones y variantes de 'Motil bildurgabea' o 'Juan sin miedo'", *Eusko Jakintza*, 1947, I, 189-198.

Mari, o el genio de las montañas. Un personaje de la mitología vasca. San Sebastián: Imp. de la Diput., 1928. (Extr. del *Homenaje a C. de Echegaray*, 1928, 245-268).

"Materiales para un estudio del Pueblo Vasco en Liginaga (Laguinge)", *Ikuska*, 1947, I, 126-131, 177-184; 1948, II, 9-24, 78-84; 1949, III, 33-49 [estas últimas páginas también en *Eusko Jakintza*, 1949, III, 433-449]; 1950, IV, 2-36 [también en *Eusko Jakintza*, 1950, IV, 180-214].

Mitología del Pueblo Vasco. Vitoria: Publicaciones de *Eusko Folklore*, 1921-1928 (3 vols., 17,5 cms.).

Mitología vasca. Madrid: Minotauro, 1960 (162 págs., 19 cms.). (*Biblioteca Vasca*, V).

* ATAURI, T.: *Munibe*, 1960, XII, 267-268.

* MICHELENA, L.: *BSVAP*, 1960, XVI, 379-380.

"Monumenta Vasconum Antiqua. Catalogue des Stations préhistoriques des Pyrénées basques", *Ikuska*, 1946, I, 24-40.

* MALUQUER DE MOTES, J.: *Pirineos*, 1950, VI, 682.

"Monumenta Vasconum Antiqua. Note sur deux stations préhistoriques des environs de Biarritz", *Ikuska*, 1947, I, 69-76.

"Monumentos megalíticos en la loma de Aguiña (Lesaca)", *Munibe*, 1957, IX, 263-265.

"Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales", *Anuario de Eusko Folklore*, 1924, IV, 153-229.

* DELAFOSSE, M.: *Révue d'Ethnographie et des Traditions Populaires*, 1925, VI, 441-442.

* PINARD DE LA BOULAYE, H.: *Recherches de Science Religieuse*, 1926, XVII, 450.

El mundo en la mente popular vasca (Creencias, cuentos y leyendas). Zarauz: Icharopena [1960] (198 pp., 18,5 cms.). (Colección *Añamendi* [XII] [es reedición de *Eusko Folklore*]).

"Nota acerca de los curas de Sara durante la Revolución", *Eusko Jakintza*, 1950, IV, 374.

"Notas sobre la vida pastoril de Ibarre", *Anuario de Eusko Folklore*, 1955, XV, 39-46.

"Notas sueltas sobre el pastoreo en Gorbea (Vizcaya)", *Anuario de Eusko Folklore*, 1955, XV, 185-189.

"Nuestro empeño de ayer y de hoy", *Anuario de Eusko Folklore*, 1955, XV, 7-8.

"Nuevos monumentos prehistóricos del País Vasco", *RIEV*, 1924, XV, 239-244.

"Olentzaro, kalerre ta subilaro", *Egan*, 1956, (núms. 5-6), 164-172.

"On the conservation of the Basque people", *Man*, 1946, XLVI, 96-97.

"Orígenes espirituales del Pueblo Vasco. Era arcaica o de los cazadores pirenaicos", *Euzko Enda*, 1939, I (núm. 2), 4.

"Orígenes espirituales del Pueblo Vasco. Era megalítica", *Euzko Enda*, 1939, I (c. 3), 2.

"Orígenes espirituales del Pueblo Vasco. Los milenios de la prehistoria vasca", *Euzkerea*, 1935, [III], 606-609.

"Para un estudio etnográfico del Pueblo Vasco. Cuestionario sobre la vida pastoril", *Anuario de Eusko Folklore*, 1955, XV, 191-192.

"Paralelo entre lo prehistórico y lo actual en el País Vasco", *Anuario de Eusko Folklore*, 1932, XII, 101-110.

"Die Prähistorischen Höhlen in der baskischen Mythologie. Aus dem Spanischen übersetzt von Adolf Friedrich. Vorbemerkungen des Herausgebers von E. Volhard", *Paideuma*, 1941, II, 6-83. Trad. esp.: "Las cavernas prehistóricas en la mitología vasca", *Cuadernos de Historia Primitiva*, 1946, I, 71-89.

"Prehistoria de Vizcaya, 1/4 de siglo de investigaciones", *Ikuska*, 1947, I, 134-147.

La Prehistoria en el Pirineo Vasco. Estado actual de su estudio. [Zaragoza: El Noticiero], 1952 (14 pp., 24 cms.). (C. S. de I. C.). (Extr. de *Actas del Primer Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos*, 1952, IV, 209-218).

"La prehistoria en las cavernas", en *Memoria de la Asamblea Regional de Espeleología*. Bilbao, 1959, pp. 87-102.

"Prehistoria vasca. Estaciones megalíticas en Navarra", *RIEV*, 1926, XVII, 358-368.

"Prehistoria vasca. Monumentos del Aralar guipuzcoano", *Euskalerraren Alde*, 1916, VI, 561.

"Prehistoria vasca. Nuevas investigaciones [en Biriatu, Ibarri, Askain, Sara, Mondarriain, Artzamendi, Iuskadi, Baigura, Ursumia, Bostmendita y Bagazabalaga]", *Gernika*, 1945, I, 23-27.

"El público, el individuo. Ideas y hechos de nuestro ambiente", *Idearium*, 1934, I, 19-27, 92-106, 316-332, 416-440; 1935, II, 53-67, 140-162.

"Pueblo de Aurizperri (Espinal). Los establecimientos humanos y las condiciones naturales", *Anuario de Eusko Folklore*, 1926, VI, 1-18.

"Rapports entre la toponymie et l'archéologie au Pays Basque", *III Congrès International de Toponymie*. Louvain, 1951, III, 520-523.

La religion des anciens Basques. Enghien (Bélgica): Maison Saint-Augustin, 1923 (pp. 156-168). (Extr. de *Compte-rendu analytique de la II^e session de la Semaine d'Ethnologie religieuse*).

* DELAFOSSE, M.: *Révue d'Ethnographie et des Traditions Populaires*, 1924, V, 101-102. "Resumen de la mitología mariana", *Munibe*, 1956, VIII, 66-75.

"Resumen de mitología mariana", *Munibe*, 1955, VII, 262-264. (También en *Eusko Folklore*, 1955, I, 44-46).

"Samartiñen Kanta. Canto de San Martín", *Eusko Jakintza*, 1949, III, 355-356.

"Sorgiñaren-txabola (La choza de la hechicera. La hutte de la Sorcière)", *Ikuska*, 1946, I, 43 (dólmen, en Elvillar).

"Sur les anciennes religions des Basques", *Congrès Internationale des Sciences Anthropologiques et Ethnologiques*, 1939, pp. 368-369.

"Toponymes inspirés par la mythologie basque", *V Congrès Internationale de Toponymie et d'Antroponymie*, 1958, 11, 65-70.

"Trabajos del Seminario de Etnología del Grupo Aranzadi de la R. S. V. A. E., durante el año de 1956", *Anuario de Eusko Folklore*, 1956, XVI, 7.

"Traits de la vie populaire de Dohozti", *Bulletin du Musée Basque*, 1941, XVII, 3-21 [torna los nums. 151-156 de *Eusko Folklore*].

"Los vascos en el cuadro de la antropología peninsular (según don Luis de Hoyos Sainz)", *Eusko Jakintza*, 1950, IV, 19-28.

* ELOSEGUI, J.: *Munibe*, 1951, 111, 104.

"Vida pastoril vasca. Albergues veraniegos, trashumancia interpirenaica", *Anales del Museo del Pueblo Español*, 1935, 1, 88-97.

"Viejos métodos de alumbamiento en el Pueblo Vasco", *Eusko Jakintza*, 1951, V, 176.

"Una visita a la cueva de Balzola", *Anuario de Eusko Folklore*, 1932, XI, 111-114.

Sobre BOSCH GIMPERA: *El poblamiento antiguo y la formación de los pueblos de España*, *Eusko Jakintza*, 1950, IV, 439-453.

También en *Ikuska*, 1950, IV, 141-155.

Sobre ELOSEGUI, J.: *Catálogo dolménico del País Vasco*. *Munibe*, 1954, VI, 335-337.

Sobre HABERLANDT, M.: *Etnografía. Trad. de T. de Aranzadi*, 1926. *RIEV*, 1926, XVII, 137-138.

Sobre RUIZ DE GAONA, M.: *Yacimiento de mamíferos; Notas sobre crustáceos y El terciario numulítico de Guecho*. *Eusko Jakintza*, 1947, I, 273-274.

ALFORD, V.: "Folk memory of a sabbath. A description partly from notes most kindly put at my disposal by M. l'Abbé J. M. Barandiaran and partly recounted by Felix Irazoki a native of Zugarramurdi now living at Sare", *Folklore*, 1957, LXII, 325-326.

ANUARIO de *Eusko Folklore*. Vitoria, San Sebastián, 1921. (Dir. J. M. de Barandiarán).

ARCAYA, A. DE [i. e.: Pildain, A.; Aravio-torre, L.; Lecuona, M.; Barandiarán, J. M.]: *Unas observaciones al Dr. Lafora acerca de su estudio "Milagros curativos, laicos y religiosos"*. Vitoria, 1928.

DUTOURNIER, P.: *Sarako Errepublikak... Préface de l'abbé de Barandiaran*. [Bayonne, 1948].

EUSKO Folklore. *Materiales y Cuestionarios*. Vitoria, 1921. (Dir. J. M. de Barandiarán).

EUSKO Jakintza. *Révue des Etudes Basques*.

Bayonne (B. P.), 1947. (Dir.: J. M. de Barandiarán).

GROSJEAN, P.: "Il ne faut pas voir de traces du nom de peuple scotti dans la France du Sub-Ouest", *III Congrès International de Toponymie*. Louvain, 1951, 111, 355-359 [con observaciones de J. M. Seguy, J. M. Barandiarán, J. Caro Baroja].

GYMNASIUM, Vitoria, 1927-1932 (Dir. J. M. de Barandiarán).

IDEARIUM. *Revista de síntesis y cultura religiosa*. Vitoria, 1934-1935 (Dir. J. M. de Barandiarán).

IKUSKA, Sare (B. P.), 1946. (Dir. J. M. de Barandiarán).

LOPEZ DE CARDENAS, F.: *Cartas autógrafas* [Publ. por J. M. de Barandiarán]. [Madrid, 1919].

MUGICA, M.: *Imperativos de mi conciencia... Carta abierta al Presbítero D. José Miguel de Barandiarán*. [París], 1945.

"[Le THEME ara/ura dans les noms de rivière. Discussion par J. M. Barandiarán, J. Caro Baroja et J. Hubschmid]", *III Congrès International de Toponymie*. Louvain, 1951, 111, 216-217.

ZUMETA, A.: *Un Cardenal español y los católicos vascos*. Bilbao, 1937 [Trabajo editado por P. Ruiz de Aranguiz sobre información escrita por J. M. de Barandiarán].

ZUMETA, A.: *La guerra civil en Euzkadi*. París, 1937 [Trabajo editado por P. Ruiz de Aranguiz sobre información escrita por J. M. de Barandiarán].

"Don José Miguel de Barandiarán inaugura la Cátedra Manuel de Larramendi en la Universidad de Salamanca", *BSVAP*, 1953, IX, 475-477.

FERNANDEZ G. DE DIEGO, F.: "Actividades de la sección de prehistoria [dirigidas por D. J. M. de Barandiarán]", *Munibe*, 1960, XII, 258-259.

TOVAR, A.: "Don José Miguel de Barandiarán inaugura la Cátedra Manuel de Larramendi en la Universidad de Salamanca", *BIAEV*, 1954, V, 53-54.

OBRAS EN COLABORACION

BARANDIARAN, J. M.; ACURRE, A.; GRANDE, M.

Estación prehistórica de Kurtzia. Barrica-Sopelana (1959). Bilbao: [Imp. Provincial], 1960 (19 pp., ilustr., 21 cms.) (Servicio de Investigaciones Arqueológicas de la Excma. Diputación Provincial de Vizcaya [Prólogo de Plácido de Careaga]).

BARANDIARAN, J. M.; ARANZADI, T. (Véase ARANZADI, T.; BARANDIARAN, J. M.).

BARANDIARAN, J. M.; ELOSEGUI, T.

"Exploración de la Cueva de Urtiaga", *Munibe*, 1955, VII, 69-79.

* HERNANDEZ PACHECO, F.: *Notas y Comunicaciones del Instituto Geológico*, 1955 (núm. 40), 143-144.

BARANDIARAN, J. M.; FERNANDEZ MEDRANO, D.

"Exploración de la cueva de Lezetxiki en Mondragón (Trabajos de 1956)", *Munibe*, 1957, IX, 34-48.

"Excavaciones en Alava", *BISS*, 1958, 11, 91-180.

"Excavaciones en Alava", *Zephyrus*, 1958, IX, 5-50.

"Trabajos de la sección de prehistoria en las Jornadas Espeleológicas [de Gorbea, 1959: Cobacho de Mairuelegorreta y Cueva de Arrillor]", *BISS*, 1959, 111, 23-29.

* FERNANDEZ RUBIO, R.: *Notas y Comunicaciones del Instituto Geológico*, 1960 (núm. 59), 467.

BARANDIARAN, J. M.; GRANDE, M.

Excavaciones en Sagastigorri (Cortezubi). Primera y segunda campañas (1958). *Nota preliminar*, Antonio Aguirre, presidente de la Junta. Bilbao: [El Noticiero Bilbaíno], 1959 (28 pp., ilustr., 20,5 cms.) (Junta de Patronato de los Museos Arqueológicos de Vizcaya y Etnográfico Vasco).

* MUÑOZ AMILIBIA, A. M.: *BSVAP*, 1960, XVI, 389-390.

* SAN MARTIN, J.: *Munibe*, 1959, XI, 196-197.

ARANZADI, T.; BARANDIARAN, J. M.

"Exploración de la cueva de Urtiaga (en Itziar, Guipúzcoa). Con un estudio de los cráneos prehistóricos de Vasconia comparados entre sí", *Eusko Jakintza*, 1948, II, 285-330.

"Exploraciones de prehistoria en las cercanías de Roncesvalles (Auritzberri y Auritz) y en Gorriti y Huici", *Munibe*, 1953, V, 73-102.

"Contribución al estudio del arte movillar magdaleniense del País Vasco", *Anuario de Eusko Folklore*, 1934, XIV, 211-215.

Exploración de ocho dólmenes de la sierra de Aralar. San Sebastián: Imp. de la Diputación, 1924 (44 pp., 32 láms., pl., 21,5 cms.).

* PERICOT, L.: *Butlleti de l'Associació Catalana d'Antropologia, Etnologia i Prehistoria*, 1925, III, 80.

Exploraciones de la caverna de Santimamiñe (Basando-Cortezubi). 3.^a Memoria. Yacimientos azilienses y paleolíticos. *Exploraciones en la caverna de Lumentxa (Le-*

queitio). Bilbao: Imp. de la Diputación, 1935 (135 pp., XLV pp. de ilustr., 27 cms.).

* J. S.: *Boletín del Seminario de Estudios de Arte y Arqueología*, 1939-1940, VI, 267-268.

Exploraciones prehistóricas en Guipúzcoa los años 1924 a 1927. Cavernas de Ermitia (Sasiola), Arbil (Lastur) y Ulatzaspí (Asteasu), dólmen de Basagañ (Murimendi) y caverna de Irurixu (Vergara). San Sebastián: Imp. de la Diputación, 1928 (48 pp., 29 láms., 22,5 cms.).

* MUGICA, G., *Euskalerraren Alde*, 1928, XVIII, 436.

Nuevos hallazgos de arte magdaleniense de Urtiaga y Bolinkoba. Vitoria, 1936.

"Nuevos hallazgos de arte magdaleniense en Vizcaya [Santimamiñe, Lumentxa]", *Anuario de Eusko Folklore*, 1927, VII (2.^a pt.), 3-6.

ARANZADI, T.; BARANDIARAN, J. M.; EGUAREN, E.

Exploración de cuatro dólmenes de Belubieta. San Sebastián: Imp. de la Diputación, 1923 (19 págs., ilustr., 22 cms.).

* MUGICA, G.: *Euskalerraren Alde*, 1924, XIV, 30-31.

* PERICOT, L.: *Butlleti de l'Associació Catalana de Antropologia, Etnologia i Prehistoria*, 1923, I, 172.

Exploración de dieciséis dólmenes de la sierra de Elosua-Plazentzia. San Sebastián: Imp. de la Diputación, 1922 (36 pp.).

Exploración de nueve dólmenes del Aralar guipuzcoano. Memoria presentada a la Excma. Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián: Martín y Mena, 1919 (51 pp., ilustr., 23 cms.). (Publicado primero en *Euskalerraren Alde*, 1918, VIII, 207-212, 248-261, 296-303, 484-500).

* BOSCH GIMPERA, P.: *Estudio*, 1918, XXVI, 308-310; 1920, XXXII, 292-293.

* BREUIL, H.: *Anthropologie*, 1922, XXXII, 309-310.

* FERNANDEZ NAVARRO, L.: *Boletín de la Sociedad Española de Historia Natural*. 1919, XIX, 295.

* MUGICA, G.: *Euskalerraren Alde*, 1919, IX, 117.

Exploración de ocho dólmenes de Altzania. San Sebastián: Imp. de la Diputación, 1921 (41 pp., ilustr., 22 cms.). (*Eusko Ikaskuntza*).

* IRUSTA, D.: *Aranzazu*, 1922, II, 174-175.

* MUGICA, G.: *Euskalerraren Alde*, 1925, XV, 113.

Exploración de seis dólmenes de la sierra Aizkorri. San Sebastián: Martín, Mena y Cía., 1919 (47 pp., ilustr., 23 cms.). (Pu-

blicado primero en *Euskalerraren Alde*, 1919, IX, 215-221, 245-262, 298-312).

* BOSCH GIMPERA, P.: *Estudio*, 1920, XXXII, 292-293.

* DELEITO, J.: *La Lectura*, 1920, XX, 54-55.

* MUGICA, G.: *Euskalerraren Alde*, 1924, XIV, 30.

Exploración de seis dólmenes de la sierra de Urbasa (Navarra). San Sebastián: Imp. de la Diputación, [1923] (31 pp., 24 láms., 21,5 cms.).

* BREUIL, H.: *Anthropologie*, 1923, XXXIII, 407.

* PERICOT, L.: *Butlleti de l'Associació Catalana d'Anthropologia*, 1923, I, 171.

Exploración de siete dólmenes de la sierra de Ataun-Borunda. San Sebastián: Imp. de la Provincia, 1920 (56 pp., 13 láms., 21 cms.).

* BREUIL, H.: *Anthropologie*, 1922, XXXII, 310-311.

Exploración de la caverna de Santimamiñe (Basando Cortézubi). Bilbao, 1925, 1931 (2 memorias: 1.ª: *Figuras rupestres*. Bilbao: Artes Gráficas Grijelmo, 1925 (50 pp., ilustr., 26 cms.); 2.ª: *Los niveles con cerámica y el conchero*. Bilbao: Imp. de la Diputación, 1931 (114 pp., ilustr., 26 cms.).

* BARRAS, F.: *Atlantis*, 1931, X, 46-48.

* BARRAS, F.: *Boletín de la Sociedad Española de Historia Natural*, 1926, 284.

* CASTILLO, A.: *Butlleti de l'Associació*

Catalana d'Anthropologia, Etnología i Pre-historia, 1926, IV, 269.

* LANTIER, R.: *Anthropologie*, 1932, XLII, 125.

* MUGICA, G.: *Euskalerraren Alde*, 1926, XVI, 395.

* SANCHEZ, D.: *Atlantis*, 1926, V, 39-40.

* VERNEAU, R.: *Anthropologie*, 1937, XLVII, 363-364.

* VIDAL BOX, C.: *Boletín de la Sociedad Española de Historia Natural*, 1931, XXXI, 313.

Grutas artificiales de Alava. San Sebastián: [*Eusko Ikaskuntza*], 1923 (49 pp., 13 láms., 22 cms.).

* MUGICA, G.: *Euskalerraren Alde*, 1924, XIV, 200.

Los nuevos dólmenes de la sierra de Encía. San Sebastián: Ed. Graphos, 1922 (16 pp., 21,5 cms.). (*Eusko Ikaskuntza*).

ARANZADI, T.; BARANDIARAN, J. M.; ETCHEVERRY, M. A.

La raza vasca. Zarauz: Icharopena [1959] (184-[XII] pp., ilustr., 18 cms.). (*Colección Auñamendi*, [V]). (Contiene: BARANDIARAN, J. M.: "Antropología de la población vasca", 11-46; ETCHEVERRY, MIGUEL ANGEL: "Grupos sanguíneos y factor Rh en los vascos", 47-84; ARANZADI, T.: "Síntesis métricas de cráneos vascos", 85-184).

* RITTER, R.: *Pyrénées*, 1960, XI, 222.

IZENEN ARKIBIDEA

Abaitua, 168.
Aboitiz, 224.
Absalón (obispo), 188.
Adine, Mme., 194, 195
Agirre, Domingo de, 38.
Agirre, José Antonio de, 182.
Agirre, Roberto de, 150, 167.
Agirreche, Angel, 210, 211, 213.
Agirreurreta, Eustaquio, 150.
Aizpurua, Josefa Ignacia, 12.
Alava (familia), 38.
Alberdi, María Angeles, 228.
Alcibar, José María, 160, 162.
Alcobé, 208.
Aldanondo, Jesús, 160, 164, 165, 166.
Alfonso VIII, 2.
Alfonso XII, 14, 16.
Alfonso XIII, 41, 145, 155.
Alkain, José, 168, 175.
Almagro, Martín, 227, 228.
Altuna, Jesús, 221, 226, 228
Altuna, Miguel, 168.
Amezaga, Vicente, 183.
Andonegui, 16.
Andonegui, Andoni, 171, 175.
Angoitia, Fabián, 224.
Ansaldó, Juan Antonio, 205.
Ansoleaga, Florencio, 69, 86.
Antón y Ferrándiz, Manuel, 113.
Antoniutti, Mons. Hildebrando, 183.
Antú, E., 164.
Apellániz, Juan María, 221, 228.
Apraiz, Angel de, 79, 185.
Aramburu, Gelasio, 175, 176.
Aramburu, Jaime, 150.
Arandia, José, 168.
Aranguren, Juan, 175, 179.
Aranzadi, Telesforo de, 64, 66, 69, 70, 76, 86, 87, 89, 98, 99, 101, 102, 108, 111, 112, 113, 114, 116, 118, 119, 120, 121, 122, 123, 124, 135, 137, 138, 140, 160, 163, 164.
Aravio-Torre, Leoncio de, 55, 98, 109, 110, 111, 129, 131.
Arbex, José María, XV.
Arbolea (canónigo), 149.
Arcaya, Alejandro de, 129.
Aretxaga, Ginés, 57, 224.
Arin Dorronsoro, Juan de, 5, 23, 35.
Ariztimuño, Nemesio, 171, 175.
Arocena, Fausto, XV.
Arostegui, Joaquín, 171.
Arrarás, Joaquín, 156.
Arrese, Manuel, 14, 24, 25, 27.
Arrinda, Anastasio, 19.
Arrupe, L. Pedro, 149.
Arruti, 163.
Arzuaga, Fernando, 150.
Astarloa, 9.
Asúa, Pedro de, 145, 148.

Ataun, Bonifacio, 168.
Atauri, Tomás de, XV, 39, 42, 86, 107, 228.
Aurquia, Bernardo, 175.
Auzmendi, 9.
Auzmendi, Bartolomé, 168.
Auzmendi, Francisco, Felipe, Félix y José Miguel, 168.
Axular, Pedro de, 221.
Ayala, Luis de, 131.
Ayerbe, Elena, 18.
Ayerbe Dorronsoro, María Antonia, 12, 17, 32.
Azketa, 213.
Azkue, Resurrección María de, 122.
Azpiazu, Joaquín, 132, 149.
Azpiazu, Liborio de, 31, 41, 42, 53, 56.
Balmes, Jaime, 40, 51, 127.
Ballester, Mons. Carmelo, 42.
Barandiaran, Eduardo, 13, 15.
Barandiaran, Felipe, 60, 122, 160.
Barandiaran, Francisco Antonio, 12, 13, 16.
Barandiaran, Ignacio, 221.
Barandiaran, José Antonio, 13, 17.
Barandiaran, José Ignacio, 13, 17.
Barandiaran, Manuela Antonia, 13.
Barandiaran, María Bautista (Sor Magdalena), 13, 77, 98.
Barandiaran, Micaela, 13, 15, 16, 178, 211, 212.
Barandiaran, Pedro Ignacio, 13.
Barandiaran, Pilar, 193, 211, 212.
Baroja, Pío, 24, 37, 94, 114, 116, 118, 120, 146.
Barriola, Ignacio María, 86, 123.
Basabe, P., 44.
Begiristain, Benito, 172.
Begiristain, Luis, 179.
Begiristain, María Amor, 223.
Benavente, Jacinto, 141.
Benavides, Domingo, 150.
Beohide, 175.
Berastegui, Jaime, 173.
Beraza, Manuel, 168.
Bereciartua, Mons. Lorenzo, 223.
Bergson, Henri, 104.
Berrondo, Segundo, 168.
Berruguete, 38.
Bilbao (colaborador), 202.
Blanch, 166.
Bloy, León, 239.
Boissel, William, 196.
Borbón y Austria-Este, Alfonso-Carlos de, 179.
Bosch-Gimpera, Pedro, 203, 205.
Boucher, Pierre, 220, 221.
Bouda, Karl, 196, 214.
Bravante, Santa Genoveva de, 16.
Breuil, Abate Henri, 70, 104, 178, 179.
Broglie, P. de, 49, 239.

Bueno Monreal, Mons. José María, 216.
 Busca Isusi, José María, 112.

Cadena y Eleta, Mons. José, 41, 154.
 Calvo Sotelo, José, 156.
 Camiña, José, 211, 213.
 Camus, Albert, 6.
 Cánovas del Castillo, Antonio, 14,
 Carciu, 203.
 Cárdenas, Fernando, 80.
 Caro Baroja, Julio, 6, 7, 19, 115, 120, 121,
 123, 146, 159, 205, 226, 244.
 Castelar, Emilio, 14.
 Castresana, Luis de, 1, 7, 27.
 Cerrajería, 31.
 Cervantes, Miguel de, 88, 233.
 Corso, 202, 203.
 Cortés, 215.

Chaplin, Charles (Charlot), 60.
 Chesterton, Gilbert, 129.
 Chevalier de la Barre, 99.

Dallo, Prudencio, 39.
 Darricau, Doctor, 213.
 Darwin, Carlos R., 92.
 Dávila, conde de, 145.
 Dell'Acqua, Cardenal Angelo, 42.
 Díez Jiménez, Luis, 33.
 Donostia, P. José Antonio de, 122.
 Dop, Pierre, 172, 173, 182, 195, 196.
 Doyanburu, 202.
 Durkheim, Emile, 116, 239.

Echaniz, José, 69.
 Etxebarria, Juan, 175.
 Etxegaray, Carmelo de, 80.
 Etxeguren, Justo, 150, 154.
 Etxebarria, Lamberto de, 215.
 Etxeverria, Heraclio, 162, 163.
 Eguren, Enrique, 64, 65, 70, 76, 86, 108,
 111, 112, 118, 123.
 Eiffel, Alejandro, 15, 58, 99.
 Eiguren, Antonio, 150.
 Eizaguirre, José, 44.
 Elizanburu, 215.
 Elosegui, Jesús, XV, 209, 210, 215, 228.
 Elso, Martín, 202.
 Enciso, Mons. Jesús, 131, 132, 150.
 Engels, Federico, 239.
 Epalza, Txomin, 213.
 Ereño, P., 178.
 Escarzaga, Julio, 6, 7, 19, 115, 120, 121,
 123, 146, 159, 205, 226, 244.
 Esnal, David, 37.
 Esnal, José, 168.
 Esnaola, Jesús, 30.
 Esquibel, 38.
 Estala, 175.

Faure, Sebastián, 131.
 Fenelon, Francisco Salignac de la Mothe,
 39.
 Fernández Moratin, Leandro, 89.
 Fernández Piérola, Mons. Ramón, 41, 42,
 154.

Ferrer, 227.
 Flórez Estrada, 152.
 Fontán, Antonio, 227.
 Foundondikis, 202.
 Franco, Francisco, 162, 166, 167, 173, 182,
 183, 187.
 Frobenius, León, 188.

Gafo, P., 142, 149.
 Gambari, 154.
 Garate, Justo, 183.
 Garayatae, Casiano, 32.
 Garayatae, Segundo, 23.
 Garcia, Calixto, 154.
 Garcia de Diego, Francisco, 221.
 Garcia Urriaga, Martin, 213.
 Garmendia Larrañaga, Juan, 115.
 Garmendia, Pedro, 172.
 Gasparri, Cardenal Pietro, 140.
 Gasse, Floriani, 136.
 Gaytán de Ayala, 165.
 Giménez Caballero, Ernesto, 91.
 Goethe, Juan W., 38.
 Goicoecheandia, Joaquín, 131, 150.
 Gomá y Tomás, Cardenal Isidro, 182, 183.
 Gómez, Mariano, Monseñor, 154.
 Gordiano II, Marco Antonio, 2.
 Gorosabel, Pablo de, 2, 56.
 Goti, Pedro, 167.
 Grande, Mario, 220.
 Graña, Manuel, 129.
 Guichot y Sierra, Alejandro, 92.
 Guridi, Jesús, 142.
 Gurpide, Mons. Pablo, 93.
 Guy Berry, 211.

Haberlandt, Michael, 136.
 Hartmann, 138.
 Herrera, Fernando de, 116.
 Herrero, Sebastián, 37.
 Herrmann, Albert, 196.
 Hitler, Adolfo, 190, 232.
 Hoyos y Sainz, Luis, 113.
 Hubert, H., 99.
 Hugo, Víctor, 37.
 Humboldt, Guillermo, 38.

Ibarguren, Sinforoso, 29.
 Ibarrolaburu, José María de, 13, 14.
 Idiartegaray, 211.
 Imaz, José Antonio, 35.
 Intxaurren, Miguel, 158.
 Intxausti, Manuel de, 181, 183, 202, 211,
 213.
 Iparraguirre, José María de, 1, 216.
 Iribarren, José María de, 45.
 Irigoyen, Antonio, 168, 169, 175.
 Irujo, Manuel de, 167.
 Iruretagoyena, 176.
 Isasti, Emeterio, 175.
 Isusi, Agustín de, 184.

Jauregi, Miguel, 176.
 Jiménez de Rada, Rodrigo, 2, 63.
 Jover, José María, 22.
 Juan III, 205.

Kant, Manuel, 168.
 Kardaberaz, 26, 155.
 Kempis ("Imitación de Cristo"), de Fr. To-
 más de, 205.
 erexeta, Jaime de, 11.
 Koppers, Wilhelm, 203, 208.
 Kortabarria, Marcelino, 150.
 Krüger, Fritz, 92.

Laborda, Ramón, 176.
 Laborde, Manuel, 210, 227.
 Laburu, José Antonio de, 130, 151.
 Laburu, 221.
 Lafitau, José Francisco, 91.
 Lafitte, Pierre, 202.
 Lafora, Gonzalo, 50, 129.
 Lagasse, 202.
 Lalastra, 221.
 Lancré, Pierre de, 11.
 Landaburu, Francisco Javier de, 152, 185.
 Landerer, José I., 39.
 Laplace, George, 220.
 Lardizábal, María Teresa, 173.
 Larrañaga, Policarpo, 175, 185.
 Larrea, 176.
 Larrinaga, Doctor, 94.
 Lasarte, 202.
 Lasniur, Román, 157.
 Le Roy, Eduardo, 104.
 Lekuona, Andoni, 221.
 Lekuona, Manuel de, IX, 37, 58, 109, 110,
 111, 131, 150, 155, 207, 226.
 Leite de Vasconcelos, Dr. José, 221.
 Leizarazu, Francisco, 179.
 Lenin, Wladimiro, I. U., 242.
 León, Fray Luis de, 127, 219.
 León XIII, 176.
 Lequerica, José Félix de, 89.
 Lera, Angel-María de, 127.
 Leremboure, Doctor, 173, 211.
 Leroi-Gourhan, André, 208.
 Levy-Bruhl, Lucien, 50.
 López-Mendizabal, Isaac, 9, 75, 185, 214.
 Lorian, marqués de, 196, 207.
 Iozoya, marqués de, 196, 207.
 Luzuriaga, P. Juan de, 22.
 Llanos, Armando, 221, 228.

Madariaga, Salvador de, 59, 202.
 Maeztu, Ramiro de, 151.
 Malax-Echevarria, 165.
 Malinowski, 116.
 Maluquer de Motes, Juan, 215.
 Manchola, Tomás de Atauri y, 131.
 Mao-Tse-Tung, 242.
 Maraón, Gregorio, 24, 36, 61, 237, 238.
 Marcos, 224.
 María Cristina (de Habsburgo), Reina, 16.
 Marínus, 202.
 Martín Santos, Luis, 27, 234.
 Martínez, Mons. Fr. Zacarías, IX, 91, 145,
 147.
 Martínez de Aragón, Gabriel, 147.
 Martínez Camoos, Arsenio, 14.
 Martínez Isasti, Love, 85.
 Martínez Santaolalla, 207.

Marx, Carlos, 49, 239, 242.
 Mathieu, Mons., 183.
 Mayora, Wenceslao, 54.
 Medrano, 220, 221, 227.
 Meertens, 202.
 Melo y Alcalde, Mons. Prudencio, 53, 55,
 56, 89.
 Menéndez y Pelayo, Marcelino, 85.
 Menchaca, Pedro, 38, 39, 183, 184, 189,
 190, 191, 216.
 Mendes-Correa, 203.
 Mendiola, Manuel, 176.
 Meñaca, Manuel, 224.
 Méroc, Luis, 208.
 Mitxelena, Alberto, 175, 176.
 Mitxelena, Luis, 87, 226.
 Miner, Luis, 167, 187.
 Mocoeroa, Justo, 179.
 Montoya, Pío de, 176, 207.
 Monzón, Isidro, 202, 213.
 Moriones, Hldefonso, 200.
 Morse, 58.
 Mugarza Mecolalde, Daniel, 152.
 Múgica, Mons. Mateo, 39, 42, 145, 147,
 152, 156, 157, 167, 173, 174, 197, 199.
 Muñoz Amilibia, 221.
 Murphy, 187.
 Mussolini, Benito, 140, 173, 197.

Nocedal, Ramón, 154.
 Nolte, Ernesto, 221, 228.

Obermaier, Hugo, 75, 104, 105.
 Oianguren, 139.
 Olaizola, Juan Bautista, 176.
 Omaechebarria, 224.
 Onaindia, Alberto de, 186.
 Onaindia, Txomin, 213.
 Oriol, José María de, 152.
 Ortega y Gasset, José, 237.
 Orúe, 224.
 Ostolaza, 175, 176, 179.
 Oswald, Wilhelm, 24.
 Otaitz, 175.
 Oteiza, Jorge de, 221.

Pacelli, Cardenal Eugenio, 184, 187, 189.
 Palacios Valdés, Armando, 108.
 Pasquet, Octavio, 192.
 Pasteur, Luis, 24.
 Peñaflores, conde, 90.
 Peralta Ballabruga, Mons. Francisco, 42.
 Pérez Ormazábal, Antonio, 173.
 Pericot, Luis, 203, 208.
 Pestaña, Angel, 131.
 Pildain, Mons. Antonio, 57, 109, 110, 111.
 Pinedo, Luis Emiliano, 150, 167.
 Pío X, 41.
 Pío XI, 140.
 Pío XII, 189.
 Ponbili, Cardenal, 140.
 Posadilla, 85.
 Prestamero, Lorenzo de, 38.
 Prieto, Indalecio, 205.
 Primo de Rivera, Miguel, 140.
 Pujula, R., 109.

Quadra Salcedo, 221.
 Ramón y Cajal, Santiago, 24.
 Recondo, Esteban, 29.
 Rentería, Gorgonio, 185.
 Rezola, Joseba, 167, 176.
 Rezola, Secundino, 175.
 Rinaldini, Cardenal, 41.
 Ripalda, Demetrio, 42, 43.
 Rivadeneira, 85.
 Rivet, Paúl, 208.
 Rivière, Henri, 202, 203, 208.
 Rockefeller, 185.
 Rodríguez, José Luis, 176.
 Rodríguez Ondarra, 221.
 Roldán de Aranguiz, M., 91, 96.
 Ruffini, Mons. Ernesto, 145.
 Ruipérez, 215.
 Ruiz-Giménez, Joaquín, 210.
 Sagasta, Práxedes M., 14.
 Saint-Pierre, 202.
 Saïntyves, P., 51.
 Salazar, Francisco, 176.
 San Lucas de María, 167.
 San Pedro (carabínero), 166, 167.
 Sancho el Sabio, 37.
 Sancho Guerra, M., 212, 213.
 Sandoval, Prudencio, 85.
 Sansinenea, Juan Miguel, 211.
 Santa Cruz (Cura), Manuel Ignacio, 98.
 Santiago, José de, 54, 224.
 Sarasola, Luis, VII, 29, 31, 37.
 Schiller, Federico, 38.
 Schmidt, Wilhelm, 85, 97, 102, 208.
 Segura, Cardenal Pedro, 141, 185.
 Sergi, 208.
 Sesé, Juan, 176.
 Sierra Bustamante, Luis, 160, 161, 162, 163.
 Sistiaga, Juan, 215.
 Soraluze, Manuel, 65, 75.
 Sota, Manu de la, 202, 211.
 Sota, Ramón de la, 211.
 Tedeschini, Mons. Federico, 145.
 Teilhard de Chardin, Pierre, 44, 178.
 Tellechea, José Ignacio, XV.
 Tellería, Juan, 54.

Thalamás, Juan, 131, 150.
 Thomsen, Thomas, 183.
 Tovar, Antonio, 210, 212, 213, 214, 215.
 Ugartechea, José Miguel, 221.
 Unamuno, Miguel de, 44, 112, 113, 115.
 Unzain, Andrés, 213.
 Unzueta, Floren, 132.
 Uriarte, Eustoquio, 176.
 Urteaga, Leonardo, 173.
 Urresti, Joseba, 176.
 Usandizaga, José María, 233.
 Usobiaga, 171, 175.
 Utrecht, Cardenal Adriano de, 31.
 Val, Venancio del, 45.
 Vallet, Luis, 221.
 Vallois, 208.
 Van Der Meer, Pieter, 239, 240.
 Van Gennepe, Arnold, 50, 202.
 Varagnac, André, 203.
 Verdier, Cardenal Jean, 186.
 Veyrin, Philippe, 202.
 Viana, Gaudencio, 59.
 Victoria Eugenia (de Battemberg), Reina, 41.
 Viguri, 152.
 Vinson, Julien, 172.
 Vizcarra, Zacarías de, 42, 157.
 Wagner, Ricardo, 121.
 Wundt, Wilhelm, 49, 50, 116, 239.
 Zabalo, 183.
 Zaqueo, 43.
 Zaragüeta, Juan, 176.
 Zárate, Félix de, 150.
 Zatarain, Félix, 150, 176.
 Zenarruzabeitia, Bruno, 176.
 Zenarruzabeitia, Ramón, 176.
 Zirikiain-Gaiztarro, 210.
 Zorrilla, José, 94.
 Zubeldia, Pedro, 183.
 Zumalacargui, Tomás de, 18.
 Zumalde, Ignacio, 80, 87, 133.
 Zumera, Angel de, 183.
 Zunzunegi, José, 130, 215.
 Zurutuza, Enrique, 236.



KARDABERAZ LIBURUEN ZERRENDA

KARDABERAZ BILDUMA

	P. V. P.		P. V. P.
1 Kardaberaz Aitari Omenaldia Zenbait idazle (1972) 18 or.	300	20 Lekuona'tar Manuel jaunaren Omenezko Idazki-Bilduma, II (1977) 323 or.	1.000
2 Neurritzia Luis Egia (1972) 523 or.	400	21 Lekuona'tar Manuel jaunaren Omenezko Idazki-Bilduma, III (1977) 396 or.	1.000
3 Suge Gorri François Mauriac - «Uxola» (1973) 169 or.	300	Idaz-Lan Guztiak Obras Completas de Manuel Lekuona en 10 vol.	
4 Ezpalak «Uxola» (1973) 11 or.	300	22 1. Aozko Literatura (1970) 624 or.	1.500
5 Aitonaren Ipuiak Ramón Murua (1974) 140 or.	250	23 2. Eusko Etnografia (1978) 582 or.	1.500
6 Erreka Zuloan eta... Anastasio Albisu Ayerdi (1974) 339 or.	400	24 3. Arte Itzi (1979) 398 or.	1.500
7 Shakespeare - Komediak, I Larraoetxea'tar Bedita (1974) 322 or.	750	25 4. Kondaira (A) } 26 5. Kondaira (B) } En prensa 27 6. Olerkiak } 28* 7. } 29* 8. } En preparación 30* 9. } 31* 10. }	
8 Landare-Jakintza (Botánica) Larrañaga, Guillermo (1975) 183 or.	500	On Manuel Lekuonaren bildumatik - Laburpenak Separatas - Obras Completas de Don Manuel	
9 Gartzzi-Ximeno, eta Anastasio Albisu Ayerdi (1975) 258 or.	500	22 (A) Aozko Literatura (Laburpena) (1970) 188 or.	400
10 Euskalerrria eta Eriotza Anastasio Arrinda Albisu (1974) 290 or.	500	22 (B) Literatura Oral Vasca (1970) 106 or.	
11 Shakespeare - Komediak, II Larraoetxea'tar Bedita (1975) 271 or.	750	23 (A) Euskalerrria Historiaren Sarrera (1978) 42 or.	50
12 13 Shakespeare - Dramak, I-II Larraoetxea'tar Bedita (1977) 468 or.	1.200	23 (B) Inauterriak (1978) 26 or.	50
14 Shakespeare - Trajediak, I Larraoetxea'tar Bedita (1976) 358 or.	750	28 Euzkal-befekinzunak «Umandi» (1977) 222 or.	500
15 Shakespeare - Trajediak, II Larraoetxea'tar Bedita (1976) 293 or.	750	29 30 Complemento Gramática Vasca «Umandi» (1978) 584 or.	1.500
16 17 Gramática Vasca «Umandi» (Dos vol.) (1976) 584 ta 208 or.	1.500	31 Las etimologías vascas en la Obra de Luis Michelena Juan José Arbeláiz (1978) 156 or.	525
18 Txiruliruka-Olerkiak Loidi'tar Paben (1977) 145 or.	300	32 Erroma'ko Eleizearen Araudia A. Ipolito Larraoetxea (1978) 472 or.	1.000
19 Lekuona'tar Manuel jaunaren Omenezko Idazki-Bilduma, I (1977) 341 or.	1.000	33 Iztueta'ren Olerkiak Juan Garmendia Arruebarrena (1978) 192 or.	750
		34 Barandiaran'dar Jose Migel Barandiaran eta Irizar'tar Luis (1980) XVI + 260 or.	1.500

KARDABERAZ LIBURUXKAK

	P. V. P.		P. V. P.
1 Kardaberaz, 1 Zenbait idazle (1971) 32 or.	50	7 Kardaberaz, 4 1975. Zenbait idazle (1975) 84 or.	150
2 Ume Txikientzako Soinketa Marrazki ugariz ornitua (1973) 19 or. ...	50	8 «Pakearen-Erregiña» - Meza Pildain Araolaza'tar Joaquin (1974) 43 or.	600
3 Euskalerrri Zarreko Jainko Txikiak A. Arrinda (1973) 19 or.	50	9 20 Ipui eta... antzerkitxo bat ikastolarako A. Albisu (1975) 145 or.	145
4 Kardaberaz, 2 1973. Zenbait idazle (1975) 110 or. ...	100	10 Kardaberaz, 5 1976. Zenbait idazle (1977) 109 or	200
5 Kardaberaz, 3 1974. Zenbait idazle (1975) 141 or. ...	200	11 Kardaberaz, 6 1977. Zenbait idazle (1977)	200
6 Amezketako Fernando Albizu ta Ayerdi'tar Anastasio (1975) 77 or.	100		

Pedidos a:

KARDABERAZ BAZKUNA

San Francisco, 1 - Apdo. 83 - Tel. 67 15 10

TOLOSA (Guipúzcoa)

«UMANDI»

Complemento de la Gramática Vasca

PRIMERA EDICION

Dos volúmenes, 586 páginas
14 cassettes

Euzkal - Eliztiaren Betebidea

LENENGO ARGITALPENA

Bi idaztitan, 586 orrialde
14 galartzu txiki

Precios en pesetas de venta al público

Un volumen y 7 cassettes... ..	4.250	4.250	Idazti bakoitza ta 7 galartzu txikiak
Ambos volúmenes más 14 cassettes...	8.500	8.500	Bi idaztiak eta 14 galartzu txikiak
Ambos volúmenes (sin cassettes).....	1.500	1.500 Bi idaztiak (galartzuak gabe)
Cada libro (sin cassettes).....	750	750 Idazti bakoita (galartzuak gabe)
Cada cassette	650	650Galartzu txiki bakoitza

BIOGRAFIA EDO BIZITZA AU GASTEIZ-KO SEMINARIOAN GRAFICAS ESET-EN INPRIMATZEA 1979'GN URTEAREN ABENDUAK 31 ZITUELARIK AMAITU ZAN, «EUSKO-KULTURAREN AITALEN» D. JOSE MIGEL BARANDIARAN- EK BERE LAROGEITA AMAR URTE BETETZEN ZITUEN EGUNEAN ALEGIA.

dira. Liburu onen gaia berria du: bizi-kondaira. Lana trebeki egin du gaiñera. "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País"-en bazkide ere bada, egillea.

Argitaldari-etxe onek gogoz aitortzen du, oso pozgarri zaiola, gipuzkoar jakintsu, D. Jose Migel Barandiaranen bizi-kondaira argitaratzea. Osaba-illobaren arteko izketaldi luze-sakonetik jaiotako liburu onek, ederki adierazten digu, D. Jose Migel Barandiaran, gizon, jakintsu ta apaiz, euskal-kulturaren aitalen onen jokabide argi ta bikaiña.

Eta bizi-kondaira ortan sartzeko, nor gidari oberik, gipuzkaor ospetsu, D. Manuel Lekuona baiño: D. Jose Migel eta D. Manuel, belaunaldi arrigarri baten bizikondoko bikote onek betetzen bait du Euskerriaren garai luze ta garrantzitsu bat.